

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
ZIENTZIA POLITIKO ETA SOZIOLOGIA FAKULTATEA
HIRUGARREN ZIKLOA

Tesi Doktorala

EUSKALERRIKO GAZTETXOEK
EUSKARAREKIKO DITUZTEN JARRERAK
ETA BEREN ERAGINA EUSKARA
IKASI ETA ERABILTZEAN

Nekane Larrañaga Aizpuruk aurkeztua

Francisco Garmendia Agirrezabalagak zuzendua

Deustu-Bilbo 1995

Tesi honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Saileko, Ikerlariak
Trebazeko Beka jaso du 1990-1994 urteetan.

*Gurasoei eskeinia, ikasketak aurrera
eramateko beti eman didaten
laguntzagatik. Eta Josuri bihotzez.*

AURKIBIDEA

1. IKERKETAREN NONDIK-NORAKOA	2
1.1. GALDERAREN MUINA	2
1.2. GALDERAREN GIZARTEZKO INGURUNEA	2
1.3. GALDERA ZEHAZTEN	7
1.4. GALDERARI ERANTZUTEKO BIDEETAZ	8
1.5. GIZARTEKO ZEINTZUK AZTERTU	8
1.6. IKERKETAREN ATALAK	9
1.7. ESKERRAK EMANEZ	10
2. HIZKUNTZA GUTXIENGOTUEKIKO GIZARTE JOKABIDEAZ HAINBAT IRIZPIDE	11
2.1. HIZKUNTZA GUTXIENGOTUEKIKO JOKAERAZ HAINBAT TEORIA	13
2.1.1. GIZARTE ERAGILEEN GARRANTZIA HIZKUNTZAREN EGOERAN (W.F.MACKEY)	14
2.1.1.1. Hizkuntzen indartze-nultzearen eragileak	14
2.1.1.2. Hizkuntzen gizartezko egoera	17
2.1.1.2.1. <i>Hizkuntza planifikazioa</i>	18
2.1.1.2.2. <i>Hizkuntza politikak</i>	19
2.1.1.3. Hizkuntza elebiduna	21
2.1.1.3.1. <i>Hizkuntza elebidunaren lorpenak hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran</i>	23
2.1.1.4. Jarrerak eta hizkuntza erabilera	25
2.1.1.5. Hizkuntzaren erabilera bultzatu dezaketen eragileak	26
2.1.2. ETNIZITATEA ETA TALDE IDENTITATEA GALTZEAR DAUDEN HIZKUNTZEN ERAGILE (J.A.FISHMAN)	28
2.1.2.1. Galtzear dauden hizkuntzen ezaugarriak	28
2.1.2.1.1. <i>Irrazionaltasuna</i>	28
2.1.2.1.2. <i>Etnizitateari lotutako fenomenoak</i>	29
2.1.2.1.3. <i>Talde identitateari lotua</i>	30
2.1.2.1.4. <i>Egunerokotasunari lotua</i>	31
2.1.2.2. Zergatik biziberritu hizkuntza gutxiengotuak	32
2.1.2.3. Diglosiaren aukera hizkuntza mantentzeko	32
2.1.2.4. Galtzear dauden hizkuntzak nola biziberritu	34
2.1.2.4.1. <i>Kultura mantentzeko mugak eraiki</i>	34
2.1.2.4.2. <i>Belaunaldi berrien jarraipena ziurtatu</i>	35
2.1.2.4.3. <i>Zer egin lehenik</i>	36
2.1.2.4.4. <i>Galtzear dagoen hizkuntza biziberritzeko eman beharreko urratsak</i>	38
2.1.2.4.5. <i>Hizkuntza elebidunaren lorpenak eta mugak hizkuntza biziberritzeko ahaleginetan</i>	41
2.1.3. IZAN NAHIA EDO MOTIBAZIOAREN GARRANTZIA HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAN (J.M.SANCHEZ CARRION"TXEPETX")	43
2.1.3.1. Hizkuntza ikasteko bi bideak	43
2.1.3.1.1. Bigarren mailako hizkuntzaren ikastea	45
2.1.3.1.2. Lehenengo hizkuntzaren ikastea	46
2.1.3.2. Ereku sinbolikoa	47
2.1.3.3. Hizkuntzaren funtzioak	48
2.1.3.4. Hizkuntza normalizazioa	50
2.1.3.5. Diglosia eta elebitasuna	50
2.1.3.6. Izan nahia	53

2.1.3.7. Haustura tentsioa	53
2.1.3.8. Hezkuntza	54
2.1.4. EREDU GIZA-PSIKOLOGIKOA; MOTIBAZIO ORIENTABIDEEN ERAGINA BIGARREN HIZKUNTZA IKASTEAN (W.E.LAMBERT, R.C.GARDER, R. CLÉMENT)	56
2.1.4.1. Motibazioa orientabide integratzaile eta instrumentalak (W.E.LAMBERT, R.C.GARDER)	56
2.1.4.2. Gizarte-ingurunearen eredia (R. CLÉMENT)	58
2.1.5. BIZI INDAR ETNOLINGUISTIKOA (H.GILES, R.Y. BOURHIS, R. ALLARD eta R. LANDRY)	61
3. HIPOTESIAK	65
4. METODOLOGIAZ	71
4.1. HIZKUNTZA JARRERAK AZTERTZEKO ERA EZBERDINAK	72
4.1.1. GALDEKIZUNA	73
4.1.2. GALDERA IREKIEN METODOLOGIA JARRERAK NEURTZERAKOAN: IDAZLANAK	73
4.1.2.1. Eduki azterketa	74
4.2. IKERLANEKO GALDERA ERANTZUTEKO ZEIN GAZTETXO AUKERATU	78
4.2.1. LAGINA AUKERATZEKO ERABILITAKO ALDAGAIK	78
4.2.2. LAGINAREN ZENBATEKOA	79
4.2.3. HERRIEN ETA IKASGELEN SAILKAPENA	79
4.2.4. LAGINARAKO IKASGELEN AUKERAKETA	80
4.3. DATU BILTZE LANA	82
4.4. LAGIN ERRUA	84
4.5. DATUEN INFORMATIZATZE LANA	84
5. EMAITZAK AZTERTZEN	87
5.1. EUSKARAREN EZAGUPENA ETA ERABILPENA	88
5.1.1. EUSKARAREN EZAGUTZA	90
5.1.1.1. Euskararen ezagutza hizkuntza ahalmen ezberdinen arabera	92
5.1.1.2. Gurasoengandik jasotako hizkuntza	93
5.1.1.3. Euskara ikasi dueneko adina	95
5.1.1.4. Familiar euskara ikasteko bultzada	95
5.1.1.5. Ikastetxeko euskararen ezagutza	97
5.1.2. EUSKARAREN ERABILERA	99
5.1.2.1 Euskararen erabilera lurraldeka	100
5.1.2.2. Euskararen erabilera gizarte inguruko euskara ezagutzaren arabera	101
5.1.2.3. Ama hizkuntza eta euskararen erabilera	102
5.1.2.4. Familiaren nahia euskara ikasteko eta euskararen erabilera	102
5.1.2.5. Euskara ikasteko adina eta euskararen erabilera	103
5.1.2.6. Ikastetxeko euskararen ezagutza eta euskararen erabilera	104

5.1.3. EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA GIZARTEZKO BALDINTZA EZBERDINEN ARABERA	105
5.1.3.1. Biziterriko biztanle kopurua	105
5.1.3.2. Biziterriko euskararen ezagutza	106
5.1.3.3. Biziterriko etorkin kopurua	107
5.1.3.4. Ikastetxe mota	108
5.1.3.5. Hizkuntza eredia	109
5.1.3.6. Gurasoen jaioterria	110
5.1.3.7. Gurasoen euskara ezagutza	111
5.1.3.8. Gurasoengandik seme-alabenganako euskararen transmisioa	112
5.1.3.9. Gurasoen euskararen ezagutza eta jatorriaren eragina seme-alaben euskararen ezagutzan	114
5.1.3.10. Nongotza	115
5.1.3.11. Herri atxekimendua	116
5.1.3.12. Zer da euskaldun izatea	117
5.1.4. EUSKARAREN ERABILERA GIZARTE EREMU EZBERDINETAN	119
5.1.5. EUSKARAREN ERABILERA EREMU EZBERDINETAN LURRALDEKA	122
5.1.6. HIZKUNTZA ERABILERA EKINTZA EZBERDINETAN	123
5.1.7. EUSKARAREN ERABILERA IDAZLANA IDAZTEAN	126
5.1.7.1. Herrietako biztanleak eta euskaldun kopurua	126
5.1.7.2. Herriko biztanleak eta inmigrazioa	127
5.1.7.3. Hezkuntzaren ezaugarriak	127
5.1.8. EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERARI BURUZKO ONDORIOAK	129
5.1.8.1. Euskara ikasi eta erabiltzeko gizartezko baldintzak	133
5.1.8.2. Nongotza eta herri sentimendua	133
5.1.8.3. Euskararen erabilera eremuak	134
5.2. EUSKARAREKIKO JARRERAK	135
5.2.1. GAZTETXOEN EUSKARAREKIKO JARRERAK LURRALDEKA	137
5.2.2. EUSKARAREKIKO JARRERAK GIZARTEZKO BALDINTZA EZBERDINEN ARABERA	145
5.2.2.1. Gaztea bizi den herriko ezaugarriak	148
5.2.2.2. Hezkuntzaren ezaugarriak	150
5.2.2.3. Gurasoen ezaugarriak	152
5.2.2.4. Herri sentimendua	153
5.2.3. EUSKARAREKIKO JARRERAK GIZARTEZKO BALDINTZA EZBERDINEN ARABERA II	158
5.2.3.1. Gaztea bizi den herriko ezaugarriak	158
5.2.3.2. Hezkuntza ezaugarriak	159
5.2.3.3. Gurasoen ezaugarriak	160
5.2.3.4. Herri sentimendua	160
5.2.4. GAZTETXOEN IDAZLANETAKO EUSKARAREKIKO JARRERAK	161
5.2.4.1. Eragile izanerazleak	165
5.2.4.2. Trukeordaineko eragileak	166
5.2.4.3. Ohitura	168
5.2.4.4. Gizarte tradizionalari lotua	170
5.2.4.5. Baliorik ez	170

5.2.5. IDAZLANETAKO EUSKARAREKIKO JARRERAK GIZARTEZKO BALDINTZA EZBERDINEN ARABERA	171
5.2.6. JARRERA IZANERAZLE ETA TRUKEORDAINEKOAK	176
5.2.7. GALDEKIZUN ETA IDAZLANETAKO JARRERAK	183
5.3. EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA ERABILERAN	185
5.3.1. GALDEKIZUNEAN AZTERTUTAKO JARREREN ERAGINA ERABILERAN	187
5.3.2. IDAZLANETAKO JARRERAK ETA EUSKARAREN ERABILERA	195
5.3.3. BI NEURKETA EZBERDINEN ALDERAKETA	199
5.3.4. EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA EUSKARAREKIKO NAHI ETA ASMOETAN	200
5.3.5. IDAZLANETAKO EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA NAHIAK	205
5.3.6. ASMO ETA NAHIEN ERAGINA HIZKUNTZA JOKABIDEETAN	206
5.4. HIZTUN EZBARDINAK AZTERTZEN	213
5.4.1. EUSKARA ETA ERDERAREN EZAUGARRIAK	215
5.4.1.1. Euskararen irudia hiztun ezberdinen ikuspegitik	215
5.4.1.2. Bi hizkuntzen ezaugarrien alderaketa	215
5.4.2. EUSKARA ETA ERDERAREN GIZARTE EGOERA	218
5.4.1.1. Euskararen gizarte egoera hiztun ezberdinen ikuspegitik	218
5.4.1.2. Bi hizkuntzen gizarte egoeraren alderaketa	219
5.4.3. EUSKAL HIZTUNEN BIZI INDARRA	220
5.4.4. HIZTUN EZBERDINEN EZAUGARRIAK	223
5.4.5. HIZTUN EZBERDINEN EUSKARAREKIKO JARRERAK	227
5.4.6. HIZTUN EZBERDINEN KULTUR ZALETASUNAK	230
5.4.7. HIZTUN EZBERDINEN EUSKARAREKIKO NAHI ETA ASMOAK	234
6. ONDORIOAK	235
7. BIBLIOGRAFIA	249

I. ERANSKINA:	13/14 URTETAKO IKASLEEN SAILKAPENA HERRI ETA IKASGELA EZBERDINETAN
II. ERANSKINA:	IDAZLANETAKO GAZTEEN ADIERAZPENAK AZTERTZEKO ERABILI DIREN HITZEN ESTRATEGIAK
III. ERANSKINA:	IDAZLANETAKO EUSKARAREKIKO ADIERAZPENEN SAILKAPENA
IV. ERANSKINA:	GALDEKIZUNA EUSKARAZ
V. ERANSKINA:	GALDEKIZUNA GAZTELERAZ
VI. ERANSKINA:	GALDEKIZUNA FRANTSESEZ

TAULEN ZERRENDA

ATARIKOAK

- I. Taula: Euskara ezagutzaren bilakaera
- II. Taula: Euskararen ezagutza adin ezberdinen arabera
- III. Taula: Autonomi Elkarteko euskararen ezagutza adinaren arabera urte ezberdinetan
- IV. Taula: Hizkuntza eredu ezberdinetako ikasleak urtez urte
- V. Taula: Euskararen erabilera adinaren arabera
- VI. Taula: Hizkuntza erabilera adinaren arabera

EUSKARAREN EZAGUPENA ETA ERABILERA

- 1.1. Taula: Euskararen ezagutza
- 1.2. Taula: Euskararen ezagutza lurraldeka
- 1.3. Taula: Euskararen ezagutza ekintza zehatzen arabera
- 1.4. Taula: Euskararen ezagutza ahalmen ezberdin arabera
- 1.5. Taula: Euskararen ezagutza, hitzegin eta idazten, lurraldeka
- 1.6. Taula: Euskararen ezagutza gurasoengandik ikasitako hizkuntzaren arabera
- 1.7. Taula: Euskararen ezagutza euskara ikaste adinaren arabera
- 1.8. Taula: Euskararen ezagutza eta gurasoen nahia euskararekiko
- 1.9. Taula: Euskaraz ondo dakitenak, gurasoen euskara ezagutza eta hizkuntza ereduaren arabera
- 1.10. Taula: Euskararen ezagutza ikastetxeko euskara ezagutzaren arabera
- 1.11. Taula: Hizkuntza erabilera euskara ezagutzaren arabera
- 1.12. Taula: Hizkuntza erabilera lurraldeka
- 1.13. Taula: Hizkuntza erabilera, norbere euskara ezagutza eta herriko euskara ezagutzaren arabera
- 1.14. Taula: Hizkuntza erabilera gurasoengandik ikasitako hizkuntzaren arabera
- 1.15. Taula: Hizkuntza erabilera gurasoen euskararekiko nahien arabera
- 1.16. Taula: Hizkuntza erabilera euskara ikaste adinaren arabera
- 1.17. Taula: Hizkuntza erabilera ikastetxeko euskara ezagutzaren arabera
- 1.18. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera biziterriko biztanle kopuruaren arabera
- 1.19. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera biziterriko euskara ezagutzaren arabera
- 1.20. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera biziterriko etorkin kopuruaren arabera
- 1.21. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera ikastetxe motaren arabera
- 1.22. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera hizkuntza ereduaren arabera
- 1.23. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera gurasoen jaioterriaren arabera
- 1.24. Taula: Euskararen ezagutza eta erabilera gurasoen hizkuntza ezagutzaren arabera
- 1.25. Taula: Bi gurasoek euskara dakitenak izanik, euskara ondo dakitenen gazte kopurua
- 1.26. Taula: Euskara ondo ezagutzen dute, gurasoen euskara ezagutza eta jatorriaren arabera
- 1.27. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera nongotzaren arabera
- 1.28. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera herri atxekimenduaren arabera
- 1.29. Taula: Euskararen ezagutza eta hizkuntza erabilera euskaldun izaeraren arabera
- 1.30. Taula: Hizkuntza erabilera gizarte eremu ezberdinetan
- 1.31. Taula: Euskararen erabilera eremu ezberdinetan lurraldeka
- 1.32. Taula: Hizkuntza erabilera ekintza ezberdinetan
- 1.33. Taula: Idazlanean euskararen erabilera, herriko biztanle kopurua eta euskara ezagutzaren arabera
- 1.34. Taula: Idazlanean euskararen erabilera, herriko euskara ezagutza eta etorkin kopuruaren arabera
- 1.35. Taula: Idazlanean euskararen erabilera, ikastetxe mota eta hizkuntza ereduaren arabera

EUSKARAREKIKO JARRERAK

- 2.1. Taula: Gaztetxoek euskararekiko jarrerak lurraldeka
- 2.2. Taula: Gizarteko baldintzen eragina
- 2.3. Taula: Gizarteko baldintzen eragina II
- 2.4. Taula: Gaztetxoek idazlanetako adierazpenak lurraldeka
- 2.5. Taula: Gaztetxoek idazlanetako adierazpenak gizarteko baldintzen arabera

EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA EUSKARAREN ERABILERAN

- 3.1.Taula: Euskararekiko jarrerren eragina hizkuntza erabileran
- 3.2.Taula: Euskararekiko jarrerren eragina euskararen ezagutzan
- 3.3.Taula: Euskararekiko jarrerren eragina hizkuntza erabileran herriko euskara ezagutzaren arabera
- 3.4.Taula: Euskararekiko jarrera ezberdinen eragina idazlanetako hizkuntza erabileran
- 3.5.Taula: Euskararekiko jarrerak eta euskararekiko nahi eta asmoak
- 3.6.Taula: Euskararekiko jarrerren eragina ikasketak jarraitzeko hizkuntza aukeratzean
- 3.7.Taula: Euskararekiko jarrerak eta euskararekiko nahiak idazlanetan
- 3.8.Taula: Euskararekiko asmo eta nahien eragina hizkuntza erabileran
- 3.9.Taula: Euskararekiko jarrera ezberdinen eragina idazlana idazteko intentzioetan

HIZTUN EZBARDINAKAZTERTZEN

- 4.1.Taula: Hitzun ezberdinen ezaugarriak
- 4.2.Taula: Hitzun ezberdinen euskararekiko jarrerak
- 4.3.Taula: Hitzun ezberdinen telebista ikusmena
- 4.4.Taula: Hitzun ezberdinen euskarazko irratien entzumena
- 4.5.Taula: Hitzun ezberdinen musika entzumena eta liburu irakurmena hizkuntza ezberdinetan
- 4.6.Taula: Hitzun ezberdinen euskarazko aldizkarien irakurmena
- 4.7.Taula: Hitzun ezberdinen euskararekiko nahi eta asmoak

IRUDIEN ZERRENDA

1. Irudia: Euskararen bilakaera azken urteetan
2. Irudia: Ikerketan aztertutako ikasgelen kokapena
3. Irudia: Lana eta euskaldun izaera idazlanetan
4. Irudia: Euskara eta erderaren ezaugarriak
5. Irudia: Euskara eta erderaren gizarte egoera

ATARIKOAK

1. IKERKETAREN NONDIK-NORAKOA

1.1. GALDERAREN MUINA

Nere ikerlana bukatutzat emanda gero jaso dut Eusko Jaurlaritzak argitara eman berri duen *Euskararen jarraipena* izeneko liburua ¹, gure arteko hizkuntza politikaren emaitzak jasotzen ahalegintzen dena, 1991.eko galdekizun batetako hainbat datoz baliatuz.

Urte hortan bertan burutu nuen nik ere ikerketa honen oinarri gertatu den galdekizuna. Urte bereko datoak, beraz, ez ordea denak dato bardinak. Izan ere etziren galderak ere bardin-bardinak, ezta metodoak ere, eta ondorioz, emaitzak nekez gerta zitezkeen bardinak.

Horrek eztu halare elkarren aurkako datoak direnik esan nahi, baizik eta burutu dudan ikerketak baduela bere galdegune berezia. *Euskararen jarraipena* liburuan jasotzen diren datoetan, bi sail hauek dira gehien aztertzen eta zehazten direnak: herrikideen euskara ezagutzari dagokiona eta bere gizartezko hizkuntza-ingurunea. Ikerketa horretan bildu direnetan, noski, ematen zaio bai garrantziarik, herrikideen hizkuntzari buruzko jarrerari, baina ez nere ikerketa honetan ematen zaionaren hainakoa, ezta gutxiagorik ere.

Hain zuzen, ikerketa honek *euskararekiko jarrerak* euskara ikasteko edo lantzeko eta, batez ere, erabiltzeko duten garrantzia aztertu eta -ahal den neurrian- neurtu nahi izan du. Noski: jakin ez dakienak, ezin erabili lezake. Jakin dakienak ere, bere inguruan euskaraz dakienik ezpadu, eztu gizarte bizitzan erabili ahal izango. Hori horrela izanik ere, ezta ahaztu behar, gutxi dakiten batzuk asko dakiten beste batzuk baino gehiago erabiltzen dutela euskara. Beste horrenbeste esan daiteke hizkuntza inguruneaz: gizarte barruti erabat euskaldunetan beti edo ia beti erderaz aritzen denik bada, eta baita ingurune erabat erdaldunetan ia beti euskaraz ari denik ere. Beraz, begibistakoa da, ezin daitezkeela gizartezko hizkuntza jokabideak nolakoak izango diren esan, gizartekideek zenbat euskara dakiten eta beren ingurunekeo hizkuntzazko egoera zein den kontutan hartze hutsarekin. Gure ikerketari ari nagusia eman diona, hain zuzen, *jarreraren* eraginari buruzko ikuspuntua izan da, gizartean gertatzen diren hizkuntzazko jokabideei gagozkiolarik -ikasterakoan eta erabiltzerakoan-.

1.2. GALDERAREN GIZARTEZKO INGURUNEA

¹ X. Aizpurua: *Euskararen jarraipena*. Kultura Saila, Hizkuntz Politikarako Sailordetza, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1995

Ikerketa 1991.engo urteko Euskalerrian kokatzen denez gero eta Euskalerriko lurralde osoan egindako ikerketa bat denez gero, interesgarria deritzogu, Euskalerriko lurralde ezbardinetan euskarak duen egoera:en eta azken urteetan izan duen joeraren azalpen orokor bat egitea.

Gaur egun Euskalerriko herrikideon artekotza hizkuntza ezbardinetan gauzatu ohi da; euskaraz nahiz gazteleraz hegoaldean eta euskaraz nahiz frantsesez iparraldean.

Hiru hizkuntza hauen gizartezko egoera ez da egonkorra. Euskal hiztunen kopuruek adibidez, azken urteetan, lurralde batzuetan eta besteetan, joera ezbardinak izan dituzte. Euskaldunen zenbatekoak, lurralde ezbardinetan, gora-beherak izan dituela erakusten digute behintzat, nahiz zentsu nahiz galdekizun bidez egin diren hainbat neurketek (ikus I.Irudia eta I.Taula).

Euskal Herrian -hegoaldean behinik behin eta bereziki Euskadiko Autonomi Elkartean- aldatu da azken urteotan, herrikideen arteko hizkuntza harremanak arautzeko legerik. Lege hauen artean ditugu: *Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea* (1982), E.A.E. -ri dagokionez, eta *Euskararen Legea* (1986), Nafarroari dagokionez.


Euskal Autonomi Elkarteko herrikideari behintzat, nahi duen hizkuntza aukeratzeko legezko eskubidea aitortzen zaionez gero, eskubide hori bermatzeko, hau da, hala nahi duen orok euskara ikasi, landu eta -batez ere- erabili ahal izateko, gizartezko baldintzak sortzeko asmoz onartu ziren lege hauek.

Baina, bakoitzak nahi duen hizkuntza aukeratu ahal izateko behar diren gizartezko baldintzak, ezin dira gauetik goizera sortu. Euskara hizkuntza gutxiengotua dela kontutan harturik, legezko aukera eta gizartezko aukera ez datoz inolaz ere bat. Guttienez bi hizkuntzak aditzeko gai den gizarte batetan praktika bai lezake gizartekideak normalki bere aukera elebiduna.

Horrelako gizarte bat sortzeak, baina, aldaketa haundiak eskatzen ditu, hizkuntza bien ezagutzan eta baita erabileran ere. Aldaketa horien eragiletzat hartu da, batez ere Euskal Autonomi Elkartean, eskola. Belaunaldi berrien bitartez espero da, biharko gure gizartea elebiduntzea, hori lorturik, hizkuntza baten ala bestearen aukera, *legezkoa* ezezik, *gizartezkoa* ere izango delako ustetan.

Gaur egungo gaztetxo gehientsuenek ikasi ahal izan dute -etxean nahiz eskolan- euskara eta, nahi izanez gero, erabiltzeko eskubidea ere badute. Baina, ikasteko eta erabiltzeko aukera hori praktikatzera, hau da, euskara gehiago ala guttiago ala batez ikastera, eta erabili ala ez erabiltzera, zenbaiteraino eragin die euskararekiko duten jarrerak?

I. Irudia: EUSKARAREN BILAKAERA AZKEN URTEETAN



I. TAULA: EUSKARA EZAGUTZAREN BILAKAERA

		1981		1986		1991	
		ztk.	%	ztk.	%	ztk.	%
ARABA	Euskaldunak GUZTIRA	9.693	3,9	17.424	6,7	23.300	9,4
BIZKAIA	Euskaldunak GUZTIRA	171.684	14,9	197.704	17,5	212.600	18,8
GIPUZKOA	Euskaldunak GUZTIRA	266.779	39,5	294.691	43,7	310.100	47,2
E.A.E.	Euskaldunak GUZTIRA	448.156	21,5	509.819	24,6	548.100	26,7
NAFARROA	Euskaldunak GUZTIRA			50.953	10,1	52.023	10,3
LAPURDI	Kostaldem Euskaldunak Guztira			1987 Siadeco-Suliazia		1991 27.300	17,6
	Barnekaldem Euskaldunak Guztira			48,2*		154.530	54,4
LAPURDI	Euskaldunak GUZTIRA					31.806	53,7
BEHENAFARROA	Euskaldunak GUZTIRA					43.000	24,14
						186.336	53,2
BEHENAFARROA	Euskaldunak GUZTIRA					22.500	64,5
						34.749	54,7
ZUBEROA	Euskaldunak GUZTIRA					8.700	54,7
						15.878	33,2
IPARRALDEA	Euskaldunak GUZTIRA					76.200	33,2
						236.963	

ITURRIA: EUSTAT, 1981 eta 1991ko zenak eta 1986ko errolda Euskal Autonomi Erkatean. Nafarroako Gobernua 1986ko errolda eta 1991ko zenak. Iparraldean SIADeco eta SU HAZIak argituak 1987. * balakia baretan Lapurdiko kostaldem ez zen aztertu. Iparraldean SIADecol argituak 1991ko zenak.

Zentsu eta inkesta bidez neurtu denaren arabera, Euskal Herrian -batez ere Euskal Autonomi Elkarte- azken urteotan asko gehitu da euskara ikasi izan duten gazteen taldea. Nafarroan, nahiz eta 14 urte baino gutxiago dituztenen artean zerbait gehiago izan euskara dakitenak, ez da Autonomi Elkarte bezalako euskara ezagutzaren hazkunde nabarmenik agertzen. Iparraldean berriz -Siadecoren inkesta baten arabera-, gazteak dira euskara gutxien dakitenak; Iparraldeko gazteek, euskara ikasteari dagokionez, hegoaldeko gazteek ez bezalako joera agertzen dute.

II.Taula: EUSKARAREN EZAGUTZA ADIN EZBERDINEN ARABERA

ADINA	AUTONOMI ELKARTEA 1986	NAFARROA 1986	IPARRALDEA 1987
75+	33,2	12,1	67,9
70-74	32,7	11,3	62,9
65-69	31,2	10,5	64,6
60-64	27,9	10,2	67,5
55-59	25,4	9,9	58,2
50-54	22,8	9,8	69,0
45-49	21,0	9,5	63,2
40-44	20,6	8,9	58,2
35-39	21,0	9,8	43,4
30-34	20,8	10,1	44,8
25-29	22,8	10,2	37,1
20-24	23,3	8,3	32,4
15-19	23,2	8,5	23,4
10-14	26,2	11,07	13,5
5-9	28,9	13,2	11,0

ITURRIA: 1986ko zentsua Autonomi Elkarte eta Nafarroan eta SIADECO 1987ko inkesta iparraldean ².

Autonomi Elkarte- egindako, azken urteetako zentsuetan ikusi dezakegunez berriz, urtez-urte gehitu da euskaraz dakitenen taldea.

III.Taula: AUTONOMI ELKARTEKO EUSKARAREN EZAGUTZA ADINAREN ARABERA URTE EZBERDINETAN

² EUSKO IKASKUNTZA: Cuadernos de sección, Educación 3, 1990, 239 orr.

ADINA	AUTONOMI ELKARTEA 1981	AUTONOMI ELKARTEA 1986	AUTONOMI ELKARTEA 1991
75+	33,1	33,3	32,0
70-74	33,2	32,8	30,8
65-69	31,9	31,2	27,8
60-64	30,0	27,9	25,1
55-59	26,5	25,4	22,4
50-54	24,2	22,9	20,8
45-49	21,6	21,0	20,2
40-44	19,8	20,6	20,8
35-39	19,0	21,1	20,7
30-34	19,2	20,9	22,6
25-29	18,6	22,9	24,5
20-24	19,0	23,4	25,1
15-19	18,6	23,3	29,7
10-14	19,4	26,2	37,3
5-9	20,1	29,0	40,7

ITURRIA: 1986ko Errolda eta 1981 eta 1991 Zentsuak ³.

Jakina da, 13-14 urtekoek egin ohi ditzuzten eskola eta ikastola aukerak - hizkuntza-ereduari dagokionez ere-, gurasoen erabakien arabera gertatu ohi direla.

Autonomi Elkartean, gero eta guraso gehiago dira beren seme alabentzat eredu euskaldunak aukeratzen dituztenak, gehitzen ari direlarik B eta D erduetako ikasle kopuruak. Gainera, hezkuntzako aurreneko urteetan egiten du batik bat gora eredu euskaldunen aldeko aukerak ⁴.

³ J.M^a AGIRRE: "Euskararen bilakaera 1981-1991 hamarkadan. Zentsuetan eta erroldan jasotako datuen arabera" in: *Bat* 13/14, 1994, 22 orr.

⁴ HEZKUNTZA SAILA: *Euskal irakaskuntza 10 urte*, 1990, 15-17 orr. Hezkuntza sailak 1979.urtetik 1990era B eta D erduetan haur matrikulen hazkundea azaltzen digute. 1979.urtetan %4a biltzen bazuten eredu hauek, 1990ean %17.14raino igotzen da kopurua. Gainera kopuru hauek, hezkuntzako aurreneko urteetan haundiagoak dira.

IV. Taula: HIZKUNTZA EREDU EZBERDINETAKO IKASLEAK URTEZ URTE

HIZKUNTZA EREDUA	1983-84	1984-85	1985-86	1986-87	1987-88	1988-89	1989-90	1990-91
X Eredua	15,24	7,35	4,08	0,66	0,68	0,84	1,03	1,17
A Eredua	57,63	62,90	63,21	63,45	60,39	56,45	53,00	49,47
B Eredua	10,54	12,03	13,85	15,92	18,25	20,57	22,65	24,91
D Eredua	16,59	17,72	18,86	19,97	20,68	22,14	23,31	24,45
GUZTIRA	393.960	393.393	382.685	370.233	356.814	339.472	315.699	299.529

ITURRIA: Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua ⁵.

Eta, hegoaldean bezala iparraldean ere, beren seme alabak euskara ikastearen alde agertzen dira gurasorik gehienak. *Ikas-bi* erakundeak Iparraldean 1993.urtean eginiko galdekizun batean, ikastetxe publikoetako gurasoen %62,9a beren seme alabek ikastetxeetan euskara ikastearen alde agertu ziren ⁶.

Baina, aurrerago azaldu dugun bezala, gazteen euskararen ezagutzak azken urteetan gora egin badu ere, ez du erabilerak horrebesteko bardinean egin goraka, ezta guttiagorik ere. E.K.B.ek zuzeneko behaketa bidez egindako neurketan agertzen denez, 15-24 urtetako gazteen artean, euskara ezagutzen dutenen artean, hirutik bat inguru besterik ez da eguneroko gizarte-bizitzan euskara erabiltzen duena.

Adibidez, 5.000 biztanletik gora dituzten herrietan, 15-24 urte dituzten gazteak dira euskara gutxien erabiltzen duen adin taldea, adin horretako ehuneko zortzi baino gutxiagok aukeratzen duelarik euskara eguneroko gizarte bizitzan.

V.Taula: EUSKARAREN ERABILERA ADINAREN ARABERA

ERABILERA 1993 %	HAURRAK 0-14 urte	GAZTEAK 15-24 urte	HELDUAK 25-64 urte	ZAHARRAK 65+ urte
GUZTIRA 9,57	14,77	7,63	8,27	9,15

ITURRIA: E.K.B. ⁷ * 5.000 baino biztanle gehiagoko herrietan.

⁵ Liburu berean, 23 orr.

⁶ IKAS-BI inkesta, *Embata* 1269 zbk, 1993 Martxoaren 18

⁷ J.J. IÑIGO: "Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian: EKBren neurketaren emaitzak" in: *Bat* 13/14, 1994, 61 orr.

1991.urtean Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eginiko ikerketan zehazten denez ere, gazteak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak ⁸.

VI.Taula: HIZKUNTZA ERABILERA ADINAREN ARABERA

%	>64 urte	50-64 urte	35-49 urte	25-34 urte	16-24 urte
IA BETI GAZTELANIAZ	8	11	12	17	26
NAGUSIKI GAZTELANIAZ	14	19	25	26	27
FAMILIAN GAZTELANIAZ /LAGUNEKIN EUSKARAZ	4	6	2	3	6
FAMILIAN EUSKARAZ/ LAGUNEKIN GAZTELANIAZ	9	8	8	11	14
NAGUSIKI EUSKARAZ	12	14	20	18	11
IA BETI EUSKARAZ	52	41	33	25	16

ITURRIA: H.P.I.N. 1991 Inkesta.

1.3. GALDERA ZEHAZTEN

Eskolaren bidez gazteak elebiduntzeko ahaleginek ez dute beraz, gazte hauen euskararen gizartezko aukeran, ezagutzen izan duten hainbeteko lorpenik izan.

Eskolaz kanpo ere egin dira hainbat ahalegin euskararen indartzea lortzeko asmoz Euskal Autonomi Elkartearen; euskara ikasteko aukera herrikide guzietara eskaintzea, komunikabideetan eta unibertsitatean euskara erabiltzeko aukerak gehitzea, Administrazioan euskaraz galdetu eta erantzuna euskaraz jasotzeko aukerak zabaltzea e.a.

Baina euskarak *legezko ofizialtasuna* izena lortu arren -Euskal Autonomi Elkartearen behinik behin-, hizkuntza hau gure gizarteko harremanetan ohizko hizkuntza bihurtzea ez dirudi erabaki administratiboaren bidez bakarrik lortu daitekeenik. Administrazioaren erabakiek ezin dute bere kabuz hizkuntzarekiko gizakiek duten portaera aldatu.

Gaur egungo euskal gizartean euskara gutxiengo batek ezagutzen duenez, eta gure gizarteko hizkuntza normalizatu bakarria erdara denez gero, euskararen erabilpena bakoitzaren erabakiz gauzatu beharreko aukera da. Izan ere, hizkuntza gutxiengotu bat herrikide askoz gehiagok ikastea eskola bidez lortu daitekeena izanik ere, *zerk eragin dezake hizkuntza hori gizartean erabiltzea? Zer-nolako*

⁸ X. AIZPURUA: "Euskal Autonomi Elkartearen egoera soziolinguistikoaren azalpen orokorra" Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia in: *Bat* 7/8, 1992, 124 orr.

eragina dute horrelakoetan, gizartezko hizkuntza baldintzek eta gizartekideen hizkuntzekiko jarrerak? Horra hor ikerketa honen kokagune zehatza eta galdegune berezia.

1.4. GALDERARI ERANTZUTEKO BIDEETAZ

Badu ikerketa honek berezitasunik, helburua lortzeko erabiliko diren bideen nolakotasunean. Hain zuzen ere, *galdera irekien* bidea erabili nahi izan baita, gaztetxoek beren baitan bizi dutena zuzenago jasotzeko asmoz.

Ikertzaileak, ohizkoak diren galdekizunen bidez egindako ikerketetan, muga edo baldintza batzuek ezartzen ditu ikertua izango denak emango duen erantzunean: galdera egiteko eran, erantzun-aukerak zehazterakoan e.a.

Ikerketa honetan, gazteek euskararekiko dituzten jarrerak zuzenki jasotzeko asmoz, galdera irekien bidea erabili dugu, galdekizunaz gain. *Zer da zuretzat euskara?* galdera egin diegu gaztetxoei, eta hauek beren eritzia askatasunez adierazi ahal izan dute, bakoitzak hortaz idatzi duen idazlanean. Horrela bildutako 3.442 idazlan edo testu hauek, bere osotasunean aztertu dira, sistema eta programa informatiko aurreratuetaz baliatuz.

Idazlanetako gazteen adierazpenetan, jarrera ezbardinak agertzen zirela ikusteak, galdekizunetako emaitzak irakurri eta ulertzen asko lagundu digu. Sarritan, galdekizunean gauza askotaz galdetu arren, ez da beti iristen, datuak aztertzerakoan, erantzuleak nagusiki esan nahi duena edo pentsatzen duena oinarritzat hartzera.

1.5. GIZARTEKO ZEINTZUK AZTERTU

Ikerketa honetan, 13/14 urtetako gazteak ditugu aztergai. Adin honetako gazte gehientsuenek, eskolan euskara ikasteko aukera izan dutenez gero, hauek bai ditugu euskara ikasi eta erabiltzeko aukerak gauzatzearen eta hizkuntzekiko dituzten jarreraren arteko loturaren lekuko paregabeak.

Azterketa hau 13-14 urtetako gaztetxoek arteko esparrura mugatzeko arrazoietatik nagusienak honako hauek dira. Alde batetik, gaztetxoek 13-14 urterekin gizartezko jarrerak eratuak dituzte. Bestaldetik, gazte hauen euskararekiko nahiek euskarak etorkizunean izango duen bizi indarra ezagutarazi diezaigukete. Eta azkenik, adin honetakoek oinarritzko hezkuntzako azken ikasturtean aurkitzen direnez, ikastetxeetara zuzenduaz 13-14 urteko gazte guziengana iritsi gintezke.

1.6. IKERKETAREN ATALAK

Honela banatu ditugu ikerketa honen atal edo zati ezbardinak:

* Ikerketaren lehenengo atalean, galdegaiaren muina azaltzen dugu, aztergunea erakutsiz, bere ingurunea eta erantzuteko bideak aipatuz.

* Bigarrenengo atalean, aurrerago azaldu dugun ikergalderaz teorizatu duten autoreen zenbait ikuspuntu jasotzen ditugu, ikerketarako lagungarri direlako.

* Hirugarrenengo atalean, Euskalerrian gutxiengotu egoera bizi duen euskararekiko jokabidea baldintzatzen duten eragileei buruzko hainbat hipotesia eskaintzen ditugu.

* Laugarrenengo atala, ikerketa honetan erabilitako metodologiaz ari da. Ohizko galdekizunaz gain, galdera irekien metodologia ere erabili denez -3.450 idazlan bilduarazi dizkiguna-, adierazpen guzti horien edukiaren azterketa egiteko metodoa eta teknikak ere argitzen dira.

* Bostgarrenengo atalean, hipotesiak eginiko ikerlanaren bidez baieztatzen-ezeztatzen ahalegindu gara.

- Lehenengo zatian, gazte hauen euskararen ezagutza eta erabilera azaltzen ditugu, gizartezko zenbait ezaugarriren arabera ere zehazten ditugularik.

- Bigarrenengo zatiak bi atal ditu. Atal batean, ohizko galdekizunean bildutako euskararekiko jarrerak aurkezten ditugu, jarrera hauek eratzean zer esana duen eragile zenbait azalduz. Beste atalean, gazteek idatzitako idazlanetako euskarari buruzko adierazpenak landu ditugu; adierazpen hauek ere gizartezko eragileen arabera aurkezten ditugu.

-Hirugarrenengo zatian, gaztetxoek euskararekiko adierazi dizkiguten jarrera ezbardinek euskararen erabileran duten erasana aztertzen dugu. Aztertutako jarrerak hizkuntza portaeran duten eragina bi metodologi ezbardinen bidez neurtu dugula azpimarratu beharrekoa da.

- Eta laugarrenengo zatian, hiztun ezbardinen ikuspegitik, bai euskarak eta bai erdarak duten irudia azaltzen dugu, beraien arteko irudien

alderaketa ere azalduz. Bestalde, hiztun ezbardinen zenbait gizartezko ezaugarri, nahiz kultur zaletasunak ere zehazten ditugu.

* Azkenengo zatian berriz, ikerketak eskaini dizkigun ondorioak orobiltzen dira.

1.7. ESKERRAK EMANEZ

Aurren aurrena, nere ikasketetan eta doktoradu tesi hau aurrera eramaterakoan, eskeini didan laguntza eta emandako aholkuak eskertu nahi nizkioke ikerketa honen zuzendaria den F. Garmendiari.

Ikerketa hau aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ikerlariak trebatzeko beka baten bidez dirulaguntza eskeini didanez, beroni eskerrak eman beharrean nago. Eskertu beharrekoa da baita ere Deustuko Unibertsitatearen aldetik izandako bitartekoen erabilgarritasuna eta bertako irakasleen aldetik jasotako laguntza.

Oinarrizko informazioa eskeini didaten hainbat erakunderen laguntza ere eskertu behar dut. Erakunde hauen artean ditugu: Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzua, Ikas, Ikas-Bi, Seaska, Inspection Academique des Pyrenees Atlantiques eta Direction Interdiocésain de l'Enseignement Catholique.

Ikerketa honen oinarriztat erabili ditudan datoak, ezin bildu ahal izango nituen, ehunen bat ikastetxeetako zuzendari, arduradun, irakasle-andereino, eta nola ez, ikerketa honetan bere adierazpenak eginez parte hartu duten milaka ikasleak, beren laguntza eskaini izan ezbalidate. Den-denei nere esker ona. Azkenik aipatu arren, beti izan ditut gogoan *Euroisa*-ko adiskideak ere, batik bat baliabide informatiko paregabeak eskaini bai dizkidate idazlanen edukia aztertu ahal izateko.

**HIZKUNTZA GUTXIENGOTUEKIKO
GIZARTE JOKABIDEAZ
HAINBAT IRIZPIDE**

2. HIZKUNTZA GUTXIENGOTUEKIKO GIZARTE JOKABIDEAZ HAINBAT IRIZPIDE

Hizkuntza bat baino gehiago ohizkoak diren gizarteetan, oso zaila da hizkuntza denak gizarte-egoera bardinean gertatzea. Bi hizkuntza ohizkoak diren gizartean, gizarte elebidunean alegia, gehienetan gertatu ohi da hizkuntzetako bat bestea baino indar gutxiagorekin gizarte harremanetan -gutxiagok darabiltelako edota esparru gutxiagotan edota balio gutxiagoko sailetan erabili ohi delako-. Horrelako egoeran gertatzen den hizkuntzari deitu ohi diogu, *hizkuntza gutxiengotua*.

Euskal Herriaren osoan gaur egun bizi diren gizartekide guztien hizkuntzazko harremanak kontutan hartzen baditugu, euskara, dudarik gabe, hizkuntza gutxiengotua da.

Jakina, gizarteko harremanetan bizi-indar gero eta urriagoa duen hizkuntza gutxiengotua hiltzera dator; bereari eusten badio, iraun egingo du; gero eta gehiagok ikasten badute eta gero eta gehiago erabiltzen bada, hizkuntza hori, gutxiengo egoeratik atera eta bere onera etorri daiteke gizarteko bizitzan.

Arazoa hontan dago: *zerk eragiten dio hizkuntza gutxiengotuarekiko gizarte jokabideari*. Gure kasuan, zerk eragiten dio eta nola Euskal Herrian bizi diren gizartekideen euskararekiko jokabideari? Baina nere ikerlan honetan, gehiago zehaztu nahi izan dut galdera eta, bereziki, *euskararekiko jarrerak* euskararekiko jokabideari zer-nola eragiten dion aztertu nahi izan dut.

Zer dira baina *jarrerak*?

Gizabanakoak une zehatz batetan jokaera bat izateko duen gertutasuna edo egoera psikologikoa litzateke *jarrera* (Allport, 1935) edo objektu nahiz egoera baten alde edo aurka jokatzeko prestaera (Ajzen, 1988). *Jarrera* definitu izan da baita ere, norbere izaeraren adierazpena edo norberaren perzepzioa bezala, gizabanakoak bere jokaeretan ikusten dituelarik berak dituen jarrerak (Bem, 1968).¹

Jarrerak eritziekin ere parekatu daitezke, baina eritziak gauza batekiko adostasun hutsa izan daitezke, berorrekiko sentimendurik izan gabe. Bestalde, eritziak hitzez adierazten diren arren, jarrerak norberaren bamean dauden zerbait dira.

Motibazioetatik ere bereizi daitezke jarrerak. Motibazioa zerbait lortzera zuzendua dagoen bezala, jarrerak ez dute ezaugarri hori, nahiz eta jarrerak ere helburu batzuek

¹ C. BAKER: *Attitudes and language*. Multilingual Matters, Clevedon, 1992, 11 orr.

sortu ditzaketen. Esan dezakegu, jarrerak *objetu* batekiko izaten diren bezala, motibazioa *helburu* batekiko izan ohi dela.

Beraz, jarrerak gertaera edo objektu batekiko eritzi orokorrak jasotzen dituzte, baina ez digute ekintza zehatz bat aurreratu, nahiz eta orokorrean jokaerarekin lotura izan.

Hizkuntzarekiko jarrerak -nolanahi ere- hizkuntzarekiko jokabideak (ikasteko, lantzeko eta -batez ere- erabiltzeko) hobeto ulertzeko aztertzen direnez, bidezkoa ezezik, ezinbestekoa ere bada, gizarte elebidunetan gizartekideen hizkuntza jokabideak aztertu izan dituen zenbait autoreren ikuspuntuak jaso eta laburbiltzea.

Horixe da atal honetan egingo duguna, azkenean, berriro, jarreraren eta jokabidearen arteko lotura aztertzearen ikuspuntua azpimarratzeko.

2.1. HIZKUNTZA GUTXIENGOTUEKIKO JOKAERAZ HAINBAT TEORIA

Gizarte inguru ezbardinetan, gurea bezalako hizkuntza gutxiengotuen egoera aztertzeko helburuarekin egin dira hainbat ikerketa. Landu ere landu dira, hizkuntza gutxiengotuen fenomenoak ikuspegi ezbardinetatik aztertzen duten zenbait teoria ere. Teoria horien adierazle modura azalduko ditugu jarraian zenbait autoreren ekarpenak: W.F. Mackey, J.A. Fishman, J.M. Sanchez Carrión "Txepetx", W.E. Lambert, R.C. Gardner, R. Clément, H.Giles, R.Y. Bourhis, R. Allard eta R. Landry.

2.1.1. GIZARTE ERAGILEEN GARRANTZIA HIZKUNTZAREN EGOERAN (W.F. MACKEY)

Mackey'ren ustez, hizkuntza bakoitzak du bere estatus edo egoera bereizia gizarte bakoitzean. Berak esatera, hizkuntzak gizartean duen indarra eta hiztunarentzat duen erakargarritasuna izango dira hizkuntza bakoitzarekiko jokabideak erabakiko dituztenak.

Gizarteko eragileak dira, Mackey'ren ustez, hiztuna hizkuntza bat ala bestea erabiltzera bultzatzen dutenak. Gizarteko aldagai ezbardinek hizkuntza erabilera baldintzatzen dute; eta gizarte ingurune diglosiko batean, gizarteko indar hauek indartsuagoak dira norberaren borondate eta jarrera pertsonalak baino. Hizkuntza ezbardinek, gizartean erakargarritasun eta estatus ezbardina dute eta zaila da hizkuntzek bizi duten egoera aldatzea bai legez bai hezkuntzaz.

2.1.1.1. Hizkuntzen indartze-aultzearen eragileak

Mackey'ren esanetan, elebitasuna ofizialki elebidun diren herri bakar batzuek bizi duten fenomenotzat jotzen dugun arren, munduko biztanleen gehiengoa elebiduna dela kontutan izan behar dugu. Mundu zabalean dauden hizkuntza ezbardinen kopurua, nazioena baino ugariagoa denez, herrialde askotan hizkuntza bat baino gehiago aurkitzen dira².

Bestalde, kontuan izanik Ameriketara bertan sortutako hizkuntzen kopurua Europako hizkuntzena baino bost aldiz haundiagoa dela, mundu zabaleko hizkuntza ugartasunaz eta hizkuntzei buruz dugun ezjakintasunaz ohartzen gara.

Hizkuntza gutxiengotu hauen artean, galtzeko joerak ugariak dira; gaur egun galtzen diren hizkuntzak gehiago dira sortzen direnak baino -adibidez hizkuntza Amerindioek eta Zeltikoek azken belaunaldietan izan duten joera-, eta hizkuntza baten galera inoiz konpondu ezin liteken gauza da.

² W.F. MACKEY'ren esanetan, mundu osoko hizkuntza ezbardinen kopurua 30 aldiz haundiagoa da munduko herrien kopurua baino. Munduko biztanleen gehiengoak munduan dauden hizkuntzetatik kopuru txiki bat bakarrik erabiltzen du. Munduko biztanleen %70ak baino gehiagok erabiltzen dituen hizkuntza ezbardinen kopurua, %12a baino gutxiago da. MACKEY W.F.: *Bilinguisme et contact des langues*. Ed. Klincksieck, Paris, 1976, 14-16 orr.

Hizkuntza bat baino gehiagoren erabilerak hizkuntza komunitate elebidun baten ustea sortzen duen arren, ez da normalean hala izaten. Elebitasuna ez da hizkuntzaren ezaugarri bat, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituen gizakiarena baizik.

Komunitate batetan gizarte bizitzarako ez da elebitasunik behar, hizkuntza bat nahikoa baita bertako harremanak bideratzeko. Elebitasunaren beharra hizkuntza ezbardinetako hiztunen harremanek sortzen dute. Bi hizkuntza ezbardinetako hiztunen elkarulertze eta komunikatze beharrek eraginda, gehienetan muga politikoetatik hurbil, bi hizkuntzen arteko ukipen gunetan, aurkitzen da elebidun gehien³.

Hala ere, Mackey'k dioenez, elebidunek bi hizkuntza ezagutu arren, bakoitzaren jokaera linguistikoa ezbardina izan ohi da honako baldintza hauen eraginez: hizkuntza bakoitzaren ezagupen maila, hizkuntza bakoitzak gizartean betetzen duen funtzioa, hizkuntza ordezkapenaren maiztasuna eta arrazoiak, eta hizkuntza batek bestean duen eragin edo interferentziaren arabera.

Elebitasuna, hizkuntza bakarreko bi hiztun taldek osatzen dute, baina hizkuntza batetakoak elebidun bihurtuz gero, beste hiztunak nagusitu daitezke lehenengoak asimilatu ditzaketelarik. Hauxe izan da komunitate elebidun ugari izan duen joera. Horregatik herri elebidunek, hizkuntza bakarreko lurralde ezbardinak osatzean aurkitu dute beren hizkuntzari eusteko aukera⁴.

Bigarren mundu gerraren ondoren izandako migrazio mugimendu garrantzitsuen ondorioz sortu dira inoiz baino elebidun gehiago mundu osoan, Estatu Batuen kasua dugu horren eredu. Migrazioen ondorioz sortutako elebitasuna, gehienetan hizkuntza egoera baten eta beste berri baten tarteko zubia izan da.

Mackey'ren ustez, bi hizkuntza ezbardinetako hiztunen kopuruak garrantzia du elebitasuna zabaltzeko garaian; zenbat eta haundiagoak izan hiztun talde ezbardinak orduan eta elebitasun gehiago egongo da biztanlegoaren artean. Baina hizkuntza baten nagusitasuna hiztun kopuruan baino gehiago datza hiztunen nolakotasunean. Mackey'k dionez, hizkuntza batetako hiztunek zenbat eta aberastasun, botere eta ohore gehiago izan, orduan eta garrantzi haundiagoa izango du hizkuntza horrek gizartean.

Hezkuntzak ere eragin dezakeela gogorazten digu, hizkuntza batek gizartean izan dezakeen indartzean; adibidez, hezkuntza zentralizatuak goi mailako edo formazio teknikoa hizkuntza bakarrean eskeiniko balu.

³ W.F. MACKEY; "Description of bilingualism" in: FISHMAN J.A.(Ed.): *Readings in the Sociology of Language*. Mouton, The Hague, 1968, 554-84 orr.

⁴ W.F.MACKEY: *Bilinguisme: phénomène mondial*. Harvest House, Montreal, 1967, 11-12.orr.

Industrializazioak ere eragin izan du hizkuntza batzuen nagusitzean. Halaxe eragin izan dute baita ere, komunikatzeko bitartekoek: idazkera eta alfabetoaren asmatzea hizkuntza batzuen esku izatea, inprentaren eragina hizkuntza nazionalen eta estandarren zabalkundean, e.a.

Indar haundia dutela aipatzen digu baita ere, komunikabideek; kontutan izan behar da gaur egun edozein leku baztertueneraino iritsi daitekeela berauen eragina.

Bestalde, herri edo nazio ugarian bai hizkuntzaren estandarizazio edo bateratzeak eta bai hizkuntzaren nazionalismoak eragin haundia izan dute hizkuntza eta hizkera askoren galeran. Zientzia eta teknologiaren aurrerapen garrantzitsuak herri aberats eta haundien eskuetan daudenez, herri txikietakoek herri haien hizkuntza jakin beharrean aurkitzen dira aurrerapen horien berri izan nahi badute. Jakinduria eskuratzeko nahitaezkoak bihurtu dira gaur egun hizkuntza nagusiak. Horregatik, talde txikietako hizkuntzak baztertuak izan ohi dira, talde haundietako hizkuntzak nagusitzen diren bitartean.

Eragile hauez gain, hizkuntza baten galtzari aurre egin eta iraupena eragin dezaketen eragile bezala hauexek aipatzen dizkigu Mackey'k: hiztunen arteko hartueman edo ukipenak, hizkuntza batean ekoiztutako kulturaren garrantzia, hizkuntza nagusiekiko urruntasuna, hizkuntzaren berezitasuna e.a. Idazki gehien dituen hizkuntzak -latina eta grekera bezala-, beste hizkuntzen aldean iraupena ziurragoa izan ohi duela ere aipatzen digu.

Baina hizkuntzek gizarte mailan duten garrantzia aldakorra da; garai batean gizarte batetako hizkuntza nagusia izan arren ere, baliteke beste garai batean hizkuntza ezbardin batek lortzea nagusitasuna.

Mackey'k adierazten digunez, hizkuntzek gizartean duten garrantzia, ez da oinarritzen hizkuntzek bere barnean duten dohai edo ezaugarri linguistikoetan, gizartean hizkuntza batek duen ohorean baizik. Hau da, *hizkuntza inguratzen duten gizartezko eragileak dira, gizarte batean hizkuntza bat bestea baino garrantzitsuagoa egiten dutenak.*

Munduan zehar elebitasunezko kasu ezbardinak daude, ez baitira kasu guztietan, hizkuntza gutxiengotuko hiztunen lurralde kokapena, egonkortasuna eta hizkuntzak betetzen dituen funtzioak bardinak izaten.

Ezaugarri guzti hauen aldaketa berriz, elebidunak bizi diren gizarte inguruaren, eta hizkuntza nagusiarekiko harremanen gain dago ⁵.

⁵ W.F.MACKEY: *Bilinguisme et contact des langues*. O.C., 33-54 orr.

Baina elebitasuna ez da beti hizkuntza gutxiengotuaren aldekoa izaten. Hasiako hizkuntza baino nagusiago den hizkuntza bat ikasiz gero, haserako hizkuntza edo aldatu edo galdu egin daiteke. Horregatik, Estatuak ez du sekula hizkuntza gutxiengotu bat ezabatuko, baizik eta elebitasuna bultzatuz beste hizkuntza indartuko du; eta gainontzekoa bere kasa utzita lortuko da, bertako hiztunak aldatuko baitira gizartean indar gehien duen hizkuntzara. Mackey'ren arabera beraz, orokorrean elebitasunak egoera kaxkarrenean dagoen hizkuntzaren galera dakar.

Hala ere, elebitasunak dimentsio ezberdin ugari ditu eta dimentsio bakoitza aldatzeko izango litzateke. Dimentsio horietan eragina izan dezaketen eragileen garrantzia ezberdina izan daiteke berriz herri batean eta bestean ⁶.

2.1.1.2. Hizkuntzen gizarteko egoera

Mackey'k hizkuntza baten gizarte egoera azaltzean hiru gauza ezberdintzen ditu: ohorea, funtzioa eta estatusa. Ohorea lehenari dagokio, funtzioa orainari eta estatusa geroari.

Hizkuntzaren estatusak, gizarte batean hizkuntza bat erabiliaz egin daitekeena esan nahi du: legalki, kulturalki, ekonomikoki, politikoki eta demografikoki. Hizkuntza batek gizartean duen estatusa aldatzeko da, eta hobera aldatuz gero, hizkuntza ohoretu egin dezake ⁷.

Baina lege aldetik hizkuntza batek duen estatusa eta gizarteko estatusa ezberdinak izan daitezke, ez baida gauza bera hizkuntza batekin gizartean egin daitekeena eta hizkuntza hori erabili ahal izateko gizarteak duen ezagutza. Ezagutzaren arabera bete ahal izango baitira hizkuntzaren funtzioak gizartean.

Mackey'k dioenez, hizkuntzaren estatusa gizarte ingurune bakoitzean ulertu behar da. Zenbait herritan estatus haundiagoa izan dezake herriko hizkuntzak nazioarteko hizkuntza batek baino. Arrazoi historikoek eragin dezakete, hizkuntza gutxiengotu batetako hiztunek nazio eleanitzdun batean izango duten estatusa: konkista, kolonizazioa, abertzaletasuna e.a.

Beste gauza askoren eraginpean ere badagoela hizkuntza baten estatusa gogorazten digu: hizkuntzak berak duen estatus linguistikoa, hiztunen kopurua eta

⁶ W.F.MACKEY: *Bilinguisme: phénomène mondial*. O.C., 55-59 orr.

⁷ W.F. MACKEY; "Determining the Status and Function of Language in Multinational Societies". Ulrich Ammon. (Ed.): *Status and Function of languages and language varieties*. Walter de Gruyter, Berlin, 1989, 4-5 orr.

elkarrenganako hurbiltasuna, hizkuntza horretan aurkitu daiteken ekoizpen kulturala e.a.

Hizkuntzaren funtzioak bestalde, gizarte batean hizkuntza bat erabiliaz betetzen diren ekintzak dira. Gizarteko arlo ezberdinetan biztanlegoak duen hizkuntza joknera. Gizarte batean hizkuntza ezberdinak egonik, hauek funtzio ezberdinak bete ditzakete, hizkuntzen artean funtzio banaketa bat emanez. Funtzioak berriz, ez dira garrantzi berdinekoak izaten eta ez dute bizimoduan denbora atal berdina betetzen, adibidez: lanaren funtzioa, denbora librearen funtzioa eta zerbitzuen funtzioa.

Hizkuntza batek gizartean betetzen dituen funtzioak aldatuz gero hizkuntza horren gizarteko estatusa ere alda daitekeela dio Mackey'k. Gizartean betetzen dituen funtzioak gehituz gero, hizkuntza horren estatusa hobetu egingo litzateke. Hizkuntza batek zenbat eta funtzio gehiago bete orduan eta estatus haundiagoa, eta zenbat eta estatus haundiagoa izan orduan eta errazago lortu dezake goragoko maila gizartean.

2.1.1.2. Hizkuntzen egoera aldatzeko zer egin

2.1.1.2.1. *Hizkuntza planifikazioa*

Estatua ahalegindu daiteke hizkuntza batek gizartean betetzen dituen funtzioak ugaritzen; bere agintea erabili baidezake hizkuntzaren sustapenerako. Baina aldaketa honek emaitza ona izatea lortu nahi bada, garrantzitsua da hizkuntza funtzioak banatzen hasi aurretik, hizkuntza bakoitza zer funtzio betetzeko gai den ezagutzea ⁸.

Mackey'k dioenez hizkuntzaren legegileak ez dira sarritan ohartzen legeak hiztunen hizkuntza jokaerak aldatzeko dituen oztopoetaz ⁹. Honen adibide modura aipatzen dizkigu India eta Irlandan ezagutu diren ondorioak ¹⁰.

Mackey'ren ustez, legegizonek hizkuntzaren egoera aldatzeko ahalmenaz eta botereaz jabetzen badira ere, ez dira ohartzen hizkuntza ezberdinek gizartean duten erakargarritasun ezberdinak.

Beraz, hizkuntza baten planifikazioa egiten hasi aurretik hizkuntzak gizartean duen estatusa aztertu beharko da, Mackey'ren ustez. Hizkuntzaren planifikazioak ez du ondorio onik izango ez badu hizkuntzaren egoera eta egoera horretan eragiten duten hainbat eragile kontutan hartzen.

⁸ Liburu berean, 18-19 orr.

⁹ W.F. MACKEY: *Bilinguisme et contact des langues*. O.C., 199-200 orr.

¹⁰ India eta Irlandako adibideek erakusten digutenez, Estatuak ezin dezake legez hizkuntzaren egoera aldatu herritarren nahia kontutan hartu gabe. W.F. MACKEY ; "Puissance, Attraction et Pression des langues en contact: modeles et indices" in: *Les états multilingues*. CIRB, Québec, 1975, 120 orr.

Hizkuntzen estatusa edo egoera osatzen duten alderdi ezbardinak daude: hizkuntzaren estatus juridikoa alde batetik, eta hizkuntzak gizartean duen indarra eta erakargarritasuna bestaldetik.

Hizkuntza batek gizartean duen egoeran berriz, eragile askok eragiten du: hiztun kopurua, hiztunen sakabanaketa, hiztunen aberastasuna, hiztunen mobilitatea, ideologia eta kultura, ekoizpen kulturala eta ekonomikoa e.a. Hizkuntza bat ez da inoiz linguistikoki beste hizkuntza bat baino garrantzitsuagoa, gizartean betetzen dituen funtzio komunikatiboek eta gizartean duen indarrak egiten dute hizkuntza bat garrantzitsua.

Bestalde, hizkuntza batek, beste hizkuntzekiko erlazioa edo erakargarritasuna ere izan ohi du; eta hori, gizartean bi hizkuntzek duten indar ezbardintasunaren, bi hizkuntzen arteko distantzia linguistikoaren eta bi herrien urruntasunaren eraginpean egongo da. Hizkuntza baten indarra, beste hizkuntza batetako hiztunek hizkuntza hau ikasteko eta erabiltzeko dituzten arrazoiek osatuko dute Mackey'ren ustez.

2.1.1.2.2. *Hizkuntza politikak*

Estatuak eragin dezake hizkuntzaren egoera aldaketan, hizkuntza politika ezbardinak aplikatuz:

- Elebitasun abertzalea edo bitarteko elebitasuna: bi hizkuntzak errezpetatuz baina epe luzera hizkuntza nazionala hizkuntza ofizial bakartzat ezarri.
- Elebitasun tradizionala: Estatuak hizkuntza gutxiengotua onartuz baina beste hizkuntzarekiko bardintasun egoera baterantz zuzendu gabe. Gehienez kultur eta hezkuntza mailan eskubide batzuek onartuko dizkio.
- Elebitasun federala: ofizialki bi hizkuntzak bardin onartuz, eta bi hizkuntzek gizartean egoera bardina lortzea helburutzat izanik¹¹.

Hizkuntza politika aplikatzeko formula ezbardinak erabili ohi direla aipatzen du Mackey'k, eta honetan, zer esana du hiztun ezbardinaren arteko banaketak eta batasunak. Formulak ezbardinak izan ohi dira baita ere helburuen arabera: hiztun ezbardinaren artean bardintasuna lortzea edo hiztun batzuekiko beharrak erantzutea lortu nahi bada.

Hiztunen artean bardintasuna lortuz gero, hizkuntza bakoitzeko hiztunen beharrak ere gutxiago izango dira. Gizarte bat zenbat eta elebidunago orduan eta behar gutxiago

¹¹ Liburu berean, 74-75 orr.

izango du zerbitzuak bi hizkuntzetan jasotzeko, eta zerbitzuak zenbat eta elebidunago izan, orduan eta lege gutxiago beharko dira hizkuntza eskubideak defendatzeko.

Hizkuntza politika, bi printzipio ezbardinetan oinarriturik egon daiteke:

- Eskubide pertsonalen printzipioa: nunahi egonik ere, pertsona bezala bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea du, eta zerbitzuak bere hizkuntzan jasotzeko eskubidea.
- Lurraldetasunaren printzipioa: gizabanakoak lurralde batetako herrikide bezala, lurralde horretako hizkuntza erabiltzeko eta hizkuntza horretan zerbitzuak jasotzeko aukera izango du ¹².

Printzipio bat ala bestea aukeratzean, eragina du herri bakoitzeko antolaketa politikoak, hala nola lurralde bakoitzeko bardintasun linguistikoak, deszentralizazio politikoak e.a.

Dena dela, berak aipatzen duenez, Estatuari ezinezkoa zaio bi printzipio hauek bere osotasunean betetzea. Estatuak ezin baitie gizabanako guztiei hezkuntzan, epaitegietan eta administrazioarekiko hartuemanetan, hizkuntzaren aukera eskeini. Bestalde, lurraldetasunaren printzipioa aplikatzean beste hizkuntza batetako hiztunen oinarritzko eskubideak zapaldu daitezke. Azken batean Estatuak eskeiniko duen zerbitzuaren hizkuntza gizabanakoaren eskaeren gain egongo da. Bestalde, adibidez eragozpen haundiak izan ohi dira hirietan, hiztunen sakabanatzea dela eta, Estatu elebidunak eskeintzen dituen aukera guztietaz baliatzeko.

Azken batean printzipio ezbardinen arteko gatazka bat sortzen dela dio, Estatuak nazioaren batasuna mantentzeko duen eskubidea, hiztun taldeak kultur identitatea mantentzeko duen eskubidea eta gizabanakoek elkartzeko duten askatasunaren printzipioen arteko gatazka.

Hizkuntza politika bat aurrera eramanez duten herrietan, Kanada, Irlanda eta Quebec'en esaterako, bideratu den hizkuntza politikaren ebaluaketa bat egitean, zera ezbardindu behar dela dio Mackey'k: alde batetik, hizkuntza gutxiengotuaren ezagupena, eta bestetik, hizkuntzaren erabilera sozial eta politikoa.

Dena dela, hizkuntza gutxiengotua bultzatzeko eman izan diren hizkuntza politikei bere garrantzia ematen die. Alde batetik, hizkuntzaren normalizazioan izan dituzten lorpenegatik; eta bestalde, hizkuntza horretan zerbitzuak eskeintzeak, argitalpenak egiteak eta komunikabideetan erabiltzeak duen garrantziagatik.

¹² Liburu berean, 82-83 orr.

Mackey'k hiru herri hauetako hizkuntza politikaren esperientziaren ezagupenetik, euskara bultzatzeko eman izan den hizkuntza politika ere aipatzen du. Garrantzitsua ikusten du alde batetik, euskarak izan duen bateratze prozesua, idazkera arautu eta gizarteko ekintza guzietarako erabilgarria izatera iritsi baida. Bestalde, garrantzitsua ikusten du helduen alfabetatze prozesua ere. Hala ere, azken hau aurrera eramatea ez dela oso erraza dio, kontutan izanik, euskaraz aparte, bizitzako funtzio guziak betetzen dituen beste hizkuntza bat dagoela.

Bere ustez, hizkuntza gutxiengotuak lan munduan ezartzeak garrantzi handia du hizkuntza gutxiengotua indartzeko, Quebec'eko kasua adibide. Baina, politika eraginkorrena, bere ustez, zabaldu nahi den hizkuntza dagoeneko etxean edo familian erabiltzen dutenen artean lan hizkuntza modura ezartzea litzateke.

Alderantzizko kasuetan berriz, laneko hizkuntza berria beren etxeetan erabiltzen ez dutenen kasuan, aplikatzen den politika aplikatzen dela, arazoak sortuko direla esaten digu Mackey'k, funtzionarioek hizkuntza gutxiengotua ikasteko orduan. Gizarteari asko kostatutako inbertsioak egin izan dira kasu askotan; funtzionarioek ordea hizkuntza berria ikasten duten arren, oso gutxik ikasten dute lan munduan hizkuntza hau erabili ahal izateko lain ¹³.

Ondorio orokor bat bezala aipatzen du, hezkuntza elebidunaren helburuetako bat bi hizkuntzen gizarteko egoera bardina lortzea baldin bada ere, ezin daitekeela topatu inon egoera bardinean aurkitzen diren bi hizkuntza. Hezkuntza elebiduna aplikatu izan den leku ezbardinetan, biztanlego guziaren adostasunaren ondorioa baino gehiago dela uste du Mackey'k, talde etniko baten garaipen politikoa ¹⁴.

2.1.1.3. Hezkuntza elebiduna

Sarritan hezkuntza ipini izan da hizkuntza gutxiengotuen egoera aldatzeko bitarteko itxaropentsu bezala. Mackey saiatu da hezkuntza elebidunaren ezaugarriak mahaigaineratzen, hala ere bere ustez, hezkuntza, gune soziolinguistiko zabalago baten barnean aztertu behar da, gizarte inguruko hainbat aldagaik baitute eragina hizkuntzaren ikastean eta erabilpenean.

Hezkuntza elebiduneko hezkuntza programa ezbardinak bereizi daitezke aldagai ugariaren arabera. Bestalde, gizartearen elebitasun egoera ezbardina izan daiteke kasu

¹³ J.I.RUIZ OLABUENAGA, J.A.OZAMIZ: *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. TTartalo, Donostia, 1986, 363 orr.

¹⁴ W.F. MACKEY, J.ORNSTEIN: *The bilingual education movement. Essays on its progress*. The University of Texas, El Paso, 1977, 113 orr.

bakoitzean, eta gainera, herrian ematen ari den hizkuntza politikak eragin zuzena izango du ikasketa programa bat ala bestea aukeratzean.

Herri batetako helburuen artean, hizkuntza indartzeko helburuak garrantzi ezbardina izan dezake herri horretako politikan; honela, aurreko lekua izan dezake adibidez helburu ekonomikoak helburu linguistikoak baino. Hau horrela izanik, gizarteko batzuen artean aurkako jarrera indartu daiteke hizkuntzaren inposaketan oinarrituz.

Herri batean hizkuntza bakoitzeko herrikideek duten hezkuntza mailak, gizarte horretako gizarte egiturak eta gizarteko elitearen nahiek, zer esana izango dute hezkuntzaren antolaketan. Baita ere, arraza, erligio edo kultura arrazoiengatik gizartean egon daitekeen banaketak ere eragina izan dezake.

Gizartea gero eta aldakorragoa denez, gizartearen mugikortasuna eta urbanizazio arrazoiengatik, hiztun ezbardinen arteko gatazkak edo burrukak ere areagotu daitezke. Bestalde, lurralde eta nazio mailan hizkuntza politikak eta hezkuntzak, kontrol ezbardina izan dezaketela aipatzen du Mackey'k. Kontrol hau berriz, dekretuz ezarria, aholkatua edo konbentzimentuzkoa izan daiteke.

Herritarren jarrerek ere, politika bat ala bestea aplikatzeko garaian, eragin dezaketela aipatzen digu autore honek. Adibidez, gurasoak beren haurren hezkuntza, hizkuntza batean jaso behararen aurka ager daitezke eta presio taldeetan antolatu, -Irlandaren kasuan bezala-, edo alderantziz haurren hezkuntza aukerazkoa izatearen aurka ager daitezke, -Bill 63.aren aurrean Quebec'eko kasuan bezala-. Mackey'k bi kasu hauek aipatzen dizkigu, gobernuek dekretuz hizkuntza baten erakargarritasuna ezin dezaketela inoiz aldatu erakusteko.

Azken batean hezkuntza elebiduneko programa bat edo beste aukeratzea, gurasoek beren seme alabentzat dituzten nahien araberakoa izango dela esan nahi digu Mackey'k.

Gizarte inguru batean hizkuntza bat baino gehiago dauden kasuetan, gurasoen nahia bere semeak gizarte inguru horretara egokitzearena izango da. Gizarte inguruan hizkuntza baten estatusa aldatzen denean, gurasoek, hezkuntza sistemaren edo legearen aldaketa eskatu ohi dute. Lana, aukera ekonomikoak, gizarteko ezaugarri etnikoak edo erligiosoak ez galdu nahiak, gurasoen aldetik beren semeen hezkuntza egokitzeko eskaerak bultzatu ditzakete. Hauek, hezkuntza sistema bera ere aldatzea lortu dezakete, beren seme-alabentzat, hezkuntza programa ezbardinen aukera eginez

¹⁵.

¹⁵ Montrealen, guraso ingelesak bere semeentzat hezkuntza frantses hutsean izatea eskatu zuten, Québécoen frantsesak lortu zuten estatusaren ondorioz. Honela, murgiltze programak antolatu ziren. W.F.MACKEY: *L'ecologie educationnelle du bilinguisme*. CIRB, Université Laval, Québec, 1974, 24-32 orr.

Eragile hauez gain, orainarte aztertu ditugun aldagai soziolinguistiko ezbardinek ere, hezkuntza elebidunean eragin dezaketela gogoratzen digu. Beraz, argi utzi du Mackey'k gizarte bakoitzak dituen ezaugarriak kontutan hartu behar direla bertan antolatuko den hezkuntza elebidunaren lorpenetaz hitzegiterakoan. Gizarte batean hezkuntzaren bidez lorpen zehatz batzuek nahi badira, hezkuntza ereduak gizarte horretara egokitu beharko da.

2.1.1.3.1. *Hezkuntza elebidunaren lorpenak hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran*

Sarritan eman izan dira hezkuntza elebidunarekiko epaiak, ona nahiz txarra dela esanez. Baina Mackey'ren ustez ezinezkoa da honelako epairik ematea, eredu bakoitzak gune eta garai bakoitzean emaitza ezbardinak izan baiditzake.

Dena dela, Mackey'k baditu zenbait eritzi hezkuntza elebidunaren ondorioetaz. Hezkuntzarekin lortu nahi diren helburuak edozer eratakoak izanda ere, helburu horiek bete arazteko moduak zer esana izango du ondorioetan.

Hizkuntza politikaren inposaketak aurkako erreakzioak sortu ditzake, bereziki talde batekoen lanpostua kolokan ipintzen bada. Hizkuntza bat ezagutarazteko hezkuntza planak maila ezbardinean aplikatu daitezke, erregional, nazional edo herri mailan, baina plana aplikatuko den tokian hizkuntzaren banaketa bardintsurik ez badago, hezkuntza elebidunaren ezarpena zein eratakoa den horren arabera izango da hezkuntza plan horren arrakasta, Mackey'k esaten digunez ¹⁶.

Beraz, gizarte egitura kontutan hartu beharko da hizkuntza politika eta hezkuntza plan bat komunitate bakoitzean ezarri nahi direnean. Gizarte egituraren barnean aztertu beharrekoak izango dira Mackey'ren ustez: komunitateko hizkuntza ezagupenaren banaketa, hiztun taldeen arteko harremanak, administratzaileen hezkuntza eta politika erizpideak, biztanlegoaren hizkuntza jarrerak eta gurasoen motibazioa. Bestalde, ikastetxearen inguruan gertatutako gizartezko aldaketek ere, eragin dezakete hezkuntza elebidunaren lorpenetan.

Guzti honen ondorioz, gizarte ingurune zehatz batean gizarte inguruko indar soziolinguistiko guzti hauen azterketa egin ondoren neurtu beharko da hezkuntza elebidunaren politika baten emaitza.

Bestalde, hizkuntza ezbardinak familia berekoak izanez gero, elkarrenarteko distantzia linguistikoa txikiagoa izango da; kasu honetan, hizkuntza berria ikastea errazagoa izango da. Hala ere bi hizkuntzen arteko interferentziak eman daitezke.

¹⁶ W.F.MACKEY: *The bilingual education movement. Essays on its progress.* O.C., 60 orr.

Baina Mackey'ren esanetan, hiztun talde ezbardinen arteko kultur ezbardintasuna izango da bi hizkuntzen distantzia linguistikoa baino garrantzitsuagoa. Normalean, kultur ezbardinatasunak baitira elkarren ulergarritasuna oztokatzen dutenak. Bestalde, ohore gutxien duen hizkuntzarekiko izaten dira jarrera txarrenak gizartean, eta hizkuntza batekiko jarrera txarrek ere bere eragina izan dezakete hezkuntzaren emaitzetan ¹⁷.

Beraz, Mackey'k aipatzen digunez, hezkuntza elebidunaren lorpenetan, ezaugarri linguistiko eta pedagogikoei baino eragin haundiagoa dute aldagai soziokulturalek. Hizkuntza jarrerak eragin zuzena izan dezakete hezkuntza elebidunean eta hizkuntzak gizartean duen egoeran. Arrazoi honexegatik deitzen dio Mackey'k hizkuntzen gizarte egoera eta hezkuntza elebidunaren praktika eta politiken azterketari azterketa ekologikoa ¹⁸.

Hezkuntza elebiduna ez da beraz, eredu bakarrekia eta nunahi aplikatu daitekeen zerbait. Gizarte batean aplikatuko den hezkuntza elebidun mota aukeratzean berriz, gizarte eta komunitate bakoitzaren beharrei erantzungo dien hezkuntza ereduak aukeratu beharko litzateke bere ustez.

Hezkuntza elebidunak hizkuntza gutxiengotuaren edo diglosia egoera bizi duen hizkuntzaren ikastea eta erabiltzea lortzeko helburuarekin *Murgiltzea* hartzen du Mackey'k eredutzat. Murgiltze ereduak, Kanadako gizarte inguru frantsesean -Saint Lambert-en-, ingles hiztunen guraso talde batek eskatuta, beren semeak ingurune frantsesera egokien moldatu zitezela eta aukera ekonomikoak gal ez zitzaten, sortutako ereduak dugu. Hezkuntza mota honek hezkuntza osoa frantsesetik eskeintzen zuen, hau da, haurren etxekoa ez zen beste hizkuntza batean.

Programa honen bidez, haurrak bi hizkuntza ikasi eta mantentzera iritsi ziren, frantsesa ikastetxean eta inglesa etxean, eta gainera ez zuten inolako eragozpenik izan beste ikasgaiak ikasterakoan.

Baina murgiltze ereduak emaitza onak izan bazituen ere, baldintza jakin batzuetan izan zituela gogoratzen digu Mackey'k:

- Gurasoek beren gogoz aukeratu zuten beren semeentzat hezkuntza programa hau eta gainera beraiek izan ziren hezkuntza mota hau bultzatu zutenak.
- Gurasoek maila soziokultural altua zuten.

¹⁷ Liburu bercean, 23 orr.

¹⁸ Liburu bercean, 96 orr.

- Bi hizkuntzek gizartean indar eta ohore garrantzitsua zuten, frantsesa gehiengoaren hizkuntza zen eta inglesa gutxiengoaren hizkuntza izan arren, hizkuntza indartsua zen Iparrameriketan.

Guraso hauek, semeek beren lehen hizkuntza -ingelese- hizkuntza berriagatik -frantsesagatik- ez zutela utziko ziur ziren. Kasu bardina aurkako gizarte ingurunean emanez gero berriz -ingeleseko murgiltzea hitzun frantsesen artean-, alderantzizko emaitzak izan zitzakeen, Mackey'ren ustez. Hezkuntza ingles hutsean jasoz gero, haurrak inglesa izango zuten hizkuntza nagusitzat; frantsesa ez zuten ongi menderatuko eta inglesarekin ordezkaturia izateko arriskua izango lukete.

Beraz, ikastetxeko hizkuntza baino indartsuagoa den hizkuntza bat erabiltzen dutenen artean, murgiltzeak emaitza onak izan ditzake; baina alderantzizkoa gertatu daiteke hizkuntza gutxiengotu bat erabiltzen dutenen artean. Gizartean ahulago den hizkuntza batetako hitzunen kasuan, murgiltzea nahiz bigarren hizkuntzak nagusitasuna duen edozein hezkuntza programak, lehenengo hizkuntzaren erabilera arriskuan ipini dezake ¹⁹.

Kanada, Québec eta Irlandako hizkuntza politikari zegokionean aipatu bezala, gauza bardina esan daiteke hizkuntza gutxiengotuek eskolaren bidez lortu duten ezagutza mailaz ere. Hamar urtetan zehar eskolan eman izan den hizkuntzaren irakaskuntzak ez baitu hizkuntza hau lan munduan erabili ahal izateko haina gaitasunik lortu. Hau ez da izan gehiengoaren borondate ezagatik, zenbait kasutan gurasoek beraiek izan baitira, eskolak hizkuntza irakasteko gaitasun eza salatzen eta hizkuntza berria bakarrik erabiliko duen hezkuntza programak eskatzen lehenak, murgiltzearen adibidean ikusi dugun bezala ²⁰.

Beraz, diglosi egoera bizi duen hizkuntza bat ikasi ahal izateko, borondate onaz gain, Mackey'rentzat beharrezkoa da hizkuntza horrek pisu garrantzitsua duen hezkuntza programa bat izatea, hizkuntza horretan lan egin ahal izateko hainako hizkuntza gaitasuna lortu nahi bada.

2.1.5. Jarrerak eta hizkuntza erabilera

¹⁹ M.SIGUAN, W.F.MACKEY: *Educación y Bilingüismo*. Aula XXI Santillana, Unesco, Madrid, 1986, 124-125 orr.

²⁰ W.F.MACKEY: *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Ed. Tartalo, Donostia, 1986, 364-365 orr. Murgiltze ereduaren esperientziak emaitza positiboak eman ditu, ikasleek beren identitate kulturalari cutsi baidote eta bi hizkuntzetan lanean aritzeko gai bihurtu baidira.

Mackey'ren ustez, hizkuntzaren erabileran jarrerak izan dezaketen eragina neurtu nahi badugu, kontutan hartu behar dugu, jarrerak elementu ugariz osatutako sistema bat osatzen dutela eta erlazio afektiboak edo objektu batetaz ditugun sinismenez osatzen direla.

Hizkuntza jokaeran eragina duten jarrerak aztertu nahi baditugu, aztergai den ingurunera hurbildu behar gara, jarrerak neurtzeko erabiliko diren item edo galderak gizarte inguru bertatik ateratzeko eta ez ikertzailearen imaginaziotik.

Mackey'k Irlandan gaelikoaren erabileraren gutxitzea hizkuntzarekiko jarrerak eragiten ote zuten aztertu ahal izan zuen. Berak aurkitu zuen ondorioa hauxe izan zen; hizkuntzarekiko jarrerak ez dutela bere kasa hizkuntza erabileran eragiten. Hizkuntza bat ez erabiltzearen *eragileak ez dira norbere barnekoak, kanpokoak baizik, gizartezkoak*, beste pertsonekin bizi dituzten egoerak, gizartearen presioa e.a. Beraz, taldearen eta gizarte inguruaren eraginek, elkarhizketatzailearen hizkuntzaren ezagutzak e.a.ek eragiten dute hizkuntza erabileran. Ez da nahikoa beraz, hizkuntza batekiko aldeko jarrerak izatea hizkuntza horren erabilera izateko.

Baina ezagutzak berak bakarrik hizkuntzaren erabilera ez badu eragiten ere, ezagutzarik gabe ez dago hizkuntza bat erabiltzerik. Beraz, hizkuntza bat bultzatzeko bideratzen diren hizkuntza politikak ez dira alperrikoak bere ustez, nahiz eta hizkuntzaren erabilera ziurtatzea ez lortu²¹.

2.1.1.5. Hizkuntzaren erabilera bultzatu dezaketen eragileak

Hizkuntza gutxiengotu batek nola lortu dezake hizkuntza erabilera? Galdera honi erantzuteko hizkuntzaren erabilera eragin dezaketen eragileak zeintzuk diren ezagutu beharko ditugu:

Eragile linguistikoak: Hizkuntzaren kodifikazioa, hau da idazkera, ortografia eta gramatika bateratuak izatea. Bestalde, hizkuntzaren elaborazioa, arlo ezbardinetan erabiltzeko ahalmena, zientzian, administrazioan, erligioan, politikan e.a. Eta azkenik hizkuntzaren ezarpena gizartean.

Eragile instituzionalak: Hizkuntza batek gizartean izan duen ezarpenaren ondorioz hizkuntza erabilera zabaldu den kasuetan, hizkuntza instituzional izaera lortu du. Hungria, Israel eta Quebec'eko kasuak aipatzen dizkigu adibidetzat.

Hizkuntza bat herri batetako erakundeetako hizkuntza bakarra izatera iristen bada, hizkuntza horren etekina haunditu egiten da. Dena den, zer esana du erakundeen eta herritarren arteko harremanen nolakotasunak. Erakunde guziek

²¹ W.F.MACKEY: "L'irredentisme linguistique; une enquête témoin" in: MANESSY G. et WALD P.: *Plurilinguisme; normes, situations stratégies*. L'Harmattan, Paris, 1979, 279-282 orr.

ez dute herritarrengan eragin bardina, herritarrekin duten harremanen maiztasuna eta iraupenak ere badute honetan zer ikusia.

Hizkuntza batek gizarte batean zenbat eta funtzio gehiago bete, orduan eta erabilgarriagoa izango da.

Eragile soziolinguistikoak: hizkuntza bat erabili ahal izateko lehenik hizkuntzaren ezagutza beharrezkoa da elkarrizketatzaileen artean, honez gain elkarrizketa bakoitzean zein hizkuntza erabili erabaki beharko da. Eta ez da gehiengoaren ezagutzaren arabera erabakitzen hizkuntza bat zein bestea erabili.

Pertsonen arteko elkarrizketa mailan ez dago zer eginik hizkuntza politika aplikatzean. Beraz, hizkuntza baten erabilera esparru publikoan indartu beharko da: eskolan, eleizan, lanean, bileretan, dokumentu publikoetan e.a.

Baina funtzio publikoaren hizkuntza ezagupena hobetzeko egindako inbertsioak ez dira beti errentagarriak izaten. Hala ere, erakunde baten hizkuntza funtzionamentuak ez du esan nahi bertako guziek hizkuntza ezagutu behar dutenik, nahikoa baida herritarrekin harremanetan dauden funtzionarioek hizkuntzaren ulermenezko ezagupena izatea.

Eragile geolinguistikoak: azkenik, hizkuntza baten erabilera zabaltzeko zer esana du hizkuntzaren indarrak. Indartu beharreko hizkuntzak zer maila duen erregio mailan, kontinente mailan edo mundu mailan. Honetarako kontutan hartu beharko da, hizkuntzak historian izandako garrantzia, hizkuntzaren barne bilakaera, inguruko hizkuntzen bilakaera, eta hizkuntza berak lurraldetik kanpo duen bilakaera ²².

Mackey'k esanetan, gizarte mota batzuetako ekologia linguistikoa hizkuntza baten iraupenerako egokiagoa da beste batzuetakoa baino. Iraultza industrialaren ondoren mendebaldean antolatutako gizarte mota ez da izan hizkuntza gutxiengotuen iraupenerako egokiena: urbanizazioa, despopulazioa, mobilitatea, sakabanaketa e.a, gauza hauek denak, hizkuntza gatazkak eta gutxiengoaren asimilazioa ekarri baitute. Gutxiengoak, asimilazio edo marginalitatearen aukera egin beharrean aurkitzen dira, azken hau izanik hizkuntzaren iraupenerako egokiena, nahiz eta gauza honek ondorio kaltegarriak ekarri ohi dizkion gizataldeari. Gizarte baten helburuak linguistikoak bakarrik ez dira berriz. Komunitate batean egiten den giza antolaketak erabakiko du azken batean, hizkuntzaren etorkizuna ²³.

²² W.F.MACKEY: "L'irredentisme diglossique potential et contraintes" in: INSTITUT D'ESTUDIS ILERDENCIS; *Segon congrés internacional de la llengua catalana. Plantejaments. Processos de Normalització lingüística*. Lleida, 1992, 91-95 orr.

²³ W.F.MACKEY: "L'écologie linguistique des sociétés expérimentales" in: *Euskara Biltzarra II Euskal Mundu Biltzarra*. II. Alca, Eusko Jauriaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 118-119 orr.

2.1.2. ETNIZITATEA ETA TALDE IDENTITATEA GALTZEAR DAUDEN HIZKUNTZEN ERAGILE (J.A.FISHMAN)

Fishman'ek, galtzear dauden hizkuntzak biziberritzeko ahaleginak, etnizitate eta talde identitateari lotuta daudela azpimarratzen du.

Motibazio edo ideologi erako zergaitia dute hizkuntza gutxiengotuen aldeko ahalegin hauek Fishman'en ustez; talde identitatea indartzea lortu nahi dute ama hizkuntzaren bidez, eguneroko bizitza hizkuntza horretan egin ahal izatea, nahiz eta hizkuntza nagusiak baino zailtasun gehiago izan hori lortzeko.

Hizkuntza gutxiengotu bat indartzeko giltza edo nahitaezko baldintza, belaunaldi berriengan hizkuntzaren jarraipena ziurtatzea litzateke Fishman'entzat. Horretarako gizartearen eraginetatik eremu babestuak sortu beharko lirateke. Eguneroko bizitzarekin lotura duten lehen mailako barrutiak, familiartea, auzoa, lagunartea e.a.ek garrantzi berezia dute hizkuntza gazteei helarazterakoan. Eskolak ere badu bere eragina baina berak bakarrik ezin dezakeela hizkuntzaren jarraipena ziurtatu zehazten du.

2.1.2.1. Galtzear dauden hizkuntzen ezaugarriak

2.1.2.1.1. Irrazionaltasuna

Munduan zehar miloika pertsona dira hizkuntza gutxiengotuen aldeko ahaleginetan dabiltzanak. Hala ere, ez da oso sarritan ematen hauen berri giza literaturan. Hizkuntza gutxiengotuen aldeko ahaleginak minorien, boteregabeen eta arrakastarik gabekotzat jotzen dira. Esan daiteke hizkuntza gutxiengotuen aldeko ahaleginak, gizarte mugimenduak direla, taldeak eratu eta erakundeen aurkako ekintzak bideratzen baitituzte²⁴.

Kontzientzia eta identitatearen bila dabiltzanez, beraien artean sentimenduzko jarrera bat nabari da; horregatik salatuak izan ohi dira sarritan arrazoigabe eta mistikotzat.

Beren antolaketa etnokulturalaren kontrolik ez izatean, kontrol horren bila dabiltzan mugimenduak, arrazoigabetzat hartu izan ohi dira; baina kritika hau bere antolaketa etnokulturala kontrolpean dutenen aldetik dator, Fishman'en ustez.

Mendebaldeko giza zientziaren flosfian, Fishman'en ustez, modernizazioa eta jatorrizkoa edo berezkotasuna ezin dira batera joan, jatorrizkoa eta arazionaltasuna ez baitira baterakoak.

²⁴ J.A. FISHMAN: *Reversing language shift: theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*, Multilingual Matters, Clevedon, 1991, 381 orr.

Sarritan hizkuntza gutxiengotuen aldeko mugimenduak kontserbatzaileak, atzerakoiak eta aldaketen beldur diren mugimenduak bezala ulertu izan ohi direla dio; baina ez da aintzinarako itzulera hizkuntza gutxiengotuen aldeko ahaleginek bilatu nahi dutena, etorkizuneruntz zuzenduak baitaude beren ahaleginak.

Fishman'ek dioenez, teoria askoren eskutik tradizioa, zapaltzaile bezala ulertua izan da eta horri aurre eginez gizabanakoaren askatasuna defendatzeko joera egon da. Talde etnokulturalitatea eta hauen barne minorien eskaerak, eta indibidualitatearen arteko hartueman orekatsu bat litzateke egokiena Fishman'en ustez. Baina mendebaldeko pentsaerak, nahiago izan du aurrenekoen eskaerak entzuten jarraitu, indibidualitatearen legitimitatea defenditzearren ²⁵.

Ehundaka urtetan beren pentsaeretatik urruneko gertaera bat izan arren, 60 eta 70.hamarkadetan jabetu ziren etnizitateaz, bai ideologia burgesak eta bai ideologia ezkertiarak. Gutxiengoaren eta gehiengoaren arteko ezbardintasunak areagotzea, eta bestale, zentrua eta periferiaren arteko ezbardintasunak nabarmentzea izan zen gertaera honen arrazoia Fishman'entzat ²⁶.

Hizkuntza gutxiengotuen aldeko teoria beraz, Fishman'en ustez, 'Gemeinschaft' delakoaren helburuak eraiki eta babesteko ahalegin razionalaren ikuspuntua litzateke; gizarte orokorrarekin harremanetan egonik ere, bere menpekotasunetik aldentzea lortu nahi duelarik ²⁷.

2.1.2.1.2. *Etnizitateari lotutako fenomenoak*

Hizkuntza bat kultura eta talde identitatearekin lotua dagoela azaltzen digu Fishman'ek. Bere ustez, kultura batetako ohitura eta arauak gorde nahiarekin lotua dago hizkuntza gutxiengotu batekiko indartze nahia.

X hizkuntza batetako defendatzaileak, bere kultura eta bere hizkuntza gainontzeko kultura eta hizkuntzentatik ezbardinak direla azaldu behar du aurrena; eta hizkuntza hone gabe, bere kulturarik izatea ezinezkoa dela jakin arazi behar du.

Hizkuntza gutxiengotuaren defendatzaileak, hau dena frogatu behar du hizkuntza nagusiaren erabilera saritzaileagoa edo onuragarriagoa den errealitate batean, hizkuntza nagusiak esker edo sari eta aukera gehiago eskeini baitiezaizkioke hiztunari.

²⁵ Liburu berean, 383-390 orr.

²⁶ Liburu berean, 391 orr.

²⁷ Liburu berean, 394 orr.

Guzti hau posible egiten da gizabanako kontzientzidun eta ideologizatuen partaidetzarekin; hala ere, hau aurreneko pausua besterik ez da, belaunaldi berriengan hizkuntzaren, kulturaren eta gizarte identitatearen jarraipena lortzerakoan ²⁸.

2.1.2.1.3. *Talde identitateari lotua*

Bestalde Fishman'entzat hizkuntza bat gizarte integrazioa edo gizarte atxekimendua lortzeko bitarteko bat izan daiteke eta era berean talde identitatea gal daiteke hizkuntza bat galtzean.

Estatuaren aparatuak eraiki zirenez gero, sinbolikoki etnizitatearekin loturik egon arren, Estatupean zeuden etnien suntsipena eragin zen, erakunde politiko berriak eraikiz. Hala ere etnizitateak ixileko bizitza bat darama gure gizartean, denboraldi batzuetan indartsuago agertzen delarik besteetan baino.

Etnizitatea aldakorra da edukinean eta osakeran ere, gainera ez du zertan bakarra izan beharrik. Gizonak ahalmen berezia du leialtasun ezbardinak izateko aldi berean, identitate ezbardinak eta talde ezbardinetan partaidetza izateko; eta honek, etnizitatea bizirik iraunarazten du, aktore nahiz aztertzaileen ohargabeen.

Interpretazio teoriko batzuek 'Gemeinschaft'ak, 'Gesellschaft'ak berak bakarrik bete ezin dituen hutsuneak betetzen dituelako irauten duela diote. Razionalki funtzionatzen duen gizarteak, ahaztu egin du taldekako nongotza eta gizonak dituen behar intimoak ²⁹.

Fishman'ek dioenez, talde etnikoak gizarteak irauten duen bitartean jarraituko dute izaten, talde etniko berriak sortuz eta lehengoak bersortuz. Bitartean hizkuntza, sinbolikoa eta instrumentala izango da talde hauentzat, beraien kontzeptuak definitzeko, beraien aurkako nahiz kooperazio ahalmenetarako ³⁰.

Hizkuntza bat komunikatzeko tresna bat izateaz gain, sinbolu indartsu batean -zerbait sakralizatu edo mitikoan- ere bihur daiteke, hizkuntza bera balore batean bihurtuz. Hizkuntza bat gainontzeko sinboloak baino errezago bihurtu ohi da etnizitatearen sinbolu ³¹.

²⁸ Liburu berean, 394-396 orr.

²⁹ J.A. FISHMAN: *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Multilingual Matters, Clevedon, 1989, 39-40 orr.

³⁰ Liburu berean, 48 orr.

³¹ Liburu berean, 32 orr.

Gainera indar emozionala izan ohi du hizkuntza batek; familia, komunitatea edo historiarekin lotuta baitago.

2.1.2.1.4. *Egunerokotasunari lotua*

Hizkuntza gutxiengotuetako hiztunak gizartean indar handia duen beste hizkuntza nagusi batekin aurkitzen direnez, hizkuntza gutxiengotua biziberritzeko eguneroko bizitza informalean eragin behar dute zailagoa izan arren ³².

Hizkuntza sarritan ez da kontzientziak eragindako gertaera bat, ez da baloratua, maitatua edo ideologizatua izaten besterik gabe, arau sozial bat bezala transmititua izan ohi da. Baina hizkuntza erabilera arauak ez dira sinbolizatuak. Gizarte tradizioaletan edo aintzinako gizarteetan etnizitatea izan ohi da jokaera erabakitzen duena. Hizkuntzak berak ere ez du izen berezirik hartu izan: 'gure hizkuntza', 'ama hizkuntza', 'hizkuntza soila', 'eguneroko hizkuntza' e.a deitu izan zaio. Hizkuntzarekiko kontzientziarik gabe, hizkuntza, hurbilekoa edo jatorrizkoa den zerbait izan ohi da.

Haserako etnizitatea zatituz joan da aldaketa sozio kulturalen eraginez; honen ondorioz elkarteak eta taldeak eratu dira eta erakunde ideologiko eta politikoetan antolatuz, sinbolu berriz bete zaigu gizartea.

Eguneroko bizitzako ereduak ordea, etnikoak dira bere oinarrian; era berean ez daude oso aldatuak, ez dira oso ideologizatuak eta ez garezaz asko jabetzen beraietaz, ez dira oso konzienteak ³³.

Fishman'ek Ameriketako etorkinengan eginiko ikerketa ugaritan aurkitu zuen bigarren belaunaldikoaren artean, aurreko belaunaldikoengandik aldaketa beren komunitate hizkuntzaren ikastea arrazoitzean; bere hizkuntza delako ikasten zutela esatetik, bigarren belaunaldikoek, hizkuntza polita zelako, kultura zelako, baliagarria zelako, autoritateek eskatzen zutelako e.a. ikasten zutela zioten. Beraz, haserako etnizitatearekiko uruntasuna erakusten digute bigarren belaunaldikoek ³⁴.

Jarraipena ziurtatzea eta jatorrizkoa dena eskuratzea dira etnizitatearen osagarriak. Etnizitatea eguneroko bizitzaren inguruan agertzen da, hizkuntza eta hizkuntzaren bidez egindako adierazpen kultural guziak horren adibide izanik. Beste kulturen

³² J.A. FISHMAN: *Reversing language shift*. 1991, O.C., 7-8 orr.

³³ J.A. FISHMAN: *Language in sociocultural change*. Stanford University Press, Stanford, 1972, 180-183 orr.

³⁴ Liburu berean, 187 orr.

arteko harremanak berriz, ez dira ongi ikusiak, kultur aldaketa eta hizkuntzaren galera ekarri dezaketelako.

Talde barruko giza harremanetan gehiago eragiten duelako, garrantzi haundiagoa du taldeko sari eta zigorren sistema indartsuagoa izatea; etxean lantokian baino, auzoan azokan baino, eleizan ikastetxean baino e.a. Etxea eta auzoa dira, hizkuntza gutxiengotua mantentzeko gune egokienak Fishman'entzat, bertan gordetzen baida belaunaldi berriekiko iraunkortasuna ³⁵.

2.1.2.2. Zergaitik biziberritu hizkuntza gutxiengotuak

Hizkuntza gutxiengotuaren iraupenerako egiten diren ahaleginek arrazoi bat bakarra dute, motibazio edo ideologi erako zergaitia. Hizkuntza gutxiengotuen aldeko ahaleginek identitate aldaketa edo identitatea indartzea lortu nahi dute ama hizkuntzaren bidez. Hizkuntza gutxiengotuan eguneroko bizitza egin ahal izatea lortu nahi da, baina hizkuntza nagusiak baino zailagoa dute hizkuntza gutxiengotuek bere lekua izango duen gunea eskuratzea.

Hedapen zabaleko hizkuntzekiko ahaleginak kontsentsuz razionalizatuak eta motibatuak izan ohi dira. Hizkuntza gutxiengotuekiko ahaleginak ere behar dituzte horrelako motibazioak baina batez ere belaunaldi berrien jarraipena zaindu behar dutela dio ³⁶.

2.1.2.3. Diglosiaren aukera hizkuntza mantentzeko

Diglosia eta elebitasuna arrazoi batean ezbardintzen dira Fishman'en esanetan; diglosiak gizartean egokitze bat lortzen du bi hizkuntzen artean, era honetara hizkuntza bakoitzak bere eremua ziurtatua izaten du eta eremu horretan bere funtzioak bideratzeko aukera ematen zaio ³⁷.

Bi hizkuntzak gizarte batean ez daukate irauterik baldin eta funtzioen banaketa edo konpartimentalizaziorik ematen ez bada. Hizkuntzen artean funtzio banaketa izanez gero, alkarren arteko muga batzuek eraikiko lirateke eta hizkuntza bakoitzak bere gizarte gunea ziurtatua izango luke.

³⁵ J.A. FISHMAN: *Language and ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*. O.C., 177-178 orr.

³⁶ J.A. FISHMAN: *Reversing Language Shift*. O.C., 365-366 orr.

³⁷ "Bilingualism and biculturalism as individual and as societal phenomena" in: J.A. FISHMAN: *The rise and fall of ethnic revival; perspectives on language and ethnicity*. Mouton de Gruyter, Berlin, 1985, 39 orr.

Funtzio banaketa mantentzen ez du gehiegi laguntzen ordea gure gizarte modernoak, lanaren razionalizazioa, urbanizazioa, masifikazioa eta mugikortasunak zaildu egiten baitute hizkuntza konpartimentalizazioa ³⁸.

Diglosiak bi hizkuntzen egonkortasuna lortu dezake, nahiz elebitasunarekin batera edo elebitasunik gabe. Elebitasunarekin ematen den kasuan erakundeek bi hizkuntzak bultzatuko dituzte eta bi hizkuntzak izango dira gizartearen hizkuntzak, nahiz eta bakoitza funtzio zehatz batzuek bideratzeko erabiliko den. Elebitasunik gabeko diglosia denean berriz, bi hiztun talde egongo dira gizarte batean eta bakoitzak bere eremua izango du bere hizkuntza erabili ahal izateko; lurralde erako neurriak beharko dira kasu honetan bi hizkuntzak iraungo badute. Honen adibide ditugu; Suiza, Belgika, Kanada e.a.

Diglosiarik gabeko egoeretan ordea, ez dago funtzio banaketarik hizkuntzen artean. Kasu honetan beste hizkuntzak sari eta onura hobeak eskeintzen dituen neurrian, hiztunek hizkuntza berria aukeratuko dute. Bi hizkuntzak eremu bardinetan lehian izango lirateke, egoera eta harreman bardinak eskuratzeko burukatu beharrean. Kasu honetan, hizkuntza gutxiengotua gal zorian aurkituko litzateke eta onuragarriena den hizkuntza nagusituko litzateke epe luzera. Fishman'en esanetan, kasu hauetan hiru belaunaldi nahikoak izango dira hizkuntzaren ordezkapenerako. Ondorio horretara heldu da behintzat bai Ameriketara eta bai Errusian egin dituen ikerketetan ³⁹.

Diglosia, gizartean bi hizkuntza irauteko elebitasun pertsonalaren aukera bat baldin bada, di-ethnia litzateke bikulturalismo pertsonalaren gizarteko aukera. Dietniak gizarte konpartimentalizazioa eskatzen du, eta erakundeen babeseko funtzio berezitasuna. Politika eta ekonomia munduak beren esku ez dituzten gutxiengoek, kultur eta hizkuntza mugak zehaztu beharrean daude, belaunaldi berrien jarraipena ziurtatu nahi badute ⁴⁰.

Beraz, Fishman, hizkuntza biziberritzeko politika zehazterakoan ondorio hauetara heltzen da:

- Diglosia beharrezkoa da, hizkuntza gutxiengotuarenak izango diren barrutiak ziurtatzeko.
- Autonomi ekonomikoa eta independentzi politikoa agian beharrezkoak izango dira.

³⁸ Liburu berean, 41 orr.

³⁹ Liburu berean, 44-45 orr.

⁴⁰ Liburu berean, 51 orr.

- Hizkuntza, agintearen eta modernitatearen goi gailurretaraino hedatzea berriz, akaso lortu daiteken gauza da.

Behar beharrezkoa ordea, hizkuntza politika razionalizatzea da, autore honentzat, emaitzei ahalik eta etekin hoberena ateratzeko ⁴¹.

Hizkuntza politika bideratzea eta kontrolatzea berriz, errezagoa da gobernuko idatzizko kontuetan, bizitza pribatuko elkarhizketetan baino ⁴². Baina, hizkuntza plangintza bat aurrera eramatea, plangintza ekonomiko bat baino zailagoa izaten da; batik bat gizabanakoaren balore, emozio eta ohituretan eragina duelako ⁴³.

2.1.2.4. Galtzearen dauden hizkuntzak nola biziberritu

2.1.2.4.1. *Kultura mantentzeko mugak eraiki*

Etnizitatea, taldearen eta inguruko arteko ezberdintasuna zehaztuko duen muga bat da. Identitate etnikoa sendotzeko, kontzientzia etnikoa behar da, taldea eta besteen arteko mugataz jabetzea. Kontzientzia edo jabetza hau haundiagoa izan ohi da talde etniko txikiak edo ahulak direnean. Talde etnikoak bere barnean ere ez dute aldaezineko batasuna, talde etnikoa ez da bat bakarra, multzo batekoa, taldearen barnean ere badira mugak eta ez dira objektiboak izaten, aktore sozialak beraiek zehazten eta erabakitzen dituzte mugak.

Elkarulertze arrazoiengatik, hizkuntza muga esanguratsua izan ohi da, sinbolikoki mugak funtzioa bete baitezake talde ezberdinen artean ⁴⁴.

Fishman'en ustez hizkuntza gutxiengotuak biziberrituko badira, kultur mugak zehaztu behar dira, hizkuntza gutxiengotua guztiek onartuko duten eremu batzuek ziurtatuz. Hizkuntza gutxiengotuak errespetoa eta kultura horretan bizi ahal izateko babesa lortu ahal izango du.

Nahiz eta gizarte modernoetan ezinezkoa den mugak mantenduz gainontzeko gizartetik aldendurik egotea, muga batzuek zehaztu behar dira helburu zehatz batzuek bideratu ahal izateko. Era honetara, talde horretan kultura erako balore eta

⁴¹ J.A. FISHMAN; "Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika" in: *Jakin* 48, 1988, 5-21 orr.

⁴² J.A. FISHMAN; "Language modernisation and planning in comparison with other types of national modernisation and planning" in: KENNEDY H.: *Language planning and language education*. London, 1984, 38 orr.

⁴³ Liburu berean, 47 orr.

⁴⁴ J.A. FISHMAN: *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. O.C., 33-35 orr.

atxekimenduak indartuko dira eta hizkuntza gutxiengotuak legitimitate bat lortu ahal izango du bertako hiztunengan. Hizkuntza indartsu batekin, era honetara bakarrik izango du hizkuntza gutxiengotuak irauteko aukera.

"The basic desiderata of language-in-culture maintenance are cultural boundaries within Xish is consensually accepted and relatively protected for certain pursuits. These boundaries need not be, should not be, and in modern life they really cannot be fully isolating. Cultural boundaries need not co-occur with simultaneous geographic, political, economic or social boundaries. They do involve a concentrated demographic base, however, the exact size and concentration requirements of which may be modified downward in the light of modern communication capabilities. Within this base, RLS measures can have widespread popular legitimacy, being connected, as such measures inevitably are, with cultural ideas, with cultural values and with cultural identities, all of which are at a sufficiently high level of consciousness and of focussed technical capability to locally compensate for and be in a state of balance with the stronger forces of the larger, surrounding society by which they had previously been outflanked".

2.1.2.4.2. *Belaunaldi berrien jarraipena ziurtatu*

Muga kultural hauek, hizkuntza bat belaunaldi batetik bestera helarazteko bitartekoa eskeintzen dute, eta hizkuntza bat belaunaldi berrietara heltzea da hizkuntza gutxiengotu bat iraunarazteko ezinbesteko eginkizuna, Fishman'en arabera.

Argi utzi nahi du egileak, hedapen zabaleko hizkuntzen transmisioa eta hizkuntza gutxiengotu baten transmisioa ez direla gauza bardinak. Hedapen zabaleko hizkuntzetako gizarteek beren komunikabide eta hezkuntza sistemak kontrolpean izanik, gainontzeko hizkuntzak aberasgarri dira beraiantzat. Hizkuntza gutxiengotuek aldiz, beren iraupena jokoan dutenez, beste hizkuntza baten eraginpean daude.

Hizkuntza gutxiengotuak mantentzeko ahaleginak sarritan eskolaren bidez bideratu dira; lehendik etxean ikasitako hizkuntza lantzeko aukera ematen die ikastetxeak gazteei. Gazteek beren hezkuntzako lehen urteetan eskuratzen dute hizkuntza, baina urte batzuek aurrerago, etxekoa ez den beste hizkuntza nagusiaren esperientziak izaten dituztenean, eta berak eskeintzen dizkien aukera eta sarietaz jabetzen direnean hizkuntza nagusiarekiko joera azaltzen dute.

Hiztun talde batek ez baditu kontrolpean eskolaz kanpoko erakundeak, ikastetxeetako ahaleginak ezin dezake eragin haundirik izan, gazteak ikastetxetik kanpo egingo duen

⁴⁵ J.A. FISHMAN: *Reversing Language Shift*. O.C., 66-67 orr.

hizkuntza aukeran. Epe luzera, belaunaldi berrien artean, hizkuntza gutxiengotuaren jarraipena zalantzan legoke ⁴⁶.

Aitortu beharra dago, gazteak direla eragin ezbardin eta kontraesangarriak jasaten dituztenak. Ikastetxean hizkuntza nazionala ikasten dute ongien, honetaz gain aukera zabalagoa eskeintzen dizkien hizkuntzak ikasten dituzte, gazte-kulturarekin lotura duten hizkuntzak. Hizkuntza hauek nahitanahiez gaztearengan eragina dute, TB, musika, filmeak, komikiak e.a.en bitartez ⁴⁷.

2.1.2.4.3. *Zer egin lehenik*

Hizkuntza gutxiengotuen antzeko kasuan daudela esan genezake, hizkuntza nazional txikiak, bere herrian garrantzia izan arren nazioarte maila lortu ez duten nazio hizkuntzak. Adibide bezala ditugu; Japonesa, Portugesa, Noruegarra e.a. Hizkuntza guztiak daude dinamika batean eta denek aukera bat egin behar dute funtzio batzuek bereganatzeko eta kontrolpean izateko, funtzio edo eremu horietan hizkuntzaren erabilera.

Gobernuko zerbitzuak, lehen mailako hezkuntza eta komunikabideak izan ohi dira, hizkuntzen babesa ziurtatzerakoan garrantzi gehien izaten duten guneak. Nazio hizkuntza txikiak edo nazioarte mailan gutxi erabiliak formula hau erabili badute, antzeko zerbait egin beharrean daude hizkuntza gutxiengotuak ere ⁴⁸.

Aipatzekoa da, Euskalerrian frankismo ondoren eraikitako Autonomi Elkartean hizkuntza politikarako erizpideak zehaztu zirenean, 1983.ean, gune hauexek babestea erabaki zela eta horretan egin direla ahaleginak azkenengo hamar bat urtetan.

Sarritan galzorian dauden hizkuntza gutxiengotuen alde dabilzanek, modernitatearen eta boterearen alorra bereganatzeko ahaleginak egin ohi dituzte, goi mailako hezkuntza, terminologia zientifikoak lantzen e.a. Baina ahalegin horiek, pertsona jakin batzuek bakarrik erakarriko dituzte hizkuntza horretara eta eragin gutxi izango dute, belaunaldi berrien hizkuntza transmisioan.

Hizkuntzari jarraipen bidea topatzeko belaunaldi berriei hizkuntza transmisiora zuzendutako ahaleginak berriz, folklorikotzat jo izan dira, nekazal iragana, kanta, dantza, ipui zaharretan oinarritzen baitira. Hizkuntza politika bideratzen dutenentzat izaugarritzko garrantzia du mundu modernoak; horregatik, hizkuntza gutxiengotua eremu berrienetan erabili ahal izateko gai dela azaldu nahi izaten dute.

⁴⁶ Liburu berean, 363 orr.

⁴⁷ J.A. FISHMAN: *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. O.C., 374 orr.

⁴⁸ Liburu berean, 368-373 orr.

Baina era honetako ahaleginek hizkuntzaren biziberritzean dituzten eraginak aztertuz gero, pertsona zehatz batzuegan bakarrik izan ohi dituztela aipatzen du Fishman'ek, murrizta baida astrofisika eta antzeko gaiak landuko dituztenen kopurua. Bitarte horretan, etxeetan gurasoengandik seme alabenganako hizkuntza transmisioa huts egiten ari bada, denbora horretan lortutako hizkuntzaren biziberritzea baino haundiagoa izan daiteke hizkuntza galera.

Hizkuntza batek jarraipena izateko lehenengo gizarteratze erakundeekin edo bizitzari zentzua ematen diotenekin lotu behar dela dio autore honek. Hizkuntza orok, bizirik irauteko, ideia bat behar du, ondoko osagai hauez osatua: izaki etnolinguistiko berezia, besteetatik apartekoa, izaten jarraitu beharra.

Egoera onean dauden hizkuntzetako hiztunak ez dira ideia horretaz jabetzen, baina egoera txarrean aurkitzen diren hizkuntzetako hiztunei hizkuntzaren etorkizunean duten erantzukizuna, gogorazi behar zaie. Horretarako informatu, saritu, gidatu egin behar dira: familia, auzoa, oinarrizko eskola, eliza e.a.

"Ordezkaezinak dira, bide batez, txiki-txikitik hasita bizitza osoan zehar erakundeok bultza ditzaketen ideiak; ordurarte izan direna izaten jarraitzeko duten eskubideaz eta izaten jarraitzeko obligazioarena. Ezin ordezkaturiko funtzioak dira horiek, beraz, jatorrizko funtzioei bere horretan eutsi nahi bazaie. Guztiz beharrezkoak izateaz gain, horiek berreskuratu behar dira lehen-lehenik: horiek gabe ez bait dago, astrofisika euskaraz ikasten dutenak gero eta gehiago izanik ere, belaunez belaun transmititzen den jaiotz-kuntzazko funtziorik ⁴⁹".

Etxe eta herrigiroa kontrolpean izateak, alor horietan galtzear dagoen hizkuntza berindartzea esan nahi du. Beraz Fishman'entzat, komunitateko herrigintza, komunitateko politika, komunitateko ongi izatea, komunitateko erakundeak, komunitateko bizitza eta ekintzak garrantzitsuagoak dira goi mailako hizkuntza politikak baino.

Lehen mailako barruti etnokulturalak ziurtatuz gero bakarrik eman daitekeela benetazko hizkuntzaren biziberritzea dio Fishman'ek. Ahalegin honetan berriz, hizkuntzarentzat kaltegarriagoa da, gazteen transmisioa etetzea, folklorizazioan erortzea baino Fishman'en ustez.

Azken finean hiztunaren berezkotasuna da etnolinguistikazko izatearen arrazoia eta bizirik irautean dago oinarria; bakarra izatearen sentimendua, besteengandik apartekoa izatearen sentimendua, hiztun herri jator bat osatzearena e.a.

⁴⁹ J.A. FISHMAN: "Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika" in: *Jakin* 48, 1988, 15 orr.

2.1.2.4.4. *Galtzar dagoen hizkuntza biziberritzeko eman beharreko urratsak*

Fishman'ek dioenez, eguneroko bizitzan garrantzi handia duten guneak eskuratu behar ditu galtzen doan hizkuntza batek: familiarako harremanak, auzoa, elkarteak e.a. Hizkuntza bat zenbat eta egoera txarragoan egon orduan eta eragin gutxiago izan dezakete maila haundiko hizkuntza politikek. Lortu ezinezko helburuen bila abiatzea, indarrak eta motibazioak alperrik galtzea bailitzateke.

Sarritan salatu izan zaio hizkuntza gutxiengotuen defendatzaile bati, bere ahalegina ideologizatua izatea. Baina Fishman'en ustez posizio guztiek dute oinarri filosofikoren bat; hizkuntza gutxiengotuen defendatzaileak gauza batean ezbardintzen direlarik, bere helburuak eta asmoak ezagutarazteko bitarteko gutxiago izatean ⁵⁰.

Hizkuntza gutxiengotuen biziberritzea pausuz pausu eman eta lehentasunak zehaztuz: 8 urratsetan azaltzen du Fishman'ek hizkuntza gutxiengotuen biziberritzeko prozesua.

Hizkuntzaren biziberritze lanetan erabilitako ahalegin eta denboraren etekina ona izan dadin, erabiltzen diren bitartekoen modernotasuna eta dotoretasunak baino garrantzi handiagoa du transmisioaren lorpenak.

Prozesu honetan 8 urrats zehazten ditu 8 garrenetik hasi eta lehenengoraino bideratu beharrekoak, aurreneko lau urratsak oinarrizkoenak izanik.

8. urratsa- Kodearen definizioa eta zehaztasuna; hizkuntzaren arauak zehaztea, gramatika, fonologia, e.a.
7. urratsa- Komunitateko helduek hizkuntzaren inguruko ekitaldi publikoetan partehartzea, motibazioa eta talde konpromesua piztu eta indartzeko helburuarekin.
6. urratsa- Etxea, auzoa, familia eta komunitatean hizkuntza indartzea. Gune hau da hizkuntza belaunaldi berriei transmititzeko muina eta nahitaezkoa hizkuntza biziberritzeko. Gizarteratzea, identitatea eta taldearekiko konpromesua lehenengo urteetan eraikitzen dira, nortasun honen iraupena berriz, komunitateko komunikazioaren eraginpean dago.

Guraso eta hauren arteko lotura indartu eta zaindu behar da, eguneroko famili, auzo, etxe eta komunitate bizitzan. Urrats hau nahitaezkoa izanik ere, bera bakarrik ez da nahikoa hizkuntza biziberritzeko.

⁵⁰ J.A. FISHMAN: *Reversing language shift*. O.C., 10-35 orr.

5. urratsa- Hiztunari hizkuntza baliabide gehiago eskeintzea, honela bere hizkuntzan errekurtsu gehiago izan ditzan. Eskolaratzea eskatzen du urrats honek.

Orainarteko urrats hauek, gizarte elebidun bat sortzeko aukera ematen dute, diglosiaren lorpena ematen dela esan daiteke lau urrats hauen bidez. Ondorengo lau urratsak berriz diglosiatik, botere banaketa gehiago lortzeko ahaleginak biltzen dituzte.

4. urratsa- Hezkuntzaren bidez hizkuntza zabaltzea. Legearen aldetik laguntza ez bardinak izan ditzake, beharrezko hezkuntzan ezartzea adibidez. Honen bidez Estatuak familia eta auzo mailan eragiten du. Legearen laguntzarik gabeko ikastetxeak eraiki daitezke hizkuntza gutxiengotua indartzeko helburuarekin, baina honek kostu haundiagoa izango du. Bestalde hezkuntza publikoa onartu dezake botereak hizkuntza gutxiengotutako haurrentzat, baina era honetara baliteke, hizkuntza gutxiengotuak kulturaren arautze egokia ez izatea eta honen bidez eragin txarrak izatea hizkuntza biziberritzeko.

Dena dela, hezkuntzaren bidez egiten diren ahaleginak, eragin ona izango dute famili eta auzoko munduan sustraituak badaude. Esperientziak ere baditugu eskolak bere kasa hizkuntza gutxiengotua biziberritzea ez lortzearenak, eta hemen Irlandaren kasua aipatu behar.

3. urratsa- Lan munduan hizkuntza gutxiengotua ezartzea. Eragin haundiko mundua dela lan mundua dio Fishman'ek, mundu razionala, beste etniekiko, beste hizkuntzekiko harremanei eta modernitateari gehien lotua dagoen eremua baida. Bereziki lan mundua, hizkuntza gutxiengotuen ahaleginak ezartzeko, kontrolatzeko eta eragiteko zaila dela dio.

Bestalde, lan mundua eta hizkuntza transmisioak lotura oso urruna dute, eta hizkuntza biziberritzeko edozein ahaleginak 6.urratsarekin lotura kontutan izan behar dutela gogoratzen digu.

2. urratsa- Gobernuaren zerbitzuak herrikideekiko, herri komunikabideak barne. Herrikidearen eguneroko bizitzarekin lotura zuzena du urrats honek, hizkuntza gutxiengotua erabiltzeko giroa eta erabilerarako gunea sortzen baitu. Beti egongo dira zerbitzu gehiago eta komunikabide gehiago hizkuntza nagusian, eta hizkuntza nagusiaren bitartekoez hizkuntza transmisioa etetean eragin gehiago izan dezakete, hizkuntza gutxiengotuaren aldeko bitartekoez indartzen baino. Hala ere familia eta auzo mailan ematen ari den prozesua mantenduz, hizkuntza gutxiengotuaren nortasuna osatuz, komunitatea antolatuz eta gaztearen gizarteratzean eragina izan dezakete.

1. urratsa- Autonomi kulturala lortzea, hezkuntza, lana, komunikabide eta gobernuaren lanak hizkuntza horretan bideratu ahal izatea.

Esan behar dugu, azken urrats hauen eraginak zeharkakoak direla eta ez zuzenekoak.

Aztertutako azken lau urratsak modernitatearen erakundeekin eta kultur autonomiaren egiturekin loturik daude. Fishman'en ustez hizkuntza gutxiengotu askok ezin ditzakete bere esku izan baldintza hauek, ezta etorkizunerako horrelako zerbait amestu ere. Era berean hizkuntza gutxiengotu batek nahiz eta urrats hauek eskuratuak izan, 6.urratsa ez badu egoki betetzen etorkizunean hizkuntzaren jarraipena ez du ziurtatua izango. 6.urratsean edo hizkuntza transmisioan dago beraz hizkuntza biziberritzeko giltza Fishman'en ustez.

Zailagoa da auzo eta familietan hizkuntza gutxiengotua indartzea, ikastetxeak antolatu eta idazti batzuek argitaratzea baino. Baina lehenengoak hizkuntza transmisioa bideratu lezaken bezala, bigarrenak ez du hori lortzen, denbora zehatz eta leku batetara mugatzen baida, eguneroko intimitate edo gizarteratzean oinarritu gabe.

Fishman'ek mundu osoan hizkuntza gutxiengotu ezbardinaren arteko egoera aztertu ondoren, honako egoera aurreikusten du hizkuntza ezbardinenzako: Euskara salbatu daitekeen egoera batean ikusten du eta gainera hobetzen doana; Hebraiera, Katalana eta Quebekeko frantsesa ikusten ditu egoera onenean; eta egoera egonkor batean legoke gaelikoa Irlandan⁵¹.

Ondorio bezala Fishman'ek berriro gogorazten digu, hizkuntza gutxiengotu batek ezin duela inoiz gizartean nagusitasuna duten hizkuntzei bere lekua kendu. Beraz, iraupena lortu nahi bada, eremu batzietan eta funtzio zehatz batzuek bideratzeko erabili beharko da. Fishman'ek intimitatearen eremua, norbere kultura mantentzeko garrantzitsua ikusten du.

"The weakest can never successfully compete with the strongest vis a vis the control of universities, the mass media, good jobs and the impersonal and unrelenting governmental prerogatives related to mass modernization and post modernization. Initially those who are weak can only compete for control over their own intimacy and then strive to go on from there, from the firm foundation of their own 'little culture' to the possible greater regulation of selected corners of their own modernity. They must begin their RLS- efforts close to the direct intergenerational mother tongue transmission nexus and move on, slowly and gingerly, from there, doing so only as those processes that stand further from that nexus can be both regulated and focused more fully on that link itself⁵²".

⁵¹ Liburu berean, 387-412 orr.

⁵² Liburu berean, 413 orr.

2.1.2.4.5. *Hezkuntza elebidunaren lorpenak eta mugak hizkuntza biziberritzek ahaleginetan*

Garai hauetan, eskolari garrantzi haundia ematen zaio gazteen jarrera, jokaera eta ohitura transmisioan duen garrantzia dela eta. Egia da eskolak bere zeregina baduela hizkuntza eskuratu eta hitz etorria lortzeko nahiz alfabetatzeko, eta era berean hizkuntzarekiko jarreraren indar emaile bezala, gune ideologiko, historiko, moral eta kulturala bat eskaintzen duenez.

Hala ere, eskolaz kanpoko eragileak ere beharrezkoak dira gazteak eskolan jaso duen ezagutza indartu eta sendotzeko. Gizarteak bi eratako loturak eskeini diezaizkioke gazteari: batetik, sentipen eta emozioetan oinarrituta, intimitate alorrean pertsona ezagunen, adiskideen eta familiartekoen maitasun giroa, babesa eta oniritzia. Bestalde, indartzaile instrumental praktikoa, gizarteak eskeintzen dituen sariak, lanpostuak nahiz posizioak, edo gizartean arrakasta eta lorpenen seinaleak.

Eragile hauek ez daude ordea eskolaren esku soilik, beste eragile askoren eraginpean baizik. Beraz, eskolan, nahiz lanean, komunikabideetan eta gobernuan erabiltzen den hizkuntza ez da horrenbestez hurrengo belaunaldiaren ama hizkuntza bihurtzen. Eskolan jasotako hizkuntzak bere leku babestua topatu behar du, Fishman'ek dioenez, etxegiroan, auzoan, bizitza eramaten den gune hurbiletan. Ez eskolak eta ez langiroak edo komunikabide edo gobernu alorrak ezin ditzakete, etxegiro edo auzuneko eginkizunak bete edo gurasoen lana ordezkatu. Ama hizkuntza txikitatik transmititu behar izaten da intimitate eta identitatearen bidez.

Baina, hiriko bizitza modernoan, gaztearen gizarteratzean familiaren zeregina ahuldua aurkitzen da, eragile ezbardinen zatikatzea ematen delarik. Gauza honek asko zailtzen du hizkuntzaren biziberritze lana. Eskola adineko gazteak geroz eta gehiago gizartearen eraginpean daude, familiaz eta auzoaz kanpo: haurtzaindegia, eskola ondoko orduak, asteburuak, jolas taldeak, jantokiak, kiroldegia e.a.

Lanerako euskara eskatzeak, ez dakar berekin, besterik gabe, euskara transmititzea, baldintza egokiak behar dira bai sendian bai auzoan bai eskolan belaunaldi berriek euskara jasoko badute.

Beraz, eskola hizkuntza biziberritzeko lehen pausu eta nahikotzat jo izan da, baina hizkuntzaren biziberritze lan horrek jokaera integratu eta mailakatu bat eskatzen duela gogoratzen digu Fishman'ek; eta eskola prozesu zabal eta konplexu horretako zati bat bezala ulertu behar da³³.

³³ J.A. FISHMAN; "Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan" in: *Euskal Eskola Publikoaren I Kongresua*. Eusko Jaurkitzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, I.Liburukia, Gasteiz, 1990, 181-188 orr.

Fishman, hezkuntza elebidunaren lorpenei buruzko ikerketa lanetan ondorio batetara iritsi zen: hezkuntza elebidunak erabiltzen dituen bi hizkuntza, bai hezkuntza sisteman lehen maila duen hizkuntza nahiz bigarren mailako garrantziaz irakasten den hizkuntza, ama hizkuntzaren eraginpean daudela hain zuzen ere. Hezkuntza elebidunak ematen dion garrantzia emanda ere, norberaren ama hizkuntza denean hizkuntza lorpena altua izan ohi da.

Badira ordea beste aldagai batzuek hizkuntza lorpenean eragiten dutenak, lehen mailan irakasten den hizkuntzaren ezagutza lortzeko garrantzitsua da hizkuntza hori ikastetxetik kanpoko erakunde formalen hizkuntza ere izatea, bestetik bigarren mailan irakasten den hizkuntza ikasteko zer esana du, hizkuntza horrek mundu mailan duen hedapenak.

Beraz, gazteek hizkuntza hauen ikasteen lorpenak izan ditzaten, eskolatik eta etxetik kanpo dauden erakundeetan edo mundu mailan, garrantzia eta lekua izan beharko dute. Ez da beraz Fishman'entzat nahikoa izango, ez etxean lantzea ez eta eskolaren esku ustea zeregin guzia ⁵⁴.

⁵⁴ J.A. FISHMAN: *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. O.C., 428 orr.

2.1.3. IZAN NAHIA EDO MOTIBAZIOAREN GARRANTZIA HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAN (J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX")


Txepetxen ustez, motibazioa izango da hizkuntzaren erabilera eragiten duena. Hizkuntza gutxiengotua ama hizkuntza bezala jaso dutenengan, *motibazio kulturalak* eta hizkuntza gutxiengotua bigarren hizkuntza modura ikasi dutenengan, *berezko motibazioak* eragingo dute hiztun hauen hizkuntza erabileran.

Hiztun batek kultur mailan hizkuntza gutxiengotua erabiltzeko beharra sentitzen duenean hasten da hizkuntza horrekiko motibazio kulturala indartzen; era honetara osatzen delarik hizkuntza ikastearen bigarren bidea. Hizkuntza hau ama hizkuntza duten hiztun kulturizatuek eta heldu natibizatuek, *hiztun osoen* taldea edo hizkuntzaren *eremu sinbolikoa* osatzen dute. Hizkuntzaren indarra hiztun hauen kopuruan legoke eta ez gainontzeko hiztunen zenbatekoan.

Txepetxen ustez, nahiz eta laguntza instituzionalak ere lagungarriak izan daitezkeen, hiztunen *izan nahia* izango da funtsezkoena hizkuntzaren normalizazioa lortzerakoan.

2.1.3.1. Hizkuntza ikasteko bi bideak

Hiru eragilek eragiten dute hizkuntzaren ikastea Txepetxen esanetan; motibazioa, ezagutza eta erabilera, hirurak elkarrengandik bereziak eta aldi berean elkarren osagarriak izanik.



Hiru eragile hauek, berezkoak edo izatezkoak ala kulturazkoak izan daitezke. Txepetxek, bi eratako ikaste prozesu bereizten dizkigu, bata hizuntzarekin harreman zuzenean ematen den ikastea, *haurren hizkuntzaren ikastea* eta bestea bigarren mailako ikastea -behin adin batera iritsi eta gero- edo *helduen eta gazteen ikastea*.

Bi prozesu hauek hizkuntzaren ikasteari heltzeko moduan ezbardintzen dira. Bi prozesuak puntu ezbardinetatik abiatzen dira, haurren kasuan erabileratik hasten da hizkuntzaren ikastea, hizkuntza erabiliz iristen da ezagutzera eta ikasten ari den neurrian berezko motibazio baten jabe egiten da. Hizkuntzaren benetazko erabilera aukeren erabilgarritasunari, errealitatearen ezagupenean eskeintzen dion laguntasuna gehituz, sortzen da haurrengan hizkuntzarekiko motibazioa. *Izatezko motibazioa* edo intrinsekoa deituko dio Txepetxek motibazio honi.

Heldua berriz, arrazoi ezbardinek eraginda hasten da hizkuntza bat ikasten, arrazoi kulturalak, profesionalak, politikoak, familiarak, erligiosoak e.a. Motibazio honi Txepetxek *Motibazio razionala* edo extrinsekoa deituko dio.

Haur batek ez badu hizkuntzaren erabilera nahikoa izaten, ez da iristen hizkuntzaren ezagupen fonetiko, lexikal edo gramatikal egokia izatera. Era berean hizkuntza ez bada erabiltzen, haurrak ez du hizkuntza horrekiko nahiko izatezko motibaziorik lortzen eta honek etsipena edo *motibazio falta* bat sortzen du beregan. Egoera honetan beste hizkuntza bat erakargarriagoa gerta dakioke haurari eta honek hizkuntzaren ordezkapena ekar dezake.

Bestalde, helduen motibazio razionalak, hizkuntza horren ezagutza bultzatuko duen barneratze maila lortu beharko du, hiztunak hizkuntzaren ezagutza lortu eta hizkuntza hori erabiltzeko gai izan dadin. Erabilerak nahikotasun maila ez badu izaten, *erabilera falta* horrek konfidantza eta haserako motibazioa galtzera eramanez dezake ikaslea.

Hizkuntzaren berezko ikaste batek, bere bidea jarraitu dezan, motibazioak nahikotasun maila izan behar du, hau da kontzientzia linguistikoa. Bestalde, bigarren hizkuntza ikasten duenak hizkuntza berria barneratu eta izatezko erabilera eskuratuko badu, hizkuntzaren erabilerak nahikotasun maila izan beharko du. Haurrak bere ama hizkuntzan kontzientzia linguistikoa bereganatuko badu eta heldua hizkuntzaren erabilera natural bat lortzera iritsiko bada, beharrezkoa da haurrak gehienezko erabilera eta helduak gehienezko motibazio bat izatea.

Haurrak zenbait arlotan ezin badu bere hizkuntza erabili, bere gizarte inguruan, komunikabideetan edo ikastetxean beste hizkuntza bat nagusitzen delako, bere hizkuntzaren erabilera ez da nahikoa izango motibazioa nahikotasun maila batera iristeko.

Helduaren kasuan berriz, motibazioak nahiko maila lortzen ez badu, hizkuntza ikasteko arrazoiak izan arren, bestelako interesak aurkako joera bat hartzera bultzatuko dute ikaslea. Kasu honetan duen motibazioa ez da nahikoa izango, beharrei aurre egin eta ikasten ari den hizkuntza horretan berezko erabilera bat izatera iristeko.

Azkenik Txepetxek, lurralde batetako gizarte baldintzek haurraren gehienezko hizkuntza erabilera bideratzeko aukera emanez gero, helduen motibazioa razionala ere indartzea lortu daitekeela aipatzen digu. Era berean helduen motibazio razionala indartzeak, haurren erabilerari eutsi diezaioke.

Txepetxek azaltzen dizkigun hizkuntza ikasteko bi bideak, zirkuito baten bi bide ezbardin liraterke. Lehenengo bidea haurraren ikastea izanik eta bigarrena helduarena⁵⁵.

2.1.3.1.1. *Bigarren mailako hizkuntzaren ikastea*

Euskal Autonomi Elkartean nahiz euskara hizkuntza ofiziala izan, euskararen giza balorazioak ez du nahikotasun maila, gizarteak gaztelera ikastera bultzatzen duen bezala ez baitu euskara ikastera bultzatzen. Beraz, euskarari eutsi ahal izateko, euskara jaiotzez eskuratu dutenek, euskara ikasteko bultzadarik ematen ez dion gizarteko errealitate horretatik babesa lortu behar dute.

Bestalde, hizkuntzaren motibazioak eraginda lortzen den hizkuntzaren ezagutzak, erabilera behar du ezagutza hori sendotu dadin. Beharrezkoa izango da gehienezko motibazio bat, egoera txarrean aurkitzen den hizkuntzaren kasuan. Baina motibazioaren hainakoa izan behar du erabilerak ere, baldin eta hiztunak duen ezagutzari eutsiko badio⁵⁶.

Hiztunak, ikasitako hizkuntzaren bidez gizarteko funtzio batzuek betetzeko beharra izan behar du. Baina zeintzuk liraterke funtzio hauek? Hiztuna ikasten ari den hizkuntzak bizitzako eremu intimoenetan, hau da familian, lagunartean e.a., zenbat eta erabilera gutxiago izan, orduan eta gehiago bultzatu behar da bere erabilera kanpoko eremuetan, ezagutzari eutsi ahal izateko. Eta gizarteak hizkuntzaren erabilerarako aukera gutxi eskeintzen baditu, hizkuntza honen erabilera familian eta lagunartean indartu beharko da, batez ere hizkuntza horretako hiztunekiko harremanak ugarituz⁵⁷.

Bigarren hizkuntza ikasten ari den hiztunak nahiko erabilera lortuz gero, ikastearen prozesuak bigarren bidea har dezake, natibizazioaren bidea, erabileratik hasiz hizkuntza bereganatzen. Era honetara hizkuntza eremu intimoenetan sartzen da eta hiztunak erabilera naturala edo izatezkoa lortzen du, bigarren hizkuntza hiztunaren pentsamenduaren hizkuntza bihurtuz. Egoera honetan helduak haurraren hizkuntza

⁵⁵ J.M. SANCHEZ CARRION "TXEPETX": *Un futuro para nuestro pasado*. 2.ed, S.F.V Julio Urquijo, Adorez eta Atseginez, Donostia, 1991, 35-42 orr.

⁵⁶ Liburu berean, 47 orr.

⁵⁷ Liburu berean, 48 orr.

ikastearen bide bardina hartzen du, baina haurrekiko ezbardintasun batekin, heldu honek hizkuntzaren motibazioa eta ezagutza kulturalak eskuratuak dituela dagoeneko⁵⁸.

2.1.3.1.2. *Lehenengo hizkuntzaren ikastea*

Kasu hau haur baten ama hizkuntzaren ikastea litzateke, haurrak erabilgarria ikusten du ikasten ari den hizkuntzaren erabilera, bere esperientzia adierazteko eta beharrei erantzuteko atsegina egiten baitzaio hizkuntza erabiltzea. Haurrak hizkuntzarekiko izatezko motibazioa eskuratzen du.

Baina haur baten hartuemanetarako hizkuntzaren beharrak oso ugariak izan ohi dira, beste haurrekiko hartuemanak, helduen harremanak, komunikabideak, eskolaratzea, jolasak, abestiak e.a.

Gizarte batean hizkuntza batek zenbat eta egoera txarragoa bizi, orduan eta babes gehiago topatu beharko da haurrak hizkuntza gutxiengotuari eutsi diezaion. Haurrak elebitasuna goizegi jasotzea ekidin eta intimitateari lotutako arloetan hizkuntza gutxiengotua bakarrik erabiltzea bultzatu beharko da. Hizkuntza gutxiengotuak esparru batzuetan bada ere hizkuntzaren erabilera osoa ziurtatu beharra dauka.

Hala ere, Txepetxen ustez ez da beste hizkuntzetatik aldendu behar, hizkuntza gutxiengotuan motibazioa, ezagutza eta erabilera lortuz gero gainontzeko hizkuntzekiko ere lortu behar da motibazio bat, Humanitatearen Hizkuntza ulertzeko haina behinik behin. Humanitatearen Hizkuntzaren izaera ulertzeko gai izango da hiztuna eta gizakiaren errealitatea onartzera iritsiko litzateke.

Honetarako hizkuntza ezbardinek, oreka bat lortu behar dute, hizkuntza ezbardinen erabilera eremuka banatuz, bestela hizkuntza inperialismo batean eroriko ginatke⁵⁹.

Baina noiz lortzen du hiztun batek hizkuntza batekiko nahiko motibazioa? Motibazioak hizkuntzaren ezagutzari eta erabilerari eusten dionean.

Haurrak hizkuntzaren nahiko motibazioa izan dezan, ama hizkuntzaren motibazioa kultural bat ere lortu behar du, berezko motibazioak ezin baidio eutsi bere kasa hizkuntzaren ezagutza eta erabilerari. Hiztunak motibazioa kulturalik ez badu izaten, bere hizkuntzari kultura mailan aritzeko gaitasun eza atxekiko dio. Hiztunak bere hizkuntzan bideratzeko behar batzuek izango ditu, profesionalak, kulturalak, hezkuntzazkoak, eta behar horiek bere hizkuntzan ezin baditu bete, beste

⁵⁸ Liburu berean, 49-50 orr.

⁵⁹ Liburu berean, 55-58 orr.

hizkuntzekiko erakargarritasuna indartu daiteke, hiztunarengan hizkuntzaren ordezkapena eraginez.

Hiztunak ez ditu bere bizitzako funtzio guztiak edo gehienak bere hizkuntzan bete behar, baina bai bere gizarte bizitzan normaltasunez bizi ahal izateko behar dituenak. Hau dela eta garrantzitsua ikusten du Txepetxek, atzerriko hizkuntza batek komunitatea egituratzen duen funtzio bat ez eskuratzea ⁶⁰.

Hiztun batek lehenengo bidea bete ondoren, kultura mailan hizkuntza erabiltzeko beharra sentitzen duenean hasten da hiztun honengan hizkuntzaren ikastea osatzen duen bigarren bidea. Hiztunak motibazioa razional edo kultural bat edo kontzientzia linguistikoa bat lortzen du, hizkuntzari balore kultural berezi bat atxekiz. Kasu honetan iritsiko litzateke hiztuna hizkuntza ikastearen prozesu osoa betetzera.

2.1.3.2. Eremu sinbolikoa

Txepetxen ustez, hizkuntza batek iraun ahal izateko bere *espazio sinboliko* berezi bat beharrezkoa du. Txepetxek dionenez, hizkuntzak bi funtzio ezberdin izan ditzake baina bi funtzio hauetatik bat izango da funtsezkoa:

" Si la primera de estas funciones es la más externa, la más periférica a la lengua misma (por mucho que sea el espacio y el tiempo que ocupe para sus hablantes) la segunda es la más central o nuclear, por pequeña que sea. Si la primera es estrictamente social -esto es, socialmente condicionada-, la segunda es básicamente personal (no puede ser "masiva" nunca). Si la primera cubre lo que podemos llamar los espacios materiales del campo lingüístico (ya sean éstos, formales, informales, orales, escritos, altos o bajos) la segunda ocupa el espacio que hemos convenido en llamar espacio nuclear o espacio simbólico. Espacio que estará ocupado por el *núcleo de personas que piensan en ese idioma*: que desde esa lengua formulan sus propios interrogantes racionales (esto es, con sense) y en algún caso aventuran sus propias respuestas. Este espacio atraería hacia sí, como un imán, a una porción de hablantes -situados en la periferia- más amplia que incorporan las relaciones de apalabramiento o procesos del pensar que efectúan los primeros ⁶¹."

Beraz, hizkuntza baten bizi indarra eta izaera erabakiko duena espazio sinboliko bat izango da. Hizkuntza batek beharrezkoa du hizkuntza horretan ideiak egituratu eta sormena adierazten duten hiztunak izatea, bestela beste hizkuntza batean topatuko baitute hiztunek.

⁶⁰ Liburu berean, 59-61 orr.

⁶¹ J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX": *El espacio bilingüe*. Eusko ikaskuntza, Burlada, 1981, 31 orr.

Baina, Txepetxek ez du uste, edozein hiztunek bete dezakeenik funtzio sinbolikoa hizkuntza batean. Bai ama hizkuntza duten hiztun kulturizatuak eta bai heldu natibizatuak, hau da, hizkuntza ikastearen bide osoa egin duten hiztunak lirateke Txepetxentzat *hiztun osoak*. Hiztun oso hauek osatuko lukete hizkuntza baten eremu sinbolikoa. Hizkuntza baten indarra ez legoke beraz hiztun kopuruan, hiztun oso hauen kopuruan baizik ⁶².

Honela azaltzen digu Txepetxek eremu sinbolikoa:

"El núcleo de hablantes que dotan a su lengua de su desarrollo completo o, correlativamente, el núcleo de hablantes que tienen un desarrollo lingüístico completo en esa lengua ⁶³".

2.1.3.3. Hizkuntzaren funtzioak

Txepetxek hizkuntza baten funtzio ezbardinak zehazten dizkigu:

- Nazioarteko hizkuntzaren funtzioa
- Zibilizazio hizkuntzaren funtzioa
- Nazional funtzioa
- Komunitate edo erregio funtzioa
- Lan munduko funtzioa
- Familiarteko funtzioa
- Identitate funtzioa

Funtzio hauetatik, azkenengo bi funtzioak berezko ikastearen eraginpean daude, honela ama hizkuntza bezala jasoko duten gazterik ez balego hizkuntza horrek ezingo lituzke haserako funtzioak bete. Aurreneko bi funtzioak berriz, bigarren mailako ikastearen menpe daude, honetarako hau da zibilizazio hizkuntza izateko, beste hizkuntzetako hiztunen interes kulturala beharko litzateke.

Baina hizkuntza guziek nazioarteko funtzioa ez dutenez betetzen, hizkuntza ezbardinen arteko oreka hizkuntza gutxi batzuen aldera desbideratua dago; hizkuntza gutxi hauek gainontzeko funtzioak ere bete ditzaketen bitartean, gainontzeko hizkuntzek ezin baitira nazioarteko funtzio hau betetzera iritsi.

Nazioarte mailan gehien erabiltzen diren hizkuntzak era berean, ohore haundiena dutenak edo hizkuntza estimatuenak dira, hizkuntza baten estimazioa gizartean betetzen dituen funtzioen arabera baita.

⁶² J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX" : *Un futuro para nuestro pasado*. O.C., 62-64 orr.

⁶³ Liburu berean, 64 orr.

Txepetxek hizkuntza denak alkarrekin borroka batean ikusten ditu, maila ezbardinetik ari dira ordea borrokan hizkuntzak. Prozesu hau berriz dinamikoa da, hizkuntza bakoitzak duen lekua aldakorra izanik.

Hizkuntza guziak kulturak dira, baina hiztunek hizkuntza ezbardinak kultura bezala baloratu behar dituzte hauek kultura bihurtu daitezen; horretarako berriz beharrezko ditu hizkuntza batek, hizkuntza nazional baten funtzio guziak betetzea. Hiztunek bere hizkuntza kultura bezala ez badute baloratzen, beste hizkuntza bat ikusiko dute benetazko kultura hizkuntza bezala, bere hizkuntza ordezkatzera iritsi daitekelerik.

Txepetxen ustez, hizkuntza batek irautea nahi badu, *nazio hizkuntza bakarraren funtzioa* eskuratu behar du, gizarte batean hiztunek hizkuntza nazio mailan beharrezkoa denean hartzen baitute kultur hizkuntza bezala ⁶⁴.

Hizkuntza baten gutxiengotu egoera, gutxiengoaren hizkuntza izatearen arrazoi bezala azaldu ohi da. Gutxiengotuak berriz, hizkuntzaren egoera kualitatiboa esan nahi du eta gutxituak kuantitatiboa. Hizkuntzak oinarrizko eta funtsezkoenak dituen funtzioak galduz gero, gutxiengotu egiten da, kasu honetan hizkuntza hau ziklo batean sartzen da, garrantzia galtzen du hiztunengan eta era berean egoera honek, hiztunak eta lurraldea galtzera darama.

Sarritan aurkeztu izan da hizkuntza baten gutxitu egoera gutxiengotu bezala. Hau da hizkuntza bat hiztun gutxik erabiltzen dutelako iritsi dela funtzio gutxi betetzera eta honek eraman duela galtzeko bidera. Hizkuntza hauek bere bizitzaren zikloa beteko balute bezala, honela gutxiengoaren hizkuntzak ez luke etorkizunik izango eta bere galera justifikatua egongo litzateke ⁶⁵.

Txepetxek honen adibide modura, Nafarroako herri batean ezagutu zuen euskararen galtze pozesua aipatzen digu. Herri honetako erdalduna hiztun bakarra izan arren ere, bere bizitza osoan erdara erabiliaz, gainontzeko herri guzia berarekin ulertu zedin erdara ikastera bultzatu zuen. Hiztun hau hain zuzen ere herriko idazkaria eta aldi berean praktikantea zen, beraz bi funtzio hauek erdaraz betetzean herri osoa erdalduntzea lortu zuen ⁶⁶.

Euskara normalizatzeko nahiko motibazioa edo izan nahia ez dutenek ere, euskaraz izateko nahia duten hiztunengan eragina dute; euskaraz betetzen dituzten funtzioak

⁶⁴ Liburu berean, 75-82 orr.

⁶⁵ J.M. SANCHEZ CARRION "TXEPETX"; "Bilbao y el euskera" in: *Euskara Bilbon*. Bilboko Udala, Bilbo, 1991, 52-53 orr.

⁶⁶ Liburu berean, 53 orr.

erdaraz bete araziz eta euskarari funtzio gutxiago utziz, euskal hiztunaren izanahien aurkako eragina du, euskararen balio eza sinistu erazten baitu.

2.1.3.4. Hizkuntza normalizazioa

Hizkuntza normalizazioa lortzeko Txepetxek, *hizkuntza boterearen berbanaketa soziala* eman behar dela uste du. Hau da hiztun osoak bere hizkuntzan bizi ahal izateko baldintza soziopolitiko egokiak sortu behar dira. Baina, gobernuak hizkuntzaren egoera ezin dezakeela aldatu gogoratzen digu. Hiztunak berak salbatu behar du beraz bere hizkuntza eta horretarako salbatzeko nahia izan behar du, honekin batera laguntza instituzionalak ez ukatzea ere lagungarri izango zaio, baina *hiztunen iraun nahia izango da funtsezkoa*. Jarrerak edo motibazioak garrantzia du beraz Txepetxek normalizazioaren ikuspegian ⁶⁷.

Gutxiengotu egoera bizi izan duten herrietako esperientziek erakusten digutenez, bai Irlanda eta bai Quebecekoak, hizkuntza bat ezin da dekretu bidez berreskuratu. Hizkuntza bat berreskuratzeko hizkuntza komunitateak bildu egin behar du, eta izan nahia sortu bere hiztunengan, hau izanik iraupen erreala bermatuko duen baldintza bakarra. Hau ematen bada, hizkuntza komunitateak legearen aurka indar egin ahal izango du, legea errealitatera egokitzea eskatuz. Baina hizkuntza komunitateak ez du bere ardurakoa den zerbait, gobernuaren ardurapean utzi behar ⁶⁸.

2.1.3.5. Diglosia eta elebitasuna

Txepetxek, diglosia botere linguistikoaren distorsio politiko-sozial bezala ulertzen du. Botere linguistikoa berriz, hizkuntzarekiko kontzientzia, ahalmena eta erabileraren batuketa bat litzateke.

Hiru planotan eragiten du diglosiak, hizkuntzaren planoan: hizkuntzaren funtzioak galduz, komunitate linguistikoan; beste hizkuntza baten ikastea ezarriz hiztunen zapalketa emanez; eta azkenik, plano indibidualean, hizkuntza identitatea galduz ⁶⁹.

Diglosiak neurri ezbardina izan dezake kasu bakoitzean, hizkuntza dominatu eta dominatzailearen artean zenbat eta maila gehiago izan, orduan eta diglosia haundiagoa izanik.

Hiru eratako diglosiak bereizten dizkigu Txepetxek:

⁶⁷ J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX": *Un futuro para nuestro pasado*. O.C., 203-204, 214 orr.

⁶⁸ Liburu berean, 384-385 orr.

⁶⁹ Liburu berean, 344 orr.

- *Semi diglosia* edo *seudodiglosia*: Arabe klasikoa eta arabe magrebiaren arteko funtzio banaketa Marokon.
- *Diglosia partzial* edo *funtzionala* deitzen dio, lurralde batean gutxiengotua den hizkuntzak funtzio ezbardintasuna jasaten badu. Yugoslavia/Italia, Dinamarka/ Alemania edo Belgikako kasuan.
- *Diglosia osoa* edo *territoriala*, hizkuntza gutxiengotuak beste inungo lurraldean ez badu funtzio guziak betetzeko aukera ezta ekoizpena izateko aukera ere. Euskararen kasua aipatzen digu kasu honen adibidetzat. Diglosia mota hau ez da barea, hizkuntza bakar baten irabazira baitakarki eta borrokatsua da, hizkuntza nagusiarekin lehian aurkitzen baita hizkuntza gutxiengotua ⁷⁰.

Beraz, euskarak bizi duen egoeran, erabilera oso bat izateko, hau da, funtzio guziak betetzeko ahalmena galdua du. Baina arazoa ez da euskarak funtzio batzuek galtzea bakarrik, gertaera hau hizkuntzaren lurralde osoan ematen dela baizik.

Euskara eta gazteleraren arteko diglosia neurtuko bagenu 6/4 koa dela esango genuke. Gaztelerak 6.maila lortua baitu euskal lurraldean eta euskara 4.eraingo besterik ez baita heltzen. Txepetxen ustez euskararen erabilera desegituratua aurkitzen da, eta honek hizkuntzaren funtzioen desegituraketa dakar. Intimitate mailako hizkuntza erabilerak ez du eraginik intraneidade esparruan, aldiz intraneidadean ematen den hizkuntza erabilerak eragin dezake intimitatean. Hizkuntzaren erabilera beraz, esparru ezbardinetan erdararen erabileraren eraginpean aurkitzen da ⁷¹.

Baina gizarte batean iraun ote dezakete bi hizkuntzek ?

Txepetxen ustez, lurralde batean bi hizkuntza desbardinek iraun dezakete baldintza batzuek betez gero. Estatuaren batasunak ez du esan nahi bi hizkuntza komunitateren lurralde osotasuna zalantzan ipintzea kasu guztietan. Txepetxentzat, elebitasun kasu guztiak ez dira bardinak. Berak kasu bat azaltzen digu: bi hizkuntzek, bakoitzak bere lurraldean bost aurreneko funtzioak betetzen dituzte, Estatu mailako 6.funtzioa berriz, bi hizkuntzen artean banatzen da, bi hizkuntzetako hitzunei erantzun ahal izateko Estatuak bi hizkuntzak ezaugaritu behar dituelarik. Azkenik, zibilizazio hizkuntza, beste hizkuntza komunitatearen hizkuntza izango da hitzun bakoitzarentzat ⁷².

⁷⁰ Liburu berean, 347 orr.

⁷¹ Liburu berean, 350-351 orr.

⁷² Liburu berean, 352 orr.

Txepetxen eredu honen arabera, bi hiztun talde elebarkarrez osatutako gizarte elebidun bat eraiki daiteke, elkarren artean muga bat zehazten bada, mugaz bestaldekoekiko harremanen eremuan egonik hiztun elebidunak.

Baina Euskalerrian ez dugu horrelako egoera bizi, elebitasuna edo bere hizkuntzaz gain beste taldearen hizkuntza ere ezagutzea, hiztun talde batengan, euskaldunengan baita beharrezkoa, erdaldunengan aukerazko gauza izanik ⁷³.

Bestalde, Euskalerrian euskarak bete dezakeen funtzio zabalena, intimitate hizkuntza edo herri batzuen kasuan herri hizkuntza dira, hizkuntza nazionalaren funtzioa berriz oztopatua du. Hizkuntza indartsuagoak ezartzen dira Euskalerriko lurralde ezbardinetan, euskara bere lurraldean indarra galtzen ari delarik, maila nazionalen, kultura mailan eta nazioarte mailan ⁷⁴.

Euskalerrian bizi duguna Txepetxen esanetan, elebitasun sozial atzerakoia litzateke, atzerakoia euskararentzat, euskararen erabilera ezagutzaren hainakoa izatea oztopatzen baitu. Erdara Euskalerrian ezagutzen dena baino gehiago erabiltzen da, euskara erabiltzen dena baino gehiago ezagutzen den bitartean. Bestalde, erdara gero eta gehiago erabiltzen da, gero eta zailagoa izanik euskara bere osotasunean ikastea, herri euskaldunetan ere bizi osoa erdaraz hitzeginez ibili baigintezke, euskara hutsez egun oso bat pasatzea ezinezkoa egiten zaigunean ⁷⁵.

Txepetek aurkezten digun eredu berriz, bi hizkuntzek dute irauteko aukera, baina hau lortzeko ez litzateke elebitasuna bi hiztun taldeengan beharrezkoa izan beharko, aukerazkoa baizik. Elebitasunaren aukera edo besteen hizkuntza ezagutu nahia, hezkuntzak eta beste taldeekiko harremanek bultzatuko lukete ⁷⁶.

Elebitasun orekatu bat litzateke beraz elkarulertzeko eta tentsioak ekiditeko aukera bat. Eredu hau jarraitzen duten adibide batzuek, Belgika eta Suiza ditugu, kasu hauetan lurralde bakoitzean bertako hizkuntzak hizkuntza nazional modura jokatzen du, Estatua hizkuntza anitzduna izanik. Txepetxen ustez, bi hizkuntzen arteko ukipen gunea zabalduz gero, nazioarte mailan egoera ahulena duen hizkuntza ordezkaturia izateko arriskuarekin aurkituko litzateke. Arrisku hau ekiditeko berriz, lurralde

⁷³ J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX"; "El marco sociológico y espacial de una situación bilingüe" in: *La problemática del bilingüismo en el Estado español*. I.C.E. Jornadas de Bilingüismo, Zarautz, U.P.V./E.H.U, Leioa, 1980, 22-23 orr.

⁷⁴ J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX": *Un futuro para nuestro pasado*. O.C.,361 orr.

⁷⁵ J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX"; "Radiografía de la situación general del Euskara en la C.A.V." in: *PAMIELA La vida del Euskara* 15, 1993, 31 orr.

⁷⁶ J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX": *La problemática del bilingüismo en el estado español*. O.C., 22-23 orr.

bereizketa bat zehaztu beharko litzateke, hau da hizkuntza ahulena babesteko helburuarekin muga bat ezartzea ⁷⁷.

2.1.3.6. Izan nahia

Izan nahia, hizkuntza bat *normalizatzeko nahitaezko baldintza* da Txepetxen ustez. Hiztunarengan, hizkuntzagaitik zerbait egiteko motibazioa sortzen duen jarrera bat litzateke izan nahia. Baldintza hau betetzea beharrezkoa ikusten du Txepetxek, hizkuntza bat normalizatuko bada. Hizkuntza batetako nahiko hiztunek jarrera hau dutenean, esan daiteke hizkuntza komunitateak izan nahia baduela. Hiztun guziek dute berriz zer egina hizkuntzarekiko, bakoitzak hizkuntza horretan duen lekua hobetuz ⁷⁸.

2.1.3.7. Haustura tentsioa

Bi bidetako prozesua eman beharko litzateke euskara bereskuratzeko. Batetik, goitik beherako bidea, hizkuntzatik hiztunengana doana, euskarak funtzio kulturalak betetzea euskaldunek beren kultura osoa euskaraz landu eta transmititu ahal izateko. Bestetik, behetik gorako bidea, euskaldunen komunitatea egituratzeko, euskaldunek elkartu eta konpaktatzea, taldea batu ondoren dagozkion eskubideak eskatu ahal izateko ⁷⁹.

Ahalegin honetan bi eratako oztopoak ikusten ditu Txepetxek, bata motibazioa eta ezagutzaren artean eta bestea ezagutza eta erabileraren artean.

Lehenengo oztopoa, motibazioa razionaletik ezagutza bitartean ematen da eta *kontzientzia linguistikoa* deituko dio. Hau sujetu pasiboaren pentsakerak sortzen du, euskararen etorkizunean parte edo konpromezurik hartzen ez dutenen kasua litzateke. Txepetxek honi irrealitatearen diskurtsoa deitzen dio, euskaldunek beren buruaz duten ezagutza faltsua azaltzen duelako, honek motibazioa galeran eragiten du.

Oztopo hau gainditzeari berriz, ardura edo erresponsabilitatearen diskurtsoa deitzen dio, honekin hiztunak talde identitate historikoaren zati garrantzitsu bat berreskuratzen baitu, herri bezala munduan leku bat ematen dion identitate edo nortasuna.

Bigarren oztopoa, ezagutza kulturala eta *erabileraren artean* aurkitzen da. Hizkuntza komunitatea ez badago nahiko konpaktatua, hiztun osoak ez dira gune bat osatzera

⁷⁷ J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX": *Un futuro para nuestro pasado*. O.C., 352 orr.

⁷⁸ Liburu beran, 233 orr.

⁷⁹ Liburu berean, 376 orr.

iristen eta ez dute izaten eraginik gainontzeko hiztunengan. Oztopo hau, lege erako oztopoa da baita ere, bi hizkuntzen egoera ezbardina egoera bardinean dauden hizkuntzat hartzen dituelako legeak. Hizkuntza komunitateak konpaktatu egin behar du eta irauteko nahia sortu, bizirik jarraitzearen benetazko bermea hauxe izanik ⁸⁰.

Beste oztopo batzuek ere aipatzen dizkigu Txepetxek: bata, hizkuntzaren erabilera izan arren, hizkuntzaren *ezagutza egoki bat oztopatzen duena*. Bizi dugun elebitasunaren erruz ezbardintasuna ematen da bi hizkuntzen artean, ezin baita hizkuntza bat bere osotasunean ezagutzera iritsi, hizkuntza honek funtzio guziak ez baditu betetzen.

Bestea berriz, hizkuntzaren berezko ezagutza izan arren, *hizkuntzaren balorazioa oztopatzen duena*. Psikologi mailako oztopoa da hau, gutxiengo konplexua eta autogorrotia deitzen dio honi. Hizkuntzaren ezagutza natural edo berezko bat izan arren, ez da iristen hizkuntza hori nahiko baloratzera, honela hizkuntza ez da sekula kulturalki baloratzen eta berezko balorazioa ere zalantzan ipintzera iristen da ⁸¹.

Txepetxen ustez, aurrena hizkuntzak gizarteko funtzio batzuek galtzen ditu, hiztunengan gutxiengo konplexua sortu eta honek hizkuntza komunitatea haustea dakar, hizkuntza ezbardinak bardintasunez tratatzen dituzten legeen aurka eragiteko ahalmena gutxituaz.

Haustura tentsioa edo egoerari buelta emango lioken prozesua berriz honela ikusten du Txepetxek: aurrena hizkuntza komunitatea konpaktatu egin behar da, ondoren ezbardintasuna bardintasunaren izenean defendatzen duen lege antolamenduari aurre egingo zaio eta honela gutxitu konplejoa gaindituko da eta hizkuntza hiztunen beharretara egokitze lanari heldu ahal izango zaio ⁸².

2.1.3.8. Hezkuntza

Adin ezbardinetan haurrengan irakaskuntzaren eragina ezbardina da Txepetxen esanetan: irakaskuntzaren bidez jasotakoak adinean aurrera doan gaztearengan gero eta eragin gutxiago du.

Haurrak erabileraz, bere bizitzako esperientziei lotuta ikasten du hizkuntza. Baina, haurra denean gauzak ulertzen laguntzen dion neurrian atseginez ikasten duen bezala, adinean aurrera doan eran motibazioa bihurtuko da ikasterakoan eragilea.

⁸⁰ Liburu berean, 381-385 orr.

⁸¹ Liburu berean, 386-389 orr.

⁸² Liburu berean, 393-394 orr.

Motibazioak erabileran parekotasunik ez badu topatzen berriz, motibazioa bera indargabetu egiten da, erabilerarik ez izatean nahikotasun maila galdu dezakeelarik. Kasu honetan, ikastearen lorpenak ez dira hain onak izaten ¹³.

Euskarari dagokionez ere bardina esan dezakegu, eskolak ezin du behartu haur edo gaztea euskara ikasi eta erabiltzera, eskolak gaztea motibatu egin behar du honek euskara eskuratzea lortzea nahi badu. Ikastea, motibazioa razional batek eraginda hasten bada berriz, izan nahia edo kontzientzia linguistikoa duen gazte batek hizkuntzaren erabilera oso eta atsegingarri bat izaten duenean iritsiko da hizkuntza ikastera ¹⁴.

Euskalerrian euskararen motibazioa baino altuagoa da euskararen ezagutza eta oso txikia erabilera. Txepetxen ustez, motibazioak izan behar du altuena gero ezagutza eta erabilera parekatuak izanik.

Erabilera inposa daiteke, hau da izan ere ordezkatzeko prozesu guztiek dakartena hiztun gutxiengotuetan. Ezbardintasunaren diskurtsoa erabileratik inposatzen da, baina motibazioa ezin daiteke inposatu, gatazka eta desenkantua sortzen baiditu hizkuntza ikasteen lorpenik izan gabe. Beraz, euskara ezin da inposatu erabileratik, motibatu egin behar, traba psikologikoak gainditzen lagunduaz.

¹³ J.M. SANCHEZ CARRION "TXEPETX"; "Euskara eta irakaskuntza" in: *JAZTEN* 2, 1990, 39-42 orr.

¹⁴ ASKOREN ARTEAN: *Hezkuntza hizkuntza jardun/ihardunaldiak*. Euskal Herriko Unibertsitatea Argitarapen Zerbitzua, Bilbo, 1990, 19 orr.

2.1.4. EREDU GIZA-PSIKOLOGIKOA; MOTIBAZIO ORIENTABIDEEN ERAGINA BIGARREN HIZKUNTZA IKASTEAN

W.E. Lambert eta R.C.Garder izango dira, giza-psikologiaren arlotik, bigarren hizkuntza ikasteen motibazio orientabide ezbardinen eraginak aztertuko dituzten autoreak. Autore hauek, bi eratako motibazio orientabide bereiziko dituzte: *integratzaile eta instrumentalak*.

Motibazio orientabide integratzaileak izango dira, hauen ustez bigarren hizkuntza ikasterakoan eraginkorrenak.

Bestalde R.Clément, giza psikologiaren arlotik, gizarte-inguruaren eredu teorikoa landuko duena izango da. Autore honen ustez, nortasun kulturala galtzeko arriskua sortu dezakeen gizarte-inguruetan motibazio integratzaileak ez luke bestelako gizarte-inguruetan izan dezakeen eragin bardina izango bigarren hizkuntza ikasterakoan.

Clément'en arabera ere, motibazioa izango da bigarren hizkuntzaren ikastea erabakitzen duena. Hala ere, gizarteko baldintza batzuek eragina dute motibazioan. Hizkuntza batek gizartean nagusitasuna izanez gero beste komunitate bateko *integrazioa* eman daiteken bezala, hizkuntza gutxiengotu baten kasuan *asimilazioaren* beldurra egon baidateke.

2.1.4.1. Motibazioa orientabide integratzaile eta instrumentalak (W.E. LAMBERT, R.C. GARDER)

Lambert'ek, "matched-guise" teknikaren bidez, hizkuntza ezbardinetako hiztunen irudi esteriotipatuak aztertu zituen Québec francofonoan. Bere ikerketetan, hiztun talde batetako partaideek beste taldeetako hiztunekiko zituzten aurreiritzi edo gizartearen balorazio ezbardinek, talde horren hizkuntzaren ikasteen eragina ote zuten galdetu zen. Eta hemendik abiatuta, bigarren hizkuntza bat ikasteen jarrera eta motibazio ezbardinen eragina aztertzen hasi zen.

Lambert'ek zuzendutako hainbat ikerketetan aurkitutakoaren arabera, bai motibazioak eta bai beste taldearekiko jarrerak eragina dute bigarren hizkuntza ikasteen.

Bi eratako motibazioak bereizten ditu Lambert'ek:

Alde batetik *motibazio orientabide instrumentala*, hizkuntza ikasteak ikaslearentzat erabilgarritasunaren balorea adierazten duena. Eta beste aldetik, *motibazio orientabide integratzailea*, hau da, beste kultur komunitatea zerbait gehiago ezagutzera zuzendua dagoen motibazioa. Kasu batzuetan, motibazio orientabide hau beste taldekidea izateko nahiari lotua agertzen da. Baita ere, motibazio orientabide mota honen ondorioz, beste kultura, hiztunarentzat erreferentziala izateaz gain bere

kulturaren zati izatera heldu daiteke. Eta zenbait kasutan anomia ere eragin dezakeela aipatzen du; hiztunaren lehen izaera galdu eta kultura berrian integrazio oso bat ez lortuz gero ⁸⁵.

Lambert'ek bereizitako bi motibazio ezbardin hauek eragin ezbardina dute bigarren hizkuntzaren ikaste lorpenetan. Gardner eta Lambert'ek (1959) Montrealeko ingles hiztunen artean frantsesaren ikaste lorpena neurtzeko eginiko ikerketa batean, motibazio orientabide *integratzailea* zuten gazteen artean, frantsesaren *ikaste lorpena haundiagoa* zen, motibazio orientabide instrumentala zutenena baino ⁸⁶.

Lambert eta Gardner'ek definitzen duten motibazio integratzailea, kultur talde batekiko identifikazioarekin bereiztu egiten dute; talde identifikazioa lehenengo ikasten den hizkuntzarekiko izan ohi da, integratzailea berriz bigarren ikasten den hizkuntza bati dagokiola zehazten dute, hizkuntzaren bidez berea ez den beste hiztun talde batetako partaide izan nahia adierazten duelarik ⁸⁷.

Autore hauen ustez, motibazio orientabide integratzaileak, hizkuntza bat ikasteak eskatzen duen epe luzerako ahaleginari eutsi diezaiokenez, hizkuntzaren ikasteen eragin gehiago izango du. Hizkuntza bat ikasteko motibazio orientabide instrumentalak berriz, hizkuntza arrotz bat ikasiz gizarte errekonozimendua edo abantaila ekonomikoa lortu nahiak ezaugarritzen du ⁸⁸.

Honek ez du esan nahi motibazio orientabide instrumentalaren eraginez hizkuntza ikastea ezinezkoa denik, hizkuntza bat ikasteko benetazko beharra izanez gero, motibazio orientabide instrumentalak hizkuntzaren ikasteen lorpen haundiena izan baidezake. Ondorio honetara iritsi ziren, Filipinetan inglesa ikasteari buruzko ikerketa batzuetan ⁸⁹.

Hala ere, Gardnerren ustetan oso garrantzitsua da gazteak bigarren hizkuntza ikasi ahal izateko hizkuntza komunitatearen aldeko jarrera izatea:

⁸⁵ E.W.LAMBERT: *Language psychology and culture*. Stanford University Press, Stanford, 1972, 225 orr.

⁸⁶ R.C. GARDNER and W.E.LAMBERT; "Motivational variables in second-language acquisition" in: *CANADIAN JOURNAL OF PSYCHOLOGY* 13, 1959, 266-272 orr.

⁸⁷ R.C.GARDNER and W.E.LAMBERT: *Attitudes and motivation in second language learning*. Newbury House publishers, 1972, 12 orr.

⁸⁸ Liburu berean, 14-16 orr.

⁸⁹ Liburu berean, 130,141-142 orr.

"...we were discussing the importance of language aptitude in second language learning, and I countered that, if you didn't like the other language community, you could never really learn their language"⁹⁰.

Egia da gizarte inguruneak ere baldintzatu dezakeela jarrera eta motibazioaren eragina, baina Lambert eta Gardner'rek ingurune ezbardinetan aplikatu zituzten ikerketa guztietan, baieztatu ahal izan zuten bigarren hizkuntzaren ikasteen jarrera eta motibazioen eragina.

Ondorengo ikerketa batzuetan, gazteen bigarren hizkuntzaren ikaste lorpenetan gurasoen eragina ere jaso ahal izan zuten. Hau da gurasoen frantses komunitatearekiko zuten orientabideak eragina zuela gaztearen motibazioaren orientabide motan. Hitzun ezbardinekiko jarrera, etxean edo familiaretan jasotzen zela ohartu ziren beraz⁹¹.

Bestalde Lambert'ek dionez, elebitasunak gazteen ethnozentrismoa gutxitu eta beste kultur taldeekiko eta munduarekiko ikuspegi zabalago bat izaten laguntzen du, talde ezbardinen arteko berdintasunak azpimarratuz eta ezberdintasunak gutxituz. Honetaz gain kultura bat baino gehiago mantendu ahal zitekeela ere ikusi zuen, hau da, bikulturala izatera iritsi zitekeela hizkuntza bat baino gehiago ikasiz.

Lambert'ek hizkuntza eta taldearekiko identifikazio edo atxekimenduaren indarra azpimarratzen du, motibazio orientabide integratzaileak, hizkuntzaren ikasteen eragin haundiagoa duela adieraztean. Lambert'en ustez, bigarren hizkuntza bat ikasteak, norbere nortasun edo identitateari eragin diezaioke, bi eratako ondorioak izan ditzakelarik hiztunarengan, bata *elebitasun sustratiboa* eta bestea *elebitasun aditiboa*. Bigarren hizkuntza ikasteak norbere hizkuntza zalantzan ipini dezakeen kasuetan, elebitasun sustratiboa litzateke eta bere hizkuntzari eutsiaz bigarren hizkuntzaren ikastea berriz elebitasun aditiboa⁹².

2.1.4.2. Gizarte-ingurunearen eredia (R. CLÉMENT)

Clément'en eredia, gizarte inguruneako kultura eta hizkuntza komunitatearen bizi indar erlatiboan oinarritzen da. Eredu honen arabera bigarren hizkuntzaren ikastea, hizkuntza berri bat ikasteaz gain, hizkuntza komunitatearen jokabidezko ereduak ikastea esan nahi du; norbere nortasunaren aldaketa bat suposa baidezake hiztunarengan.

⁹⁰ R.C.GARDNER; "Attitudes and motivation in Second Language Learning" in: REYNOLDS A.G.: *Bilingualism and multiculturalism and second language learning*. Lawrence Erlbaum Associates, New Jersey, 1991, 43 orr.

⁹¹ W.E.LAMBERT: *Language psychology and culture*. O.C., 227 orr.

⁹² R.C.GARDNER; "Attitudes and motivation in Second Language Learning" in: REYNOLDS A.G.: *Bilingualism and multiculturalism and second language learning*. O.C., 47orr.

Ingurune ezbardin bakoitzean, bigarren hizkuntzaren ikasteak eragin eta ondorio ezbardinak izan ditzake hiztunaren izaeran. Beraz, Clément'en esanetan, bigarren hizkuntza ikasteak hiztunaren izaeran dituen ondorioen arabera motibazioa izango du hiztun batek hizkuntza hori ikasteko. Beraz, hizkuntza berria ikasteko motibazioa: alde batetik hiztunak komunitate berrian integratzeko duen nahia eta bestaldetik bere nortasun kulturala galtzeko beldurraren arteko erlazioaren arabera izango da.

Hiztun batek komunitatean integratu nahia, bere nortasuna galtzeko arriskua baino haundiagoa den kasuetan, bigarren hizkuntza ikasteko motibazioa haundia izango da. Baina beste taldean integratu nahia baino indartsuago baldin bada bere izaera galtzeko arriskua, bigarren hizkuntza ikasteko nahia ahula izango da.

Bi hizkuntzek gizartean egoera bardintsua izanez gero, beste taldearen hizkuntza ikasteko motibazio indartsua izan dezakete hiztunek, bigarren hizkuntza ikastea norbere izaera galduko ez duten konfidantza sortzen baita.

Clément'ek azaldu dizkigun kasu ezbardinetan, motibazioa da bigarren hizkuntzaren ikastea erabakitzen duena. Hala ere gizarteko baldintza batzuek eragina dute motibazioan. Hizkuntza batek gizartean nagusitasuna izanez gero beste komunitate bateko *integratioa* eman daiteken bezala, hizkuntza gutxiengotu baten kasuan *asimilazioaren* beldurra egon daiteke.

Bestalde, Clément'ek gurasoek hizkuntza horrekiko bizi izan duten esperientzien ondorioz, espektatiba batzuek sortzen direla beraiengan eta espektatiba hauek seme-alabei helarazten dizkietela aipatzen digu; hauek belaunaldi berrien motibazioan eragina izanik⁹³.

Lambert eta Gardner'rek planteatu zituzten motibazio orientabideei dagokionez, orientabideen definizioan arazo kontzeptualak aurkitzen ditu Clément'ek, ez baita hain erraza orientabide integratzaile eta instrumentalaren artean bereiztea kasu askotan.

Bere ikerketetan lau motibazio orientabide ezbardin definitu zituen: *instrumentala*, *bidaiatzea*, *laguntasuna*, eta *beste hizkuntza bat ezagutzera zuzendutakoa*. Motibazio orientabide hauen sorrera eta ikaste prozesuan berriz, eragile soziokulturalen eragina azaltzen digu.

⁹³ R.C.GARDNER: *Social Psychology and second language learning*. Edward Arnold, 1985, 137-139 orr.

Bere ustez, ikaslea motibazio orientabide ezbardinez motibatua egon zitekeen aldi berean, ez baitira orientabide hauek bat bestearengandik bereiziak. Bestalde, *gizarte egiturazko eragilen eraginpean* egongo lirateke motibazio orientabide ezbardinak⁹⁴.

Bigarren hizkuntza ikasteko eredu ezbardin hauek, motibazioa dute oinarritzko eragile ikaste lorpenetan, motibazioak berriz gizartezko dimentsioa du, besteekiko eta bereziki beste hizkuntza komunitatearekiko harremana adierazten duen neurrian, taldeei eta gizarte inguruari dogokien jarrerren eraginpean bailegoke.

Motibazioak beti izango du integrazio maila bat, nahiz eta motibazio instrumentaletaz hitzegin, beste komunitatearekin harremanak izateko nahia adierazten baitu. Beraz ez da erraza motibazio integratzailea eta motibazio instrumentalaren artean bereizketa argi bat egitea, Clément'en ustez.

⁹⁴ B.G.KRUIDENIER and R.CLÉMENT: *The effect of context on the composition and role of orientation in second language acquisition*. CIRB, Québec, 1986, ii,iii orr. (Abstract)

2.1.5. BIZI INDAR ETNOLINGUISTIKOA (H.GILES, R.Y. BOURHIS, R., ALLARD ETA R. LANDRY)

Autore hauen ustez, bigarren hizkuntza ikasterakoan zer esana du beste taldeekiko harremanen nolakotasunak, harreman hauek berriz gizarte-egiturazko eragileen eraginpean daude: demografia, estatusa eta erakundeen kontrola.

Gizarte-egiturazko eragileak eta eragile horiekiko hiztunen dituzten perzepzio subjektiboak izango dira H.Giles eta R.Y.Bourhis'en ustez, hizkuntza gutxiengotuekiko jobabidearen eragile nagusiak.

Allard eta Landry'k, berriz, bizi indar etnolinguistikoa aztertzerakoan, hiztun taldearen sinismen orokorrez eta araei buruzko sinismenez gain, *hiztunaren sinismen pertsonalek eta helburuek* duten garrantzia azpimarratzen dute. Norbere sinismen eta helburuak eragile ego-zentrikoak izanik, hiztun bakoitzaren jokaeran erabakiorragoak dira, gizarte-egiturazko eragileak baino, autore hauen ustez.

H. Giles'ek 1977.urtean bizi indar etnolinguistikoaren kontzeptua definitu zuen. Bizi indar hau neurtu ahal izateko *gizarte-egiturazko aldagai* ezbardinak erabiliz talde baten bizi indarra neurtzeko tresna bat osatu zuen.

Bizi indar etnolinguistikoa, talde bat entitate oso eta bereizi bat bezala jokatzera bultzatzen duen eragilea litzateke.

Hizkuntzaren bizi indarrean eragina duten gizarte-egiturazko eragileek berriz, hiru dimentsio izango dituzte:

- *Demografikoa*: hiztunen kopurua, hiztunen lurralde banaketa, hiztunen elkarrenganako hurbiltasuna, hiztunen proportzioa biztanlegoarengan, hiztunen jaiotze tasa, beste taldeetakoekin dituzten ezkontza mistoak, emigrazio eta inmigratio kopuruak e.a.
- *Erakunden kontrola*: komunitateko erakundeetan hiztunek duten ordezkartza formala nahiz informala edo presio taldeak e.a. Ordezkaritza honek hiztunek duten erabaki hartzeko ahalmena neurtzen du.
- *Estatusa*: gizartean hiztunek duten prestigioa edo estimazioa, bai gaur egun, bai historikoki eta bai nazioarte mailan.

Autore hauen ustez, bizi indar haundia duten hiztun taldeek irauteko aukera gehiago dituzte, bizi indar txikia duten taldeak baino⁹⁵.

⁹⁵ J. HARWOOD, H. GILES, R.Y. BOURHIS; "The genesis of vitality theory historical patterns and discorsal dimensions" in: INTERNATIONAL JOURNAL OF THE SOCIOLOGY OF LANGUAGE 108, Mouton de Gruyer, Berlin, 1994, 167-171 orr.

Bourhis'ek, taldeen bizi indar etnolinguitikoa neurtuz hainbat ikerketa egin ondoren, 1981.urtean ondorio batetara iritsi zen: bizi indar etnolinguitikoaren datu objektiboek baino eragin haundiagoa dutela hitzunek bizi indar horretaz duten *perzepzio subjektiboek*. Talde bardineko hitzunek perzepzio ezbardinak izan ditzakete hitzun talde berarekiko, batzuek ezbardintasunak azpimarratuz eta besteek ezbardintasun horiek gutxituz.

Bourhis'ek proposamen bat egiten du bizi indar etnolinguitikoa aztertzeko, neurketa objektiboek gain hitzunen perzepzio subjektiboa ere kontutan hartzea, horretarako bai neurketa objektibo eta bai subjektiboa integratuko dituen tresna bat osatuz ⁹⁶.

Allard eta Landry'k, berriz 1986.urtean bizi indar etnolinguitikoaren inguruko ikerketen bidez beste ondorio batetara iritsi ziren. Hitzunaren hizkuntza jokaeraren zergaitia ezagutzeko, hitzun taldearen sinismen orokorrez eta araei buruzko sinismenez gain, *hitzunaren sinismen pertsonalek eta helburuek* ere zer esana dutela. Norbere sinismen eta helburuak eragile egozentrikoak izanik, hitzun bakoitzaren jokaeran erabakiorragoak dira gizarte-egiturazko eragileak edo exozentrikoak baino ⁹⁷.

Allard eta Landry'ren ustetan, gizarte elebidun batean bi hizkuntza mantendu nahi badira, bai diglosia eta bai bizi indar etnolinguitikoa kontutan hartu beharko dira, biek baitute hitzunen jokaera linguitikoan eragina. Kanadako zonalde frankofonoan diglosiarik gabeko elebitasuna bizi dutelarik, hitzun bakoitzak duen bizi indar etnolinguitikoa erabakiorra da hitzun hauen hizkuntza erabileran, hau da bizi indar haundia duenak gehiago erabiltzen du bere hizkuntza, bizi indar txikia duenak baino.

Hizkuntza gutxiengotu bat biziberritzeko ahaleginetan, Fishman'en ustez hizkuntzaren erabilerari eusteko bidea, hizkuntza familia eta eremu intimoetan babestea litzateke. Baina autore hauen ustez, hizkuntzarekiko bizi indar txikia duten hitzunak bakarrik murriztu behar dute hizkuntzaren erabilera eremu batzuetara, bizi indar haundia dutenek eremu guzietan hizkuntza gutxiengotua erabili dezaketela aurreikusi baigenezake.

Bestalde, kontutan hartu beharrekoa da, hizkuntzaren estatusa definitzean hain esangarritsuak diren komunikabideen eragina ere iritsi daitekela eremu babestuenetan ere, familiarrean esaterako.


Beraz, gizarte batean hizkuntza gutxiengotuari eusteko asmoz diglosia edo konpartimentalizazio bateruntz abiatu aurretik, eremu ezbardinetan hizkuntza

⁹⁶ Liburu berean, 171 orr.

⁹⁷ Liburu berean, 177-178 orr.

gutxiengotuak duen erabilera aztertzeaz gain, hiztun ezbardinek duten bizi indar etnolinguistikoa ere kontutan hartu beharrekoa dela aipatzen dute autore hauek ⁹⁸.

⁹⁸ Liburu berean, 35-37 orr.



HIPOTESIAK

3. HIPOTESIAK

Hizkuntza gutxiengotuen erabilera ikertu duten zenbait autorek emandako azalpenenetan ikusi ahal izan dugun bezala, autore bakoitzak eragile ezbardinak aipatzen ditu, diglosia egoera bizi duten hizkuntzekiko -erabiltzeko edo ikasteko-jokabideen eragile bezala.

Mackey'ren iritziz, hizkuntzak gizartean duen egoera izango da hiztunak hizkuntza hori erabiltzearen eragile nagusia. Fishman'ek berriz, elkarte edo komunitatearekiko atxekimenduan oinarritzen du hizkuntza gutxiengotuen iraupena.

Txepetxek, eta giza-psikologiaren ereduko autoreek, Lambert eta Gardner'ek, motibazioa azpimarratuko dute, hizkuntza gutxiengotuarekiko jokabideen -ikasi eta erabiltzeko- eragile bezala. Txepetxe'ek motibazio kulturala eta berezko motibazioa aipatzen ditu erabilera eta ezagutzaren eragiletzat. Lambert eta Gardner'ek berriz, motibazio integratzailea zehazten dute bigarren hizkuntza ikasterakoan eragin gehien duen motibazio bezala. Giza psikologiaren ereduko beste autore batek berriz, Clément'ek, gizarte ingurunearen ezaugarriek, motibazio integratzaileak hizkuntza jokabidean izan dezakeen eragina baldintzatu dezakeela azpimarratzen du.

Azkenik, bizi-indar etnolinguistikokoaren inguruko teoriak, gizarte egiturazko eta giza-psikologiazko eragileak bateratzen saiatzen dira, hizkuntzarekiko jokabidearen eragile bezala.

1990.urtean tesina modura burutu nuen ikerlan batetan izandako emaitzen ondorioz ohartu nintzen, euskara bezalako hizkuntza gutxiengotuarekiko jokabideetan zer nolako garrantzia zuten hizkuntza horrekiko hiztunek zituzten jarrerak¹.

Ikerlan hau, Urola bailaran egin nuen, hau da, hala nahi duen edonork euskara erabiltzeko baldintza egokiak ematen diren gizarte ingurune batetan. Honelako gunetan ere, bada euskararik erabiltzen ez duenik; eta euskararik erabiltzen ez duten hauek, jarrera bereizi batzuek zituztela ezagutu ahal izan nuen.

Bestalde, jarrera hauek zituztenak gizartezko ezaugarri jakin batzuek zituzten; jakinekoa baita, gizartezko baldintza batzuetan eratzen direla edozein motatako jarrerak.

Beraz, eta geure gizarte ingurunera etorriaz, honako galdera hau egin dezakegu euskararekiko jokabideetaz:

¹ N. LARRAÑAGA: *Euskera normalizazio bideruntz? Euskeraren gizarteratzea Urola bailaran*. Deustuko Unibertsitatea, Deustu-Bilbo, 1990.

Euskalerrian zerk eragiten du euskararen erabilera?

Gure ustez hizkuntza batek gizartean duen indarra eta estatusak hiztunaren hizkuntza erabileran eragiten duela kontutan izanik ere, gizartean beste hizkuntza batek nagusitasuna izan arren, hizkuntza gutxiengotuarekiko jokabideak ematen badira, ezin dira hauek gizartezko eragileek bakarrik eraginak izan.

Euskalerraren kasuan, euskararekiko jarrerak izango lirateke gure ustez, euskara ikasi eta erabiltzean gehien eragiten dutenak. Jarrera hauek, Txepetxek azaltzen digun izan nahia edo motibazioarekin eta Fishman'ek aipatzen duen talde eta kultur erako atxekimenduarekin lotuko genituzke.

Hizkuntza gutxiengotuen egoera batean, hizkuntzarekiko motibazioek izugarriko garrantzia dutela uste dugu hizkuntza hori ikasi edo erabiltzerakoan, ez baidago hizkuntza hori jakiteko edo hitzegiteko beharrik gizaharreman gehienetan.

Hizkuntza bat beharrezkoa denean, gizarte batean edo lan batean edo egoera zehatz batean, motibatua egon edo ez egon, beharrak bultzatuta ikasi egiten da hizkuntza hori. Baina gizarte batean hizkuntza bat ezagutzeko beharrik ez izatean, eta hau da hizkuntza gutxiengotuen kasua, motibazioak du zer esana. Txepetxek aipatzen duenez, hiztunek hizkuntzari eutsiko badiote hizkuntza horrekiko motibazioa edo izanahia beharrezko baldintza izango da ².

Bass (1985) eta beste autore batzuek, Bennis (1982) Tichy eta Ulrich (1984) empresa mailako lidergoari buruzko ikerketetan "Transformational leadership" deituriko lidergoa definitu zuten, empresa batetako langileen etekinean, ahaleginean, beharrian eta motibazioan eragin gehien zuen lidergo bezala ³.

Era honetako lidergoak bere jarraitzaileak gutxieneko beharrez gain beste maila bateko beharretaz ere jabetzen ditu, bere interesak ezik, talde, elkarte edo herriaren interesen kontzientzia helarazten dielarik. Jarraitzaileek kontzientzi hau izanik berriz, liderrak jarraitzailearengan izugarriko ahalegin eta lanak eragin ditzake. Lidergo transakzional edo trukeordainekoak berriz, norbere beharrei erantzuteko lain izango dituen errekurtsoen ordainetan eragiten du bestearen ahalegina edo esfortsua.

² J.M. SANCHEZ CARRION "TXEPETX": *Un futuro para nuestro pasado*. 2.ed, S.F.V Julio Urquijo, Adorez eta Atseginez, Donostia, 1991, 233 orr.

³ BURNS'ek, 1978ean berriz, politika mailan azaldu zuen lidergo berri hau.

Lidergo *transformazional* edo *izanerazleak*, jarraitzaileak berarekiko espero dena baino gehiago egitea lortu dezakeenez, *trasakzionala* edo *trukeordainekoa* baino eraginkorragoa dela esan daiteke ⁴.

Trukeordainetan eskuratu dezaketenaz gain, jarraitzailea bere berezko izanahiari eragiten dion zerbaiten arduraz edo kontzientziaz jabetuz gero, beste era bateko portaera bat eragin dezake beronengan nahiz eta portaera honek esfortsu edo lan gehiago eskatu.

Antzekoa gertatzen dela esango genuke euskararekin ere. Gaur egungo gizartean, euskara ez denez erdara baino errentagarriagoa, euskararen erabilera, trukeordainean jaso liteken zerbaiten gaineratik legokeenaren ardurak, kezak edo kontzientziak eragin ohi du.

Trukeordaineko eragileak ere eragin dezake hiztuna euskara erabiltzera, baina euskara hizkuntza gutxiengotua izanik, errentagarriagoa litzateke beste hizkuntzaren bat erabiltzea. Beraz trukeordaineko eragileek euskararen erabileran eragin badezakete ere, ez dute eragile izanerazleek hainbeteko eraginik izango.

1. Euskararekiko bi eratako jarrerak aurkitu genitzake gaztetxoan artean, alde batetik eragile izanerazleak euskara norbere izanahiarekin lotuz ikasi eta erabiltzen dutenean, eta bestalde trukeordaineko eragileak gaztetxoek euskara ikasiz gero lortu dezaketen beste zerbaiten truke ikasi edo erabiltzen dutenean.

1.1. Euskalerrian euskarak bizi duen gizarte egoeran, eragile izanerazleek eragin indartsuagoa dute euskara ikasi eta erabiltzean trukeordainekoek baino.

Jarrera izanerazleak: Euskara garrantzitsua ikusten dute bere izaera adierazteko, euskara bere hizkuntzatzat daukate eta beharrezkoa ikusten dute beraien izaera horri eutsi ahal izateko. Euskara euskal kultura eta euskaldunen komunitateari lotuta ulertzen dute.

Trukeordaineko jarrerak: Euskara ikasten dute kurtsoa aprobatzeko, lana lortzeko, ikasketak aurrera ateratzeko e.a. baina ez norbera izaten laguntzen dietelako edo euskara ikasi eta erabiltzea, beren buruak euskalduntzat jo eta euskaldun izatearekin lotzen dutelako. Euskara beren izaeratik bereizita dago eta zerbait erantsia da berauentzat. Euskara ikasiz gero zerbait lortu dezaketela ikusten dutenez, zerbait hori lortzeko asmoz ikasten edo erabiltzen dute euskara.

⁴ R.PASCUAL, A.VILLA, M.SÁNCHEZ: *El liderazgo transformacional en las empresas de la C.A.V.* Universidad de Deusto, ICE, Deusto, 1990, 10, 25-26 orr.

Lambert'ek azaldu digun integrazio erako motibazio ezbardinak izango dira eragile izanerazeak, talde berri batean integratu nahiaz gain, norbere izanahia ere bilduko bailukete.

Euskarak Euskalerrian gutxiengotu egoera bat bizi duenez gero, euskara ikasi beharrik ez dago kasu askotan ohizko harremanak izateko. Beraz, trukezko arrazoiek ez dute euskararen kasuan, izatezko arrazoiek hainako eraginik izango euskara ikasi eta erabiltzean.

Txepetxek aipatzen duen bezala, hizkuntza batek gizartean nagusitasuna duenean, beste hizkuntzako hiztunek elebitasuna beharrezkoa izaten dute, hizkuntza nagusiko hiztunentzat hizkuntza gutxiengotua ikastea aukerazkoa den bitartean ⁵.

Beraz, euskara jakitea aukera bat denez, hiztunaren izanahiak zer esana izango du aukera hori egitean. Euskara trukeordainetan ikasten dutenek, helburu zehatz batetarako baliagarria zaielako ikasten dute euskara, baina orokorrean ez dute hiztunek euskara ikasteko beharrik topatzen. Guzti honengatik trukeordaineko jarrerak dituzten hiztunak, nekezago iristen dira euskara ikastera eta ikastera iristen badira ere ez dute erabiltzen.

Bestalde, jarrerak gizartezko baldintza batzuetan gorpuzten direnez gero, gizartezko hainbat eragilek jarrera hauetan ere, eragina izango dutela uste dugu. Era bateko edo besteko jarrera izatean, zer esana du euskaldun izaera edo euskal kulturaren erroeturiko izaera duten gizakien presentziak.

2. Gaztettoaren inguruko gizartean euskaraz dakitenak ugariak direnean eta beste kultura batean erroeturiko etorkinak urriak direnean, jarrera izanerazeak indar gehiago dute bestelako guneetan baino.

Bestalde eta Mackey'k aipatzen digun bezala, hezkuntza elebidunak bigarren hizkuntza ikastean izan ditzakeen lorpenak ezbardinak izango dira bigarren hizkuntza honek hezkuntza eremuan duen garrantziaren arabera. Honetaz gain ikastolak euskara eta euskal kultura indartzeko helburuarekin sortu zirela kontutan hartuz, honelako hipotesi hau landu dugu:

⁵ J.M. SANCHEZ CARRION "TXEPETX"; "El marco sociológico y espacial de una situación bilingüe." in: *La problemática del bilingüismo en el Estado español*. I.C.E., Jornadas de Bilingüismo, Zarautz, U.P.V./E.H.U., Leioa, 1980, 22-23 orr.

3. Bere hezkuntza ikastolan edo hizkuntza eredu elebidunetan -D edo B ereduak- jasotzen duten gaztetxoan artean, jarrera izanera leagoak aurkitu genitzake bestelako hezkuntza mota bat jasotzen dutenen artean baino.

Aipatzekoa da baita ere, haurrak jasoko duten hezkuntza eredu ezbardinek gurasoen hizkuntza jarrekin lotura zuzena dutela, gurasoek beren seme edo alabentzako duten nahia besterik ez baitu adierazten ikastetxe edo eredu bat zein bestearen aukerak.

Gizarte ingurune bakoitzean, bai euskararen gizarteko eta legezko egoera, eta bai euskararekiko jarrerak ezbardinak direnez gero, barruti bakoitzean euskararen gizarteko erabilera ere ezbardina izango dela uste dugu.

4. Euskara dakitenak eta euskal kulturaren erroturikoak ugari diren gizarte barrutietan, gaztetxoan hizkuntza ohiturak euskararen aldekoagoak dira gainontzeko gizarte barrutietan baino.

Azkenik, hizkuntza gutxiengotuak gizartean nagusi den beste hizkuntza batekin bizi ahal izateko, hizkuntza gutxiengotuaren aldeko neurriak lagungarriak izango dituela uste dugu.

5. Euskara indartzeko hartu izan diren neurri eta aurrera eramanez diren politikek eragina dute euskararen gizarte bizitzan. Hizkuntzarekiko neurririk ez hartzeak, "laissez faire-laissez passer", hizkuntza gutxiengotuaren egoera ahuldu ohi du.

Bi egoera ezbardin alderatu genitzake gure ikerketa honetan. Alde batetik Euskal Autonomi Elkarteak daukagu, Autonomi Estatutuaren bidez euskarak ofizialtasuna eskuratu eta euskara zabaltzeko neurri politiko batzuek bideratu ahal izan dituenak. Bestalde Iparraldearen kasua daukagu, Frantziako legediak ez ditu erregio hizkuntzak ofizialtzat onartzen eta ez ditu Frantziako Estatuak hizkuntza hauek sustatzeko ahaleginak bultzatzen.

Neurri politikoak hizkuntza baten bizitza indartzeko erabakitzaileak ez badira ere, administrazioaren erabakiek ere bere eragina izan dezaketela uste dugu hizkuntza baten gizarte egoeran. Iparraldeko gaztetxoan baita euskarak indar gutxiago izango duela uste dugu, Autonomi Elkarteko gazteengan baino.

METODOLOGIAZ

4. METODOLOGIAZ

4.1. HIZKUNTZA JARRERAK AZTERTZEKO ERA EZBERDINAK

Hizkuntzarekiko jarrerak azterketa baten emaitza eta ondorioetan, zer esana du zalantzarik gabe, zer nolako jarrerak neurtzen diren eta jarrera horien neurketan erabiltzen diren bideek.

Jarrerak aztertzeke eta zehazki hizkuntzaren inguruko gizarte jarrerak aztertzeke hainbat teknika eta metodo ezberdin erabili izan da. Ezagunenak diren galdekizun eta eskalez gain, Fishmanek eta Lambertek erabilitako hizkuntza jarrerak aztertzeke bi metodo ezberdin ditugu aipagarrienak.

Fishmanek "commitment measures" deituriko teknika erabili zuen hiztunek hizkuntza gutxiengotuei buruz zituzten jarrerak neurtzeke. Galdekizunetan gehiengo batek hizkuntza gutxiengotuen aldeko eritzia ematen bazituen ere, teknika honen bidez hizkuntzarekiko konpromesu bat eskatzen zuten galderak egitean, gutxitu egiten ziren hizkuntza gutxiengotuaren aldeko erantzuleak. Baina, jarrera konprometitua adierazten duten hiztun hauen artean agertzen da, jarrera eta hizkuntza erabileraren arteko lotura estuena ¹.

Bestalde W. Lambert eta McGill Unibertsitatekiko bere jarraitzaileek, "matched guise" deituriko teknika erabili zuten Quebec'en frantsesa eta ingelesarekiko jarreraren azterketa egiteke. Hizkuntza erabileraren ezberdinen grabazio batzuen aurrean entzuleek hiztun ezberdin bakoitzari atxekitzen zizkieten ezaugarrien azterketa eginez, entzule hauek hizkuntza ezberdinekiko -edo zehazki esateke hiztun ezberdinekiko- zituzten iritzi eta estereotipoak bildu zituzten. Teknika honen bidez, hiztunegi galdera irekiak egiten zizkieten, hiztunek bere eritzia libreki adierazi zezaten. Era honetara, ikertzaileak pentsatu ezin zitzakeen iritziak ere jaso ahal izan zituzten hiztunengandik ².

Gure ikerlanean, gazteen euskararekiko jarrerak, hizkuntza hau ikasi eta erabiltzean zer nolako erasana duten aztertu ahal izateke, bi metodologia ezberdin erabili ditugu. Ondoren, neurketa ezberdinetan izan ditugun ondorioak alderatu ditugu, metodo bakoitzak gazteen benetazko jarrerak aztertzeke dituen lorpenak eta mugak azalduz.

¹ R. AGHEYSI, J.A. FISHMAN; "Language attitude studies. A brief Survey of Methodological Approaches" in: ANTHROPOLOGICAL LINGUISTIC vol 12, Nº5, May, 1970, 137-157 orr.

Beste zenbait ikerketetan ere baieztatu ahal izan zuen hau Fishmanek. Hizkuntza komunitatearekiko konpromesua edo ardura zutenek hizkuntza erabilerarekiko arduratsuagoak izatean, bere hizkuntza erabilerari buruz ziurrago erantzuten zutela ikusi baizuen. J.A. FISHMAN: *Bilingualism in the barrio*. Indiana university, Indiana, 1971, 2.ed. 1975, 105-114 orr.

² R. AGHEYSI, J.A. FISHMAN. O.C., 137-157 orr.

Batetik, galdekizun bat erabili da, gaztetxo hauentzat egokitua edo moldatua izan da pretest bat egin ondoren. Galdekizunaren bidez, gaztetxoek euskararen ezagutza eta erabilera neurtzeaz gain, euskararekiko iritzi ezbardinei buruzko adostasuna ere neurtu dira.

Bestaldetik, gaztetxoek euskararekiko jarreraren azterketan sakontzeko asmoz, galdekizuna erantzuteaz gain euskarari buruzko idazlan bat idazteko eskatu diegu gaztetxoei; beraientzat euskara zer den askatasun osoz adierazteko aukera emanaz.

4.1.1. GALDEKIZUNA

Batez ere gaztetxoek artean euskararen egoera zein den, beraien euskararekiko jarrerak zeintzuk diren eta gizartezko beste ezaugarri batzuek neurtzeko galdekizun bat erantzuteko eskatu zaie gazteei.

Galdekizun hau, hiru hizkuntza ezbardinetan erantzuteko aukera izan dute gaztetxoek. IV. Eranskinean biltzen ditugu, hizkuntza ezbardinetan: euskaraz, gaztelera nahiz frantsesez idatzitako galdekizunak.

Hasera batean prestaturiko galdekizuna bere helburuak betetzeko tresna egokia ote zen jakiteko asmoz, pretest bat egin zen. Pretesta Kutxak Etxarri Larraunen antolatzen dituen udaleku batzuetan, 12-13 urtetako gaztetxoek artean egin zen. Guztira 45 gaztetxok erantzun zuten.

Pretest honen bidez, galdera batzuen ulermenean arazoak sortzen zirenez, zenbait galdera kendu eta beste hainbat galdera galdetzeko erak moldatu egin ziren. Egindako zuzenketa ondoren, zehaztu zen azkenean, lagina osoari pasako zitzaion galdekizuna.

4.1.2. GALDERA IREKIEN METODOLOGIA JARRERAK NEURTZERAKOAN: IDAZLANAK

Euskararen inguruko gure ikerketa honetan euskararekiko jarrerak sakonkiago aztertzekeotan, euskarari buruzko idazlan bat idazteko eskatu diegu gaztetxoei, beraientzat euskara zer den libreki adierazi dezaten.

Galdera irekien metodologia honen bidez, ikerlariaren galderak erantzunean izan dezakeen eragina murriztu egiten da batetik, eta bestetik erantzuleari ez zaio inolako mugarik ezartzen galdera erantzuterakoan. Guzti honengatik, metodologia hau erabiliaz errealitatea hurbilago aztertzekeo aukera dugu.

Idazlan hauek ondoren eduki azterketa bidez aztertu ditugu.

4.1.2.1. Eduki azterketa

Eduki azterketa, idatzizko testu batzuetako edukiaren azterketaren bidez, gizarteko errealitatea aztertzeke ikerketa teknika bat da. Honela azaltzen digu eduki azterketaren aintzindarietako bat den Berelson'ek:

"Eduki azterketa, komunikazioan ageri den edukiaren deskripzio objektibo, sistematizatu eta kuantitatibo batetarako ikerketa teknika bat da".

Hostli'k (1.969) eta Krippendorff'ek (1.980), eduki azterketak agerian dagoena bakarrik ez duela aztertu behar diote, edukiaren agerikoa nahiz azpiko esanahiak ere jaso daitezkeela esanez. Bestalde, eduki azterketa kuantitatiboa nahiz kualitatiboa izan daitezkeela aipatzen dute ⁴.

Testuinguruak ere hitzaren esanahia argitu dezakenez, hitzen baliozko inferentziak egiteko aukera ematen duela diote autore hauek.

Autore hauen aportazioarekin eduki azterketari testu idatzietako datu agerietatik, inferentziak egiteko aukera luzatzen zaio. Hau da, nahiz eta erantzuleak zehazki ez adierazi eritzi bat, ikerlariak testu egileak esan nahi duena ere jaso dezake testuinguruaren arabera.

Berelsonek eduki azterketa ondo egiteko zenbait baldintza aipatzen dizkigu:

- *Objetibitatea*: eduki baten azterketa ezbardinek emaitza bardinak ziurtatu behar dituzte.
- *Sistematizazioa*: ikertzaileak aztertzen ari den objektuari dagokion guzia jaso behar du.
- *Kuantifikazioa*: ideia bat kualitatiboki aztertzeaz gain ideiarene garrantzia ere neurtu daiteke zenbat aldiz ageri den kontatuz.
- *Edukiaren agerikoa aztertu behar da*: testuak esaten duena aztertu behar da, zergaitia eta nola esaten denarekin sartu gabe ⁵.

³ B. BERELSON: *Content analysis in communication research*. New York Press, Macmillan Publishing Co.Inc., 1952.

⁴ E. LOPEZ ARANGUREN; "El análisis de contenido" in: GARCIA FERRANDO y otros: *El análisis de la realidad social*. Alianza Universidad, Madrid, 1986, 366 orr.

⁵ B.BERELSON. O.C., 16-17 orr.

Beraz, ikertzaileak aztertu behar duen gaia, objetiboki eta bere osotasunean jaso behar du testutik, ezer baztertu gabe. Eduki azterketa, datu aberasgarriagoak jasotzera iristen da, hitzen testuingurua aztertzeak testu egilearen edo erantzulearen esanahia hurbiletik jasotzeko aukera ematen baitigu.

Jimenez Blanco'k dionez, *sinbolu* bezala ulertu daiteke, testuan azaltzen den edo literalki gauza bera adierazten duen edozein hitz edo ordezeko hitzen zerrenda.

Testuaren azterketa egitean, sinbolu bat zenbat aldiz erabili den aztertu nahi bada, ordezekoen zerrendak zehatza izan beharko du, baina sinbolua zenbat erabili den baino gehiago, zer adierazteko erabiltzen den aztertu nahi bada, eta sinboluen esanahi ezbardinak alderatzea nahi bada, ordezeko zerrenda horrek ez du hain zehatza izan beharko. Era honetako azterketan, aztertu nahi den hitza bera eta esanahi bardineko beste hitz batzuek hartuko dira kontutan ⁶.

Pertsona bat *ego* bat da eta *ego* horrekin identifikatzen den beste guztia eta sinboluak erabiltzean talde sozial batetako partaide bezala bere egoa sinbolizatzen du ⁷.

Sinbolu hauek ez dira bere horretan jarrerak, baina, gizartean aurkitzen diren erreferentzia sinbolikoekin lotura dutenez, jarrera baten adierazle izan daitezke. Gizabanako bakoitzak errealitatea ulertzeko era ezbardina duenez, objektu batetaz hitzegitean, objektu horretaz duen ulermena edo pentsamendua adieraziko du bere hitzen bidez. Gizartean objektu horrekiko pentsakera edo ulermen ezbardinak daudenez, objektu horretaz hitzegiteko erabiliko diren hitzak ere ezbardinak izango dira ⁸.

Gure ikerketara etorri, euskarari buruz gazteek idazlana idaztean egiten dituzten adierazpenak biltzen dituzten testuak izango ditugu aztergai. Kasu honetan, euskara izango da objektua eta euskarataz gazteek duten pentsamendua neurtuko dugu euskara definitzeko gazteek erabiltzen dituzten hitzak aztertuz.

Guztira bildu diren 3.442 idazlan hauek, bere osotasunean aztertu dira ondoren eduki azterketa bidez. Gai jakin batzuek aztertzeko hitzen estrategia batzuek antolatuz, BRS/SEARCH programa informatikoaren laguntzarekin, hitz hauek agertzen diren idazlanetako pasarte guziak -puntu eta aparte bitarteko hitz multzoa- bereiztu dira.

⁶ J. JIMENEZ BLANCO: *Las proposiciones de Felipe II*. Capitulo II. "La técnica de análisis de contenido", 95 orr.

⁷ Liburu berean, 98 orr.

⁸ L. LUDOVIC and A. SALEM: *Analyse statistique des données textuelles. Questions ouvertes et lexicométrie*. DUNOD, Paris, 1988, Preface.

Hitz hauei buruzko zehaztasun gehiago aurkitu daiteke II. Eranskinean, bertan azaltzen baititugu eritzi ezbardinen azterketa egitean erabili diren hitzen estrategiak.

Ondoren, hitz hauen testuingurua aztertu eta esanahi ezbardinen arabera sailkatu dira idazlanetako adierazpenak. Azterketa honen bidez, euskara gai ezbardinekin lotzen duten gazteak zenbat diren eta zein ezaugarri dituzten ezagutu ahal izan dugu.

Gure azterketa honetan, hitzak edo hitzen estrategiak *erregistro unitateak* izango dira, hitz hauek erabiltzen dituzten pasarteak berriz, *testuinguru unitateak* izango dira, eta eta azkenik, idazlan bakoitza izango da *sailkapen unitatea*. Beraz idazlan ezbardinak sailkatu ditugu aztertutako hitzek pasarte ezbardinetan duten esanahiaren arabera.

Galdera irekien metodologia -erantzuleari libreki erantzuteko aukera emanaz- hau erabiliz, ikerlariak galdera eratzean erantzulearengan izan dezakeen eragina gutxitu egiten da; bestalde erantzuleari ez zaio inolako mugarik ezartzen galdera erantzuterakoan, eta azkenik erantzuleak dituen ikuspegi eta kezka ezbardinak jasotzeko aukera zabalik uzten da, erantzun aukeren zehaztasunik ez denez ematen. Guzti honengatik, metodologia hau erabiliaz errealitatea hurbilgotik aztertzeke aukera dugu.

Eduki azterketak, errealitatea hurbiletik aztertzeke aukera ematen digunez, ikerketa honen helburua lortzeko metodo egokia dela uste dugu, honela, gazteek aipatutakoak aztertu baititugu eta ez ikertzailearen imaginaziotik ateratako eritziak.

Aipagarria da testuak bere osotasunean aztertu direla. Ez da kodifikazio bat egin hitz ezbardinen artean, horien zenbaketa egin ahal izateko ondoren. Agertzen diren hitz guztiak -honetarako ordenadorea beharrezko tresna izan dugularik- jaso ondoren, hitzak bere testuinguruan duten esanahiaren arabera sailkatu ditugu. Esan behar da hitzak bere testuinguruan aztertu ahal izateko ere ordenadorea erabilgarria izan zaigula⁹.

Eduki azterketaren inguruko zenbait ikerlarik hiztegi batzuek lantzen egin zituzten beren ahaleginak, testu ezbardinei hiztegi bera aplikatuz hitzak kategori ezerdinetan sailkatzea lortzeko asmoz. Baina beste zenbait autorek -Mochmann eta Krippendorf- beste bide bat aukeratu zuten, testuko hitzen artean azterketa faktorialen bidez egitea sailkapena. Ikerlariak sailkapena osatuko duen kategoriak aurretik zehaztuta izan

⁹ J.I. RUIZ OLABUENAGA, M^a A. SPIZUA: *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*. Universidad de Deusto, Bilbao, 1989, 187 orr. La accesibilidad de los ordenadores ha llevado a los autores a centrar el análisis de contenido en dos momentos clave: el de la codificación (esto es la reducción de las muchas palabras del texto mediante su clasificación en un número mucho menor de categorías, principalmente a través del ordenador) y el del tratamiento informático de los datos calificados (a base de recuento de frecuencias de palabras, listado de palabras claves en su contexto, concordancias, clasificación de palabras en categorías de contenido, recuento de categorías de contenido, reelaboración basada en categorías y concurrencias, análisis factoriales exploratorios y confirmatorios...).

beharrean, testuan bertan idatzi denaren arabera osatuko dira sailkapeneko kategoria ezbardinak ¹⁰.

Gure ikerketan ere autore hauek aipatutako bidea jarraitu dugu. Gaztetxoen idazlanetako adierazpenak bere horretan irakurri ondoren eta esanahi ezbardinen arabera osatu ditugu sailkapeneko kategoria ezbardinak.

Hitzen sailkapena egiterakoan, testua irakurtzean ikerlariak ulertzen duena, egilearen esanahitik aldendu daiteke. Aipatu izan da esanahien sailkapena, egile ezbardinek adierazpen bera era bardinean sailkatzeko eran egina dagoenean bakarrik jo daitekela sailkapen egokitzat.

Sailkapena egitean bi gauza izan ditugu kontutan: batetik idazlanean esanahia argi adierazten ez den kasuetan edo zalantzazkoa denean nahiz aldi berean bi iritzi adierazten direnean, iritzi neutro bezala sailkatu dugu.

Bestalde zenbait kasutan idazlanaren egileak iritzi bat aipatu bai, baina beste batzuen esanak jasotzen ditu adierazitakoarekin bat datorren ala ez argi utzi gabe. Kasu honetako adierazpenak besteren esanetako adierazpen bezala sailkatu ditugu.

Azkenik, hitz batzuen azterketa zehatza egin denez, sailkapena osatu duten iritzi ezbardinez gain badira hitzak aipatu arren gaiari ez dagokion beste esanahi batzuek biltzen dituzten adierazpenak. Adierazpen hauek gaiari ez dagokion adierazpen bezala sailkatu dira.

Gazteak euskarari buruzko idazlana idazterakoan bere ustez euskara zer den adierazten du, ikerlariak gazteari inungo iritzirik aurreratu gabe. Gazteek bere inguruan euskarari buruz entzuten dituen adierazpenen bidez, gurasoei, andereino-irakasleei nahiz lagunei entzuten dietenaren bidez osatzen dute bere jarrera euskararekiko. Beraz, esan daiteke euskal gazteen inguruan bizirik dauden euskarari buruzko uste, nahi eta asmoak jaso ditugula gazte hauek idazlanetan egin dizkiguten adierazpenen bidez.

Eduki azterketa egin ondoren, idazlanetan aipatzen diren bi gairen azterketa zehatzago bat ere egin dugu: euskara eta lana alde batetik, eta euskara eta euskaldun izaera bestaldetik. Ezaugarri ezbardinetako gazteen hitzen erabilera ezbardinean oinarrituz, SPADT programa informatikoaren bidez azterketa faktorial bat egin da.

¹⁰ Al mismo tiempo están ganando importancia los procedimientos de clasificación empírica. Estos procedimientos no definen los conceptos teóricos a priori. Sus conceptos teóricos son el resultado de procedimientos estadísticos, tales como el análisis factorial o el análisis de conglomerados, realizados sobre matrices de correlación obtenidas a partir del texto que se investiga. REVISTA INTERNACIONAL SOCIOL., Madrid-43 (1) 1985, 17-18 orr.

Testu idatzien azterketa egitean, metodo kualitatibo eta kuantitatiboak erabili daitezke. Gure azterketan, litzten neurketa zehatza egiteko teknika kualitatiboez gain, aldagai bako nahiz biko teknikak -aldagai ezbardinen arteko taula gurutzatuak-, eta aldagaiantzdun teknikak -teknika mutibarianteak- ere erabili ditugu beraz.

4.2. IKERLANEKO GALDERA ERANTZUTEKO ZEIN GAZTETXO AUKERATU

Euskalerriko lurralde bakoitzean gure ikerketako galderari erantzuteko aztertuko diren ikasleen aukeraketan aldagai ezbardinak hartu dira kontutan. Ezaugarri ezbardinetako gazteen artetik zegokien pisuaren arabera aukeratu dira ikertuak izango diren gazteak. Esan behar dugu, guztira Euskalerra osoko 3.655 gazte ikertu direla gure lan honetan.

4.2.1. LAGINA AUKERATZEKO ERABILITAKO ALDAGAIK

Laginaren aukeraketa egiteko, datu soziodemografikoak hartu ditugu kontuan. Aurrena Euskalerriko lurralde bakoitzean herriak bereiztu ditugu: biztanle kopurua, euskeraren ezagutza, eta etorkin kopuruaren arabera. Eta bestalde ikastetxeak, ikastetxe mota eta hizkuntza ereduetan ezbardindu ditugu. Datu guzti hauek kontutan hartuz, proportzionalki aukeratu ditugu gure lanean aztertutako izan diren 8.O.H.O. mailako gaztetxoak.

1.- Herrietako biztanle kopurua:

- 2.000 baino biztanle gutxiagoko herriak
- 2.000 tik 10.000 biztanle bitartean
- 10.000 tik 50.000 biztanle bitartekoak
- 50.000 tik 100.000 bitartekoak
- Hiriburuak

2.- Herrietako euskeraren ezagutza

- % 0 - %20 euskeraren azagutza duten herriak
- %20 - %40 " " " "
- %40 - %60 " " " "
- %60 - %80 " " " "
- %80 - %100 " " " "

3.- Herrietako etorkin kopurua

- %0 - %10 eko etorkin kopurua
- %10 - %20 " "
- %20 - %30 " "
- %30 - %40 " "

4.- Ikastetxe mota

- Publikoa
- Pribatua
- Ikastola

5.- Hizkuntza eredia

- X Ikastetxean euskararik ez dute
- A Ikasketak erderaz, euskera ikasgai bezala
- B Euskeraz eta erdaraz ikasketak
- D Ikasketak euskeraz, eta erdera ikasgai modura

4.2.2. LAGINAREN ZENBATEKOA

Formula estadistikoaren arabera Autonomi Elkartean dauden 8.O.H.O. mailako ikasle kopuru orokorraren arabera 1.111 ikaslez osatu beharko genuke gure lagina %95.5 konfidantza maila eta %3 lagin erruarekin. Baina gure azterketarako eskuratuko genituen datuen egokitasuna ziurtatzearen eta ikerketa Nafarroa eta Iparraldera ere zabaldu nahia kontutan hartuz, laginaren kopurua zabaldu egin dugu.

Laginaren kopurua honela banatu dugu lurralde ezbardinetan:

- GIPUZKOA.....	1.000
- BIZKAIA.....	1.000
- ALABA.....	400
- NAFARROA.....	625
- IPARRALDEA.....	400
	3.425

Lurraldekako laginaren banaketa hau, lagina arrazoiu bat izango litzateke, lurralde guzietatik lagina naliko zabala jaso ahal izateko asmoz.

4.2.3. HERRIEN ETA IKASGELEN SAILKAPENA

Jarraian herriak sailkatu ditugu lurralde bakoitzean, biztanle kopurua, euskeraren ezagutza eta etorkin kopuruen arabera.

Ondoren, herri bakoitzean dauden 8.O.H.O. mailako ikasgelak zer ikastetxe mota eta zer hizkuntza ereduak diren ikusi dugu. Azkenean, taula batean atera ditugu lurralde bakoitzerako, herri mota bakoitzean, ikasle eta ikasgela kopuruak, berauek ikastetxe eta hizkuntza ereduez ezbardindurik.

Banaturik ditugu, haserako bost aldagairen arabera, 8. O.H.O.ko gela guziak lurralde bakoitzerako. Kopuru hau izango da gure azterketarako unibertsoa. Datu hauek I.Erankinean aurkezten ditugu.

4.2.4. LAGINARAKO IKASGELEN AUKERAKETA

Ondoren unibertso honetatik laginaren aukeraketara jo dugu. Horretarako, ikasle gelako batzbestekoa atera dugu lurralde bakoitzean, berau gutxi gora bera 25 ekoa dela kontutan harturik, Gipuzkoan 1.000 ikasle osatzeko 40 ikasgela hartu beharko ditugu, Bizkaian beste 40, Araban 16 e.a.

Lurralde bakoitzean, aldagai ezbardinen arabera, geruza bakoitzetik proportzionalki aukeratu dira lagina osatuko duten ikasgelak. Ondoren, ezaugarri bardineko herria eta ikasgelaren aukeratzeko zorizko aukeraketa erabili da. I.Eranskinean azaltzen ditugu lagina osatzeko aukeratu ditugun ikasgela edo 25 eko ikasle taldeak.

Ona hemen azkenean gure ikerketa osatu duten ikasle hauek, herrika eta ikastetxeka zerrenda batean zehaztuta. Bertan zehazten dira baita ere lagina eta ikasgela bakoitzetik jaso ahal izan diren galdekizun eta idazlan kopuruak ere.

	IKASTETXE MOTA	HIZKUNTZA EREDUA	IKASTETXEA	LAGINA	INKESTA KOPURUA	IDAZLAN KOPURUA	INKESTA ZENBAKIA
ARABA							
-	ARRAZUA-UBARRUNDIA..	Ikastola	B Ikasbide Ikastola	25	28	26	0001-0028
-	RIBERA BAJA.....	Publikoa	A Comarcal Unamunzaga	25	28	29	0029-0056
-	AMURRIO.....	Publikoa	B Colegio Lucas Rey	25	22	21	0057-0078
-	LLODIO.....	Publikoa	A Ortega y Gasset	25	36	29	0079-0114
		Ikastola	D Laudioko Ikastola	25	26	24	0115-0140
-	VITORIA-GASTEIZ.....	Publikoa	A Antonio Albandoz	125	17	122	0141-0157
		"	" Jose Mardones		46	46	0158-0203
		"	" Reyes Catolicos		58	52	0204-0261
	Publikoa	B Angel Ganiwet	25	28	25	0262-0289
	Pribatua	A Santa Maria	100	120	134	0290-0409
	Ikastola	B Olabide Ikastola	25	26	26	0410-0435
				400	435	429	
BIZKAIA							
-	MUNDAKA.....	Publikoa	D Colegio Publico Mundakako	25	18	34	0436-0453
	LARRABETZU.....	Publikoa	D Larrabetzu Inguruko eskola	25	16	16	0454-0469
-	MARKINA.....	Ikastola	D Bera Cruz Ikastola	25	29	29	0470-0498
-	ABADIÑO.....	Publikoa	A Matienako herri eskola	25	34	34	0499-0532
-	GORLIZ.....	Publikoa	B Gorlizko Ikastetxe publikoa	25	15	37	0533-0547
-	PLENTZIA.....	Publikoa	B Colegio Publico Plentzia	25	22	22	0548-0569
-	ORTUELLA.....	Publikoa	A Otxartaga	25	28	26	0570-0597
			Marcelino Ugalde		14	14	0598-0611
-	DERIO.....	Publikoa	A Colegio Publico Derio	25	18	17	0612-0629
		Pribatua	A Resurreccion Maria Azkue	25	32	32	0630-0661
-	GERNIKA.....	Publikoa	D Barrutia	25	38	36	0662-0699
		Ikastola	D San Fidel	25	34	33	0700-0733
-	AMOREBIETA.....	Ikastola	D Andra Mari Ikastola	25	32	30	0734-0765
-	GALDAKAO.....	Publikoa	A Colegio Publico Egua	25	24	23	0766-0789
-	JURANGO.....	Pribatua	A San Jose Jesuitak	25	37	38	0790-0826
-	LEIOA.....	Publikoa	A Sakonetas	25	30	34	0827-0856
		Pribatua	A Hijas B.V.Maria Irlandesas	25	41	39	0857-0897
-	SESTAO.....	Publikoa	A Colegio Publico Kueto	25	25	25	0898-0922
		Publikoa	B Colegio Publico Kueto	25	27	24	0923-0949
-	ERMUA.....	Publikoa	A Colegio Publico San Lorenzo	25	22	21	0950-0971
-	GETXO(Algorta).....	Publikoa	A San Ignacio	25	24	20	0972-0995
		Pribatua	A Santisima Trinidad	25	30	22	0996-1025
-	SANTURTZI.....	Publikoa	A Las Viñas	75	70	38	1026-1095
		Publikoa	B "	25	13	13	1096-1108
-	PORTUGALETE.....	Pribatua	A Colegio San Fernando	50	63	62	1109-1171
-	BARACALDO.....	Publikoa	A Colegio Publico Larrea	50	48	46	1172-1219
		Publikoa	B Musukuluba	25	17	13	1220-1236
		Pribatua	A Salesianos San Paulino d.Nola	25	35	45	1237-1271
-	BILBO.....	Publikoa	A Garcia Rivero(Atxuri)	125	20	92	1272-1291
			Gabriel Aresti		71	64	1292-1362

.....Pribatua	A Santa M ^a Micaela	100	27	131	26	1363-1389
	Calasancio(Escolapios)	104	104	104	104	1390-1493
.....Ikastola	D Begoñazpi	25	29	29	29	1494-1522
		1000	1087	1036		

GIPUZKOA

- ALEGIA.....	Publikoa	D San Juan	25	32	25	1523-1554
- ANOETA.....	Ikastola	D Anoeta ikastola	25	24	22	1555-1578
- ZESTOA.....	Publikoa	D Zestoako herri eskola	25	36	28	1579-1614
- USURBIL.....	Ikastola	D Udarregi ikastola	50	37	39	1615-1651
- ORDIZIA.....	Publikoa	B Fray A.Urdaneta	25	32	30	1652-1683
- ZIZURKIL.....	Publikoa	D Pedro M ^a Otaño	25	18	28	1684-1701
- URRETXU.....	Publikoa	D Gain Zuri	10	10	11	1702-1711
- URRETXU.....	Ikastola	D Lurdesko Ama	25	30	25	1712-1741
- ESKORIAZA.....	Publikoa	B Luis Eceiza y Alberdi	25	38	36	1742-1779
- AZPEITIA.....	Pribatua	B Sagrado Corazon	25	37	38	1780-1816
- BERGARA.....	Publikoa	B C.P.San Martin Aguirre	25	22	26	1817-1838
- ORATI.....	Pribatua	D Santa Escolastica	25	29	27	1839-1867
	Ikastola	D Txantxiku ikastola	25	28	79	1868-1895
- BEASAIN.....	Publikoa	B C.P. Murumendi	25	33	30	1896-1928
	Pribatua	A San Jose	25	33	33	1929-1961
- HERNANI.....	Pribatua	A Colegio La Inmaculada	25	27	54	1962-1988
- HERNANI.....	Publikoa	A Gabriel Celaya	25	21	21	1989-2009
- ARRASATE.....	Publikoa	B Musakola	25	28	29	2010-2037
	Pribatua	B N ^a S ^a Mercedes	25	37	37	2038-2074
	Ikastola	B San Viator	25	35	30	2075-2109
	Ikastola	D San Viator	50	38	57	38 2110-2147
		San Francisco Javier	19	19	17	2148-2166
- RENTERIA.....	Publikoa	A Colegio Viteri	75	41	81	40 2167-2207
- LASARTE.....	"	" Pablo Garaikoetxea	40	40	41	2208-2247
- RENTERIA.....	Pribatua	A Don Bosco	25	27	23	2248-2274
	Ikastola	B Orereta ikastola	25	19	35	19 2275-2293
- PASAIA.....	Ikastola	B Pasaia Lizeoa	16	16	15	2294-2309
- LASARTE.....	Ikastola	D Landaberri ikastola	25	40	34	2310-2349
- IRUN.....	Publikoa	A Santa Elena	50	48	45	2350-2397
	Pribatua	A El Pilar	25	38	27	2398-2435
- DONOSTI.....	Publikoa	A San J.CALASANZ Altza	50	45	43	2436-2480
	Pribatua	A La Asuncion	100	43	43	2481-2523
		Santa Teresa	69	112	53	2524-2592
	Pribatua	B San Luis La Salle	25	29	30	2593-2621
	Ikastola	D Santo Tomas Lizeoa	50	72	70	2622-2693
			1000	1171	1174	

NAFARROA

		LAGINA	JASOTAKO INKESTAK	IDAZ LANAK	INKESTA ZENBAKIA
-DONESTEBE C.P.C."SAN MIGUEL"	Publikoa A.....	25	30	30	2694-2723
-AOIZ Comarcal Aoiz	Publikoa G.....	75	29	27	2724-2752
-LUMBIER C.P.C. SAN JUAN	Publikoa G.....		15	16	2753-2767
-LEITZA C.P. DE LEITZA	Publikoa D.....	25	26	26	2768-2793
-BAZTAN/ ELIZONDO "BAZTANGO IKASTOLA"	Ikastola D.....	25	27	21	2794-2820
-ARAKIL/IRURTZUN C.P.ATAKONDOA	Publikoa G.....		26	13	2821-2846
-CIZUR MAYOR Comarcal Cizur	Publikoa G.....	125	68	56	2847-2914
-NOAIN C.P.C.SAN MIGUEL	Publikoa G.....		33	25	2915-2947
-CIZUR MENOR "SAN FERNIN"	Pribatua D.....	25	26	26	2948-2973
-VILLABA "LA PRESENTACION"	Pribatua G.....	25	28	28	2974-3001
-ANSOAIN C.P.EZKABA	Publikoa G.....	50	47	24	3002-3048
-BURLADA "REGINA PACIS"	Pribatua G.....	50	44	22	3049-3093
-PAMPLONA/IRURREA: C.P.DE PRACTICAS SAN FRANCISCO	Publikoa G.....	75	22	16	3094-3113
C.P. SAN JUAN DE LA CADENA.....	Publikoa G.....		53	37	3114-3166
SAN IGNACIO.....	Pribatua G.....		80	78	3167-3246
IRABIA.....	Pribatua G.....	125	74	69	3247-3321
			628	514	

IPARRALDEA

		LAGINA	INKESTA KOPURUA	IDAZLAN ZBK KOPURUA	
BAIGORRI:	Publikoa: Collège d'enseignement secondaire Pujo.....	20	13	14	3322-3334
	Pribatua: Collège Bill Etxea Euskaraz.....	20	20	0	3335-3354
BIDAXUNE:	Publikoa: Collège Nationalisé.....	20	15	15	3355-3369
SENPERE:	Pribatua: Collège Aretxea.....	50	32	32	3370-3401
HAZPARNE:	Publikoa: Collège d'enseignement secondaire Elhuyar.....	20	12	8	3402-3413
	Pribatua: Collège Ursuya.....	20	23	20	3414-3436
KANBO:	Publikoa: Collège d'enseignement secondaire Erobi.....	20	29	29	3437-3465
	Ikastola: Beñat Etxepare ikastola D Eredua.....	20	21	20	3466-3486
MAULE:	Pribatua: Collège Saint François.....	20	21	16	3487-3507
DONIBANE					
LOITZUNE:	Publikoa: Lycée Maurice Ravel Euskaraz.....	20	20	20	3508-3527
	Pribatua: Collège Ste Marie.....	50	47	33	3528-3574
ANGELU:	Publikoa: Collège d'enseignement secon.Endara.....	20	27	26	3575-3601
	Pribatua: Collège Stella Maris Le Refuge.....	20	0	0	

BAIONA:	Pribatua: Collège Largenté.....	50	58	57	3602-3659
	Publikoa: Marracq collège d'enseignement secondaire...	50	0	0	
		-----	-----	-----	
		400	338	290	

Guztira eskuratu ditugun datuak:	GALDEKIZUNAK.....	3,655
	IDAZLANAK.....	3,442


Guztira 108 ikastetxe:	ARABA:	11
	BIZKAIA:	32
	GIPUZKOA:	35
	NAFARROA:	15
	IPARRALDEA:	15

4.3. DATU BILTZE LANA

Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailen eskutik eta Iparraldeko Hezkuntza Departamenduaren, Eleiza Katolikoaren Hezkuntza Ordezkaritzaren eta Scaskaren eskutik, lortu dira ikerketa egiteko baimen eta xehetasunak.

Ikastetxe bakoitzeko zuzendariengandik ikerketa egiteko baimena lortu ondoren, ikastetxeetara joan eta bertan eskola orduetan, ikasleei galdekizuna erantzuteko eskatu zaie. Galdekizunak norberak betetzekoak direnez, aurretik azalpen batzuek eman arren ikasle bakoitzak bere kasa erantzun dio galdekizunari. Idazlanak berriz beste egun batean, ikastetxean nahiz beren etxeetan idatzi dituzte ikasle beraiek.

Galdekizun hauek, 1991ko Martxotik-Maiatza bitartean eta 1992ko Urritik-Urtarrila bitartean jaso ditugu Euskalerriko 108 ikastetxetatik. Ondorengo orrialdean aurkezten den 2.Irudian zehazten da, gure ikerlaneko lagina osatu duten ikasgela ezbardinak non kokatzen diren. (Ikus 2.irudia.)



2. Irudia: IKERKETAN AZTERTUTAKO IKASGELEN KOKAPENA

Orokorrean, ikastetxeek ondo erantzun diote ikerketa honi, eta ikastetxe gehienetako zuzendariak interesatuta agertu dira ikerketa honen emaitzekin.

Jaso ditugun datuen zehaztasun guziak azaltzen ditugu aurreko zerrendan, lagina ideala eta lagina errealaren alderaketa bat eginez. Ikusi daitekenez ez dago alde haundirik lortu nahi genituen datuak eta ondoren eskuratu ditugun datuen artean.

Jaso ditugun datuak ugariak direnez, eta ezaugarri bakoitzari zegokion kopurura iristea lortu denez, lagina egoki osatu dugula esan genezake.

Lagina idealeko atal bakoitzeko ikasle kopuruekin parekatzeko ponderazio neurriak zehaztu dira, baina neurri hauekin zuzenketak egiteko beharrik ez dugu izan, emaitza bardinak ateratzen baitira.

4.4. LAGIN ERRUA

%95 eko konfidantza maila batekin esan dezakegu, osatu dugun laginaren eta unibertsoaren batzbestekoaren arteko aldea gehienez ere, 0.01 eko dela. Beraz bildu dugun lagina honen bidez, Euskalerriko 13-14 urtetako gaztetxoek ordezkaritza egokia lortu dugula esan dezakegu.

Honakoa da lurralde bakoitzean bildutako datuen lagin errua %95eko konfidantza maila batekin:

ARABA	0.04
BIZKAIA	0.02
GIPUZKOA	0.02
NAFARROA	0.03
IPARRALDEA	0.05

4.5. DATUEN INFORMATIZATZE LANA

Galdekizun hauek informatizatzea izan da urrengo lana. Denbora asko eman digu lan honek. Gainera eta informatizatze laneko errua gutxitzearren, zera da egin duguna; galdekizun guztiak bi aldiz informatizatu bi fitxero ezbardin osatuz. Ondoren ordenadorez alderatu ditugu bi fitxeroak eta erruak zuzendu ditugu. Guzti honek datu sartze lanean, ziurtasun ia osoa eman digu.

Gure ikerlaneko galdera zehaztu eta galdera honi erantzuteko zer bide erabiliko ditugun azaldu ondoren, ikerlanean bildutako datuek eman dizkiguten emaitzak azalduko ditugu jarraian. Horretarako, aurrena, gaztetxoek artean euskararen ezagutza eta erabilera nolakoa den aztertu beharko dugu. Ondoren, hizkuntza jarrerak

ere neurtu beharko ditugu; azkenik, neurtutako hizkuntza jarrera hauek, euskara ikastea eta erabiltzean duten erasana aztertu ahal izateko.

5

EMAITZAK AZTERTZEN

5.1.

EUSKARAREN EZAGUPENA ETA ERABILPENA

5.1. EUSKARAREN EZAGUPENA ETA ERABILPENA

Lehenengo zati honetan, 13-14 urteko gaztetxoen euskararen ezagupena eta erabilpena aztertuko ditugu.

Aurrena, gazte hauen euskararen ezagutza eta erabilera zehazki aztertuko dugu. Zenbateraino dakite gazte hauek euskaraz idazten, irakurtzen edo hitzegiten? Zenbateraino erabiltzen dute eguneroko gizarte bizitzan euskara?

Bigarrenik, gazteen euskararen ezagupenean eta erabileran, etxeko nahiz gizartezko hainbat eragilek zenbaterainoko eragina duten aztertu nahi dugu. Gurasoengandik jasotako hizkuntzak edo euskara ikasi dueneko adinak ba ote du eraginik gaztearen euskara ezagutzan? Berdina ote da adin honetako gazteen euskararen ezagutza eta erabilera Euskalerriko lurralde bakoitzean? Eta biztanle kopuruz, euskararen ezagutzaz eta bertakotasunez ezberdinak diren herrietan? Zenbateraino ezagutzen edo erabiltzen ote da euskara ikastetxe mota ezberdinetan eta hizkuntza eredu ezberdinetan? Gurasoen jatorriak edo gurasoen euskararen ezagutzak eraginik ba ote du beren seme alabek euskara ikastea edo erabiltzean? Gazte hauek duten herri izaerak edo atxekimenduak ba ote du eraginik gazte hauen euskararen ezagutzan eta erabileran?

Bestalde, gurasoengandik seme-alabengan euskara helaraztean etenik egon ote den ere jakin nahi genuke. Bi gurasoek euskara dakitenak izanik nolakoa da berauen seme alaben euskara ezagutza eta zenbateraino erabiltzen dute euskara?

Gizarte eremu ezberdinetan gazte hauen euskararen erabilera nolakoa den ere aztertu nahi dugu. Baita, lurralde bakoitzean euskararen eremukako erabilera nolakoa den ere. Bestalde, gazte hauek, eskutitz bat idazteko telefonoa erantzuteko edo ikasketak egiteko, besteak beste, zein hizkuntza aukeratuko luketen jakin nahi dugu.

Gazte hauek erabiltzen duten hizkuntzaz diotena neurtzeaz gain, gazte hauen hizkuntza portaera erreal edo erabilera ez-hitzezko bat ere neurtu nahi izan dugu. Hain zuzen ere, gazteek idazlana idaztean egin duten hizkuntza aukera aztertuko dugu. Idazlana euskaraz hala erdaraz idaztea erabakitzerakoan, biziterriko gizartezko ezaugarriek nahiz hezkuntza motak duten zer esana ere ezagutu nahi dugu.

5.1.1. EUSKARAREN EZAGUTZA

Euskalerri osoan euskararen ezagutzaren arabera honela banatuko litzateke 13-14 urtetako gaztedia:

1.1.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA

EUSKARAREN EZAGUTZA ¹		%
EUSKALDUNA	1059	30.7
IA-EUSKALDUNA	1759	51.0
IA-EUSKALDUN PASIBOA	122	3.5
ERDALDUNA	411	11.9
GUZTIRA	3447	100.0

Euskalerrian, ia herena da (%30.7) euskara ondo dakiten 13-14 urtetako gaztetxoek kopurua, eta euskal gaztetxoek erdiak dira euskara erdizka dakitenak edo ia-euskaldunak (%51). Azkenik, Euskalerrian euskara erabiltzeko gaitasunik ez duten gaztetxoek hamarretik bat inguruko kopurua osatzen dutelarik (%11.9).

Hala ere, jakinikoa da lurralde ezberdinetan euskararen ezagupena ezberdina dela, lurralde ezberdinetako gazteek beren ikastetxeetan euskara ikasi eta lantzeko dituzten aukerak ezberdinak diren bezala.

1.2.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA LURRALDEKA (Gohitik beherako ehunekoak)

EUSKARAREN EZAGUTZA 3.447	AUTONOMI ELKARTEA 2.555	ARABA 402	BIZKAIA 1.037	GIPUZKOA 1.116	NAFARROA 592	IPARRALDE 300
EUSKALDUNA	36.4	24.1	27.5	49.0	11.7	20.3
IA-EUSKALDUNA	57.8	69.9	65.3	46.6	29.1	36.3
IA-EUSKALDUN PASIBOA	1.8	1.7	1.5	2.1	7.9	9.7
ERDALDUNA	1.5	2.0	2.5	0.4	46.8	31.7

¹ EUSKALDUNA: Euskaraz hitzegiten ondo daki, eta idazkera, ulermena eta irakurmena ere ona edo erdizkakoak ditu.

IA-EUSKALDUNA: Euskaraz erdizka hitzegiten du, eta erdizkako gaitasuna du euskaraz irakurtzeko edo idazteko.

IA-EUSKALDUN PASIBOA: Ez daki euskaraz hitzegiten, nahiz eta irakurri, idatzi edo ulertu egiten duen, erdizka bada ere.

ERDALDUNA: Ez daki euskaraz hitzegiten, ez du euskararik ulertzen eta ez daki, ez idazten ez irakurtzen.

Euskaldun gehien Gipuzkoako lurraldean aurkitzen da, bertako gazteen ia erdiak (%49) izanik euskaldunak edo euskara ondo dakitenak. Bizkaian, Araban eta Iparraldean laurdena osatzen dute euskaldunak diren gazteek, laurdena pasa Bizkaian (%27.5) eta Araban (%24.1a), eta ia laurdena Iparraldean (%20.3a).

Nafarroa da euskaldun kopuru txikiena duen lurraldea, bertako gazteen artean hamarretik bat inguru izanik euskalduna (%11.7).

Ia euskaldunak berriz, Araba eta Bizkaian daude ugari, bi herenera iristen baitira bertan euskara erdizka ezagutzen dutenak, (%69.9 Araban eta %65.3 Bizkaian). Iparraldeko ia-euskaldunen kopurua Araba eta Bizkaikoen erdia besterik ez da, (%36.3) eta Nafarroan oraindik txikiagoa da ia-euskaldunen kopurua (%29.1).

Ia-euskaldun pasiborik ia ez dago Autonomia Elkartean, eta hamarretik bat inguru dira Nafarroan %7.9a.

Euskararik ez dakiten gazte gehien, lurralde erdalduneneetan aurkitzen dira gehienbat, Iparraldean eta Nafarroan. Bertako gazteen ia erdiak dira erdaldun edo euskararik ezagutzen ez dutenak %46.8a Nafarroan eta Iparraldean ia herena %31.7a.

Autonomi Elkartean kokatzen dira euskaldun gehien Nafarroarekin eta Iparraldearekin alderatuz gero, bertan euskaldunen kopuruak herena pasa osatzen dutelarik, %36.4a. Ia-euskaldun edo euskara erdizka dakitenak ere, Autonomi Elkartean aurkitzen dira gehienbat, %57.8.

Beraz euskara gaitasunari dagokionez egoera zeharo ezberdinarekin aurkitzen gera Autonomi Elkartean eta gainontzeko lurraldeetan, bertako gazteak izanik euskararen gaitasun haundiena dutenak alde haundiz. Nafarroako gazteak dira berriz, euskararen ezagutzaren kopuru txikiak adierazten dizkigutenak.

Euskara gaitasunari buruzko datu hauek, eztabaidagarri gerta daitezke gazte hauek duten euskara gaitasuna beraien esanetan oinarritzen dela kontutan hartuz gero. Jakina denez euskarak gizartean duen balorazioa euskara gaitasunarena baino indartsuagoa izanik, erantzunak errealitatetik aldenduak egon daitezke. Nolabait ezagutzaren datu hau baieztatzeko, gazteen hizkuntza gaitasuna zehazten saiatu gara, ekintza zehatzak euskaraz burutzeko beraiek duten gaitasunaz galdetuz:

1.3.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA EKINTZA ZEHATZEN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA 3.655	ELKARRIZKETA BAT EUSKARAZ	EUSKAL LIBURUAK IRAKURRI	EUSKARAZ IRRATIA EDO ETB ULERTU
ONDO	30.2	33.9	33.1
NAHIKO ONDO	12.9	16.1	13.1
EZ OSO ONDO	33.3	30.0	35.2
EZ NAIZ GAUZA	20.8	17.6	17.0

1.3.Taulan ikusten dugunez, gazteek ekintza zehatzei buruzko ezagutza adieraztean, gazte hauen herena inguru dira euskara ondo ezagutzen dutenak. Euskara erdizka ezagutzen dutenen artean berriz, gehienbatek ez du oso ondo hitzegiten, ez irakurtzen, ez ulertzen euskara, ez baitira gai euskaraz ondo edo nahiko ondo elkarrizketa bat bideratzeko, irratia ulertzeko edo liburu bat irakurtzeko.

5.1.1.1. Euskararen ezagutza hizkuntza ahalmen ezberdinen arabera

Galdekizuna erantzun duten Euskalerriko 13-14 urtetako gazte hauen euskara gaitasuna hizkuntza ahalmen ezberdinen arabera ere neurtu daiteke, eta hona hemen erantzuna.

1.4.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA AHALMEN EZBERDINEN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA	HITZEGITEN 3.655	ULERTZEN 3.655	IDAZTEN 3.655	IRAKURTZEN 3.655
ONDO	33.1	43.7	42.8	47.9
ERDIZKA	27.8	23.4	31.2	28.3
GUTXI	21.3	16.7	9.0	8.5
EZER EZ	15.8	14.1	15.7	13.4
EZ D. / EZ ERA	2.0	2.0	1.0	1.8

1.4.Taulan azaltzen denez, Euskalerriko gazteen %42,8ak ondo daki idazten eta %47,9ak ondo daki irakurtzen euskaraz, hau da, euskararen alfabetatuak daude. Hala ere %33,1a da euskaraz hitzegiten ondo dakiela aitortzen duena, hau da, euskara ulertu, idatzi edo irakurri egiten dutenak baino zerbait gutxiago. Ikastetxean euskaldundu diren adierazlea dugu hau, bertan hizkuntzaren idazkera eta irakurmena lehenago lantzen baita mintzamenaren bano.

Multzo nabaria dugu euskara erdizka ezagutzen dutenena ere, euskaraz zerbait badakitela aitortzen dutenak, ia herenera urreratzen dira (%27.8 idazten, %23.4 irakurtzen, %31.2 hitzegiten eta %28.3 ulertzen).

Aipagarria da Euskalerrian, %15aren inguruan dagoela gaur egunean euskararik ez dakitenen kopurua. Hala ere zenbaki hau lurralde ezberdinetan alderatu

beharko genuke, jakina denez ez baita Autonomi Elkarteko euskalduntze prozesu berdina eman ez Iparraldean eta ez Nafarroan.

1.5.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA, HITZEGIN ETA IDAZTEN LURRALDEKA

EUSKARAREN EZAGUTZA	AUTONOMI ELKARTEA	NAFARROA	IPARRALDEA
3.655 %	2.689	628	338
HITZEGITEN			
Ondo	39.3	12.6	21.3
Erdizka	33.2	9.4	18.9
Gutxi	21.0	24.7	16.6
Ezer ez	4.5	49.8	42.0
Ez erantz.	1.8	3.5	1.2
	100.0	100.0	100.0
IDAZTEN			
Ondo	53.8	10.7	14.8
Erdizka	37.3	12.4	17.8
Gutxi	6.7	14.3	17.5
Ezer ez	1.0	60.8	48.8
Ez erantz.	.9	1.6	1.2
	100.0	100.0	100.0

1.5.Taulan ikus daitezenez, Autonomi Elkartean euskaraz hitzegiten batere ez dakiten batzuk baldin badaude ere, berauen kopurua txikia da (%4.5a), Nafarroa eta Iparraldekoekin alderatuz, ia erdiak baitira hitzegiten ez dakitenak (%49.8) Nafarroan eta (%42.0) Iparraldean.

Iparraldean gazte askok euskaraz hitzegiten jakin arren, horietatik denak ez daude alfabetatuak, ikastetxe gehienetan euskara ikasi eta lantzeko aukerarik ez baitute izan. Autonomi Elkartean aldiz, hitzegiten dakitenak baino gehiago dira idazteko eta irakurtzeko gai direnak, ikastetxeetan euskara eskeintzeak ezberdintzen du Autonomi Elkartea beste lurraldeekiko. Nafarroan ere euskara dakitenak, nahiz eta gutxiengoa izan, alfabetatuak daude, ikastetxeetan euskara lantzeko aukera dutenez gero.

5.1.1.2. Gurasoengandik jasotako hizkuntza

Euskara dakitela aitortzen dutenen artean, dakiten euskara etxean ala ikastetxean ikasi duten galdetu dezakegu.

1.6.Taulan ikusi daitekeen bezala, gazteen laurden bat inguruk bere gurasoengandik ikasi du euskara, %18.4ak euskara bakarrik eta %7,9ak erdararekin batera. Beraz, euskara ezagutzera iritsi diren guzietatik ez dute gurasoengandik jaso euskara, eskolak eskeini dieten aukerari zor die beraz ikasi duten euskara.

1.6.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA GURASOENGANDIK IKASITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	EUSKARA TA GAZTELERA	BESTE KASU BAT
3.447 %	635 %18.4	2.254 %65.4	188 %5.5	274 %7.9	1.1 37%
EUSKALDUNA	84.3	14.4	8.0	59.5	8.1
IA-EUSKALDUNA	13.4	65.1	29.8	36.1	48.6
IA-EUSKALDUN PASIBOA	0.5	3.8	13.3	1.8	8.1
ERDALDUNA	0.2	13.7	46.8	0.4	21.6

Ama hizkuntza euskara hutsa izan dutenek, hau da, beren gurasoengandik jasotako hizkuntza euskara izan dutenen artean ia denek (%84.3k) dakite euskaraz ondo hitzegiten 13-14 urterekin. Aipatzekoa da, nahiz eta gurasoengandik ikasitako hizkuntza euskara izan, 13-14 urterekin euskaraz erdizka dakitenak hamarretik bat pasatxo direla (%13.4), hizkuntza honen ezagutza galdu dutenak.

Gurasoengandik euskara gaztelerekin batera jaso dutenen artean berriz, oraindik gehiago dira euskara galdu dutenak, euskara ondo dakitenen kopurua jeitsi egiten baita hamarretik ia seiraino (%59.6).

Lehen hizkuntza gaztelera izan dutenen artean, nipagarria da gchiengoak euskara ikasi duela 13-14 urteko adina iritsi bitartean irakaskuntzaren bidez. Berauen artean chuneko 14.4k euskara ondo hitzegiteko hainako ezagutza lortu du, eta gchiengo batek, ia bi herenek (%65.1), euskara erdizka ikasi dute. Azpimarragarria da, nahiz eta guztiek euskara ikasteko aukera izan ikastetxeetan, ez dutela denek euskara ikasteen lorpen berdina izan, berauen artean chuneko 13.7ak edo hamarretik bat pasatxok, ez baitaki batere euskararik.

Gurasoengandik frantsesa jaso eta euskara ezagutzera iritsi direnaren kopurua txikiagoa da gaztelera jaso dutenekin alderatuz. Hamarretik batera ez da iristen (%8a), euskara ondo ikasi dutenen kopurua eta beste %29.8k erdizka ikasi du. Beraz, frantsesa etxean ikasi dutenen artean erdia pasatxo dira euskara ezagutzen dutenak, eta gainontzeko ia erdiak (%46.8a) euskararen ezagupenik ez dute.

5.1.1.3. Euskara ikasi dueneko adina

1.7.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA EUSKARA IKASTE ADINAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA	HITZEGITEN IKASI NUENEAN	3,4,5 URTE NITUELA	6,7,8 URTE NITUELA	9,10,11 URTE NITUELA	12,13 URTE NITUELA	INOIZ ERE EZ
3.447 %	799 %23.2	952 %27.6	535 %15.5	350 %10.2	266 %7.7	466 %13.5
EUSKALDUNA	79.3	34.0	10.5	6.6	4.5	0.4
IA-EUSKALDUNA	18.3	60.6	81.9	80.9	81.6	9.7
IA-EUSKALDUN PASIBOA	0.8	2.3	2.2	5.7	6.0	9.4
ERDALDUNA	0.4	1.1	1.9	2.9	4.5	76.8

Euskara, lehen hizkuntza bezala, hau da, euskara hitzegiten ikasteen jaso dutenen artean dago euskaldun kopuru altuena, berauen artean ia hamarretik zortzi dira euskaldunak, %79.3a, eta euskara erdizka dakitenak, hamarretik bira gerturatzen dira, %18.3.

Gainontzeko taldeetan, euskara beranduago ikasi dutenetan, ia-euskaldunak dira nagusi, euskara jakin arren erdizka dakitenak.

Euskara zenbat eta beranduago ikasi, orduan eta gutxiago dira euskara ondo ezagutzera iristen direnak, 3-4-5 urterekin euskara ikasi dutenen artean ondo dakitenak herena baldin badira (%34), ehuneko bostaren azpitik gelditzen dira euskara 12-13 urterekin ikasteen. Euskara 3 urte baino beranduago ikasten duen gehienbatek, erdizka ikasten du euskara.

5.1.1.4. Familian euskara ikasteko bultzada

Euskararen transmisioan gurasoen euskararekiko nahiek, garrantzi handia izango dute gazteen euskararekiko balorazioa eta motibazioa indartzean edo ahultzean.

Gazte hauek, gizartean orokorki eta etxeetan duten giroa euskararen aldekoa da, euskararen balorazio ona baitute gurasoek, gehiengo handi batek beraien seme-alabak euskara ikastearen alde agertzen direlarik.

1.8.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA GURASOEN NAHIA EUSKARAREKIKO

EUSKARAREN EZAGUTZA	BAI NAHI DUTE NIK IKASTEA	EZ DUTE NAHI NIK IKASTEA	EZ DAKIT ZER NAHI DUTEN
3.447 %	2.705 %78.4	157 %4.6	566 %16.4
EUSKALDUNA	38.1	1.9	3.9
IA-EUSKALDUNA	54.3	22.3	43.1
IA-EUSKALDUN PASIBOA	2.4	7.0	8.0
ERDALDUNA	2.7	64.3	41.5

Gurasoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beraien seme alabekiko dituzten nahiek, seme-alaben euskara ikasteen zer esana dutela argi azaltzen da.

1.8.Taulan ikusten denez, beren seme-alabek euskara ikasteko nahia azaltzen duten gurasoen ondorengo gehientsuenek euskara ikasi dute. Hala ere, gehiengoak euskara erdizka ikasi du, hau da, ia euskaldunak dira.

Bere seme-alabek euskara ikastea nahi ez duten gurasoen ondorengo gehienbatek berriz, ez du ikasi euskararik.

Gurasoek euskararekiko duten nahia, beste era batera ere aztertu daiteke, gurasoek beren seme-alabentzat aukeratzen duten hizkuntza erdua aztertuz hain zuzen ere.

1.9.TAULA: EUSKARAZ ONDO DAKITENAK, GURASOEN EUSKARA EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA EREDUAREN ARABERA

GURASO EUSKARA EZAGUTZA	BI GURASOEN DAKITE EUSKARAZ				BI GURASOETAKO BATEK DAKI EUSKARAZ				BI GURASOETAKO INORK EZ DAKI			
	761				577				2.044			
HIZKUNTZA A EREDUA	A	B	D	X	A	B	D	X	A	B	D	X
	68	116	470	107	206	131	137	103	79	106	52	3
ONDO DAKITE EUSKARAZ	38 %	70 %	432 %	23 %	41 %	72 %	105 %	6 %	79 %	106 %	52 %	3 %
	55.9	77.8	91.9	21.5	19.9	57.6	76.6	5.8	6.8	38.3	66.7	0.6
EUSKARAZ ONDO DAKITE GUZTIRA	577				227				240			

Gazteek jasotzen duten hizkuntza erdua gurasoek aukeratua denez gero, gurasoen nahiek zer esana izango dute gaztearen euskalduntzean. Hala ere, hau ez da nahikoa, gurasoen euskara jakiteak ere eragiten baitu gaztearen euskararen ezagutzan.

Gurasoek euskararik ez jakin arren, beren seme-alabek euskara ikastea nahi izanez gero, D eta B ereduak dituzte lorpen haundienak gaztearen euskalduntzean. D ereduaren kasuan ikasleen %66.7a iristen baita euskara ondo ezagutzera.

Esan dezakegu gaztearen euskalduntzea bai eskolan bai etxean ematen dela. Beraz euskara etxean eskeini ezin dezakeenak eskolan ere lortu dezake seme-alabaren euskalduntzea, eredu euskaldunak aukeratuz gero. Eredu euskaldunen aukerak berriz, gurasoek bere seme-alaba euskalduntzeko nahia adierazten du.

Mackey'k aipatzen duen bezala, hezkuntza elebiduneko ereduak hizkuntza gutxiengotuan eskeini beharko du hezkuntza gehiena, ikasleak hizkuntza honen ezagutza egoki bat lortzea nahi izanez gero, hizkuntza gutxiengotuak gizartean duen egoera gainditu baitu.

Bestalde, nahiz eta bi gurasoek euskara jakin, seme alabak euskalduntzeko nahia izan behar dute eredu euskaldunen aukera eginez bere seme-alabak euskara ondo ezagutzera iritsiko badira, bestela erdizka lortuko baita seme-alaben euskararen ezagutza, gurasoek etxean eskeintzen dutena eskolaren bidez oztopatua gertatu baitaiteke.

5.1.1.5. Ikastetxeko euskararen ezagutza

Kontutan hartzekoa da baita ere, gazte hauek ikastetxean euskara aldetik duten egoera, ez baidute guziek giro euskalduna gaztearentzat hain esankorra den gunean.

1.10.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA IKASTETXKO EUSKARA EZAGUTZAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA	DENEK DAKITE	GEHIENEK DAKITE	BATZUK BAKARRIK DAKITE	INORK ERE EZ DAKI
3.447 %	827 %24.0	894 %25.9	1.511 %43.8	192 %5.6
EUSKALDUNA	74.6	31.2	9.9	5.2
IA-EUSKALDUNA	23.8	60.4	61.5	42.7
IA-EUSKALDUN PASIBOA	0.0	1.8	6.5	3.6
ERDALDUNA	0.0	3.7	19.3	42.2

1.10.Taulan ikusi dezakegunez, ikastetxean euskararen presentzia zenbat eta haundiagoa izan orduan eta euskararen ezagutza gehiago lortzen dute ikasleek. Honela denek euskara dakitenean, guztiak iristen dira euskara ikastera. Hiru laurdenek %74.6k ondo ikasten du eta %23.8k erdizka ikasten du euskara.

Ikastetxean inork euskararik ez jakinez gero berriz, euskara batere ikasten ez duten kopurua ia gazte horien erdira iristen da (%42.2) eta euskaraz ondo dakitenek aldiz ehuneko bosta besterik ez duteosatzen, %5.2a.

Aurkako joera aurkitzen da erdaldunen edo euskara batere ez dakitenen kopuruarekin, gora egiten baitu honek euskararen presentzia gutxitzen doan heinean. Erdaldunen kopurua ehuneko bostaren azpitik aurkitzen da (%3.7) euskara gehienek dakitenean eta ia ehuneko hogeituz dakitenean (%19.3). Bikoiztu egiten da berriz erdaldunen kopurua ikastetxeko inork ere ez dakienean euskararik (%42.2).

5.1.2. EUSKARAREN ERABILERA

Euskara ikasteko eskeini diren aukeren ondorioz, bere gurasoengandik nahiz eskolatik, gazte hauen gehiengoa euskara ikastera iritsi da, nahiz eta gehienek erdizkako ezagutza eskuratu.

1.11.TAULA: HIZKUNTZA ERABILERA EUSKARA EZAGUTZAREN ARABERA

HIZKUNTZA ERABILERA	EUSKAL-DUNA	IA EUSKAL-DUNA	IA EUSKAL-PASIBOA	ERDAL-DUNA	GUZTIRA
%	1.059 %30.7	1.759 %51.0	122 %3.5	411 %11.9	3.447
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	39.6	92.6	95.9	97.6	%76.7 2.645
EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	14.7	3.5	2.5	0.5	%6.6 227
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	44.8	2.6	0.8	0.2	%15.4 531

Gazteen artean euskararen ezagutza zeharo zabaldua dagoela ikusi badugu ere, erabilerari dagokionez erdararen erabilera nagusitzen da gazte hauen artean.

Euskara ondo dakitenen artean, gehiengoa da euskara erabiltzen duena (%44.8); hala ere ia beste horrenbestek, hamarretik lauk (% 39.6), erdara darabil bere giza harreman gehienetan.

Euskararen ezagutza erdizkakoa denean, ia-euskaldunen kasuan, erdara erabiltzen dute beti ez bada gehienetan, euskararen erabilera urria izanik hauen artean.

1.11.Taulan ikusten dugunez, euskara ondo dakitenak bakarrik dira euskara erabiltzen dutenak, eta euskara erdizka ezagutzen duten gehienek erdara erabiltzeko joera dute beren gizarte bizitzan.

Orokorrean, euskara zerbait erabili arren ere, erdarak du nagusitasuna Euskalerriko hitzun gazteen artean, hiru laurdenek erdara baidarabil beti edo ia beti.

Euskara erabili ahal izateko nahitaezko baldintza bat da hizkuntza horren ezagutza izatea, hala ere badira beste zenbait baldintza hizkuntza baten erabilera erabakitzen dutenak, Euskalerrian erabili lezaketen guzien artetik batzuk bakarrik baitira euskara erabiltzen duten gaztetxoak.

5.1.2.1 Euskararen erabilera lurraldeka

1.12.TAULA: HIZKUNTZA ERABILERA LURRALDEKA

HIZKUNTZA ERABILERA	AUTONO. ELKARTE A	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA	IPARRALDE
% 3.655	2.689	435	1.083	1.171	628	338
ERDARA BETI EDO GEHIAGO	73.2	91.7	81.4	58.7	87.7	84.6
ERDARA ETA EUSKARA BERTIN	7.2	4.4	7.0	8.5	4.9	6.2
EUSKARA BETI EDO GEHIAGO	18.2	2.5	10.1	31.5	6.5	8.0

Lurralde guzietan erdararen erabilera nagusitzen bada ere, lurralde batetik bestera ezberdintasunak aurkitzen ditugu. Gipuzkoako gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Beti edo gehienetan euskara darabilte %31.5ek, beraz, lurralde honetako gazteen ia herenak euskara erabiltzen du gehienbat. Araba dugu bestalde, euskara erabiltzen duen gazte kopuru txikiena duen lurraldea, %2.5, Nafarroa (%6.5a) eta Iparraldea (%8) daude urrengo eta Bizkaian ere antzeko kopuruak aurki genitzake (%10.1).

Era berean esan genezake Gipuzkoan ezezik, hamarretik zortzik edo bederatzik erdera erabiltzen duela gehienbat; Gipuzkoan ere gehiengoa osatzen du beti edo gehienetan erdara erabiltzen dutenen kopuruak (%58.7a) nahiz eta gainontzeko lurraldeetan baino gutxiago izan.

Gipuzkoan, hizkuntza erabilera ezberdina somatzen da beraz, nahiz eta gehiengoa erdara erabiltzen dutenek osatu, bertan aurkitzen da euskara gehien erabiltzen duen gazte kopurua.

Euskararen erabilera lurralde bakoitzeko ezagutzarekin alderatuz gero, esan genezake nahiz eta Araba eta Bizkaian, Iparralde eta Nafarroan baino euskara dakien gazte gehiago egon, euskara erabilera antzekoa ageri dela lau lurraldeetan. Beraz Autonomi Elkartean eta Elkartetik kanpoko lurraldeetan euskararen erabilera antzekoa aurkitzen dugu.

Bai Araban eta bai Bizkaian euskara ezagutzeko planak eta gazteak eskolan euskalduntzeko hizkuntza politikak bideratu badira ere, helburu hau batik bat ezagutzaren mailan lortu da, ez ordea horrenbeste erabileran.

5.1.2.2. Euskararen erabilera gizarte inguruko euskara ezagutzaren arabera

Euskara erabiltzeko gaitasuna izan arren, ingurukoek euskara ezagutzea ere beharrezkoa da euskarazko elkarriketa egongo bada. Beraz gizarteko edo gizarte inguruko euskararen ezagutzak baldintzatu dezake euskararen erabilera.

1.13. TAULA: HIZKUNTZA ERABILERA, NORBERE EUSKARA EZAGUTZA ETA HERRIKO EUSKARA EZAGUTZAREN ARABERA

HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA %	ZERBAIT EUSKALDUNA %0-40 Euskaldun		NAHIKO EUSKALDUNA %40-60 Euskaldun		OSO EUSKALDUNA %60-100 Euskaldun	
	EUSKAL DUNA	IA- EUSKALDUN	EUSKAL DUNA	IA- EUSKALDUN	EUSKAL DUNA	IA- EUSKALDUN
ERDARA	65.8	95.6	35.7	83.0	12.7	79.2
EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	15.1	2.2	14.6	7.6	14.4	9.7
EUSKARA	18.0	0.9	49.3	7.2	71.9	11.0

1.13.Taulan ikusi daitekenez, hiztunek hizkuntza erabilera ezberdina dute bizi diren gizarte inguruko euskara ezagutzaren arabera. Nahiz euskara ondo jakin, nahiz euskara erdizka jakin, inguru ez euskaldun batetan, hau da, euskaldunak %40a baino ehuneko txikiagoa osatzen duten herrietan, gehienek erdara erabiltzen dute. Erdara erabiltzen dute beti edo gehienetan euskara ondo ezagutzen dutenen %65.8ak eta euskara erdizka ezagutzen dutenen %95.6ak.

Herria nahiko euskalduna denean, %40-60 bitarteko euskaldun kopuruarekin, euskararen erabilera nagusitzen da euskaldunen artean, %49.3, baina ia-euskaldunen artean erdara da nagusi, %83k erdara gehiago erabiltzen baidu. Azken hauek, ia-euskaldunek inguru oso euskalduna denean ere (%60-100 euskaldun), erdara erabiltzen dute gehienbat, %79.2ak, beraien artean hamarretik batek bakarrik erabiltzen duelarik euskara herri oso euskaldunetan.

Beraz, euskara ondo dakitenek, euskara erabiltzen dute inguru oso erdalduna ez bada behintzat, %40 baino euskaldun gehiago aurkitzen den inguruetan. Ia-euskaldunek berriz, erdara erabiltzeko joera dute nahiz eta herria oso euskalduna izan.

Herriko euskara mailak euskaldunen hizkuntza erabilera baldintzatzen du, batez ere euskara ondo dakitenen hizkuntza erabilera mugatuz. Euskara erdizka dakitenek berriz, gizarte inguruaren muga hori ez izan arren, hau da, euskara erabiltzeko gizarte baldintzak emanda ere, ez dute euskararen aukera giten.

5.1.2.3. Ama hizkuntza eta euskararen erabilera

Ondoren, gurasoengandik seme-alabengana heltzen diren hizkuntza erabilera ohiturek zer jarraipen duten ikusi dezakegu.

1.14.TAULA: HIZKUNTZA ERABILERA GURASOENGANDIK IKASITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA

GURASOEI IKASITAKO HIZKUNTZA %	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	EUSKARA ETA GAZTELERA	BESTE BAT
	671	2.375	217	289	40
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	22.1	92.5	94.9	59.5	92.5
ERDARA TA EUSKARA BERDIN	12.8	3.8	1.4	19.7	2.5
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	63.8	2.4	2.8	19.4	2.5

Gurasoengandik euskara ikasi dutenen %63.8ak euskara darabil beti edo gehienetan, ia laurdenak berriz, nahiz eta euskara izan ama hizkuntza erdara erabiltzen du gehienbat.

Euskara gaztelerekin batera jaso duten gazteen artean erdiek baino gehiagok erdara darabilte, ehuneko 60ak, hamarretik bi inguru dira berriz (%19.4), euskara eta gaztelera biak izan ama hizkuntza eta euskara gehiago erabiltzen dutenak, eta beste horrenbeste euskara erdera hainbeste erabiltzen dutenak.

Azkenik, gaztelera, frantsesa, nahiz beste hizkuntza bat izan dutenek ama hizkuntza, erdara erabiltzen dute batik bat, eta oso gutxi dira hauen artean euskara, nahiz bi hizkuntzak erabiltzen dituztenak.

5.1.2.4. Familiaren nahia euskara ikasteko eta euskararen erabilera

1.15.TAULA: HIZKUNTZA ERABILERA GURASOEN EUSKARAREKIKO NAHIEN ARABERA

EUSKARAREN ERABILERA %	NAHI DUTE NIK IKASTEA	EZ DUTE NAHI NIK IKASTEA	EZ DAKIT ZER NAHI DUTEN
	2.866	165	604
ERDARA BETI EDO GEHIAGO	71.9	92.7	95.4
EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	8.0	1.8	1.8
EUSKARA BETI EDO GEHIAGO	19.0	1.2	1.3

Hizkuntzaren arloan gurasoen nahiek zer esana dute seme-alaben hizkuntza erabileran, honela gurasoek beren seme alabei euskara irakatsi nahi izan dieten kasuan, euskararen erabilera ugariagoa da (%19a), gurasoek aurkako nahia ageri dutenean baino (%1.2), ez baita kasu honetan ia euskararik erabiltzen.

Hala ere gurasoen nahiek ez dute erabakitzen gazteen hizkuntza erabilera. Gurasoen nahia euskararen aldekoa izan arren ere gazteen artean gehiengoak erdara erabiltzen du gehienetan, etxekoan nahiez gain gizarte baldintzak eraginda gazte hauek bestelako joerak dituzte hizkuntza erabiltzerakoan.

5.1.2.5. Euskara ikasteko adina eta euskararen erabilera

Euskara ikastearen adina kontutan hartuz gero berriz, 1.16.Taulan ikusi dezakegu, zenbat eta beranduago ikasi euskara orduan eta gutxiago erabiltzen dela.

1.16.TAULA: HIZKUNTZA ERABILERA EUSKARA IKASTE ADINAREN ARABERA

HIZKUNTZA ERABILERA %	HITZEGITEN IKASTEAN	3,4,5 URTE	6,7,8 URTE	9,10,11 URTE	12,13 URTE	INOIZ
	846	1.013	557	374	280	501
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	31.8	80.6	94.4	96.8	97.1	96.8
EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	14.1	9.4	2.5	1.6	1.8	0.8
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	53.0	8.9	1.6	1.1	0.4	0.4

Euskara txikitatik lehen hizkuntza modura ikasi dutenak dira euskara darabiltenak; bigarren hizkuntza modura ikasten dutenek berriz, ez dute euskara erabiltzen 13/14 urte dituzten garaian. Bestalde, aurreneko urteetan bigarren hizkuntza modura jaso dutenek euskara, gehiago erabiltzen dute, euskara ikasteko lehen ahalegina Hezkuntza Orokorrean izan dutenek baino.

Euskara lehen hizkuntza izan duten gehienek euskara erabiltzen dute beti edo erdara baino gehiago behintzat (%53.0). Hala ere bada hauen artean beste multzo handi bat, ia herena (%31.8), bere etxekoan eskutik euskara jaso arren, 13/14 urte dituztenean erdara gehiago erabiltzen dutenena.

Euskara 3,4,5 urterekin ikasi dutenek, hau da, eskolako lehen urteetan, euskara ez bestelako hizkuntza erabilera aukeratzen dute, erdara baidarabilte hauetako %80 inguruk.

Euskara 6 urtetik aurrera ikasi dutenek berriz, erdara erabiltzeko joera nabarmena dute, eta erdararen erabilera indartsuago azaltzen da euskara beranduago ikasten duten heinean.

Beraz esan dezakegu, eskolak eta batez ere O.H.O.n euskararik ez dakiten gazteei euskara ikasteko aukera eman arren ere, eskolaren bidez euskara jasotzen duten gazteak ez direla euskara erabiltzera iristen kasu gehienetan.

5.1.2.6. Ikastetxeko euskararen ezagutza eta euskararen erabilera

1.17.TAULA: IIIZKUNTZA ERABILERA IKASTETXKO EUSKARA EZAGUTZAREN ARABERA

IKASTETXKO EUSKARAREN EZAGUTZA %	DENEK DAKITE 873	GEHIENEK DAKITE 947	BATZUK BAKARRIK DAKITE 1.610	INORK ERE EZ DAKI 202
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	38.5	78.0	94.5	94.1
ERDARAZ ETA EUSKARAZ BERDIN	13.5	7.5	3.3	1.5
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	46.8	13.5	1.1	0.5

Gazte hauen gizarteratzea ematen ari den ikasgelan euskara ezagutzen denean, euskara erabiltzen den bezala, gelan euskararen presentzia gutxitzen den heinean, adibidez euskara gelako batzuk bakarrik dakitenean, euskararen erabilera zeharo jeisten da.

Ikastetxean denek euskara jakin arren ere, ez dute gaztetxoek beti euskara erabiltzen, %38.5ak erdara gehiago erabiltzen baitu euskara baino.

Ikasgelan denek ez baina gehienek euskara dakitenean, gazteen ia hamarretik zortzik (%78) erdara erabiltzen du bere gizarte bizitzan.

Ikastetxeko batzuk bakarrik dakitenean euskara erdararen nagusitasuna erabatekoa da, ikasgelan euskara inork ez dakienean gertatzen den bezala.

5.1.3. EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA GIZARTEZKO BALDINTZA EZBERDINEN ARABERA

5.1.3.1. Biziterriko biztanle kopurua

1.18.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA BIZITERRIKO BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA

EUSKARA EZAGUTZA ETA ERABILERA	HERRIXKA -2.0000 Biztanle	HERRI TXIKIA 2/10.000 Biztanle	HERRI HAUNDIA 10/50.000 Biztanle	HIRIA 50/100.000 Biztanle	HIRIBU RUA
GUZTIRA 3.447	322	626	1.045	393	1.061
EUSKALDUNA	43.8	40.9	39.9	13.7	18.0
IA-EUSKALDUNA	39.4	39.3	46.7	75.6	56.6
IA-EUSKALDUN PASIBOA	4.7	2.6	3.2	3.6	4.1
ERDALDUNA	11.2	13.9	7.7	2.8	18.6
GUZTIRA 3.655	353	659	1.111	418	1.114
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	61.8	64.6	68.0	94.0	90.9
ERDARAZ ETA EUSKARAZ BERDIN	14.7	7.9	6.4	3.1	5.2
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	22.9	26.9	24.3	0.7	2.3

Gazte hauek bizi diren herria zenbat eta txikiagoa izan orduan eta altuagoa da gaztetxo euskaldunen kopurua, hau da, euskara ondo dakitenen kopurua. Honela, herrixka eta herrietan, hau da, 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan, gazteen erdia inguruk euskara ondo ezagutzen du. Hiriburuetan aldiz, hamarretik bi inguru dira euskara ondo dakitenak (%18a); hala ere hirietan aurkitzen da euskaldunen kopuru txikiena, hamarretik bat inguru, %13.7ak besterik ez baitaki hirietan euskaraz ondo hitzegiten.

Euskaldunak gutxi diren herri haundi hauetan, ia-euskaldunek betetzen dute euskaldunen lekua, berauek izanik gehiengoa hirietan (%75.6) eta hiriburuetan (%56.6).

Euskararen erabileran ere antzeko joerak daude, 50.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan erabiltzen baita gehienbat.

Nahiz herri guzietan erdararen erabilera nagusitu, herrietan bertako gazteen laurdena inguruk euskara darabil gehienbat, hirietan berriz, hamarretik bataren azpitik gelditzen da gehienbat euskara erabiltzen dutenen kopurua, eta hiriburuetan ere urri da kopurua (%2.3a).

Beraz, herrietan ezagutzen da eta erabiltzen da euskara gehien, herrixketan baino zerbait gehiago, eta hirietan ezagutu eta erabiltzen da euskara gutxien, hiriburuetan baino zerbait gutxiago.

5.1.3.2. Biziterriko euskararen ezagutza

1.19.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA BIZITERRIKO EUSKARA EZAGUTZAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	ZERBAIT EUSKALDUNA %0-40 Euskaldun	NAHIKO EUSKALDUNA %40-60 Euskaldun	OSO EUSKALDUNA %60-100 Euskaldun
GUZTIRA 3.447	2.377	460	610
EUSKALDUNA	18.7	46.3	65.9
IA-EUSKALDUNA	58.1	48.5	25.2
IA-EUSKALDUN PASIBOA	4.2	2.0	2.1
ERDALDUNA	15.9	0.7	5.1
GUZTIRA 3.655	2.520	484	651
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	90.1	60.7	36.9
ERDARA ETA EUSKARA BERDIN	4.6	11.0	12.0
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	3.9	26.9	50.4

Gazte hauek bizi diren herrietan euskara dakitenak zenbat eta gehiago izan, orduan eta gehiago dira euskara ikasi eta erabiltzen duten gaztetxoak. Honela herri oso euskaldunetan, hau da, euskaldunak biztanleen %60a baino gehiago diren herrietan, gaztetxoek ia bi heren euskaldunak dira (%65.9) eta erdiek (%50.4) euskara erabiltzen dute beti edo ia beti.

Herri nahiko euskaldunetan berriz, euskaldunak %40-60 artean direnean, ez dira erdira iristen euskara ondo ezagutzen duten gazteak, (%46.3) eta laurdena inguru dira euskara erabiltzen dutenak beti edo gehienetan, (%26.9a).

Azkenik, euskaldunak %40a baino gutxiago diren herrietan, euskara ondo ezagutzen dutenak hamarretik bi baino gutxiago dira, (%18.7) eta gehienbat euskara erabiltzen dutenak ehuneko bostaren azpitik daude (%3.9).

Azpimarratzekoa da euskaldunak %60a baino gutxiago diren herrietan, euskara erdizka dakiten gaztetxoak edo ia-euskaldunak, ondo dakitenak baino gehiago direla eta erdararen erabilera nagusitzen dela gazteen artean. Herriko euskaldunak %60a baino gehiago diren kasuetan bakarrik aurkitzen dugu beraz, euskara ondo dakiten eta gehienetan euskara erabiltzen duten gazteen nagusitasuna. Herriko

gehienek euskara jakitean, gazteen gehiengoak ere euskararen erabilera aukeratzen du.

Gazte hauek bizi diren gizarte inguruak zer esana du zalantzarik gabe euskararen ezagutza eta erabileran, honela gizarte inguru euskaldun batetan aukera gehiago izango ditu gazte batek euskara ikasteko eta euskara jakinik erabili ahal izateko.

5.1.3.3. Biziterriko etorkin kopurua

1.20.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA BIZITERRIKO ETORKIN KOPURUAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	INMIGRAZIO TXIKIA %0-20	INMIGRAZIO HAUNDIA %20-40
GUZTIRA 3.447	839	1.850
EUSKALDUNA	53.5	28.5
IA-EUSKALDUNA	42.4	65.0
IA-EUSKALDUN PASIBOA	0.6	2.3
ERDALDUNA	1.4	1.6
GUZTIRA 3.655	805	1.750
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	51.6	83.0
ERDARA ETA EUSKARA BERDIN	9.2	6.3
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	38.5	9.0

Bestalde gazte hauek bizi diren herriko etorkin kopuruak ere zer esana du gazte hauen euskara ikastean eta erabiltzean. Zenbat eta inmigrazio gehiago orduan eta euskara ezagutza eta erabilera urriagoa aurkitzen dugu gazteen artean.

Inmigrazio txikiko herrietan, gazteen erdiak baino gehiagok (%53.5) euskara ondo ezagutzen duen bezala, inmigrazioa %20a baino gehiago den kasuetan, euskara dakiten gazteen kopurua erdira jeisten da (%28.5).

Erabilerari dagokionez, erderaren erabilera nagusitzen da kasu guzietan, hala ere inmigrazio txikia duten herrietan, euskararen erabilera %38.5ekoa da eta etorkinen kopurua %20a baino haundiagoa denean, ehuneko hamar ingururaino (%9) jeisten da euskararen erabilera.

Euskararen ezagutza jeitsi egiten bada etorkinen kopuruak gora egin hala, etorkinen ugaritasunak erasan haundiagoa du euskararen erabileran.

Euskara ondo dakitenen eta gehienetan euskara erabiltzen duten gazte kopuruak, behera egiten du inmigrazio kopuruak gora egiten duen heinean.

5.1.3.4. Ikastetxe mota

1.21.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA IKASTETXE MOTAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	IKASTOLA	PUBLIKOA	PRIBATUA
%			
3.447	572	1.643	1.232
EUSKALDUNA	82.3	24.0	15.7
IA-EUSKALDUNA	15.9	57.8	58.3
IA-EUSKALDUN PASIBOA	0.0	4	4.5
ERDALDUNA		11	18.7
GUZTIRA 3.655	610	1.735	1.310
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	35.1	82.4	88.7
ERDARA ETA EUSKARA BERDIN	14.1	6.6	3.5
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	49.8	9.6	6.6

Ikastetxe mota ezberdinen arabera, ikastoletan aurkitzen da euskara dakien gazte gehien, bertan ikasten duten hamarretik zortzi (%82.3) euskara ondo dakitenak izanik. Bestalde, ikastoletan, euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenak nagusitzen dira, ia erdiek erabiltzen baidute gehienetan euskara (%49.8). Hala ere esan beharra dago erdara erabiltzen dutenek ere kopuru handia osatzen dutela ikastoletan, (%35.1a) herena baino gehiago.

Ikastetxe publiko eta pribatuetan gutxiago dira euskara ondo dakiten gazteak, %24 publikoetan eta %15.7 pribatuetan eta erdiak baino gehiago dira ia euskaldunak edo euskara erdizka dakitenak. Erabilerari dagokinez berriz, hamarretik bataren azpitik gelditzen da bai publiko eta bai pribatuetan gehienbat euskara erabiltzen dutenen kopurua.

Beraz ikastoletako ikasleak dira euskara gehien ezagutzen eta erabiltzen dutenak, alde handia aurkitzen delarik gainontzeko ikastetxe mota guztietako ikasleekin alderatuz.

5.1.3.5. Hizkuntza eredua

1.22.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA HIZKUNTZ EREDUAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA %	A	B	D	X
3.447	1.478	537	695	737
EUSKALDUNA	10.7	50.3	86.2	4.3
IA-EUSKALDUNA	80.7	46.0	12.5	31.5
IA-EUSKALDUN PASIBOA	3.2	0.2		10.0
ERDALDUNA	2.6	0.7		49.9
GUZTIRA 3.655	1.561	563	735	796
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	94.5	70.2	23.5	95.7
ERDARA ETA EUSKARA BERDIN	3.2	11.2	15.1	2.8
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	0.8	17.2	60.3	0.5

Gazte hauek eskolaren bidez euskalduntzeko planen ondorioz, eredu ezberdinak antolatu ziren, bai Autonomi Elkarteetan eta baita Nafarroan ere. Bestalde Iparraldean, ikastoletan dabilen gazteak D eredu jarraitzen dute, eta beste ikastetxeetan euskara ikasteko aukera ere badute zenbait kasutan (ikasle hauek B eredu elebidunean bildu ditugu). Azkenik eredu ezberdinetatik kanpo gelditzen dira, beren ikastetxean euskararik jasotzen ez dutenak, bai Nafarroan eta bai Iparraldean, gehiengo osatzen dutelarik. Hauei X eredu deitu diegu, nolabait ikastetxean euskararik jasotzen ez duten ikasleak eredu horretan bilduz.

Ikasleen arteko euskararen ezagutzan eta erabileran eragin ezberdina dute hizkuntza eredu bakoitzak.

Ikasketak D hizkuntza eredu jarraitzen dituztenen artean agertzen zaigu euskara dakiten eta erabiltzen duten gazte gehien. D ereduko ikasleen hamarretik zortzi baino gehiagok (%86.2) euskaraz ondo hitzegiten du eta hamarretik seik, (%60.3), euskara erabiltzen du beti edo ia beti.

Nahiz eta euskalduntze lorpen txikiagoekin, B eredu da bigarren euskaldun kopuru gehien duen hizkuntza eredu, bertako ikasleen erdiek ondo baidakite euskara, (%50.3a). Baina nahiz eredu elebiduna izan, eredu honetako ikasleen gehiengoak erdara erabiltzeko joera agertzen du gehienetan, %70.2ak erdara aukeratzen baitu bere hizkuntza erabileran.

Bere ikasketak A hizkuntza ereduan egiten ari diren ikasleen, hau da, euskara ikasgai modura jasotzen dutenen artean, erdizkako euskararen ezagutza bat lortzen dute hamarretik zortzik, (%80.7ak). Euskara ondo ezagutzera iristen direnak, hamarretik bat (%10.7a) besterik ez dira berriz, eredu honetan.

X eredia jarraitzen dutenak gehienbat erdaldunak dira eta hamarretik hiru bakarrik dira euskara erdizka dakitenak. Esan daiteke beraz, eskolan euskararik ez izatean ez duela eredu honek ikasleen euskalduntzea helburutzat. Bai X eredia eta bai A eredia jarraitzen duten ikasleen artean erdara da erabiltzen den ia hizkuntza bakarra.

Esan genezake A ereduan, X ereduan ez bezala, euskararen ezagupena lortzen dutela ikasleek. Hala ere A ereduko %94.5ak erdara aukeratzen du beti edo gehienetan bere harremanetako hizkuntzatzat. Euskararen ezagutzari dagokionez, A eta X eredutik B eredura, aldea somatzen bada ere -B eredia euskaldunagoa delarik-; B ereduaren euskalduntze lorpena ezagutzara mugatzen dela esan beharra dago. D eredia da hizkuntza erabilera ezberdina duen eredia, D ereduko ikasleen artean gehiengoak euskara ikasteaz gain euskara erabiltzen baitu gehienetan.

Bai X eta A ereduetan, bai B ereduan euskara ikasi arren ikasle hauen hizkuntza erabileran erdara nagusitzea, eskolak euskalduntze bidea bere kasa lortu ezinaren adierazle bat da.

5.1.3.6. Gurasoen jaioterria

1.23.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA GURASOEN JAIOTERRIAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	BIAK EUSKAL HERRIAN JAI OAK	BIETAKO BAT EUSKALERRIAN JAI OAK	BIAK EUSKAL ERRITIK KANPO JAI OAK
%			
3.447	1.419	817	1.107
EUSKALDUNA	49.5	25.3	12.6
IA-EUSKALDUNA	35.1	54.0	69.4
IA-EUSKALDUN PASIBOA	2.8	4.3	3.3
ERDALDUNA	9.9	13.5	11.9
GUZTIRA 3.655	1.514	854	1.176
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	59.6	83.6	93.5
EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	9.6	6.1	3.5
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	29.7	9.4	2.0

Gazte hauen gurasoak Euskalerrian jaiok direnean, euskaldun kopuru altuagoa eta euskararen erabilera altuagoa aurkitzen dugu berauen seme-alaben artean, gurasoak Euskalerritik kanpo jaiok direnean baino. Hau da, etorkinen seme-alabek euskara gutxiago dakite eta gutxiago erabiltzen dute, bertakoen seme-alabek baino.

Bi gurasoak bertakoak direnean erdiak inguruk (%49.5), euskaraz ondo daki, baina bi gurasoak etorkinak izanez gero zeharo jeisten da portzentaia, hamarretik bat inguru besterik ez baitira euskaraz ondo dakitenak (%12.6).

Bi gurasoetatik bat denean etorkina eta bestea bertakoa jeitsi egiten da euskaldunen portzentaia laurdenera inguratuz (%24.8). Euskaldunen kopuruaren jeitsiera hau ia-euskaldunen kopuruaren alde ematen da, honela euskaldunak jeistean euskara erdizka dakitenen kopuruak gora egiten du. Bi gurasoak etorkinak direnean gehiengoa (%69.4), ia-euskalduna da, hau da, erdizka daki euskara.

Gurasoak Euskalerrian jaiok izan ala Euskalerritik kanpo jaiok izan, gazte guztien artean erdararen erabilera nagusitzen da, baina gurasoen jatorriak badu zer esana euskararen erabileran. Bi gurasoak Euskalerrian jaiok izatean %29.7ak erabiltzen badu euskara, euskararen erabilera zeharo jeisten da, bi gurasoetako bat etorkina denean(%9.4) eta ia ez da euskararen erabilerarik, bi gurasoak Euskalerritik kanpo jaiok edo etorkinak dituzten gazteen artean (%2.0).

5.1.3.7. Gurasoen euskara ezagutza

1.24.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA GURASOEN HIZKUNTZ EZAGUTZAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	BIAK DAKITE EUSKARA	BIETAKO BATEK EZ DAKI	BIETAKO INORK EZ DAKI
GUZTIRA 3.447	761	577	2.044
EUSKALDUNA	75.8	39.3	11.7
IA-EUSKALDUNA	20.0	48.7	63.0
IA-EUSKALDUN PASIBOA	1.6	2.9	4.4
ERDALDUNA	0.9	5.9	17.9
GUZTIRA 3.655	813	611	2.164
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	33.3	75.8	93.7
EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	13.0	11.3	3.0
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	52.6	12.4	2.2

Gurasoen euskararen ezagutzak eragina du zalantzarik gabe seme alaben euskara ikasteen.

Bi gurasoak euskara dakiten kasuan beren seme alaben hiru laurdenek ere, ondo daki euskara %75.8 eta beste %20ak, berriz, erdizka daki. Bestalde, bi gurasoek euskara jakitean, euskara erabiltzen dute beren seme alaben gehiengoak, %52.6ak, nahiz eta hauen artean heren batek erdara izan gehien erabiltzen duen hizkuntza.

Bi gurasoetako batek euskara ez dakien kasuetan, euskara dakiten gazteen kopurua jeitsi egiten da %39.3raino, eta euskara erabiltzen dutenak %12.4a izateraino.

Bi gurasoetako inork ere ez dakienean euskara berriz, euskaldunen kopuruak zeharo jeisten dira, euskara ondo dakitenak hamarretik bat pasatxo (%11.7a) besterik ez izateraino. Bestalde, bi gurasoek euskararik ez jakitean, ia ez da gehienetan euskara erabiltzen duen gazterik, %2.2 a besterik ez.

Era berean gurasoek zenbat eta euskara gutxiago jakin orduan eta ia-euskaldun edo euskara erdizka dakien gehiago aurkitzen dugu. Bestalde, gurasoetako bat edo biak euskara ez ezagutzean erdararen erabilera nagusitzen da seme-alaben artean.

Zenbat eta euskara gutxiago jakin gurasoek, orduan eta gutxiago erabiltzen dute bere seme-alabek hizkuntza hau. Bi gurasoek euskara jakin arren ere gazteen heren batek erdara erabiltzen badu gehienbat (%33.3k), bi gurasoen artean guraso batek euskara ez ezagutzea nahikoa da beren seme alaben hiru laurdenek (%75.8) erdarara jotzeko gizarte bizitzako hizkuntza jokaeretan.

Beraz, gurasoen euskara ezagutza baldintza garrantzitsu bat da seme alaben euskara erabilera bideratzeko. Bi gurasoek euskara jakinik gazte gehienek euskara aukeratzen dute, baina nahikoa da bietako batek euskararik ez jakitea gazteen hizkuntza erabileran erdara nagusitzeko.

Beraz gurasoek euskara ez jakitean, etxeko hizkuntza erdara bihurtzen da kasu askotan, gazte hauek euskalduntzeko eskolak egiten dituen ahaleginei muga bat ezarriz, familiartea baita hizkuntza erabilera markatzen duen barrutietan garrantzi haundienetakoa duena.

5.1.3.8. Gurasoengandik seme-alabenganako euskararen transmisioa

Ikasle hauen gurasoek euskara ezagutzean, beren seme-alabek euskara ikasi ahal izateko aukera dute, euskara belaunaldi berriengana era honetara heldu daitekeelarik.

Aipatzekoa da, gaur egunean gure gazteei ematen ari garen euskararen transmisioa ez dela euskararen aldekoa erabat. Bi gurasoek euskara jakin arren ere, ez dira guraso hauen seme alaba guziak euskara ondo ezagutzera iristen ehuneko ehunean, gazte hauen hiru laurden baizik. Beraz euskararen transmisioan galera dagoela esan daiteke.

Euskararen transmisioa Nafarroa eta Iparraldean aurkitzen da larrien, lurralde hauetan urriagoa baita bi gurasoek euskara jakin arren ondorengo euskara ezagutza, 1.25.Taulan ikusi dezakegunez. Hala ere ikastetxean euskararen ezagupenik ez izateak sortzen du etxean ikasitako euskararen galera haundiena, bi gurasoak euskaldunak izan eta X eredu jarraitzen dutenen hamarretik bik, %21.5ak bakarrik eusten baidiote euskarari. A eredu eta Iparraldeko eredu elebiduna jarraitzen dutenen erdiak inguru dira berriz, euskarari eusten diotenak (%55.9 eta %53.8). Azkenik esan, D eredu dela euskararen transmisioan emaitza onenak erakusten dizkigunak, bi gurasoek euskara jakinik, bere seme alaben hamarretik bederatzik (%91.9), euskarari eustea lortzen baitu eredu honek.

Bestalde, bi gurasoek euskara jakin arren ere, gaztea gizarte inguru erdaldun batetan bizi bada, zaildu egiten da gaztearen euskararen ezagutza mantentzea, etxetik kanpo erderaren nagusitasuna dela eta. Euskaldunak %20a baino gutxiago diren herrietan, euskararen transmisioa %54.8raino jeisten da; inguru honetan euskararen galera ematen da beraz gazteen artean.

1.25.TAULA: BI GURASOEK EUSKARA DAKITENAK IZANIK, EUSKARA ONDO DAKITENEN GAZTE KOPURUA

EUSKARAZ DAKITE BI GURASOEK 761	ARABA 20	BIZKAIA 167	GIPUZKOA 370	NAFARROA 74	IPARRALDEA 130
GURASOEK EUSKARA DAKITENAK IZANIK, EUSKARAZ ONDO DAKITEN GAZTEAK 577	15 %75.0	135 %80.8	334 %90.3	48 %64.9	45 %34.6
EUSKARAZ DAKITE BI GURASOEK 761	%0-20 EUSKALDUN 73	%20-40 EUSKALDUN 119	%40-60 EUSKALDUN 136	%60-80 EUSKALDUN 212	%80-100 EUSKALDUN 221
GURASOEK EUSKARA DAKITENAK IZANIK, EUSKARAZ ONDO DAKITEN GAZTEAK 577	40 %54.8	91 %76.5	115 %84.6	170 %80.2	161 %72.9
EUSKARAZ DAKITE BI GURASOEK 761	X EREDUA 107	A EREDUA 68	B EREDUA 90	D EREDUA 470	IPAR.EREDU ELEBIDUNA 26
GURASOEK EUSKARA DAKITENAK IZANIK, EUSKARAZ ONDO DAKITEN GAZTEAK 577	23 %21.5	38 %55.9	70 %77.8	432 %91.9	14 %53.8

Gazteak etxetik kanpo ere eraginak ditu bere gizarteratze prozesuan; honela, nahiz eta bi gurasoak euskaldunak izan, ikastetxean edo inguruan erdararen nagusitasunak euskararen iraupena zalantzan jartzen duela ikusten dugu. Bestalde aipatzekoa da Autonomi Elkarteak azken hamar bat urtetan bideratu den hizkuntza politika ez dela alperrikoa izan. Argi ikusten da euskara babesteko eta indartzeko neurri gutxien hartu den lurraldeetan agertzen zaigula, guraso eta seme-alaben artean, euskararen ezagutzaren etenik haundiena, batik batik iparraldean eta zerbait gutxiago Nafarroan.

5.1.3.9. Gurasoen euskararen ezagutza eta jatorriaren eragina seme-alaben euskararen ezagutzan

1.26.TAULA: EUSKARAZ DAKITENAK, GURASOEN EUSKARA EZAGUTZA ETA JATORRIAREN ARABERA

GURASOEN EUSKARA EZAGUTZA	BI GURASOEN DAKITE EUSKARAZ 761			BIETAKO BATEK BAKARRIK DAKI EUSKARAZ 577			EZ DAKI EUSKARAZ BI GURASOETAKO INORK 2.044		
	BIAK E.H.an JAIO	BIE-TAKO BAT	BIAK E.H.ik KANPO	BIAK E.H.an JAIO	BIE-TAKO BAT	BIAK E.H.ik KANPO	BIAK E.H.an JAIO	BIE-TAKO BAT	BIAK E.H.ik KANPO
GURASOEN JATORRIA	660	86	14	270	240	63	482	482	1.025
EUSKARAZ ONDO DAKITE	513 %77.7	59 %68.6	5 %35.7	117 %43.3	89 %37.1	21 %33.3	70 %14.5	56 %11.6	113 %11
EUSKARAZ ONDO DAKITE GUZTIRA	577			227			240		

Bi aldagai hauek seme-alaben euskara ezagutzan eragina dute. Bi gurasoek euskara dakitenak izanik, guraso hauek Euskalerrian jaiotakoak izan ala kanpokoak izan, %77.7tik %35.7raino jeisten da euskara ezagutzaren kopurua.

Baina nahiz eta gurasoen kanpoko jatorriak seme-alaben euskararen ezagutza gutxitzen duen, gurasoek euskararik ez ezagutzeak ere bere eragina seme-alaben euskararekiko ezagutzan. Honela, bi gurasoak Euskalerrian jaiotakoak izanik, gurasoak euskara dakitenak izanez gero seme-alaben %77.7ak euskara ondo ikasten du, baina guraso hauek euskara ez jakitean, %14.5era besterik ez dira iristen euskara ondo ikasten dutenak.

Euskara ezagutza mailan eragin haundiagoa du beraz, gurasoen euskara ezagutzak gurasoen jatorriak baino. Ez da beraz nahikoa Euskalerrian jaiotakoak izatea seme-alabek euskara ikasi ahal izateko, gurasoen euskara ezagutzak ere, zeresan haundia baitu ondorengo euskararen ikastea.

Gurasoek euskararik ez jakiteak oztopatu egiten du seme alaben euskalduntzea, eta hau jatorriz bertakoak diren gurasoen artean ere ematen da.

5.1.3.10. Nongotza

1.27.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA NONGOTZAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	BIZI NAIZEN HERRIKOAK	PROBINTZIKOAK	EUSKAL HERRIKOAK	ESPAINIAKOAK/FRANTZEL	EUROPAKOAK	MUNDU OSOKOAK
GUZTIRA 3.447	922	439	1.137	365	59	125
EUSKALDUNA	34.4	14.1	47.4	7.7	15.3	12.0
IA-EUSKALDUNA	52.4	43.7	45.8	64.1	71.2	64.8
IA-EUSKALDUN PASIBOA	3.1	6.6	2.0	4.1	1.7	2.4
ERDALDUNA	7.8	32.1	2.7	21.4	6.8	16.0
GUZTIRA 3.655	975	462	1.218	386	63	131
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	74.1	91.6	63.6	96.9	90.5	93.1
EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	6.4	3.0	10.3	1.8	6.3	3.1
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	18.4	4.8	25.2	0.8	0.0	2.3

Euskalerrikoak sentitzen direnen artean aurkitzen ditugu gaztetxo euskaldun gehien, berauen ia erdiek (%47.4), euskara ondo ezagutzen baidute. Ondoren, bakoitza bizi den herrikoak sentitzen direnak ditugu, hauen herena pasatxo izanik euskara ondo dakitenak (%34.4).

Bestalde, Euskalerrikoak direla diotenak, euskara gehiago erabiltzen dute, beste inongo nongotza azaltzen dutenak baino, %25.2ak beti edo gehienetan erabiltzen du euskara. Eta norbere herriarekiko atxekimentua azaltzen dutenak dira ondoren euskara gehien erabiltzen dutenak, (%18.4a).

Probintzikoak edo Europakoak edo mundu osokoak sentitzen direnen artean euskaldunen portzentaia ehuneko hamabostaren inguruan aurkitzen da, (%14.1, %15.3 edo %12a). Espainiakoak edo Frantziakoak direla dioten artean dago euskaldun kopuru txikiena ehuneko hamarraren azpitik (%7.7).

Erdaldun gehien berriz, aurrena probintziakoak direla dioten artean aurki daitezke, beraien artean ia herena (%32.1), eta ondoren Espainiako edo Frantziakoak direla dioten artean, (%21.4) beraien ia laurdena. Aipatzeko da baita ere mundu osokoak sentitzen direnen artean %16a erdalduna dela, hau da, euskararik batere ez dakiela.

Espainia edo Frantziako nazioekin identifikatzen direnak nahiz europakoak edo mundu osokoak sentitzen direnak, nahiz probintziakoak sentitzen direnak euskara gutxien erabiltzen dutenak dira, kasu guztietan ehuneko bostera ez delarik iristen, gehienetan euskara darabiltzenen kopurua.

Beraz, herrikidea Euskalerriarekin identifikatua dagoenean agertzen du gehienbat, euskara ikasi eta erabiltzeko joera. Joera bera agertzen da baita ere, herrikidearekiko gertuen dagoen antolaketa politikoarekin, norbera bizi den herriarekin identifikatzen diren gaztetxoan artean.

Espainia eta Frantziako nazio estatuekin edo herrikidearekiko urruneko elkarrekin nahiz probintziarekin lotzen diren gazteek berriz, ez dute euskara beraien aukerako hizkuntza. Zeharo urria baita sentimentu hauek agertzen dituztenen artean euskararen erabilera.

5.1.3.11. Herri atxekimendua

1.28.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA HERRI ATXEKIMENDUAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	EUSKAL DUNA	EUSKAL DUNA GEHIAGO	EUSKALDUNA ETA ESPAINOLA/ FRANTSESA	ESPAINOLA/ FRANTSSES GEHIAGO	ESPAINOLA /FRANTSESA
GUZTIRA 3.447	1.679	349	770	201	333
EUSKALDUNA	49.0	24.1	13.4	6.5	4.5
IA-EUSKALDUNA	39.0	62.5	64.4	63.2	58.9
IA-EUSKALDUN PASIBOA	2.0	3.4	4.3	11.9	4.8
ERDALDUNA	7.4	7.7	15.3	15.4	28.5
GUZTIRA 3.566	1.784	368	810	218	357
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN	61.3	85.6	93.3	96.3	97.8
EUSKARA ETA ERDARA BERTIN	9.5	7.3	4.2	1.8	1.1
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN	28.3	6.8	1.6	1.4	0.3

Euskara ondo dakitenen kopuruak gora egiten du herri sentimentua Euskalerrinari lotzen zaion neurrian, honela euskaldun hutsak sentitzen direnen ia erdiek, (%49) ondo dakite euskara. Aldiz, espainol nahiz frantses sentitzen direnen artean ehuneko bostaren azpitik dago euskaldunen kopurua (%4.5).

Herriarekiko atxekimendurekin batera doa hizkuntza erabilera ere, honela euskaldun soilak sentitzen direnak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Euskalduna espainola baino gehiago sentitzen den heinean, hau da, espainol nahiz frantsez sentimendua agertzen den neurrian, euskararen erabilera zeharo

jeisten da, %28.3 tik %6.8raino. Eta euskaldun sentimendua espainol edo frantses sentimenduekin parekatzean, gain hartzean edo espainol nahiz frantses sentimendu soila ageri denean, ez da ia euskararen erabilerarik agertzen (%1.6, %1.4 edo %0.3).

Era berean zenbat eta espainolago edo frantsesago sentitu, orduan eta erdaldun gehiago aurkitzen da; euskaldun sentitzen direnen artean ehuneko hamarren azpitik dira erdaldunak (%7.4) eta espainol sentitzen direnen artean laurdena pasa dira erdaldunak (%28.5). Erdararen erabilera nagusitzen da era berean, espainol edo frantsez sentimendua indartzen den eran, honela %61.3ak erabiltzen badu erdara euskaldun sentitzen direnen artean %97.8raino igotzen da erdararen erabilera espainol nahiz frantsez sentitzen direnen artean.

5.1.3.12. Zer da euskaldun izatea

1.29.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA EUSKALDUN IZAERAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA GUZTIRA	%	EUSKAL HERRIAN BIZI TA LAN EGITEA	EUSKARA HITZ EGITEA	FAMILIA EUSKAL DUNA IZATEA	EUSKAL HERRIAN JAJOA IZATEA	EUSKAL DUNA IZATEKO BORON DATEA	EUSKAL NAZIOA DEFEN DITZEA
3.447		398	458	198	904	441	430
EUSKALDUNA		23.4	58.7	30.3	15.6	41.0	30.7
IA-EUSKALDUNA		57.8	33.2	40.9	63.3	45.6	57.2
IA-EUSKALDUN PASIBOA		4.0	2.0	3.0	5.1	2.9	2.8
ERDALDUNA		12.3	4.6	20.7	13.4	9.3	7.0
GUZTIRA	3.655	421	489	216	963	462	463
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN		78.6	54.8	74.5	90.7	71.2	77.1
EUSKARA ETA ERDARA BERTIN		4.3	11.7	6.5	3.7	7.8	7.1
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN		15.7	33.3	16.7	5.1	20.8	13.4

Euskaldun izaera euskaraz hitzegiten jakitean oinarritzen dutenen artean aurkitzen da euskara ondo dakiten gazte gehien, erdiak pasa euskaldunak dira (%58.7) eta gehienbat euskara erabiltzen dutenak heren bat (%33,3).

Euskaldun izateko borondatean oinarritzen dutenak ditugu urrengo, berauen artean hamarretik lau pasa dira euskaldun (%41) eta euskara gehien erabiltzen dutenek, %20.8a osatzen dute.

Euskaldun izatea euskara hitzegitearekin edo euskaldun izateko borondatearekin lotzen dutenak dira, euskara gehien ezagutu eta euskara gehien erabiltzen dutenak.

jeisten da, %28.3 tik %6.8raino. Eta euskaldun sentimendua espainol edo frantses sentimenduekin parekatzean, gain hartzean edo espainol nahiz frantses sentimendu soila ageri denean, ez da ia euskararen erabilerarik agertzen (%1.6, %1.4 edo %0.3).

Era berean zenbat eta espainolago edo frantsesago sentitu, orduan eta erdaldun gehiago aurkitzen da; euskaldun sentitzen direnen artean ehuneko hamarren azpitik dira erdaldunak (%7.4) eta espainol sentitzen direnen artean laurdena pasa dira erdaldunak (%28.5). Erdararen erabilera nagusitzen da era berean, espainol edo frantsez sentimendua indartzen den eran, honela %61.3ak erabiltzen badu erdara euskaldun sentitzen direnen artean %97.8raino igotzen da erdararen erabilera espainol nahiz frantsez sentitzen direnen artean.

5.1.3.12. Zer da euskaldun izatea

1.29.TAULA: EUSKARAREN EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA ERABILERA EUSKALDUN IZAERAREN ARABERA

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	%	EUSKAL HERRIAN BIZI TA LAN EGITEA	EUSKARA HITZ EGITEA	FAMILIA EUSKAL DUNA IZATEA	EUSKAL HERRIAN JAI OA IZATEA	EUSKAL DUNA IZATEKO BORON DATEA	EUSKAL NAZIOA DEFEN DITZEA
GUZTIRA	3.447	398	458	198	904	441	430
EUSKALDUNA		23.4	58.7	30.3	15.6	41.0	30.7
IA-EUSKALDUNA		57.8	33.2	40.9	63.3	45.6	57.2
IA-EUSKALDUN PASIBOA		4.0	2.0	3.0	5.1	2.9	2.8
ERDALDUNA		12.3	4.6	20.7	13.4	9.3	7.0
GUZTIRA	3.655	421	489	216	963	462	463
ERDARA BETI EDO GEHIENETAN		78.6	54.8	74.5	90.7	71.2	77.1
EUSKARA ETA ERDARA BERTIN		4.3	11.7	6.5	3.7	7.8	7.1
EUSKARA BETI EDO GEHIENETAN		15.7	33.3	16.7	5.1	20.8	13.4

Euskaldun izaera euskaraz hitzegiten jakitean oinarritzen dutenen artean aurkitzen da euskara ondo dakiten gazte gehien, erdiak pasa euskaldunak dira (%58.7) eta gehienbat euskara erabiltzen dutenak heren bat (%33,3).

Euskaldun izateko borondatean oinarritzen dutenak ditugu urrengo, beraien artean hamarretik lau pasa dira euskaldun (%41) eta euskara gehien erabiltzen dutenek, %20.8a osatzen dute.

Euskaldun izatea euskara hitzegitearekin edo euskaldun izateko borondatearekin lotzen dutenak dira, euskara gehien ezagutu eta euskara gehien erabiltzen dutenak.

Familia euskalduna izatea eta Euskalerria nazio bezala defendatzean euskaldunaren izakera oinarritzen dutenen artean, ia euskaldunak dute nagusitasuna, euskaldunak berriz herenera urreratzen dira, (%30.3 eta %30.7). Euskaldun izatea Euskalerrian bizi eta lan egitean oinarritzen dutenak ere inguru horretan ezagutzen dute euskara, %23.4ak dakitelarik ondo euskaraz hitzegiten.

Euskaldun izaera familia euskalduna izateari lotzen diotenek erdara erabiltzeko joera dute, %16.7ak bakarrik erabiltzen baitu euskara gazte hauen artean. Aipatu, euskaldun izaera Euskalerria nazio bezala defendatzean oinarritzen dutenek, nahiz Euskalerrian bizi eta lan egiten duena euskalduntzat hartzen dutenek ere, euskara erabilera urria dutela, (%13.4 eta %15.7) eta erdara erabiltzen dutela gazte hauetako gehienek, hiru laurdena baino gehiagok (%77.1 eta %78.6).

Azkenik esan, euskaldun izaera Euskalerrian jaiotzearekin lotzen dutenek, euskaldun kopuru txikienak dituztela, ehuneko hamabost inguru, %15.6a. Bestalde, gazte hauek dira beste taldeekin alderatuz euskara gutxien erabiltzen dutenak ere, %5.1ak bakarrik erabiltzen baitu beti edo ia beti euskara, erdara da beraz hizkuntza nagusia gazte hauentzat (%90.7).

Beraz norbere edo familiaren jatorria, nahiz lanaren trukezko arazoia, nahiz arazoi politikoak edo nazioa defenditzeak ez dute euskararen ezagutza eta erabilera eragiten. Aldiz, euskaldun izaera euskararen oinarritzea eta bestalde euskaldun izaera borondate soilean ulertzeak, euskara ezagutza eta erabileran eragin gehiago dute gainontzeko arazoiek baino.

5.1.4. EUSKARAREN ERABILERA GIZARTE EREMU EZBERDINETAN

Orainarte aztertu ditugun datuek erakusten digutenez, euskara ezagutzen duten gaztetxo guziek ez dute euskara erabiltzen, euskarak gutxiengo izaera duela adieraziz.

Egoera diglosiko bat bizi duten hizkuntza gutxiengotuek funtzio batzuek betetzera mugatuak egon ohi direnez, euskarak ere euskal gizartean funtzio zehatz batzuek beteko dituela pentsa arazten digu.

Aztertu dezakegu beraz, euskararen erabilera euskal gizarteko eremu ezberdinetan. Honela ezagutu ahal izango dugu euskararen erabilpenerako zein gunetan dauden gizarte baldintza egokienak eta zein gizarte funtzioen jabe den euskara euskal gizartean.

I.30.TAULA: HIZKUNTZA ERABILERA GIZARTE EREMU EZBERDINETAN

HIZKUNTZA ERABILERA	GUZ TIRA %	ERDARA	ERDARA EUSKARA BERDIN	EUSKARA
IKASTETNEAN				
ERDARA	63.3	78.9	24.4	3.8
ERDARA TA EUSKARA	8.9	8.6	22.0	4.5
EUSKARA	26.3	11.2	51.6	90.5
ETNEAN				
ERDARA	72.4	87.9	35.0	12.9
ERDARA TA EUSKARA	6.2	5.1	20.7	5.4
EUSKARA	19.7	6.0	40.7	79.4
LAGUNARTEAN				
ERDARA	75.0	90.7	46.3	11.5
ERDARA TA EUSKARA	7.4	4.5	30.9	11.3
EUSKARA	16.4	4.1	19.9	75.6
KALERA ATERATZEAN				
ERDARA	75.8	91.2	47.6	13.5
ERDARA TA EUSKARA	6.5	3.6	29.7	11.0
EUSKARA	15.8	4.0	19.5	72.5
AUZOAN				
ERDARA	74.4	89.7	41.9	13.6
ERDARA TA EUSKARA	5.2	3.3	20.7	7.5
EUSKARA	17.5	5.1	28.0	75.0
EROSKETETAN				
ERDARA	74.4	88.1	48.8	18.9
ERDARA TA EUSKARA	6.5	4.3	15.9	13.8
EUSKARA	15.9	5.1	28.9	63.7
ELEIZAN				
ERDARA	63.6	78.5	26.8	7.4
ERDARA TA EUSKARA	7.7	7.1	13.0	8.1
EUSKARA	21.3	9.1	42.3	73.4
KIROL EGITEAN				
ERDARA	71.5	86.8	40.2	10.4
ERDARA TA EUSKARA	6.9	4.7	22.8	11.0
EUSKARA	18.4	6.6	28.9	73.1
TABERNETAN				
ERDARA	72.0	87.6	36.2	11.5

HIZKUNTZA ERABILERA	GUZ TIRA %	ERDARA	ERDARA EUSKARA BERDIN	EUSKARA
ERDARA TA EUSKARA EUSKARA	7.1 14.9	4.4 4.6	26.8 24.8	11.7 61.8
ILEAPAINDEGINA	76.5	89.6	55.3	22.3
ERDARA	4.5	2.8	13.0	9.2
ERDARA TA EUSKARA EUSKARA	14.6	4.7	19.9	61.9
SENDAGILEARENEAN	78.7	89.5	61.4	34.6
ERDARA	6.0	3.8	12.2	14.0
ERDARA TA EUSKARA EUSKARA	11.7	4.0	20.3	46.1
KULTUR TALDEAN	63.9	78.6	29.7	7.2
ERDARA	7.1	5.7	17.9	9.0
ERDARA TA EUSKARA EUSKARA	19.5	7.8	36.2	71.1
OPORRALDIETAN	73.7	87.5	46.3	18.5
ERDARA	7.6	4.8	22.8	14.9
ERDARA TA EUSKARA EUSKARA	16.0	5.5	26.4	63.4
DENBORA LIBRE TALDEAN	67.2	82.2	32.1	9.0
ERDARA	7.6	6.0	27.2	7.2
ERDARA TA EUSKARA EUSKARA	18.5	5.5	29.7	78.5
UDALEKUETAN	58.9	72.8	24.4	6.3
ERDARA	7.7	7.1	15.9	6.8
ERDARA TA EUSKARA EUSKARA	23.7	12.0	45.1	73.4

1.30. Taulan ikusi dezakegunez, erdara da nagusi gizarte eremu guzietan, beraz gaztelania eta frantsesa dira hizkuntza normalizatu bakarrak euskal gizartean, funtzio sozial guziak betetzen baidituzte bi hizkuntza hauek.

Hala ere badira zenbait eremu euskararen erabilerari ere leku ematen diotenak. Euskara gehien erabiltzen den gizarte eremuak hauexek dira: Ikastetxea, Udalekuak eta Eleiza. Hamarretik bi gaztetxok erabiltzen dute beti edo gehienetan euskara gizarte eremu hauetan.

Beraz, gazteak hurbileko bizitzan egiten du euskara gehien, eskola eta eleizaren inguruan. Sendiaz gain bi erakunde hauen eskutik eman dira zenbait ahalegin gazteak euskalduntzeko.

Beste gizarte eremu batzuek berriz, ez diote euskarari leku ematen, oso urria izanik berauetan euskararen erabilera; sendagilearekiko harremanak, ileapaindegia, tabernetako harremanak, erosketak egitea, kaleko hartuemanak, oporraldieta, lagunartean.

Hain zuzen ere, gaztearen urruneko bizitzan bere etxe edo eskolatik urruntzean eta gizarte orokorrarekin topo egitean, erdara nagusitzen zaio.

Fishman'ek ² dion bezala kultur komunitateak kontrolpean dituen gizarte eremuetan erabiltzen da euskara gehien, euskal gizarteak euskara biziberritzeko zaindu dituen eremuetan, kontrol honetatik kanpo gelditzen diren eremuetan aldiz, euskarak oso leku gutxi du. Euskal hiztunen artean zeharo jeisten da euskararen erabilera eremu hauetan.

Bestalde, bizitza pribatutik kanpo gelditzen diren eremuetan nagusitzen da erdara. Zenbat eta gehiago urrundu norbere intimitate edo komunitatetik eta zenbat eta gehiago hurbildu gizarte orokorrera orduan eta urriagoa da euskararen erabilera.

Aipatzekoa da gazte hauen denbora libre taldeak, kirolak, kultura e.a. ek, garrantzi haundia dutela komunikabideekin batera gazteek ekintza hauetan pasatzen duten denbora ikusirik. Eskolaz kanpoko ekintza hauek gaztearen gizarteratzean duten garrantzia kontutan hartuz, gune hauetako hizkuntza ohiturak edo erabilera erabakiorrak gerta daitezke hizkuntza harremanen gerorako, batez ere ikastetxeaz gain euskara nun erabilirik ez duten gazteen artean.

Hiztun ezberdinek, gune zehatz batzuetan erabiltzen dute euskara. Erdal hiztunek, euskara gehien erabiltzen den gunetan bakarrik aukeratzen dute euskara. Euskal hiztunek berriz, ia eremu guzietan berdin erabiltzen dute euskara; auzoan, kalean, lagunartean e.a.

Euskara eta erdara berdin erabiltzen dutenek, hizkuntza bat bestea baino gehiago erabiltzen du gizarte eremu ezberdinetan. Honako eremu hauetan nagusitzen da euskararen erabilera; Ikastetxean, Kultur taldean, Udalekuetan eta Etxean. Hain zuzen ere, gizarte orokorrarekin topo egitean hartzen du erdarak nagusitasuna; lagunartean, kalean, tabernetan, ileapaindegi eta sendagilearenean.

² J.A. FISHMAN; "The intergenerational transmission of "Additional" Languages for especial purposes" in: *Reversing language shift; theoretical and empirical foundations of Assitance to threatened languages*. O.C., 355-365 orr.

5.1.5.EUSKARAREN ERABILERA EREMU EZBERDINETAN LURRALDEKA

Batetik lurralde ezberdinetan euskararen egoera ezberdina dela jakinekoa da, ezagupen mailan ezberdintasun haundiak izanik batetik bestera. Bestalde, Autonomi Elkarteak eta bai Nafarroak eta bai Iparraldeak hizkuntza politika ezberdina bideratu dutela ere jakinekoa da. Hau dena kontutan izanik lurralde ezberdinetan euskarak osetzen dituen funtzioak zeintzuk diren aztertu genezake, lurralde bakoitzean euskarak duen egoera ezagutuz.

1.31.TAULA: EUSKARAREN ERABILERA EREMU EZBERDINETAN LURRALDEKA

EUSKARAREN ERABILERA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA	IPARRALDEA
IKASTETXEAN	15.9	22.1	46.4	13.2	8.0
ETXEAN	4.4	17.2	33.8	11.5	14.2
LAGUNARTEAN	3.2	12.9	31.6	8.3	6.5
KALERA ATERATZEAN	3.7	13.4	30.0	8.1	3.8
AUZOAN	3.4	15.4	31.6	8.6	9.8
EROSKETETAN	2.3	13.9	30.3	8.1	3.8
ELEIZAN	4.8	17.8	35.8	10.5	23.7
KIROLA EGITEAN	4.8	15.2	34.4	9.6	7.4
TABERNETAN	3.7	11.9	26.8	7.6	10.7
ILEAPAINDEGIAN	2.5	13.2	26.5	8.3	4.7
SENDAGILEARENEAN	3.2	10.5	20.7	7.2	3.8
KULTUR TALDEAN	7.6	17.6	34.3	8.8	9.5
OPORRALDIETAN	5.3	14.0	26.6	9.9	10.4
DENBORA LIBRE TALDEAN	5.3	15.8	33.6	8.8	9.8
UDALEKUETAN	14.3	21.7	39.2	11.5	11.5

Lurraldeka lehen ere aipatu dugun euskararen egoera ezberdinak kontutan izanik, euskararen erabileran ere ezberdintasun ugari aurkitzen ditugu, honela eremuka egindako azterketa honetan ere, ez da euskararen erabilera berdina agertzen.

Aipatzekoa da lehenik, ikastetxea dela bai Autonomi Elkartean eta bai Nafarroan, euskara gehien erabiltzen den gizarte eremua, gainontzeko eremuetan baino gehiago erabiltzen baita euskara bertan. Baina ez da gauza bera gertatzen Iparraldean, lurralde honetan euskara eskolan erabat ezarririk ez dagoenez, ez da eremu honetan euskara gehien erabiltzen.

Ikastetxean eta udalekuetan erabiltzen da euskara gehien Autonomi Elkarteko hiru lurraldeetan, kultur taldea, eleiza eta etxea dira ondoren euskara gehien

erabiltzen diren guneak. Aipatu beharra dugu, Gipuzkoan kirola egitean ere antzeko erabilera agertzen dela, eta Araban ez dela etxea, euskara gehien erabiltzen den gunea. Nafarroan ere eremu berdintsuetan erabiltzen da euskara gehien; etxean, udalekuetan eta eleizan, nahiz eta kultur taldea ez den agertzen euskara erabilera haundieneko gune bezala.

Iparraldea da berezitasun gehien agertzen duen lurraldea euskararen erabil guneei dagokionez. Lurralde honetan gehien eleizan hitzegiten da euskaraz, ondoren etxean, udalekuetan, tabernetan eta oporraldietan.

Aipatzekoa da Autonomi Elkartean eta Nafarroan, euskara etxean erabiltzen dela, euskara dakiten etxeetan jakina, eta horretaz gain eskolaren bidez egindako ahaleginak ematen diotela gazteei euskara erabili ahal izateko aukera bai ikastetxean, bai udalekuetan. Kultur taldeetan ere euskara erabiltzen dela dirudi Autonomi Elkartean eta kirola egitean ere bai Gipuzkoan.

Beraz, gaztearen sendira eta eskolara mugatzen dela esan genezake euskararen erabilera Euskalerriko hegoaldean; horretaz aparte gazte hauen denbora librean kultur taldeak edo kirolak ere betetzen du tarteren bat baina gainontzeko guneetan ez du euskarak nagusitasunik.

Azpimarratzekoa da Iparraldean, etxea eta eleiza direla, euskara erabiltzeko aukera ematen duten gune nagusiak, gizabanakoaren intimitate edo bizitza pribatuena osatzen dutenak hain zuzen ere. Badira bestalde zenbait ahalegin gazteen euskara erabilera bultzatzeko eta hor aipatu behar udalekuen kasua. Iparraldean, sendia eta eleizara mugatzen da euskara eskolatik eta kultur taldeetatik urrun geldituz, hegoaldean ez bezala.

5.1.6. HIZKUNTZA ERABILERA EKINTZA EZBERDINETAN

1.32.TAULA: HIZKUNTZA ERABILERA EKINTZA EZBERDINETAN

EKINTZAK BURUTZEKO HIZKUNTZA%	GUZTIRA %	ERDARA	ERDARA EUSKARA BERDIN	EUSKARA
ESKUTITZ BAT IDAZTEKO EUSKARA ERDARA	22.1 74.7	8.1 90.0	45.1 50.0	83.1 10.8
NOTA BAT UZTEKO EUSKARA ERDARA	21.8 76.3	7.3 91.3	45.9 51.6	84.7 13.1
TELEFONOA ERANTZUTEKO EUSKARA ERDARA	27.7 70.0	13.6 84.7	54.9 39.8	87.4 10.6
DENDAN ESKATZEKO EUSKARA ERDARA	20.5 76.9	9.2 89.1	38.2 58.9	70.2 24.8

EKINTZAK BURUTZEKO HIZKUNTZA%	GUZ TIR A %	ERDARA	ERDARA EUSKARA BERDIN	EUSKARA
EGUNKARIA IRAKURTZEKO EUSKARA ERDARA	20.3 75.9	9.4 87.7	43.9 49.2	65.7 29.6
IDAZLAN BAT IDAZTEKO EUSKARA ERDARA	27.8 68.9	13.4 84.4	60.2 33.7	86.5 7.0
TXISTE EDO IPUI BAT KONTATZEKO EUSKARA ERDARA	15.9 80.4	5.8 92.0	27.2 66.7	61.8 30.2
PENTSATZEKO EUSKARA ERDARA	22.6 75.0	7.0 91.1	51.6 43.9	88.2 9.2
EZTABAIDA BATEAN ARITZEKO EUSKARA ERDARA	21.3 75.2	8.6 89.0	41.1 51.6	77.2 17.4
NORBAITI INTIMITATEAN HITZEGITEKO EUSKARA ERDARA	22.9 73.9	9.3 88.5	43.1 49.6	83.1 12.7
MATEMATIKA IKASTEKO EUSKARA ERDARA	25.0 73.6	10.0 88.9	53.7 45.1	88.3 10.2
HIISTORIA IKASTEKO EUSKARA ERDARA	29.9 68.4	15.6 83.2	61.4 36.2	88.5 9.5

Erdara da gaztetxoek aukeratzen duten hizkuntza, 1.32.Taulan aipatzen diren ekintzak bideratzeko kasu gehienetan, hala ere, gazteen laurden bat inguruk kasu gehienetan euskara aukeratzen du ekintza guztietarako.

Ikusi dezakegunez, telefonoa erantzutea, idazlan bat idaztea edo matematika nahiz historia ikastea euskaraz egiteko gehien aukeratzen diren ekintzak ditugu. Beste zenbait ekintza berriz, euskaraz gutxiago bideratzen dira; txiste edo ipuia kontatzea, dendan eskatzea, nota bat uztea, eztabaidan aritzea edo egunkaria irakurtzea.

Euskara gehien erabiltzen den ekintzak ikastetxearekin lotura dute, eta bestalde telefonoa erantzutearen kasuan, ekintza sinboliko bat da.

Erdara gehien erabiltzen diren ekintzak, besteekiko harremana eskatzen duten ekintzak dira: zerbait kontatzea, dendan eskatzea, beste norbaiti zerbait idatzita uztea, eztabaidak, e.a. Egunkaria irakurtzeko gehien erdara aukeratzen da, gehien irakurtzen diren egunkariak erdaraz baiditugu gure artean.

Aipatzekoa da euskal hiztunak, pentsatzeko ere euskara aukeratzen duela, euskara ezagutzaz gain, euskararen erabileraz hizkuntza bat barneratzean hizkuntza horren jabe edo hizkuntzarekiko nortasunaren jabe egiten da bat. Txepetxen esanetan *berezko motibazio* bat izango luke hiztun honek hizkuntza horrekiko.

Gehienetan euskara erabiltzen duenak, euskararen erabilera murriztu egiten du besteekiko harremanetan, eta gizarte orokorrarekiko harremanetan, dendan eskatzean, edo besteentzat txiste nahiz ipuiak kontatzean. Antzeko zerbait gertatzen zaie beste hiztunei ere, gizarte harremanetan erdara erabiltzeko arau sozial bat nagusitzen dela adierazten digularik gertaera honek.

Bestalde erdal hiztunen artean, euskaraz zerbait kontatzeko, pentsatzeko edo idazteko dituzte oztopo gehienak, euskara erabiltzeko *gaitasun falta* bat nabarmentzen da beraien artean euskara gutxi erabiltzen dutelako, ez dute euskara barneratua, azaleko ezagutza baten adierazlea izanik.

Azkenik euskara eta erdara berdin darabiltenek, gizartean besteekiko harremanak eskatzen dituzten egoeratan aukeratzen dute euskara gutxien, baina baita ere intimitateko mundu horretan hitzegiteko, edo eztabaida batetan aritzeko, norbere barnean ere baditu beraz hiztun honek oztopoak euskara erabiltzeko.

5.1.7. EUSKARAREN ERABILERA IDAZLANA IDAZTEAN

Gaztetxo hauei bestalde, euskarari buruzko idazlan bat idaztea eskatu zitzaien, beraiek nahi zuten hizkuntza erabiliz. Gaztetxo hauek idazlana idazterakoan egiten duten hizkuntza aukera aztertzean, gaztetxoen hizkuntza erabilera edo jokaera erreala baten neurketa egin ahal izan dugu.

Gaztetxoen herena baino gehiagok (%35.2k) euskaraz idatzi du euskarari buruzko idazlana. Datu honek, euskararen ezagutzari buruzko neurketan agertzen zitzaigun euskara ondo dakitenen kopuruaren parekoa izatean, euskara ondo dakitela dioten gazteek euskara idazlan bat idazteko haina ezagutzen dutela adierazten digu.

Aipatzekoa da baita ere, idazlanetan gaztetxoek egiten duten hizkuntza erabilera gizarteko baldintza batzuen eraginpean aurkitzen dela, gizarte mailako euskararen erabilerarekin gertatzen den bezala.

5.1.7.1. Herrietako biztanleak eta euskaldun kopurua

1.33.Taulan ikusi daitekenez, herrietako biztanleen kopuruei dagokionez, 2.000 baino biztanle gutxiagoko herria, nahiz 2.000/50.000 biztanletako herria izan, erdiek inguruk aukeratzen dute euskara idazlana idazterakoan.

Hala ere, izugarriko aldea dago herri hauetan, euskararen ezagutza haundiko herrietatik ezagutza urriagoa dutenetara, hirukoiztu egiten baita euskararen ezagutza haundia duten herrietan euskararen erabilera.

Biztanleria 50.000 biztanletik gorakoa den hirietan eta hiriburuetan zeharo jeisten da berriz euskararen erabilera. Hala ere zerbait haundiagoa da hiriburuetan hirietan baino.

Orokorrean ikusi dezakegu, bai herriko euskararen ezagutzak eta bai herriaren biztanleriak eragina dutela euskararen erabileran, euskararen ezagutza txikia izanik ere, herri txikietan euskara gehiago erabiltzen da hiri eta hiriburuetan baino.

Biztanle kopuruak euskararen erabileran zer esana badu ere, herriko euskara ezagutza da zer esan haundiagoa duena. Euskara ezagutza gutxitzen den heinean jeisten da baita ere euskararen erabilera idazlana idazterakoan; hau batez ere herrietan ikusten da. Herriko euskara ezagutza %60 tik gorakoa den kasuetan, euskararen erabilerak gehiengo lortzen du. Euskararen ezagutza %40 baino gutxiagokoa den kasuetan berriz, euskararen erabilera hamarretik bira edo batera jeisten da.

1.33.TAULA: IDAZLANEAN EUSKARAREN ERABILERA, HERRIKO BIZTANLE KOPURUA ETA EUSKARA EZAGUTZAREN ARABERA

HERRIKO BIZTANLE KOPURUA	HERRIKKA -2.000 Biztanle		HERRI TXIKIA 2.000/10.000 Biztanle			HERRI HAUNDIA 10.000-50.000 Biztanle			HIRRIA	HIRI BURU
	%44.5		%45.02			%53.1			%8.7	%15.5
EUSKARA EZAGUTZA	EUSK. <%40	EUSK. %60-100	EUSK. <%40	EUSK. %40-60	EUSK. %60-100	EUSK. <%40	EUSK. %40-60	EUSK. %60-100	EUSK. <%40	EUSK. <%40
GUZTIRA	113	127	309	201	203	555	319	239	331	1.046
IDAZLANAK EUSKARAZ	24	83	80	98	143	175	202	215	29	163
	%21.2	%65.3	%25.8	%48.7	%70.4	%31.5	%63.3	%89.9	%8.7	%15.5

5.1.7.2. Herriko biztanleak eta inmigrazioa

Euskararen ezagutzaz gain bada beste aldagai bat eragina duena idazlana idazteko euskararen erabileran, hau da, herriko inmigrazio edo etorkinen kopurua. Gazteak bizi diren herria zenbat eta euskaldunago orduan eta euskararen erabilera haundiagoa zegoela esan badugu aurrerago, zenbat eta etorkin gehiago orduan eta euskararen erabilera urriagoa aurkitzen dela esan behar. Hau argi ikusten da batez ere, herri erdaldunenetan, hau da, euskaldunak %40 baino gutxiago diren herrietan. Euskaldunak %40 baino gehiago diren kasuetan ez da jeitsiera hori nabari.

1.34.TAULA: IDAZLANEAN EUSKARAREN ERABILERA, HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA ETA ETORKIN KOPURUAREN ARABERA

HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA	EZ OSO EUSKALDUNA %0-20 Euskaldun		ZERBAIT EUSKALDUNA %20-40 Euskaldun		NAHIKO EUSKALDUNA %40-60 Euskaldun		EUSKALDUNA %60-80 Euskaldun	OSO EUSKALDUNA %80-100 Euskald.
	%19.1		%34.6		%59.4		%91.4	%100.0
ETORKIN KOPURUA	NMI. <%20	NMI. >%20	NMI. <%20	NMI. >%20	NMI. <%20	NMI. >%20	NMI. <%20	NMI. <%20
GUZTIRA	204	969	56	521	179	292	298	120
IDAZLANAK EUSKARAZ	84	141	33	167	104	176	274	120
	%41.1	%14.5	%58.9	%32.0	%58.1	%60.2	%91.9	%100

5.1.7.3. Hezkuntzaren ezaugarriak

1.35.Taulan ikusi dezakegu, ikastetxe ezberdinez gain hizkuntza ereduak zuzenean eragiten dutela hizkuntza jokabideetan. Honela hizkuntza eremuan zenbat eta euskara gehiago izan, orduan eta hizkuntza erabilera haundiagoa izaten

da, eta euskararen ikastorduak jeisten doazen heinean euskararen aukera egiten dutenak gutxitu egiten dira.

Orokorrean ikastoletako ikasleak dira euskara gehien darabiltenak, bestalde ikastetxe mota bakoitzaren barnean dauden hizkuntza ereduak aztertuz gero, ezberdintasun haundiak daude ikastetxe mota berdina izan arren hizkuntza eredu bakoitzean. Honela D ereduak da irakaskuntza mota guztietatik euskararen erabilera gehien bultzatzen duena, bertako ikasle guztiak hartu baidute idazlana euskaraz idazteko erabakia. D ereduarekin batera Iparraldeko eredu elebiduna da baita ere ikasle guztiengan euskaraz idazteko joera bultzatzen duena.

X ereduak, hau da, irakaskuntzan euskararik ez duten ikasleen artean ia inork ez du euskaraz idazten bere idazlana. Ondoren A ereduak daukagu, bertako ikasle bakar batzuk idazten dutelarik idazlana euskaraz, eta pribatuetan gehiago publikoetan baino.

B ereduan berriz, eredu elebidunean, ikasleen gehiengoak idazlana euskaraz idazteko erabakia hartzen du, hala ere gehiago dira pribatuan euskara erabiltzen dutenak publikoetan baino, eta gehiengoak ezezik ia ikasle guztiak dira ikastoletako B ereduan euskaraz idazten dutenak.

D ereduko ikasle guztiak idatzi dute idazlana euskaraz, eta B ereduan gutxiago izan arren ere gehiengoak egiten du euskararen aukera. Ikastolen kasuan ia denek euskaraz idazten du bere idazlana, ikastetxe pribatuetan hamarretik zortzi inguruk eta hamarretik ia zazpi ikastetxe publikoetan.

Aipatzekoa da baita ere, Iparraldeko eredu elebiduna eraginkorra dela euskararen erabileran, nahiz eta euskara gutxi izan beren ordutegian euskara aukeratzeko baidute idazlana idazteko bertako ikasle guztiak.

1.35.TAULA: IDAZLANEAN EUSKARAREN ERABILERA, IKASTETXE MOTA ETA HIZKUNTZA EREDUAREN ARABERA

IKASTETXE MOTA	IKASTOLA		PUBLIKOA					PRIBATUA				
	B	D	A	B	D	X	ELEB IPAR	A	B	D	X	
EREDUAK												
GUZTIRA	116	536	784	280	178	306	20	735	105	27	355	
IDAZLANA EUSKARAZ	114 %	536 %	6 %	184 %	178 %	0 %	20 %	65 %	82 %	27 %	0 %	
	98.2	100	0.7	65.7	100	0.0	100	8.8	78.0	100	0.0	

5.1.8. EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERARI BURUZKO ONDORIOAK

Euskalerrrian, gaztetxo ia denek dakite euskara; hamarretik hiruk ondo daki euskaraz hitzegiten eta hamarretik zortziraino igotzen da kopurua euskara erdizka dakitenak ere kontutan hartuz gero.

Ezagutza kopuru hau gazteek bere ezagutzaz egiten diguten aitorenak biltzen dituzenez, euskararen alde okertuak daudela pentsa daiteke, gizartean euskararen ezagutzak duen balorapen ona dela eta. Baina gaztetxoaren herena baino gehiagok idazlana idazterakoan euskara erabili duenez, eta kopuru hau euskara ondo ezagutzen dutela diotenen antzekoa denez, ezagutzaren neurketa egokitzat jo dezakegu; euskara dakitela diotenen euskaraz idazteko gaitasuna ere azaldu baidigute ondoren.

Aipatzekoa da, gehiago direla euskaraz irakurri eta idazten dakitenak hitzegiten dakitenak baino, gazte hauetako batzuek eskolaren bidez euskaldundu diren adierazle.

Baina euskal gazte gehienak euskara ikastera iritsi badira ere, ezin dugu gauza bera esan erabilerari dagokionez; euskara ondo dakiten gazte batzuek bakarrik erabiltzen dute gehienetan euskara. Erdizka dakitenek berriz, ez dute euskara erabiltzeko joera garbirik agertzen.

Orokorrean euskal gazteen artean, erdara da hizkuntza nagusia, nahiz eta euskara zerbait erabili, erdara nagusitzen baita gazte hauen gizarteko harremanetan.

Baina ezberdintasunak daude euskararen ezagutza eta erabileran lurralde batetik bestera, Autonomi Elkarteak izanik euskara gehien ezagutzen eta erabiltzen den lurraldea, bertako gazteen herena baino gehiagok euskara ezagutu eta ia hamarretik bik gehienbat euskara erabiltzen duen lurraldeak.

Autonomi Elkartearen barnean ere ageri dira lurralde ezberdintasunak; Gipuzkoa da euskara gehien ezagutzen eta gehien erabiltzen den lurraldea eta Araba euskara gutxien erabiltzen den lurraldea.

Euskalerrria osorik hartuta berriz, Nafarroa da euskararen ezagutza urriena duena, hamarretik bat inguruk besterik ez baidaki euskaraz ondo hitzegiten. Baina erabilerari dagokionez Araba dugu euskararen erabilerari urriena duen lurraldea, bai Nafarroa eta bai Iparraldean baino euskara gutxiago erabiltzen baita Araban, bi lurralde hauetakoak baino ezagutza altuagoa izan arren ere.

Batik bat Euskal Autonomi Elkartearen, euskara ezagutarazteko planak eta gazteak eskolan euskalduntzeko hizkuntza politikak bideratu badira ere, euskalduntzea ezagutza mailan lortu dela esan dezakegun arren, ez du horrenbesteko lorpenik

izan erabileran. Ezagutza eta erabileraren arteko etena hiru lurraldeetan ematen bada ere, etena haundiagoa da lurraldea erdaldunagoa den neurrian.

Euskara jakitea euskara erabiltzeko beharrezko baldintza bada ere, horretaz gain badira beste baldintza batzuk gazte hauen hizkuntza erabileran zer esana izango dutenak. Euskara ondo dakitenek euskara erabiltzen dute gehienetan, baina gizarte ingurua ez bada euskalduna erdararen erabilera nagusitzen da hiztun hauen artean. Herriko euskara ezagutzak euskaldunen hizkuntza erabilera baldintzatzen du beraz, euskara ondo ezagutzen dutenen euskara erabilera mugatuz.

Inguruko euskara ezagutzak ez du ordea ia-euskaldunen euskara erabilera baldintzatzen, euskara erdizka ezagutzen dutenek erdara erabiltzeko joera baidute herria oso euskalduna izan arren ere.

Bestalde, Iparraldearen kasuan, euskararen aldeko hizkuntza politikarik aurrera eramanez den lurraldean, euskara hitzegiten dakitenek, idazten eta irakurtzen dakitenak baino gehiago dira; beraz, euskararen alfabetatze falta nabari da lurralde honetan, ez baidute gazte guzietan ikastetxean euskara lantzeko aukerarik.

Euskara lehen hizkuntza bezala jaso dutenak dira euskararen ikastean lorpen haundienak dituztenak. Euskara zenbat eta beranduago ikasi, orduan eta gutxiago baitira euskara ondo ezagutzera iristen direnak.

Eskolak eta batez ere O.H.O.k euskararik ez dakiten gazteei euskara ikasteko aukera eman arren, eskolaren bidez euskara jasotzen duten gazteak ez dira euskara erabiltzera iristen kasu gehienetan. Euskara 6 urtetik aurrera ikasi dutenek, erdara erabiltzeko joera nabarmena dute, eta erdararen erabilera indartsuago azaltzen da euskara beranduago ikastean.

Beraz, euskara bere gurasoengandik jaso dutenak baino gehiago dira euskara ikastera iritsi direnak, etxean euskara ikasteko aukera izan ez dutenak eskolaren bidez aukera hori izan dutelako hain zuzen ere. Hala ere, euskara etxean eta lehen hizkuntza modura ikasi dutenak dira euskara erabiltzen dutenak. Euskara eskolaren bidez ikasi dutenak berriz, ez dute euskara askorik erabiltzen.

Ama hizkuntza euskara izan duten denak ez izan arren gehientsuenak iritsi dira 13/14 urterekin euskararen ezagutzari eustera. Baina gurasoengandik euskara beste hizkuntza batekin jasotzea nahikoa izan da, 13/14 urte betetzean euskararen ezagutzak behera egiteko. Hizkuntza galera ematen da beraz euskararen ezagutzan beste hizkuntzen eraginez.

Lehen hizkuntza gaztelera izan duten gazteen artean, gutxi batzuk bakarrik iritsi dira euskara ondo ikastera, gehiengoak erdizkako ezagutza lortu duelarik; nahiz ikastetxean euskara ikasteko aukera izan, ez dute denek euskara ikastean lorpen

berdina izan. Hala ere, oraindik lorpen gutxiago izan dute gurasoengandik frantsesa jaso duten gazteek, hauek euskara ikasteko aukera haundirik ez baidute izan ikastetxeetan.

Beraz, eskolaren ahalegina eta gizarte baldintzaz gain bada zer esan haundia duen beste zerbait gazte hauen gizarteratzean, sendiaren eragina edo gurasoengandik jasotako eredia. Gazte hauen jarrera ohitura eta ezagutza ugari gurasoengandik jasoak izan ohi diren bezala, gurasoek baldintzatzen dute seme-alaben euskara ezagutza eta erabilera ere.

Kontutan izanik gurasoen artean gehiengoak ez dakiela euskararik nahiz eta euskal jatorrikoak izan, seme-alabei irakasten zaien hizkuntza nahiz hizkuntza erabilera ohiturak ez dira euskararen aldekoak izango kasu guzietan. Gure ikerketan ikusi dugunez, bi gurasoek euskara jakinik gazte gehienek euskara erabiltzen dute, baina nahikoa da bietako batek euskararik ez jakitea gazteen hizkuntza erabileran erdara nagusitzeko.

Bestalde, gurasoak etorkinak dituztenean, seme alabak ez dira euskara ezagutzera iristen beti, eta ia ez da gehienetan euskara erabiltzen duenik berauen artean.

J.I.Ruiz Olabuenaga eta C.Blanco'k eginiko ikerketa batek, lehen belaunaldiko etorkinen artean gehiengoak ez duela euskara ikasi beharrik izan azaltzen digu. Baina etorkinen ondorengoek euskara gehiago ikasi dute eta %62ak eredu elebidunaren aukera egin du bere seme alabentzako. Hirugarren belaunaldikoen artean berriz, gehiago dira euskara ikastera iritsi direnak, nahiz eta erdizkako ezagutza eskuratu gehienbatak. Hala ere gutxiengoa dira senitartekoren bat etorkina izanik, euskara ikastera iristen direnak, euskal jatorrikoekin alderatuz ezagutza urria erakusten dutelarik. Beste migrazio prozesuetan ez bezala, euskal migrazioaren kasuan gutxiengoaren hizkuntza ez da izan etorkinen hizkuntza, bertako hizkuntza baizik³.

Hala ere, gurasoen euskara ezagutza mailak eragin haundiagoa du, gurasoen jatorriak baino. Ez da beraz nahikoa Euskalerrian jaioa izatea seme alabek euskara ikasi ahal izateko, gurasoen euskara ezagutzak zer esan haundia baitu ondorengoek euskara ikasteen. Gurasoek euskararik ez jakiteak oztopatu egiten du beren seme-alaben euskalduntzea.

Aipatzekoa da bestalde, gaur egunean gure gazteei ematen ari garen euskararen transmisioan euskararen galera bat dagoela. Bi gurasoek euskara jakin arren ere, ez dira guraso hauen seme alaba guziak euskara ondo ezagutzera iristen. Euskararen galera hau batik bat, Nafarroa eta Iparraldean ematen ari da. Herri erdaldunetan, eta X eta A hizkuntza ereduak nahiz Iparraldeko eredu elebidunak

³ J.I. RUIZ OLABUENAGA, C.BLANCO: *La inmigración vasca. Análisis trigeneracional de 150 años de inmigración*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1994, 170, 188, 257, 294. orr.

sortzen dute gaztearen euskara transmisioan etenik haundiena. Inguru erdaldunetan eta euskararen aldeko neurriak hartzen ez diren gunetan, erderaren nagusitasunari aurre egitea ezinezkoa egiten zaie gazteei, euskara ezagutza mantentzea zailduz.

Gurasoek euskara ez jakitean eskolarengan utzi izan da seme alaben euskalduntzearen zeregina, baina eskola barnean ere zer esana dute ikaslearen euskalduntzean, ikastetxeen ezaugarriek.

60.hamarkadan, eskolaren bidez euskalduntze prosezua bultzatzeko asmoz sortu zirenez, Ikastolek beste ikastetxeek baino lorpen hobekak izan dituzte gazteen euskalduntzean; bertako ikasleak dira euskara gehien ikasi eta erabiltzen dutenak, alde handia izanik gainontzeko ikastetxeetako ikasleekin alderatuz gero.

Nahiz eredu guztiak elebidunak izan, hizkuntza gutxiengotu batek leku garrantzitsua bete behar du gazte baten hezkuntzan gazte horren erabateko elebitasuna lortu nahi bada, hain zuzen egoera diglosiko batek aurkako indar bat duelako gizarte bizitzan. W.Mackeyk, gutxiengotu egoera bizi duen hizkuntza bat indartu ahal izateko murgiltze ereduak aukeratzen du, eredu elebidun egokien bezala. Hau da, hezkuntza osoa ikasi nahi den hizkuntzan eskeintzea ⁴.

Hizkuntza ereduak berriz gurasoen nahiekin lotuak daude, gurasoak baitira beren seme-alabarentzat hizkuntza ereduak aukeratzen dutenak. Era honetara, aipatu behar da, gizartean eta gazteen gurasoen artean euskararen aldeko nahia dagoela, gehiengo handi baten nahia izanik beraien seme alabak euskara ikastea.

Zalantzarik gabe gurasoek euskararekiko dituzten nahiek zer esana izango dute ondorenean bere seme alabek izango duten euskara ikastea eta erabiltzean, baina gurasoen nahiek bakarrik ez dute gazteen hizkuntza erabilera erabakitzen; gurasoen nahia euskararen aldekoa izan arren ere gazteen artean gehiengoak erdara erabiltzen du gehienetan. Gurasoek euskararekiko nahia izateaz gain, hauek euskara jakitea ere garrantzitsua da ondorengo euskalduntzea lortzeko.

Baina etxeko eredu eta nahiez gain, gizarte baldintzak eraginda bestelako erabilera joerak dituzte gazte hauek. Euskal gizartean euskara gutxiengoaren hizkuntza izanik, gizartearen aldetik ez dator euskara erabiltzeko eskaerarik. Bestalde, euskara erabiltzeko eskaera edo beharizan hori ez egonik, eskolak ere ezin dezake gizarteak indartu ezin duen hizkuntza erabileraren beharra sortu bere kabuz ⁵.

⁴ M. SIGUAN y W.F.MACKEY: *Educación y Bilingüismo*. Aula XXI Santillana, Unesco, Madrid, 1986, 124-125 orr.

⁵ J.A. FISHMAN; "Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan" in *Euskal Eskola Publikoaren I Kongresua*. Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, I.Liburukia, Gasteiz, 1990, 181-188.orr.

Beraz, gazteak euskalduntzeko eskolaren bidez ahaleginak egin arren, ahalegin horiek ezagutzara mugatzen dira gehienbat eta ez dute horrenbesteko eraginik erabileran.

5.1.8.1. Euskara ikasi eta erabiltzeko gizartezko baldintzak

Gazte hauek bizi diren inguruak ere zer esana du zalantzarik gabe euskararen ezagutzan eta euskararen erabileran. Herrietan ezagutzen eta erabiltzen da euskara gehien; herrietan baino euskara gutxiago erabiltzen delarik hiri eta hiriburuetan, hiriak izanik euskara gutxien erabiltzen den gunea. Herriko euskaldunak %60a baino gehiago diren kasuetan bakarrik ezagutzen du gehiengoak euskara eta aukeratzen du gehiengoak euskara bere hizkuntza erabileran.

Gazteak inguruan dituen euskaldunen kopurua edo inguruko euskara ezagutzak zer esana du euskararen erabileran, gazte honek dituen hartuemanetan norberak ezagutza izateaz gain, besteekiko ezagutzak eta gazteak duen besteen euskara ezagutzaren usteak eragiten baitute. Txepetxek, hizkuntzaren normalizazioa lortzeko aurreneko pausua, hitzun osoen nuklearizazioa dela dio.⁶

Azkenik esan, euskara ondo dakitenen eta gehienetan euskara erabiltzen dutenen kopuruak, behera egiten duela herriko etorkin kopurua igotzen doan heinean. Euskal jatorriak ere badu beraz zer esana, Euskalerrian jaiok direnak erabiltzen baidute euskara gehien. Zenbat eta etorkin gehiago izan inguruan euskara ezagutzak ere behera egiten du eta zer esanik ez erabilerak.

5.1.8.2. Nongotza eta herri sentimendua

Euskararen erabilera nazional asmoekin edo sentimendu deszentralistekin lotua agertzen da. Herrikidea Euskalerriarekin identifikatua dagoenean bertako hizkuntza gehien ezagutzen du eta euskara erabiltzeko joera gehien agertzen du. Joera bera agertzen da baita ere, herrikidearekiko gertuen dagoen antolaketa politikoarekin, norbera bizi den herriarekin identifikatzen denean.

Espainia eta Frantziako nazio estatuekin bat egiten edo herrikidearekiko urruneko elkarteekin bat datozen nahiz probintziarekin lotzen direnak berriz, ez dute euskara aukeratzen, zeharo urria izanik sentimentu hauek agertzen dituzten artean euskararen erabilera.

⁶ J.M.SANCHEZ CARRION "TXEPETX": *Un futuro para nuestro pasado*. 2.ed. S.F.V Julio Urquijo, Adorez eta Atseginez, Donostia, 1991, 380 orr.

Baina zer da euskaldun izatea? Sarritan lotu izan da euskara helburu politikoekin edo nazio berri baten eraiketakiko tresna modura, bestalde euskaldun izaera bera ere aldatua izan da euskararekiko lotura hautsirik euskalduna, euskal lurraldean bizitzea edo jaiotzeari lotuz eta euskara jakitetik bereiztuz.

Euskaldun izaera norbere edo familiaren jatorriarekin nahiz lanaren trukezko arrazoiekin, nahiz arrazoi politikoekin lotzeak, ez dute euskararen ezagutza eta erabilera eragiten. Aldiz, euskaldun izaera euskararen oinarritzeak edo euskaldun izaera borondate soilean ulertzeak euskararen ezagutza eta erabilera gehiago eragiten dute gainontzeko arrazoiek baino.

Fishmanen ustez, hiztunak gertuen duen antolamenduan mantentzen dira ondoen kultur sentimenduak, eta hauen artean hizkuntza bihurtu ohi da etnizidadearen sinbolu⁷.

5.1.8.3. Euskararen erabilera eremuak

Gaztearen hurbileko bizitza edo euskara biziberritzeko ahaleginek gehien zaindu dituzten guneak dira euskara gehien erabiltzen direnak: eskola, udalekuak eta eleizaren ingurua.

Gaztearen urruneko bizitzan etxean edo eskolan euskara erabiltzeko aukera izan arren ere, eremu hauetatik urruntzean, gizartean erdara erabiltzeko joera orokorarekin topatzen da gaztea, euskara erabiltzeko baldintza egokirik ez izatean erdarara jo beharra izanik.

Iparraldean, oraindik egoera kaxkarragoa dute euskara erabili nahi dutenek, euskara erabiltzeko guneak sendira eta eleizara mugatzen baitira, euskara eskolatik eta kultur taldeetatik urrun geldituz, hegoaldean ez bezala.

Batik bat gazte hauen bizitzan duten garrantzia ikusirik: denbora libre taldeetan, kiroletan, kulturen nahiz komunikabideetan erabaki daiteke hizkuntza bat ala bestea aukeratzeko joera, batez ere ikastetxeaz gain euskara nun erabilirik ez duten gazteen artean.

Bestalde, euskararen erabilera ekintza zehatz batzuetara mugatzen dela esan behar: ikastetxearekin lotuta, ikasgai batzuek euskaraz jasotzera edo idazlana idaztera, eta ekintza sinbolikoetara, telefonoa erantzutera adibidez. Besteekiko harremana suposatzen duen ekintza bideratzean berriz, erdara nagusitzen da gazte hauen artean, gizarteko harremanek gizarteko hizkuntza nagusiaren erabilera eskatzen baidute.

⁷ J.A. FISHMAN J.A.: *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Multilingual Matters, Clevedon, 1989, 32-40 orr.

5.2.

EUSKARAREKIKO JARRERAK

5.2. EUSKARAREKIKO JARRERAK

Emaitzen azterketako bigarrengo zati honetan, euskal gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak aztertzen ditugu. Euskararen inguruan esan ohi diren hainbat iritzi edo usteekiko adostasuna eskatu diegu gazteei: euskarak lana topatzeko bakarrik balio izatea, euskarak euskaldun egiten gaituela, euskararik gabe Euskalerririk ez dagoela, euskara ikastea baino inglesa ikastea nahiago izatea, administrazio, komunikabide edo jaialdien bidez euskara gehiago sustatu beharra e.a.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa edo Iparraldeko gazteek iritzi hauek zenbateraino onartzen dituzten aztertuko dugu.

Euskararekiko jarrera hauetan, gizartezko baldintza ezberdinek duten eragina ere aztertuko dugu: biziterriaren ezaugarriak, hezkuntzaren ezaugarriak, gurasoen ezaugarriak eta herri izaera edo atxekimendua.

Bestalde, gaztetxoei geuk euskararekiko iritziak zehaztuta eman beharrian, euskarari buruz beraiek dituzten esperientzia, uste eta nahiak jasoko ditugu, gaztetxoek idatzi dizkiguten idazlanak aztertuz. Zer da euskara gazte hauentzat? Zer lotura dute hizkuntza honekiko? Zertarako edo zergatik ikasi edo erabiltzen dute euskara?

Idazlanen bidez jasotako euskararekiko jarrera hauetan, gizartezko ezaugarri ezberdinek duten eragina ere neurtuko dugu.

Azkenik, galdekizun bidez eta idazlan bidez jaso diren jarrerak alderatuz, bi metodologia ezberdinek jarreraren neurketan dituzten lorpenak eta mugak ezagutzea izango du zati honek helburutzat.

5.2. EUSKALERRIKO GAZTETXOEN EUSKARAREKIKO JARRERAK

Gure ikerketan, jarrerak neurtzerakoan, euskara ulertzeko erak edo euskarataz gazteek dituzten uste edo pentsakerak neurtzen ditugu. Uste hauek berriz gazte bakoitzak bere bizitzan izan dituen esperientzien eraginez eratzen dira.

Galdekizun baten bidez, gazteek euskal gizartean euskararekiko aipatzen diren iritzi ezberdinetaz -alde nahiz aurkakoetat- duten adostasuna aztertu dugu.

5.2.1. GAZTETXOEN EUSKARAREKIKO JARRERAK LURRALDEKA

2.1.TAULA: GAZTETXOEN EUSKARAREKIKO JARRERAK LURRALDEKA

EUSKARAREKIKO JARRERAK		AUTONO. ELKART.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKU	NAFAR	IPARRAL DEA	
Guztira 3.655								
EUSKARAK LANA TOPATZEKO								
BAKARRIK BALIO DU								
Ados.....	1.353	%37	43.7	56.8	45.4	37.1	21.8	12.4
Berdin zait.....	462	%12.6	10.6	11.0	12.6	8.6	22.5	10.7
Aurka.....	1.819	%49.8	45.2	31.7	41.4	53.7	55.4	75.7
JAURLARITZAK DIRU GEHIAGO EMAN								
BEHAR DU EUSKARAREN ALDE								
Ados.....	2.415	%66.1	70.8	64.4	69.7	74.2	48.6	60.9
Berdin zait.....	774	%21.2	19.8	25.1	19.7	17.9	25.3	24.6
Aurka.....	420	%11.5	8.2	9.9	9.3	6.6	24.2	13.9
EUSKARAK ARAZOAK SORTZEN								
DITUENEZ, DEBEKATU EGIN BEHAR								
Ados.....	308	%8.4	8.4	10.1	9.9	6.3	10.2	5.6
Berdin zait.....	384	%10.5	8.8	12.4	8.9	7.3	18.5	9.5
Aurka.....	2.897	%79.3	81.3	76.3	79.4	84.9	68.5	83.1
EZ DAGO EUSKALERRIRIK								
EUSKARARIK GABE								
Ados.....	2.475	%67.7	72.3	63.7	69.3	78.2	42.5	78.4
Berdin zait.....	542	%14.8	10.8	13.6	13.3	7.5	36.1	7.1
Aurka.....	577	%15.8	15.6	20.9	16.2	13.1	17.7	13.9
NORBERE BORONDATEZ EZ BADA EZ								
DU INORK EUSKARARIK IKASIKO								
Ados.....	2.735	%74.8	76.8	74.3	77.7	76.9	73.4	61.8
Berdin zait.....	396	%10.8	9.4	11.5	9.5	8.7	11.8	20.4
Aurka.....	458	%12.5	12.2	13.1	11.0	13.0	12.1	16.0
HAUR GUZIEK EUSKARA IKASI BEHAR								
DUTE								
Ados.....	2.015	%55.1	64.9	54.9	59.0	74.0	26.6	30.8
Berdin zait.....	645	%17.6	16.1	19.5	18.7	12.4	23.7	18.9
Aurka.....	961	%26.3	18.1	25.1	21.4	12.5	49.2	48.8
EZ DAGO EUSKARA IKASI BEHARRIK								
DENEK DAKITE ERDARA ETA								
Ados.....	889	%24.3	21.1	25.7	25.2	15.6	37.4	25.4
Berdin zait.....	494	%13.5	12.3	17.2	13.3	9.6	18.6	13.3
Aurka.....	2.231	%61.0	65.4	56.1	60.2	73.7	43.2	59.5
EUSKALERRIRA LANERA EDO								
BIZITZERA DATORRENAK EUSKARA								
IKASI BEHAR DU								
Ados.....	1.407	%38.5	42.1	33.8	36.2	50.6	28.2	29.3
Berdin zait.....	781	%21.4	21.1	19.5	22.0	20.9	26.4	13.9
Aurka.....	1.428	%39.1	35.8	46.0	41.0	27.3	43.9	55.6
EUSKARA HIZKUNTZA POBREA DA EZ								
DU BALIO GAI ZIENTIFIKOAK								
LANTZEKO								
Ados.....	824	%22.5	20.4	21.8	20.2	20.1	27.5	30.2
Berdin zait.....	764	%20.9	18.5	24.4	19.7	15.2	29.5	24.3
Aurka.....	2.022	%55.3	59.9	51.7	58.9	63.8	41.7	44.4
EUSKARA JAKITEA EZ DA ASKI,								
EGUNEROKO BIZITZAN ERABILI								
BEHAR DA								
Ados.....	2.352	%64.4	68.4	60.9	64.9	74.5	49.7	59.2
Berdin zait.....	576	%15.8	13.5	16.6	14.9	11.2	25.3	15.7
Aurka.....	675	%18.5	16.5	20.5	19.1	12.6	23.9	24.3

EUSKARAREKIKO JARRERAK	AUTON. ELKART	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKU	NAFAR.	IPARR.
Guzira 3.655						
NAHIAGO DUT INGLESA IKASI EUSKARA BAINO						
Ados..... 1.255 %34.3	28.4	38.4	34.6	19.0	51.8	49.1
Berdin zait..... 646 %17.7	18.5	18.2	19.8	17.4	14.5	17.2
Aurka..... 1.692 %46.3	51.2	41.8	43.4	61.9	32.5	32.8
TELEBISTA ETA IRRATIETAN EUSKARA ALPERRIKOA DA EZ DA ETA ULERTZEN						
Ados..... 895 %24.5	22.2	28.7	26.5	15.9	33.4	25.7
Berdin zait..... 557 %15.2	12.3	15.4	12.9	10.7	24.5	21.0
Aurka..... 2.163 %59.2	64.3	54.5	59.7	72.2	40.6	52.7
ESKOLETAN EUSKARA KLASE GEHIAGO BEHAR DIRA						
Ados..... 1.643 %45.0	46.6	38.4	47.2	49.1	39.6	41.7
Berdin zait..... 958 %26.2	26.0	25.1	24.2	27.9	26.9	26.9
Aurka..... 1.016 %27.8	26.5	35.2	27.8	22.1	32.2	29.9
EUSKARAREN INTERESA MODA BAT BESTERIK EZ DA						
Ados..... 374 %10.2	10.0	9.2	12.1	8.3	12.6	8.0
Berdin zait..... 791 %21.6	18.6	25.3	19.8	15.0	32.0	26.6
Aurka..... 2.448 %67.0	70.4	64.4	67.0	75.7	53.8	64.2
EUSKALERRIAN GAUDENEZ DENOK EUSKARAZ HITZEGIN BEHAR DUGU						
Ados..... 1.831 %50.1	56.7	47.1	52.8	63.9	31.7	31.7
Berdin zait..... 481 %13.2	13.2	14.7	14.5	11.5	14.0	10.9
Aurka..... 1.303 %35.6	29.0	36.8	31.7	23.6	53.5	55.6
EZ DAGO EUSKARA JAKIN BEHARRIK EUSKALDUNA IZATEKO						
Ados..... 1.773 %48.5	46.3	53.6	50.5	39.7	53.5	56.8
Berdin zait..... 540 %14.8	14.1	15.2	14.5	13.2	22.3	6.5
Aurka..... 1.273 %34.8	37.9	30.6	33.4	44.8	22.0	34.0
EUSKARAREN ALDE KANPAINA ETA JAIALDI GEHIAGO BEHAR DIRA						
Ados..... 2.040 %55.8	59.2	52.9	55.9	64.7	40.4	57.1
Berdin zait..... 983 %26.9	25.1	27.4	26.6	23.0	33.4	28.7
Aurka..... 575 %15.7	14.0	17.9	16.2	10.5	24.5	13.3
EUSKALDUNAK EUSKARAZ ARI BADA EZ DU UTZI BEHAR EZ DAKIEN BAT ETORTZEAN						
Ados..... 1.256 %34.4	37.2	32.4	36.9	39.2	26.8	26.0
Berdin zait..... 1.115 %30.5	28.6	30.6	31.0	25.7	43.0	22.2
Aurka..... 1.243 %34.0	33.3	36.3	31.0	34.3	27.9	50.9
BURUGABEKERIA, DENOK ERDERA JAKIN ARREN, BATZUK EUSKARA ERABILTZEAGAITIK EZIN ULERTUTA IBILTzea						
Ados..... 1.335 %36.5	35.0	40.9	35.5	32.2	44.6	34.0
Berdin zait..... 921 %25.2	23.9	23.9	22.3	25.4	24.4	36.7
Aurka..... 1.337 %36.6	39.5	34.0	40.4	40.7	29.1	27.2
TELEBISTA, EGUNKARI ETA IRRATIETAN EUSKARA GEHIAGO ERABILI BEHAR DA						
Ados..... 1.777 %48.6	53.8	45.5	51.1	59.5	31.8	38.2
Berdin zait..... 1.011 %27.7	26.8	29.0	28.3	24.6	29.3	31.7
Aurka..... 852 %23.3	19.1	25.3	20.5	15.5	38.4	29.0

Galdekizun bat erabiliz, iritzi ezberdinekiko adostasunaz galdetu zaie gazteei. Azterketan erabili diren iritziak ezberdinak izan dira; nolabait euskarari buruz gizartean entzuten direnak bildu nahi izan ditugu, bai euskararen aldeko bai aurkako jarrerak.

Jarrera hauen neurketa egiteko erabili den tresna ikusi daiteke eranskinean datorren galdekizuneko B.6. galderan. (Ikus IV.Eranskinean)

Gazteen artean indar gehien duten jarrerak honako hauek dira:

Hizkuntza politika hiztunen hizkuntza erabilera aldatzeko ahalegina denez, sarritan hizkuntza nagusiko hiztunenganako inposaketa bezala salatu ohi da, horren aldekoa ez denarengan hizkuntza gutxiengotuarekiko aurkako jarrerak indartuz.

Euskalerriko gazteek ez dute uste *euskara ikastera inor behartzea* bide egokia denik: honela Euskalerriko gaztetxoetatik hiru laurdenek uste dute euskara norbere borondatez ikasi beharreko gauza dela.

Autonomi Elkartean, hizkuntza politika bat aurrera eramanean den lurraldean hain zuzen ere, agertzen da indar haundienarekin euskara ikastea borondatezko gauza izan behar duela. Nafarroan ere antzeko pisua du iritzi honek. Iparraldean berriz indar gutxiagorekin ageri da iritzi hau, hala ere hamarretik sei euskara borondatezkoa izan behar duela uste du.

Euskara euskal nazioaren elementu sinboliko eta bereizgarritzat dute gazte gehienek, ia hamarretik zazpik. Nahiz eta euskara hizkuntza gutxiengotu bat izan Euskalerrian, euskal nazio izaeraren osagarri bezala ikusten dute euskara bertako gazte gehienek, euskararik gabe Euskalerririk ez litzatekeela izango esanez.

Aipatu beharrekoa da, Iparraldea eta Autonomi Elkarteko lurralde euskaldunenak direla batik bat, euskara Euskalerraren izaeraren oinarritzat dutenak. Nafarroan aurkitzen da bestalde, euskara Euskalerraren izaerarekin lotzen duten gazte gutxien, erdiak baino gutxiago izanik iritzi honetakoak, Iparralde eta Autonomi Elkarteko batazbestekoarekin alderatuz erdira jeisten delarik kopurua.

Euskara normalizatu dadin *Jaurlaritzaren diru laguntza* behar dela diote gaztetxo gehienek, hamarretik sei baino gehiagok. Dirulaguntzen aurka agertzen direnak berriz, hamarretik bat inguru besterik ez dira.

Autonomi Elkartean du indar gehien iritzi honek, batez ere lurralde euskaldunenean Gipuzkoan; ia hiru laurdenek iritzi hau adierazten baitute.

Bizkaian eta Araban ere gehiengo batek, ia hamarretik zazpik, iritzi hau adierazten du.

Euskara sustatzeko Administrazioaren aldetik ahalegin gehien egin den lurraldean, Autonomi Elkartean agertzen da batik bat, administrazioak euskarari laguntza gehiago ematearekin adostasuna gainontzeko lurraldeekin alderatuz gero. Iparraldean, euskarak laguntzarik jasotzen ez duen lurraldean ere, euskarak dirulaguntza behar duela uste du gehiengoak, Nafarroan aldiz, iritzi honek adostasun ahulagoa du, ez baitira lurralde honetan erdira ere iristen iritzi honen aldekoak.

Euskara nahiz eta Euskalerriko hizkuntza izan ez du gehiengoak erabiltzen, hizkuntza gutxiengotuaren ezaugarri hau gaintitu ahal izateko *euskara jakiteaz gain erabili egin behar* dela dio gazteen artean gehiengo batek. Gazteen hamarretik sei euskara erabiltzeko asmo edo konpromezu bat adierazten digu beraz.

Autonomi Elkartean agertzen da batez ere, euskara eguneroko bizitzan erabili beharra eta batez ere lurralde euskaldunenean, Gipuzkoan hain zuzen ere. Nafarroan ia erdiak dira euskara erabili behar dela adierazten dutenak, gainontzeko lurraldeekin alderatuz indar gutxien lurralde honetan izanik.

Euskalerrian euskarak bizi duen egoera gutxiengotua kontutan harturik, gazteen gehiengoak *kanpaina eta jaialdien bidez lagundu* behar zaiola uste du. Hala ere ez da iritzi hau adostasun indartsuena duena, erdiak pasatxo izanik iritzi honen aldekoak.

Autonomi Elkartean, Gipuzkoan agertzen da euskararen aldeko kanpainen eskaera haundiena, hamarretik sei inguruk eskatzen duelarik euskararen aldeko kanpaina eta jaialdi gehiago. Autonomi Elkartearen barnean, Araban agertzen da indar gutxiengorekin kanpainen eskaera, erdiak inguru izanik kanpaina gehiago eskatzen dituztenak. Nafarroan aldiz, gazteen laurden bat euskararen aldeko kanpainen aurka agertzen da eta hamarretik lau besterik ez dira kanpaina gehiago eskatzen dituztenak. Iparraldean berriz euskararen aldeko ekitaldien eskaerak Autonomi Elkarteko batzbestekoen antzeko kopurua du.

Gazteen artean erdiak dira baita ere, euskara *Euskalerriko haur guziek ikasi behar* duten iritziarekin bat datozenak. Euskararen aldeko jarrera izan arren, gazteen ardurakoa den gai hau aipatzean euskararekiko jarrera zerbait ahulagoa agertzen da; hala ere esan dezakegu haur guziek euskara ikasi beharra onartzen dutela. Autonomi Elkartean nagusitzen da iritzi hau, hamarretik sei ados izanik. Baina aurkako iritzia nagusitzen da bai Nafarroan eta bai Iparraldean, ez dute beraz bertako gazteek euskara ikastearen beharrik ikusten.

Autonomi Elkartean ere ezberdintasunak daude lurralde batetik bestera. Gipuzkoako gazteen hiru laurdenak, haur guziek euskara ikasi behar dutela adierazten duen bitartean, Araban erdia pasatxo besterik ez dira iritzi horretakoak.

Euskara Euskalerriko hizkuntza izanik bertako hiztun guziek euskara erabili beharra, gazteen erdiek bakarrik adierazten dute. Gazte hauen heren bat pasatxo berriz, Euskalerrian denok euskara erabili beharraren aurka agertzen da. Euskararen ezagutza kopuruekin alderatuz gero, esan daiteke euskara ikasi duten gazte guziek ez dutela ikusten Euskalerriko hizkuntza izategaitik euskara erabili beharra dagoenik.

Lurralde ezberdinak alderatuz gero, Autonomi Elkartean eta batik bat euskararen ezagutza haundiena den lurraldean agertzen da indartsuen, euskara Euskalerriko hizkuntza delako erabili beharra. Bestalde bai Iparraldean eta bai Nafarroan, euskara Euskalerriko hizkuntza izanik bertan euskara erabili beharraren aurka agertzen dira gazteen erdiak baino gehiago. Autonomi Elkartetik at ez dute beraz gazteek, euskara Euskalerriko hizkuntza delako erabili beharrik ikusten.

Euskal gazteen artean gehiengoak *euskara gehiago eskatzen du komunikabideetan*, gazteen ia erdiek telebista, egunkari eta irratietan euskara gehiago nahi dutela baidiote.

Komunikabideetan euskararen eskaera batik bat Autonomi Elkartean agertzen da, erdiek inguru, eta indar gutxiago du bai Nafarroan eta bai Iparraldean, hamarretik hiru eta hamarretik lauk besterik ez baitute eskatzen euskara gehiago telebista, irradi edo egunkarietan. Autonomi Elkartean ere ezberdintasunak daude lurralde euskaldunagoetan euskararen eskaera haundiagoa izanik.

Ia Euskalerriko gazteen erdiak dira, *Euskaldunaren izaera euskara jakitean ez beste zerbaitetan oinarritzen* dutenak. Eta gazte hauen artean heren batek uste du euskalduna izateko euskara jakin behar dela.

Eritzi honetan ere ezberdintasunak daude lurralde batetik bestera. Iparraldean, Nafarroan eta Araban euskara ez jakin arren ere norbait euskalduna izan daitekeela dioten gazteak erdiak baino gehiago dira, ia hamarretik sei Iparraldearen kasuan. Euskaldun izateko nahitaezko baldintza euskara jakitea dela Nafarroan hamarretik bik besterik ez dute uste, lurralde honetan agertzen delarik iritzi hau indar gutxienarekin. Gipuzkoa da berriz, iritzi hau indartsuen agertzen duen lurraldea, Nafarroako kopuru bikoitzarekin, gazteen hamarretik lauk euskaldun izateko euskara jakin beharra adierazten duelarik.

Nahiz eta gehiengoak izan *euskara ikasteko ikastordu gehiago* eskatzen dituztenak, hauek gazteen ehuneko 50 baino gutxiago dira. Kontutan izan behar

dugu, iritzi honek ikasleentzat ahalegin berezi bat eskatzen duela. Euskal Autonomi Elkarteko lurralde euskaldunenean Gipuzkoan, ageri da euskara ikasteko nahia indartsuen, euskara ordu gehiago eskatzen dituzten gazte gehien bertan izanik. Araba eta Nafarroan agertzen dira berriz, euskarazko ikastorduen eskaera ahulenak.

Euskara eta lanaren arteko lotura zenbait gazteren artean agertzen den arren -ia hamarretik lau-, gehiengoak ez du uste *euskarak lanerako bakarrik balio* duenik.

Euskara ikasiz gero lana eskuratu daitekeen ustea, Autonomi Elkartean agertzen da eta batez ere Arabako lurraldean. Euskal Autonomi Elkartean aurrera eramanez den hizkuntza politikaren ondorioz ulertzen da lurralde honetan euskarak lan aukerekin duen lotura, administrazio, komunikabide eta hezkuntza munduan euskara zabaltzeko ahaleginen ondorioa litzateke. Bestalde, aipagarria da Autonomi Elkarteko euskara gutxien ezagutzen den lurraldean nagusitzen dela iritzi hau. Ikasle hauek euskara herri sentimendu edo komunitate batetako partaidetzarekin ez dutenez lotzen, beraientzat euskara ikasteko arrazoia euskararen bidez eskuratu dezaketenez zerbait litzateke.

Autonomi Elkartetik kanpo euskararen lanerako baliogarritasuna zeharo jeisten da. Iparraldean gehiengo batek ez du euskara lana topatzeko bakarrik balio duen ustea, euskara lana topatzeko aukerekin lotzen dutenak ez baitira hamarretik bat inguru besterik. Antzeko zerbait gertatzen da Nafarroan ere, nahiz eta hemen euskara lanarekin lotzen dutenak Iparraldekoen kopuru bikoitza izan.

Euskal gazteen artean gehiengo batek ez du *inglesa ikastea nahi euskararen orde*. Euskara ikastea baino nahiago dutenak lurralde hedapen zabalagoa duen eta nazioarte mailan erabilgarriagoa den hizkuntza ikastea, euskal gazteen heren bat pasatxo dira.

Ezberdintasuna nabari da Autonomi Elkartea eta gainontzeko lurraldeen artean, Nafarroan eta Iparraldean ez diete euskarari erabilgarritasun haundirik topatzen eta nahiago dute euskara ikastea baino, baliagarriago izango zaien atzerriko hizkuntza bat ikastea, gazteen erdiak inguru iritzi horretakoak izanik lurralde hauetan. Baita ere, ezberdintasunak aurkitu ditzakegu Autonomi Elkartearen barnean ere, Gipuzkoa izanik inglesa nahiago duten gazte gutxien dituen lurraldea -hamarretik bi besterik ez-, eta Araba bestelako iritzia indartsuen agertzen duena, Gipuzkoako kopuru bikoitzarekin.

Beste zenbait iritziren inguruan banatuta agertzen dira gazteak; *Euskalerrira bizitzera edo lanera datorren orok euskara ikasi beharra*, batzuk *euskara erabiltzeagatik elkarulertzea oztopatzea burugabekeritzat* jotzea edo euskalduna euskaraz ari denean *ez dakien batengatik euskara utzi beharra* bezalako iritziekin.

Autonomi Elkartean gehiago dira, *Euskalerrira datorrenak euskara ikasi behar duela* diotenak aurkako iritzia dutenak baino. Gipuzkoan, hau da lurralde euskaldunenean, gehiengoak uste du Euskalerrira datorrenak euskara ikasi behar duela, lurralde honetako gazteen erdiek. Baina gainontzeko lurraldeetan ez dute gazteek euskararen beharra adierazten Euskalerrira lanera nahiz bizitzera datorrenarentzat. Iparraldea da iritzi honen aurka indartsuen ageri dena, erdiak baino gehiago dira aurkakoak. Lurralde honetan erdara nagusi izatean euskara aukerazko gauza bat bezala ikusten dute eta ez kanpotik datorren batentzat beharrezko baldintza bat.

Euskara hizkuntza ahula izanik hiztun batzuek askoz ere abantaila gehiago aurkitzen diote erdara erabiltzeari. *Euskara erabiltzen* badute, gehiengo batek *arazoak izango lituzke elkarulertzeko*, baina erdara denok ezagutzen dugunez, errentagarriagoa ikusten dute denok erdara erabiltzea euskararen ordezt. Beste hiztun batzuek berriz euskarari balore bat aurkitzen diote eta ez daude prest batzuek ulertzen ez dutelako bere hizkuntza erdararekin ordezkatzeko.

Nafarroan eta Araban agertzen da indar haundienarekin, elkarulertzeko euskararen ordezt erdara erabiltzearen aukera, bertan hamarretik lauk erdararen abantaila garrantzi gehiago ematen die euskararen erabilerari baino. Bestalde, Autonomi Elkartean euskararen erabilerari garrantzi gehiago ematen zaio. Lurralde hauetan, hamarretik lauk ez du uste burugabekeria denik euskara erabiltzea nahiz eta batzuek ulertu ezina izan.

Gazteen heren batek ez du uste, *euskara hitzegiten ari denak bere hizkuntza erabiltzeari utzi behar* dionik beste norbaitek hizkuntza hori ulertzen ez duelako, azken honen arazo bat bezala ulertzen baitu euskara ez jakitea.

Batik bat lurralde euskaldunenean, Gipuzkoan agertzen da iritzi hau. Baina lurralde erdaldunenean, Araban zerbait gehiago dira euskaldunak euskara hitzegitea utzi behar duela diotenak. Nafarroan berriz, gehiengo batek ez du iritzirik gai honi buruz, eta iritzia dutenak banatu egiten dira aurkako eta aldekoen artean. Iparraldean, erdiek ez dute uste euskaldunak bere hizkuntza erabiltzen jarraitu behar duenik ez dakien bat etortzean, euskarak lurralde honetan bizi duen gutxiengotu egoeraren adierazle, hala ere laurden bat euskaraz jarraitzearen alde agertzen da.

Denek erdara dakitenez, euskara ikasi beharrik eza gutxiengoak onartzen duen iritzia da -laurden bat inguruk-, beraz gazteen gehiengo batek euskara ikasi beharreko hizkuntza dela uste du. Indar ezberdina du iritziak lurralde euskaldunetan eta erdaldunetan.

Batez ere Nafarroan agertzen da euskararen beharrik eza, bertako zonalde batzuetan euskararen ezagutza oso urria izanik, euskara ikasteko beharra ez dute

gazte askok sentitzen, ia hamarretik lau gaztek besterik ez. Gipuzkoan euskararen ezagutza altuagoa izatean euskararen beharra gehiago sentitzen dute bertako gazteek. Gipuzkoan agertzen da euskararen behar gehien, lurralde honetako gazteen hiru laurdenek euskara ikastea beharrezkoa ikusten duelarik.

Euskal gazteen artean, gutxiengoa dira *komunikabideetan euskararen erabilera onartzen ez dutenak*, laurden bat besterik ez baitira euskara telebista eta irratietan alperrikoa dela uste dutenak. Nafarroan agertzen da gehienbat iritzi hau, Gipuzkoa da berriz, euskara komunikabideetan alperrikoa dela gutxien onartzen den lurraldea.

Euskararen errekurtsio linguistiko urritasuna eta zenbait arlotan erabili ahal izateko gaitasun eza gutxi batzuk bakarrik adierazten dute, hamarretik bi gaztek baidiote euskara hizkuntza pobrea dela. Batez ere Euskal Autonomi Elkartetik kanpo agertzen da euskararen hiztegi urritasunaren iritzia.

Iparraldean eta Nafarroan ia hamarretik hiru dira iritzi honetakoak. Autonomi Elkartean aldeko gutxiago ditu iritzi honek eta ez dago alde haundirik lurralde batetik bestera. Autonomi Elkartean euskara gehiago landu da zientzia arloan, bai hezkuntza eta bai ikerketa mailan, beraz euskara normalizatuagoa ikusten dute bertako gazteek, gutxiago izanik euskararen errekurtsio falta somatzen dutenak lurralde honetan.

Euskara garai honetan indartu den *moda bat besterik ez* dela esatean, gaztetxoek gehiengoa aurka azaltzen da, gazteen ia hamarretik zazpi. Lurralde ezberdinetan hamarretik bat inguru besterik ez dira euskara moda bat dela diotenak, beraz euskararekiko interesa betidanik izan dela uste dute gazteek.

Eta azkenik esan, *euskara arazo sortzaile izanik debekatzeko* ideiak ez duela jarraitzaile askorik Euskalerrian, nahiz eta lurralde batetik bestera ezberdintasunak izan, esan daiteke lurralde guztietan hamarretik batek besterik ez duela iritzi hau onartzen.

Iparraldea eta Autonomi Elkartea, batez ere bertako lurralde euskaldunena den Gipuzkoa, ageri dira iritzi horren aurka indartsuen, hamarretik zortzi inguru. Bestalde, euskara debekatzearen aurkako iritziak indar gutxien duen lurraldea Nafarroa da. Hala ere ia hamarretik zazpi aurka agertzen da Nafarroan ere. Esan daiteke, hego Euskalerriko lurralde erdaldunenak direla euskara debekatzearen aurka ahulenak agertzen diren lurraldeak.

Laburbilduz, honako iritziak adierazten dituzte Euskalerriko gaztetxoek gehienbat:

Gazte hauen artean euskararekiko aldeko jarrerak nagusitzen dira eta aipatzekoa da euskara ikasteko beharizanaren bidea ez dutela egokitzen gazte hauek.

La guziak agertzen dira euskara debekatzearen aurka, erabatekoa izanik iritzi hau gazteen artean. Indar haundiz agertzen da baita ere euskara norbere borondatez ez bada ez duela inork euskararik ikasiko.

Euskararik gabe Euskalerririk ez legokeela uste dute, euskara Euskalerrriaren izaerarekin lotzen dutelarik gazte gehienek.

Ez dute onartzen euskararen kontua moda bat denik eta denek erdera jakin arren ez dute uste euskara alperrikakoa denik eta ezta komunikabietan erabili behar ez denik ere.

Euskara hizkuntza gutxiengotua izatean, Jaurlaritzaren aldetik laguntza gehiago izan behar dituela uste dute eta euskararen aldeko kanpaina eta jaialdiak gehiago antolatu behar direla.

Baina euskara jakitea ez dute nahikotzat gazteek, horretaz gain eguneroko bizitzan erabili behar dela eta Euskalerriko haur guziek euskara ikasi behar dutela baidiote.

Azkenik, euskarak zientzia arloan erabiltzeko gaitasuna baduela adierazten dute euskal gazte gehienek.

5.2.2. EUSKARAREKIKO JARRERAK GIZARTEZKO BALDINTZA EZBERDINEN ARABERA

Euskal gazte hauen artean aztertu ditugun euskararekiko jarrera ezberdin hauek, gizartratzean jaso eta gorpuzten dira gazteengan; ingurukoei, guraso, irakasle eta lagunartean entzunaz eraturako iritziak izan ohi dira. Gizarteko baldintza ezberdinek, euskararekiko era bateko zein besteko jarrerak sortu eta barmatzean eragiten dute.

Gizarteko baldintzak aztertze asmoz, ezaugarri ezberdinak neurtu ditugu, bai gaztea bizi den herriaren ezaugarriak; hau da bizi den herriko euskararen ezaugarriak eta etorkinen kopurua nahiz biztanle kopurua, bai gaztearen eskolaratze prozesuaren ezaugarriak; ikastetxe mota eta aukeratu duen hizkuntza erdua. Bestalde gurasoen ezaugarri batzuek aztertu dira, bai gurasoen euskara ezaugarriak eta jatorria ere.

Azkenik herriari buruzko atxekimendu eta gazteen nongotza adierazten duen sentimenduak ere neurtu ditugu.

2.2.TAULA: GIZARTEZKO BALDINTZEN ERAGINA (Zeharkako chunckoak, Ez daki/Ez era. ez gainontzeko datuak)

EUSKARAREKIKO JARRERAK	EUSKARA LANA TOPATZEKO	DEBEKATU EGIN BEHAR	BORONDATEZ IKASI BEHAR	BEHARRIK EZ DENEK ERDERA DAKJTENEZ	EZ DU BALJO ZIENTZIRAKO
	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka
HERRIKO BIZTANLE KOPURUA	1.353 1.819	308 2.897	2.735 458	889 2.231	824 2.022
Biztanleak -2.000.....	24 64	3 87	71 15	14 73	20 58
Biztanleak 2./10.000.....	26 59	9 79	72 13	20 65	20 58
Biztanleak 10./50.000.....	35 54	6 84	76 12	19 69	20 62
Biztanleak +50.000.....	61 26	14 74	76 12	36 48	28 48
Hiriburua.....	42 45	10 74	75 13	32 52	26 49
HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA					
Euskaldunak %0-20.....	42 42	11 73	74 12	33 49	26 47
Euskaldunak %20-40.....	42 48	7 84	77 12	22 66	22 58
Euskaldunak %40-60.....	35 54	9 81	74 13	15 74	21 64
Euskaldunak %60-80.....	20 69	3 92	78 12	9 81	16 70
Euskaldunak %80-100.....	19 71	3 90	71 18	8 84	16 68
HERRIKO ETORKIN KOPURUA					
Etorkinak %0-10.....	22 68	2 95	78 16	2 94	12 79
Etorkinak %10-20.....	39 49	7 83	75 10	20 68	18 63
Etorkinak %20-30.....	45 46	8 83	78 13	21 66	22 60
Etorkinak %30-40.....	53 34	13 74	76 11	29 53	23 51
IKASTETXE MOTA					
Ikastola.....	17 75	2 95	83 10	5 92	13 78
Publikoa.....	41 45	9 76	73 13	26 56	22 53
Pribatua.....	41 44	11 76	74 13	31 54	28 48
HIKUNTZA EREDUA					
X erdua.....	19 60	10 70	68 13	38 42	32 37
A erdua.....	57 31	12 74	76 12	31 50	26 47
Elbidun(iparralde).....	15 73	8 90	78 10	15 75	13 60
B erdua.....	35 52	6 86	70 10	12 77	14 71
D erdua.....	16 76	2 95	83 16	3 93	12 80
GURASOEN JATORRIA					
Biak Euskalerrian jaiotak.....	25 62	5 88	77 13	15 76	18 65
Ama EH jaiotak Aita kanpoan.....	38 49	8 78	76 11	24 58	25 49
Aita EH jaiotak, Ama kanpoan.....	40 46	9 80	73 13	23 58	19 64
Biak EHtik kanpo jaiotak.....	51 36	12 71	73 13	36 46	28 44
GURASOEN EUSKARA EZAGUTZA					
Biek dakite euskara.....	19 71	3 93	79 12	6 88	14 73
Amak badaki aitak ez.....	25 63	5 89	79 10	13 77	18 68
Aitak badaki amak ez.....	35 52	5 88	74 13	16 67	20 65
Ez daki bietako inork.....	46 40	12 72	73 13	34 48	27 46
NONGOTZA					
Bizi naizen herrikoa.....	38 50	8 80	74 14	23 63	23 58
Probintziko.....	34 47	10 72	74 12	36 47	28 42
Euskalerriko.....	29 62	4 91	79 12	11 80	15 69
Espainiako.....	51 32	16 61	71 11	48 32	33 34
Europako.....	60 27	10 71	70 13	40 33	29 37
Mundu osokoa.....	47 36	15 61	73 9	39 35	34 40
HERRI SENTIMENDUA					
Euskalduna.....	29 60	5 88	79 12	14 76	15 69
Euskalduna gehiago.....	36 50	5 83	74 14	18 65	20 57
Euskaldun ta espaini (frant.).....	49 36	11 74	74 11	33 49	28 42
Espainol/Frantsesa gehiago.....	40 44	10 71	72 11	37 43	36 36
Espainola/Frantsesa.....	47 37	21 54	62 17	55 26	40 28
EUSKALDUNAREN IZAERA					
Euskalerrian bizi ta lan egin.....	42 43	12 72	72 13	31 54	25 53
Euskaraz hitzegi.....	23 68	5 87	78 13	12 80	16 69
Familia euskalduna izan.....	32 55	10 78	70 14	26 57	28 46
Euskalerrian jaiotak.....	49 38	10 73	73 14	34 47	28 43
Euskaldun izateko borondate.....	31 57	5 89	80 10	16 73	18 65
Euskal nazioa defendatu.....	33 53	5 86	80 10	19 66	17 65

EUSKARAREKIKO JARRERAK	NAHAGO INGLESA EUSKARA BAINO		TRITARRATIAN EUSKARA EZ DA ULERTZEN	EUSKARA MODA BAT BETERIK EZ DA	EZ DA EUSKARA BEHAR EUSKALDUN IZATEKO		BURUGABE EUSKARA ERABILITZE			
	Ados Aurka				Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka			
HERRIKO BIZTANLE KOPURUA	1.255	1.492	895	2.163	374	2.448	1.773	1.273	1.335	1.337
Biztanleak -2.000.....	27	59	16	66	8	71	41	43	28	41
Biztanleak 2./10.000.....	28	54	19	63	9	70	40	42	34	34
Biztanleak 10./50.000.....	26	55	21	67	7	73	44	41	34	39
Biztanleak +50.000.....	46	28	34	48	18	56	63	20	44	35
Hiriburua.....	45	36	30	52	12	62	55	27	40	35
HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA										
Euskaldunak %0-20.....	48	32	34	46	13	59	57	24	42	33
Euskaldunak %20-40.....	28	50	21	64	9	69	50	35	34	38
Euskaldunak %40-60.....	17	63	15	71	8	75	39	43	31	39
Euskaldunak %60-80.....	14	71	10	81	4	82	31	57	29	44
Euskaldunak %80-100.....	16	73	8	81	6	80	26	63	27	43
HERRIKO ETORKIN KOPURUA										
Etorkinak %0-10.....	5	84	3	92	4	87	20	69	24	49
Etorkinak %10-20.....	26	55	21	67	7	74	42	42	37	36
Etorkinak %20-30.....	26	52	21	65	10	71	48	36	33	41
Etorkinak %30-40.....	42	36	32	52	14	62	57	27	40	37
IKASTETXE MOTA										
Ikastola.....	6	82	3	93	4	90	20	69	25	50
Publikoa.....	35	44	27	53	10	65	52	28	37	34
Pribatua.....	47	33	31	51	13	59	56	28	41	33
HIKUNTZA EREDUA										
X erdua.....	58	24	35	37	12	53	59	20	44	26
A erdua.....	44	32	34	48	14	59	60	23	42	35
Elebidun (Iparral.).....	23	68	8	80	13	70	43	53	28	53
B erdua.....	12	68	11	77	8	78	38	42	28	38
D erdua.....	4	85	4	93	3	90	20	70	25	49
GURASOEN JATORRIA										
Biak Euskalerrian jaiok.....	23	61	16	71	8	75	38	47	32	42
Ama EH jaiok, Aita kanpoan.....	39	41	27	57	9	65	51	32	37	34
Aita EH jaiok, Ama kanpoan.....	37	44	23	60	10	69	50	34	33	42
Biak EHTik kanpo jaiok.....	45	32	34	46	13	58	60	21	43	29
GURASOEN EUSKARA EZAGUTZA										
Biek dakite euskara.....	9	77	7	86	6	83	24	65	25	48
Amak badaki Aitak ez.....	22	58	15	73	4	80	41	46	27	49
Aitak badaki Amak ez.....	28	52	20	62	10	74	46	37	28	43
Ez daki bietako inork.....	47	32	33	47	13	58	59	22	43	30
NONGOTZA										
Bizi naizen herrikoa.....	30	48	26	60	9	70	47	36	37	36
Probintziko.....	49	32	33	46	10	59	57	23	42	32
Euskalerriko.....	17	66	12	76	7	81	40	48	25	47
Espainiako.....	69	17	42	37	18	43	68	17	56	22
Europako.....	59	21	35	40	16	43	65	13	48	24
Mundu osoko.....	53	22	33	46	18	53	57	21	44	27
HERRI SENTIMENDUA										
Euskalduna.....	18	66	16	73	7	79	38	47	30	45
Euskalduna gehiago.....	28	47	23	59	11	71	50	31	28	39
Euskaldun ta Espainol/Frant.....	48	25	29	47	13	57	59	21	41	29
Esj inol/Frant gehiago.....	63	23	37	41	10	55	67	21	56	22
Espainola/Frantsesa.....	74	13	48	29	20	39	66	17	57	20
EUSKALDUNAREN IZAERA										
Euskalerrian bizi ta lan egin.....	38	45	25	57	14	64	51	31	40	37
Euskaraz hitzegin.....	16	68	13	78	5	80	24	63	28	46
Familia euskalduna izan.....	41	41	25	55	11	65	46	36	39	33
Euskalerrian jaiok.....	48	31	34	46	13	57	64	20	47	26
Euskaldun izateko borondate.....	28	52	16	72	7	78	49	37	27	46
Euskal nazioa defendatu.....	25	53	22	63	8	73	46	35	28	44

Esanguratsuk dira 2.2.Taulan bildu ditugun gizarteko baldintza guztiak gaztearen euskararekiko jarreretan.

Euskararekiko iritzi ezberdinen artean indartsuen agertzen zaiguna, euskara norbere borondatez ez bada inork ez duela ikasiko adierazten digun iritzia da.

Nahiz ezaugarri ezberdinetako gazteak ados izan, indar haundienarekin adierazten da: herri haundi eta hirietan, herri euskaldunetan, ikastola eta D ereduko ikasleen artean, guraso euskaldunak eta Euskalerrian jaioak dituztenen artean, Euskalerrikoak eta euskaldunak sentitzen direnen artean eta borondatea duen edonor nahiz euskal nazioa defendatzen duena, euskalduntzat hartzen dutenen artean.

Gainontzeko iritzien aurrean jarrera bat ala bestea izatean zer esan haundiagoa dute ondoren aztertuko ditugun ezaugarriek.

5.2.2.1. Gaztea bizi den herriko ezaugarriak

Gaztea bizi den herriaren ezaugarriek eragin handia dute euskararekiko iritzietan. Biztanle gehien bizi den hirietan, etorkin gehien kokatzen diren eta euskararen ezagutza urriena duten herrietan agertzen dira indar haundienarekin euskararen balio eza adierazten duten jarrerak.

Hirietan nagusitzen dira, batez ere, *euskarak lana topatzeko bakarrik balio duela, eta euskara jakin gabe ere euskalduna izan daitekela* dioten iritziak. Hirietako gazteen artean gehiengo batek, hamarretik seik, adierazten ditu iritzi hauek.

Euskara ikasi nahi ez eta ikastetxean ikasi beharra salatuz herri ezberdinetako gazteek antzeko jarrera agertzen dute, nahiz eta biztanle ugari dituen herrietan zertxobait indartsuagoa izan euskara norbere borondatez ikastearen aldeko jarrera.

Gainontzean euskararekiko aurkako jarrerak batik bat hirietako gazteen artean aurkitzen ditugu. Erdiak baino gutxiago badira erc, hirietan ados daude hamarretik lau inguru esate baterako honako hauekin: *euskara erabiltzeagaitik ezin elkarulertuta ibiltzea burugabekeria dela, denok erdera dakigunez euskararen beharrik ez dagoela eta euskararen ordeztzeriko hizkuntzak ikastea aukeratzearekin.*

Hiriburuetan ere antzeko joerak nabarmentzen dira, hala ere hirietan baino zerbait ahulagoak dira euskararen aurkako jarrerak. Kontutan izan behar dugu hiriburuetan biztanle gehien aurkitu arren, hirien aldean beste bizimodu bat eramaten dela bertan, bai probintziko herri ezberdinetako etorkinen eraginez eta bai zerbitzuen eta administrazioaren guneak izanik, harremanak izan ohi dituztelako gainontzeko herrietako biztanleekin.

Herriko euskararen ezagutzari dagokionez, esan behar euskara gutxien ezagutzen den herrietan -euskaldunak %20a baino gutxiago diren herrietan-, hau da herri erdaldunenetan, euskaldun izaera euskararen ezagutzari lotzearen aurkako iritzia indartsu agertzen dela -gazteen ia hamarretik seik-. Baita ere, euskararen ordeztzeriko hizkuntza nahiago izatea -hamarretik ia bostek-, eta euskararen balioa lana topatzera murriztea eta euskara erabiltzeak elkarulertzea oztopatzen duen iritzia -hamarretik lau pasatxok-. Kasu guzti hauetan, herriko euskararen ezagutza kopuruak gora egiten duen eran, euskararen aurkako jarrera hauekiko adostasunak indarra galtzen du, bestelako jarrerak nagusituz herri euskaldunagoetan.

Herriko etorkin kopuruari begiratuz berriz, etorkin gehien bizi diren herrietan -etorkinak %30-40a diren herrietan, euskaldun izaera euskara ezagutzeari lotzen ez diotenak eta euskararen balioa lana topatzera mugatzen duten iritziak nagusitzen dira, hamarretik ia sei gaztek adostasuna agertzen duelarik iritzi hauekin. Euskararen ordeztze inglesa ikasi nahia eta euskara erabiltzean ezin ulertuta ibiltzea burugabekeritzat jotzen dutenak daude bestalde; gazteen hamarretik lau baino gehiagok azaltzen dituzte jarrera hauek.

Hirietan nagusitasuna du, *euskara lana topatzeko bakarrik balio* duela diotenenen kopuruak, hamarretik sei ados izanik iritziarekin. Hirietan du iritzi honek indar gehien. Biztanle ugari herrietan, gehiago dira euskarak lana topatzeko bakarrik balio izatea adierazten dutenak, biztanle gutxi herrietan baino. Hiriburuen kasua berezia litzateke, nahiz biztanle ugarien izan, iritziarekiko adostasuna hirietakoa baino txikiagoa baita.

Herriko euskara ezagutzari dagokionez berriz, herri erdaldunenetan -herriko euskaldunen kopurua %40a baino gutxiagokoa-, euskararen lanerako balioa indartsuen agertzen da -hamarretik lau-. Euskaldunak %60a baino gehiago diren herrietan berriz erdira jeisten dira lanaren balioaren iritzia defendatzen dutenak -hamarretik bi inguru-.

Herriko etorkinak ugariak diren herrietan berriz -%30-40 bitarteko etorkin kopurua duten herrietan-, ageri da indartsuen euskararen lana topatzeko balioarekiko adostasuna. Herri hauetan, gazteen erdiak baino gehiagok uste du euskarak lana topatzeko bakarrik balio duela.

Euskara baino ingelesa nahiago duten gazte gehien hirietan eta hiriburuetan aurkitzen da. Bestalde, euskararen ezagutza haundikoak ez diren gunetan, euskaldunak %20a baino gutxiago diren herrietan. Azkenik, etorkin ugari dituzten herrietan -etorkinen kopurua %30etik %40 bitartekoa denean-, aurkitzen da ingelesa nahiago duten gazte gehien. Hamarretik lau nahiago du atzerriko hizkuntza bat euskararen ordeztze ingurune hauetan.

Euskara jakin gabe euskaldun izan daitekela diotenak batik bat hirietan, euskaldunak urriak diren -%20 baino gutxiago- herrietan eta etorkin ugari -%30-40 etorkin- aurkitzen den herrietan agertzen dira. Ingurune hauetako gazteen gehiengo batek iritzi hau adierazten digu -hamarretik sei inguruk-.

Batzuk euskara erabiltzeagaitik elkarulertzea oztopatzen dela uste dutenak gune berdintsuetan aurkitzen dira gehienbat: hirietan, herri erdaldun eta etorkin kopuru altuena duten herrietan. Hamarretik lau inguruk uste du burugabekeria dela euskara erabiltzeagaitik elkar ezin ulertuta ibiltzea.

Beraz herri bat zenbat eta biztanle gehiago, zenbat eta etorkin gehiago eta zenbat eta euskara dakien biztanle gutxiago izan, euskararekiko aurkako jarrerak orduan eta indartsuago agertzen dira.

Gizarte baldintza hauen eragina ez da ematen euskara ikasteko beharizanaren kasuan, ingurune ezberdinetan aurkitzen baitira euskara norbere borondatez ikastearen alde dauden gazteak.

5.2.2.2. Hezkuntzaren ezaugarriak

Ikastetxe motari dagokionez, batez ere ikastetxe pribatuetan nagusitzen dira euskalduna izateko euskara jakin beharrik ez izatea -hamarretik sei-, eta euskara ikastea baino atzerriko hizkuntza bat ikastea nahiago izatea -hamarretik bostek-; baita ere burugabekeritzat hartzea batzuk euskara erabiltzeagaitik ezin ulertuta ibiltzea -hamarretik lauk-.

Euskara lanaren balioari lotuta bai ikastetxe pribatuetan eta bai publikoetan agertzen da -hamarretik lau inguru-.

Euskara ikastea norbere borondatezkoa izan behar duela, ikastetxe guzietan agertzen bada ere, ikastoletan agertzen da indartsuen; bertako ikasleen hamarretik zortzik aipatzen digute iritzi hau.

Ikastetxe ezberdinetako ikasle hauek jarraitzen duten hizkuntza ereduari begira berriz, esan dezakegu, A eredu eta X eredu jarraitzen dutenak direla euskararekiko aurkako jarrera gehien adierazten duten ikasleak. Euskalduna izateko euskara jakin beharrik eza eta euskararen ordeztzerriko hizkuntza bat nahiago izatea -batez ere X ereduaren artean-, eta euskara lana topatzeko bakarrik balio duen ustea -batik bat A ereduaren artean-, nagusiki eredu hauek jarraitzen dituzten ikasleak adierazten dituzte.

Bestalde D eredu ikasleak nagusitzen dira euskara norbere borondatez ikasi behar dela adieraztean; erabatekoa da iritzia eredu hau jarraitzen dutenen artean, bertako ikasleen hamarretik zortzik uste hori agertzen baitu.

Ikastetxe pribatu nahiz publikoetan ageri da indar haundienarekin, euskarak *lanerako bakarrik balio* duen iritzia. Hala ere, bertako erdiak baino gutxiago dira iritziarekin ados daudenak. Ereduei dagokionez berriz, A eredukoek dira iritzi hau gehien defendatzen dutenak, eta D eredua nahiz Iparraldeko eredu elebiduna agertzen dira indartsuen aurkako iritziarekin. Aipagarria da beraz, eskolan euskara gutxien jasotzen duten ikasgeletan agertzen dela euskararen lanerako balioarekiko adostasun haundiena. X eredua salbuespena litzateke, hau da, eskolan euskararik jasotzen ez dutenen kasua. Gogoratu eredu honek gehienbat Iparralde eta Nafarroako eredu ez euskaldunak biltzen dituela eta lurralde hauetan ageri dela euskara eta lanaren arteko lotura ahulena.

Euskararen orde z atzerriko hizkuntza bat nahiago izatea ikastetxe pribatuetan eta eskolan euskararik jasotzen ez duten ereduetan, hau da X ereduetan, aurkitzen da indar haundienarekin. Eskolan euskararik ez dutenen artean hamarretik sei nahiago du inglesa ikasi euskara baino. A eredua jarraitzen dutenen artean ere ia erdiek nahiago dute inglesa ikasi euskara baino. *Gazteek eskolan zenbat eta euskara ordu gehiago izan, orduan eta gutxiago dira euskara ikastea baino inglesa ikastea nahiago dutenak.*

Bai ikastetxe pribatuetakoak eta bai publikoetakoak, eta bai X eredukoak - ikastetxean euskararik jasotzen ez duten ikasleak- nahiz A eredukoak, *euskalduna izateko euskara jakitea beharrezkoa ez dela* gehien adierazten dutenak dira; ia hamarretik sei iritzi honetakoak dira.

Azkenik, ikastetxe pribatuetan eta euskararik jasotzen ez duten ikasleen artean agertzen da gehienbat, *euskara erabiltzeagatik elkar ezin ulertuta ibiltzea burugabekeria dela*; berauen hamarretik lauk agertzen du iritzi hau.

Euskararen aurkako jarrerak, ikastetxe pribatu nahiz publikoetako ikasleen eta ikasgelan euskara gutxi edo batere euskararik ikasten ez duten ikasleen artean, nagusitzen dira. Zenbat eta euskara gehiago jasotzen duten beren hezkuntza ereduan, orduan eta indar gutxiago azaltzen dute euskararen aurkako jarrerak.

Dinamika ezberdina jarraitzen du kasu batzuetan Iparraldeko eredu elebidunak, eredu hau hegoaldeko B ereduaren antzekoa dela esan genezake euskara orduei begiratuz, baina badirudi eragin ezberdina duela zenbait jarrerei dagokionez. Honetan zer ikusia du zalantzarik gabe, eredu hau kokatzen den gizarte inguruneak. Eredu elebidun honetakoan artean, ingelesa nahiago dutenak gehiago dira B ereduan baino eta euskara ikasi beharra sentitzen dutenak eta euskaldun izaera euskararekin lotzen dutenak, gutxiago dira B ereduan baino.

5.2.2.3. Gurasoen ezaugarriak

Gurasoen jatorriak zer esana du gazteen euskararekiko jarreretan. Bi gurasoak Euskalerritik kanpo jaiok dituzten gazteen artean agertzen da gehienbat, *euskaldun izaera euskara jakitetik* bereiztua -gazteen hamarretik sei iritzi honetakoak izanik-. *Euskarak lana topatzeko bakarrik balio* duela ere gazte hauen artean agertzen da gehienbat; guraso kanpotarrak dituzten gazteen erdiek lotzen dute euskara lan aukerekin.

Gurasoen jatorriaz gain, bada beste ezaugarri bat seme-alaben jarreretan eragina duena, gurasoen euskara ezagutza. Bi gurasoak erdaldunak diren kasuetan agertzen da, *euskalduna izateko euskararen beharrik eza* gehienbat, -gazte hauen hamarretik seik-, eta baita ere *euskararen lanerako balioa* eta *atzerriko hizkuntzak ikastea nahiago izatea* -gazteen ia erdiek adierazten dituzte iritzi hauek-.

Bi gurasoen artean Euskalerrian jaiok eta euskara dakiena ama denean, euskara lan aukerekin lotzen dutenak zertxobait gutxiago dira, Euskalerrian jaiok eta euskara dakiena aita denean baino. Gaztearen gizarteratzean amaren eragina aitarena baino euskararen aldekoagoa dela erakusten digu honek.

Euskara dakiena ama izan beharrean aita izanez gero, euskalduna izateko euskara ez dela jakin behar uste duten gazteak zerbait gehiago dira euskara dakien gurasoa ama denean baino. Amaren euskara ezagutzak euskaldun izateko euskararen beharrean zerbait gehiago eragiten du aitarenak baino.

Inglesa euskara baino nahiago izateari dagokionez, gurasoen euskara ezagutza esangarriagoa da gurasoen jatorria baino. Bi gurasoak Euskalerrian jaiok izan arren, gazteen ia laurdenak nahiago du inglesa euskara baino. Bi gurasoek euskara dakiten kasuan berriz, ez dira hamarretik batera ere iristen iritzi honetakoak.

Bi gurasoak Euskalerra bertakoak izatean eta bi gurasoek euskara ezagutzean baino euskararekiko jarrera aurkakoagoak adierazten dizkigute, bi gurasoak Euskalerritik kanpo jaiok direnean eta euskararik ezagutzen ez dutenean, aurkako jarreraren kopuruak bikoiztuz gutxi gora behera.

Euskara borondatez ikasi beharrekoa dela ustean, ez dute zer esan haundirik gurasoen ezaugarriek; hala ere bi gurasoak Euskalerrian jaiok eta euskara ezagutzen dutenen seme-alaben artean iritzi honekiko adostasuna zerbait gehiago agertzen da. Euskararen borondatezkotasunak berriz, ez du euskararekiko aurkako jarrera adierazten euskara ikasteko beharrianaren aurkako jarrera baizik.

Beraz bai gurasoak hemengoak ez izateak eta bai hemengoak izan arren euskararik ez ezagutzeak eragina dute, beren seme-alaben euskararekiko jarrera era batekoa ala bestekoa izatean.

5.2.2.4. Herri sentimendua

Euskara norbere borondatez ikasi beharra, indar gehienarekin, beren burua Euskalerrikit jotzen dutenen eta euskaldun sentimenduak dituztenen artean agertzen da indartsuen. Hauek, euskalduna, borondatea duen edonor nahiz euskal nazioa defendatzen duena dela, diote batez ere. Hamarretik zortzi inguru dira euskaldun sentitu eta euskara ikastera behartzearen aurka daudenak.

Europakoak edo Espainiakoak nahiz Frantziakoak direla dioten gazteen artean, euskararen balioa gutxietzen duten iritziak nagusitzen dira: *euskalduna izateko euskararen beharrik ez izatea, atzerriko hizkuntzak ikastea euskara ikastea baino nahiago izatea, edo euskarak lana topatzeko bakarrik balio izatea.*

Europar atxekimendua edo atxekimendu nazionala duten gazteen artean, euskararekiko jarrera aurkako hauek, bestelako atxekimendua duten gazteen artean baino, indartsuago agertzen dira.

Espainiakoak nahiz Frantziakoak direla dioten gazteen ia hamarretik zazpi ez du uste, *euskara jakitea beharrezkoa denik euskalduna izateko, eta nahiago du inglesa ikasi euskara baino.* Berauen artean, erdiak dira *euskarak lanerako bakarrik balio* duela diotenak. Gazte hauen nongotza Europa denean berriz, hamarretik sei inguruk adierazten dituzte iritzi hauek.

Indar gutxiagorekin adierazten badira ere, atxekimendu europarra eta nazionala duten gazteen artean agertzen dira indartsuen ondorengo iritziak ere: *euskara erabiltzeagatik elkar ezin ulertuta ibiltzea burugabekeria dela, denek erdara dakitenez euskararen beharrik ez dagoela, edo komunikabideetan euskara alperrikakoa dela.* Gazte hauen erdiak inguru edo gutxiago dira iritzi hauekin ados daudenak.

Beren nongotza mundu osokoa dela dioten gazteen artean agertzen da batik bat - heren bat inguru-, *euskara zientzia arloan erabilia izateko gaitasunik ez duela.*

Gazteen *herri sentimenduaz* galdetzean Espainol nahiz Frantsesak sentitzen direla dioten artean, *euskara ikastea baino inglesa nahiago* dutela diotenak nagusitzen dira. Bestalde, Espainol-Frantses edo euskaldun baino gehiago Espainol edo Frantses sentitzen direnen artean, *euskalduna izateko euskararik ez dela behar* aitortzen dutenak ditugu nagusi. Kasu hauetan, ia hamarretik zazpi dira euskararen aurkako jarrera agertzen dutenak.

Euskara erabiltzeagatik ezin ulertuta ibiltzea burugabekeritzat dutenak eta denek erdara dakitenez euskararen beharrik ikusten ez dutenak, batik bat Espainol edo Frantsez, nahiz euskaldun baino gehiago Espainol edo Frantses sentitzen direnen artean aurkitzen dira. Ia hamarretik seik agertzen du iritzi hau ezaugarri hauetako gazteen artean.

Euskarak lana topatzeko bakarrik balio duela, euskaldun hainbeste Espainol edo Frantses sentitzen direnen artean ageri da gehienbat, baina baita Espainol edo Frantses hutsak sentitzen direnen artean ere. Ia erdiak ados daude bi kasuetan, euskararekiko iritzi honekin.

Espainol edo Frantses sentitzen direnak adierazten dute gehienbat: *euskara komunikabideetan alperrikakoa dela* -ia hamarretik bostek-, eta indar gutxiagorekin bada ere, *euskarak zientzian erabiltzeko ez duela balio* -hamarretik lauk-.

Euskaldun izaera era ezberdinetara ulertzen da gure gizartean, eta euskaldun izaera ezberdinek ere badute zer esana euskararekiko jarreretan. Euskaldun izaera jatorriarekin edo euskal nazioa defendatzearekin lotzen dutenak dira batik bat, *euskalduna izateko euskara jakin beharrik ez dagoela* aitortzen dutenak; gazte hauen hamarretik seik horrela uste du behintzat.

Euskara ikastea baino atzerriko hizkuntzak nahiago dituztenak edo euskara erabiltzea baino elkarulertzeari garrantzi gehiago ematen diotenak, euskaldun izatea jatorrian oinarritzen dutenen artean agertzen dira nagusiki -berauen erdiak inguru-.

Euskaldun izatea Euskalerrian jaiotzea edo bertan bizitzearekin lotzen dutenek diote gehienbat, *euskarak lana topatzeko bakarrik balio duela*, gazte hauen ia erdiak.

Euskara ikasi beharrik ez dagoela denek erdara dakitenez, eta komunikabideetan euskara alperrikakoa dela, gehienbat euskaldun izaera jatorrian oinarritzen dutenen artean agertzen da -gazte hauen heren bat inguruk-.

Beraz, atxekimendu europarra edo nazionala dutenen artean, herri sentimendua Espainola edo Frantsesa dutenen artean eta euskaldun izaera jatorrian edo Euskalerrian lan egin eta bizitzearekin lotzen dutenen artean, agertzen dira euskararekiko aurkako jarrerak: *euskaldun izateko euskararen beharrik eza, atzerriko hizkuntzak ikastea nahiago izatea edo euskarak lana topatzeko bakarrik balio izatea*.

Herri sentimendua zenbat eta gehiago urundu euskaldun sentimendutik eta zenbat eta gehiago hurbildu Estatu nazioetara, orduan eta indartsuago agertzen da

euskararekiko aurkako jarrera. Bestalde, zenbat eta garrantzi gutxiago ematen zaion euskaldun izateko euskara jakiteari eta zenbat eta garrantzi gehiago ematen zaion Euskalerrian jaioa izateari edo bertan bizitzeari, orduan eta indar gehiago hartzen dute euskararekiko aurkako jarrerak.

Ez dira gazte asko *euskarak arazoak* besterik sortzen ez dituenek, *debekezaren aldekoak*, kasu gehienetan ehuneko hamar hamabostaren inguruan baitaude. Hala ere, ezaugarri bereziak dituzte iritzi hau defendatzen dutenak: hirietakoak dira, euskaldunak ehuneko 20a baino gutxiagoko herrietakoak eta etorkin ugari dituzten herrietakoak. Ikastetxe pribatuetako ikasleak eta bere hezkuntzan euskara gutxien jasotzen dutenak -A eredukoak- dira, euskara debekatu beharra gehien onartzen dutenak. Hala ere, ez dute gazte askok iritzi honekiko adostasuna, hamarretik bat inguruk besterik ez. Bestalde, bi gurasoak Euskalerritik kanpo jaioak eta gurasoak erdaldunak dituzten gazteen artekoak dira gehienbat iritzi hau dutenak.

Euskara *moda* bat besterik ez dela uste dutenak ere, ez dira oso ugariak gazteen artean. Hamarretik bi baino gutxiago dira horrela uste dutenak kasu guztietan eta batik bat hirietan, herri erdaldunenetan eta etorkin gehien dagoen gunetan aurkitzen dira. Bestalde, ikastetxe pribatuetan eta A ereduan, bi gurasoak Euskalerritik kanpo jaioak eta euskararik ezagutzen ez dutenen artean, agertzen dira gehienbat iritzi hauek.

Adostasun urriagoarekin bada ere, bai euskara moda bat besterik ez dela eta bai euskarak arazoak sortzen dituenek debekatu egin beharko litzatekela, mundu osokoak edo Espainiakoak nahiz Frantziakoak direla diotenen artean agertzen dira gehienbat.

Azkenik, Espainol edo Frantses sentitzen direnek eta euskaldun izaera, Euskalerrian bizi eta lan egitearekin lotzen dutenek adierazten dute gehienbat, euskara moda bat besterik ez dela eta arazoak sortzen dituenek debekatu beharrekoa dela.

2.3.TAULA: GIZARTEZKO BALDINTZEN ERAGINA II (Zeharkako chunckoak, Ez daki/Ez era ez gainontzeko datuak)

EUSKARAREKIKO JARRERAK	JAURLARITZAK EUSKARARI DIRU LAGUNTZA GEHIAGO	EUSKARA GABE EZ DAGO EUSKALERRIRIK	HAUR GUZIEK EUSKARA IKASI BEHAR	EJLRA LAN EDO BEZITZERA DATORRENAK EUSKARA IKASI	EUSKARA IKASI TA ERABILI BEHAR
	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka
HERRIKO BIZTANLEAK	2.415 420	2.475 577	2.815 961	1.487 1.428	2.352 675
Biztanleak -2.000.....	73 11	76 13	56 25	41 37	73 15
Biztanleak 2./10.000.....	68 10	70 13	58 25	40 36	65 18
Biztanleak 10./50.000.....	72 9	76 12	65 19	48 31	72 14
Biztanleak +50.000.....	65 10	60 22	52 27	27 50	53 26
Hiriburua.....	58 16	58 20	45 34	32 46	58 22
HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA					
Euskaldunak %0-20.....	58 16	57 19	41 36	29 48	55 23
Euskaldunak %20-40.....	70 8	74 16	65 19	42 36	67 17
Euskaldunak %40-60.....	73 6	79 13	74 13	49 26	75 13
Euskalduna %60-80.....	80 4	85 8	73 14	55 26	79 10
Euskaldunak %80-100.....	79 10	86 9	67 18	53 28	82 10
HERRIKO ETORKIN KOPURUA					
Etorkinak %0-10.....	86 5	93 5	86 5	65 14	90 6
Etorkinak %10-20.....	72 7	73 14	66 18	46 33	67 19
Etorkinak %20-30.....	73 7	74 15	69 16	43 34	69 15
Etorkinak %30-40.....	62 11	62 22	50 27	30 49	61 21
IKASTETXE MOTA					
Ikastola.....	87 4	92 5	83 7	60 18	89 5
Publikoa.....	65 11	64 17	54 25	35 41	61 20
Pribatua.....	58 16	61 20	43 37	33 47	58 23
IIIZKUNTZA EREDUA					
X eredia.....	46 24	50 17	21 56	25 52	47 27
A eredia.....	62 11	60 22	54 25	32 47	58 23
Elebidun(iparralde).....	83 13	68 23	50 30	43 40	78 15
B eredia.....	77 7	82 11	71 13	45 29	74 12
D eredia.....	89 3	93 5	83 6	63 15	90 5
GURASOEN JATORRIA					
Biak Euskalerrian jaioak.....	75 10	77 11	63 21	47 30	75 13
Ama EH jaioa Aita kanpoan..	65 10	68 17	54 27	33 45	61 17
Aita EH jaioa Ama kanpoan..	70 12	71 15	52 29	38 41	64 18
Biak Eiltik kanpo jaioak.....	55 13	57 21	48 31	29 49	54 26
GURASOEN EUSKARA EZAGUTZA					
Biak dakite euskara.....	85 4	89 6	77 10	59 19	87 7
Amak badaki aitak ez.....	76 6	84 9	68 16	45 34	78 11
Aitak badaki amak ez.....	78 7	77 10	65 22	43 33	72 14
Ez daki bietako inork.....	56 16	56 21	44 35	29 49	53 25
NONGOTZA					
Bizi naizen herrikoa.....	66 11	70 15	59 22	38 37	67 18
Probintziko.....	54 20	49 20	39 41	31 50	53 23
Euskalerriko.....	82 4	84 10	71 14	48 28	80 10
Espainiako.....	40 22	46 27	27 54	23 62	40 36
Europako.....	49 14	49 25	38 30	24 57	54 24
Mundu osokoa.....	51 20	51 25	32 39	27 53	41 34
HERRI SENTIMENDUA					
Euskalduna.....	80 7	78 11	70 14	49 28	77 12
Euskalduna gehiago.....	72 8	73 13	59 24	40 36	69 13
Euskaldun ta Espainol/Frants.	55 13	59 20	45 33	27 50	55 21
Espainola /Frants gehiago....	45 19	54 22	35 43	27 56	48 27
Espainol/Frantsesa.....	31 28	41 31	18 62	19 66	31 47
EUSKALDUNAREN IZAERA					
Euskalerrian bizi ta lan egin	63 16	66 17	54 29	39 38	61 22
Euskaraz hitzegin.....	78 8	81 10	71 13	53 24	80 10
Familia euskalduna.....	62 14	70 14	45 36	32 47	56 21
Euskalerrian jaio.....	52 13	55 23	44 35	29 49	53 26
Euskaldun izateko borondate	73 9	73 13	62 19	42 36	74 12
Euskal nazioa defendatu.....	79 8	75 12	61 22	42 34	73 15

EUSKARAREKIKO JARRERAK	EUSKARAZKO IKASTORDU GEHIAGO	EJIAN GAUDENEZ DENOK EUSKARA HITZEGIN BEJIAR	EUSKARAREN ALDE JAIALDI ETA KANPAINAK	EUSKARA EZ UTZI BEJIAR EZ DAKIEN BATENGATIK	KOMUNIKA BIDEETAN EUSKARA GEHIAGO
	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka	Ados Aurka
HERRIKO BIZTANLEAK	1.443 1.816	1.831 1.303	2.848 575	1.256 1.243	1.777 852
Biztanleak -2.000.....	53 19	55 33	67 11	38 35	58 18
Biztanleak 2/10.000.....	49 22	53 34	62 13	36 32	53 21
Biztanleak 10/50.000.....	50 22	59 27	63 12	39 33	57 17
Biztanleak +50.000.....	38 36	42 43	44 20	31 34	34 30
Hiriburua.....	38 37	41 44	46 22	29 36	40 30
HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA					
Euskaldunak %0-20.....	38 34	38 46	45 21	29 34	37 31
Euskaldunak %20-40.....	48 26	56 30	58 14	34 38	54 20
Euskaldunak %40-60.....	51 22	63 23	68 10	44 29	59 15
Euskaldunak %60-80.....	55 15	68 22	76 6	45 33	69 12
Euskaldunak %80-100.....	58 14	69 23	75 7	42 34	71 12
HERRIKO ETORKIN KOPURUA					
Etorkinak %0-10.....	61 9	83 9	84 4	46 33	85 4
Etorkinak %10-20.....	45 25	57 30	60 13	41 33	55 18
Etorkinak %20-30.....	50 25	59 27	61 13	38 33	54 18
Etorkinak %30-40.....	39 37	44 38	48 20	30 35	42 27
IKASTETXE MOTA					
Ikastola.....	61 12	81 10	86 3	53 26	83 4
Publikoa.....	45 28	46 37	53 16	33 32	44 24
Pribatua.....	38 35	41 45	46 21	28 41	38 32
HIIZKUNTZA EREDUA					
X erdua.....	36 34	23 62	40 24	21 39	26 40
A erdua.....	39 35	45 39	45 21	31 35	38 28
Elebidun(lparal.).....	58 30	68 25	75 13	48 30	65 20
B erdua.....	50 21	60 24	69 22	35 35	61 12
D erdua.....	62 11	83 10	86 4	55 26	85 4
GURASOEN JATORRIA					
Biak Euskalerrian jaiotak.....	55 20	64 25	69 11	42 30	64 16
Ama EH jaiotak Aita kanpoan..	46 29	49 39	58 16	32 37	46 23
Aita EH jaiotak Ama kanpoan..	44 29	49 34	59 15	31 35	50 21
Biak EHtik kanpo jaiotak.....	34 36	34 48	39 21	27 39	31 32
GURASOEN EUSKARA EZAGUTZA					
Biak dakite euskara.....	62 12	78 14	81 5	51 27	80 6
Amak badaki Aitak ez.....	55 20	66 25	73 5	42 30	64 13
Aitak badaki Amak ez.....	52 25	61 25	67 14	31 37	58 16
Ez daki bietako inork.....	36 35	36 47	42 22	27 37	33 33
NONGOTZA					
Bizi naizen herrikoa.....	44 26	53 33	57 13	34 34	50 20
Probintziko.....	38 31	33 52	42 22	26 33	33 34
Euskalerriko.....	60 15	69 19	75 7	42 31	70 10
Espainiako.....	20 57	20 65	24 34	23 46	17 51
Europakoa.....	27 38	25 52	40 25	30 37	22 37
Mundu osokoa.....	27 49	26 56	37 31	28 37	21 40
HERRI SENTIMENDUA					
Euskalduna.....	57 17	68 21	71 9	43 29	67 13
Euskalduna gehiago.....	51 19	52 30	61 14	30 32	52 17
Euskaldun ta Espainol/Frant.	36 35	33 49	43 17	27 39	32 28
Espainol/Frantses gehiago...	24 45	26 63	39 22	20 45	17 41
Espainola/Frantsesa.....	13 62	12 72	20 40	23 46	13 58
EUSKALDUNAREN IZAERA					
Euskalerrian bizi ta lan egin..	42 32	48 39	52 22	31 37	44 30
Euskaraz hitzegin.....	55 17	71 19	74 6	47 28	71 12
Familia euskalduna.....	42 28	42 43	51 18	32 33	38 30
Euskalerrian jaiotak.....	33 40	34 49	40 22	26 37	31 33
Euskaldun izatekoberondate	52 19	58 28	67 10	36 36	59 15
Euskal nazioa defendatu.....	55 21	61 26	66 11	35 36	60 15

5.2.3.EUSKARAREKIKO JARRERAK GIZARTEZKO BALDINTZA EZBERDINEN ARABERA II

5.2.3.1. Gaztea bizi den herriko ezaugarriak

Herrietan, nahiz herrixka nahiz herri haundietan -50.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan-, zonalde euskaldunetan -euskaldunak %60a baino gehiago diren herrietan- eta etorkin kopurua %10a baino gutxiagokoa den herrietan, agertzen dira indartsuen euskararen aldeko jarrerak.

Euskararik gabe Euskalerririk ez dagoela, batez ere herri euskaldun eta etorkin gutxiko herrietan, eta hiri eta hiriburuak ez bestelako herrietan agertzen da. Hamarretik zortzik aipatzen du iritzi hau herri euskaldunetan eta hamarretik bederatzik etorkin gutxiko herrietan.

Euskara jakiteaz gain erabili egin behar dela ere, ezaugarri berdinetako herrietan agertzen da indartsuen. Herrietan hamarretik zazpi inguru ados dago, zonalde oso euskaldunetan -euskaldunak %80-100 diren herrietan-, hamarretik zortzi dira ados daudenak eta etorkinak %10 baino gutxiago diren herrietan, hamarretik bederatzik.

Herri hauean aipatzen da baita ere indartsuen *euskarak laguntzak behar dituela Jaurlearitzaren aldetik*. Herrietako gazteen hiru laurdenak, herri euskaldunenetako hamarretik zortzi eta etorkin gutxiko herrietako hamarretik bederatzik agertzen dira iritzi honekin ados. Baita ere *komunikabideetan euskara gehiago erabili behar dela*, herrietan ia hamarretik sei adierazten du, herri euskaldunetan hamarretik zazpi eta etorkin gutxiko herrietan hamarretik zortzik

Bestalde, *euskararen aldeko kanpaina eta jaialdien bidez ere euskara bultzatu behar dela*, herrietako eta herri euskaldunetako hamarretik zazpi eta etorkin gutxiko herrietako hamarretik zortzik aipatzen dute.

Euskara *Euskalerriko haur guzietan ikasi behar dutela* indartsuen adierazten duten gazteak, honako ezaugarri hauek dituzten herrietako gazteak dira batez ere: etorkin gutxiko herrietakoak -gazteen hamarretik zortzi ados izanik-, euskara ezagutza %40-80a duten herrietakoak -gazteen hiru laurdenek iritzi hau onartuz-, eta azkenik herri haundietakoak -10.000/50.000 biztanleko herriak-, bertako gazteen hamarretik sei baino gehiago ados agertuz.

Zenbait herritan ere agertzen dira euskararekiko aldeko jarrera adierazten duten beste zenbait iritzi. Etorkinak %10 baino gutxiago diren herrietako, hamarretik zortzi gazte uste dute *Euskalerrian gaudenez denok euskara hitzegi behar dugula*. Herri euskaldunetako -euskaldunak %60 baino gehiago- ia hamarretik zazpi gazte ere, iritzi berdina dute.

Indar gutxiagorekin agertzen dira beste iritzi batzuek gazteen artean, nahiko esanguratsuak izan arren ere; Etorkin gutxi dituzten herrietan ageri da *Euskalerrira lanera edo bizitzera datorrenak euskara ikasi beharra* edo *euskara ikasteko ikastordu gehiagoren beharra* -herri hauetako hamarretik sei gazte agertzen dira ados-.

Euskaraz ari denak ez dakien bat etorri arren euskara ez uztea, ez da gazteen artean oso indartsu adierazten den iritzia. Zonalde euskaldunetan, etorkin gutxiko guneetan eta herrietan aipatzen da beste inun baino gehiago iritzi hau -hamarretik lau inguru agertzen dira ados-.

Azpimarragarria da, herrietatik zenbat eta gehiago urrundu, bai herri euskaldunetatik eta bai etorkin gutxiko herrietatik, eta zenbat eta gehiago hurbildu hirietara edo herri erdaldun eta etorkin ugariko herrietara, orduan eta indar gutxiagorekin adierazten direla euskararen aldeko jarrerak.

5.2.3.2. Hezkuntza ezaugarriak

Batez ere ikastoletako ikasleak eta D eredia jarraitzen duten ikasleen artean nagusitzen dira euskararen aldeko jarrerak; ia ikasle hauek denek diote -hamarretik bederatzik-, *euskara gabe ez dagoela Euskalerririk*. Beraien artean hamarretik zortzi inguru ados agertzen dira ondorengo iritzi hauekin: *euskara jakiteaz gain erabili beharra, administrazioa, komunikabide eta kanpainen bidez euskarari laguntzea, haur guzietan euskara ikasi beharra* eta *Euskalerrian gaudenez denok euskaraz hitzegitea*.

Indar gutxiagorekin adierazten dituzte honako iritzi hauek: *euskarazko ikastordu gehiagoren nahia, Euskalerrira datorrenak euskara ikasi beharra*, edo *euskaldunak ez dakien batengatik euskara utzi beharra*. Ikastoletako nahiz D ereduko gazteen artean, hamarretik sei inguru ados agertzen dira iritzi hauekin.

Hezkuntza eredu bakoitzean euskararen presentzia jeisten den neurrian euskararen aldeko jarrerek ere indarra galtzen dute. Iparraldeko eredu elebiduna esan dezakegu hegoaldeko B ereduaren antzeko euskara orduak dituela, hala ere iritzi batzuetan emaitza ezberdinak aurkitzen dira bertako ikasleen artean. Iparraldeko errealitatetik begiratuta iritzi hauek esanahi ezberdina dutela kontutan izan behar dugu.

Aipatu beharrekoa da, X ereduan edo euskararik eskaintzen ez den ereduan agertzen dela ahulen euskararen aldeko jarrera. Adibidez, bertako ikasleen erdiak inguru aurka daude: *Euskalerriko haur guzietan euskara ikasi beharrezkin, komunikabideetan euskara gehiago erabiltzearekin, Euskalerrian gaudenez denok euskara hitzegin beharrezkin* e.a.

5.2.3.3. Gurasoen ezaugarriak

Bi gurasoak Euskalerrian jaiok izatea baino eragin haundiagoa du gurasoen euskara ezagutzak, euskararen aldeko jarrera beren seme-alabei helaraztean.

Batez ere bi gurasoak euskara dakiten kasuetan nagusitzen dira euskararen aldeko jarrerak. Guraso hauen seme-alaben hamarretik zortzik, honako iritziekin adostasuna agertzen du: *euskara gabe ez dagoela Euskalerririk, euskara jakiteaz gain erabili behar dela, Jaurlaritzak euskarari lagundu beharra, komunikabideetan gehiago erabili beharra* edo *euskararen aldeko kanpainen beharra*. Bestalde, guraso euskaldunak dituztenen hamarretik zazpi inguruk diote: *euskara Euskalerriko haur guzietan ikasi behar dutela eta Euskalerrian denok euskara hitzegin behar dugula*.

Bi gurasoek Euskalerrian jaiok diren kasuetan nagusitzen dira baita ere lehen aipatutako iritzia, nahiz eta adostasun maila zerbait txikiagoa adierazi, euskara dakiten gurasoak dituztenekiko. Bi gurasoak Euskalerrian jaiok dituztenen hamarretik zazpi, euskara gabe ez dagoela Euskalerririk edo euskara Jaurlaritza eta komunikabideek bultzatu behar dutela, adierazten dute.

Gurasoetako bat edo biak Euskalerritik kanpo jaiok diren neurrian edo gurasoetako bat edo biak euskara ez dakiten neurrian, euskararen aldeko jarrerak indarra galtzen dute. Euskara dakiena ama denean euskararen aldeko jarrera zerbait indartsuago agertzen da aita denean baino. Gurasoen jatorriari dagokionez berriz, Euskalerrian jaiok aita edo ama izatean ez da euskararekiko jarrera aldatzen.

5.2.3.4. Herri sentimendua

Gazteen nongotza Euskalerria denean agertzen dira indartsuen euskararen aldeko ondorengo jarrerak: *euskara gabe ez dagoela Euskalerririk, euskara jakiteaz gain erabili egin behar dela, Jaurlaritzak euskarari lagundu behar diola, euskararen alde kanpainak egin behar direla* edo *komunikabideetan gehiago erabili behar dela*. Euskalerrikoak direla dioten gazteen hamarretik zazpi eta zortzi bitartean, ados agertzen dira euskararekiko iritzi hauekin.

Herri sentimendua adierazterakoan bere burua euskalduntzat duten gazteak dira gehienbat euskararen aldeko honako iritzia adierazten dituztenak: *Jaurlaritzak euskarari lagundu behar diola, euskara gabe ez dagoela Euskalerririk, euskara jakiteaz gain erabili egin behar dela* e.a. Euskaldun sentitzen diren gazteen artean, hamarretik zortzi inguruk onartzen ditu iritzi hauek.

Euskaldun izaera euskaraz hitzegitearekin lotzen duten gazteak dira euskararen aldeko jarrerak indartsuen adierazten dituztenak; *euskara gabe ez dagoela Euskalerririk* edo *euskara erabili egin behar dela*, gazte hauen hamarretik zortzik adierazten digute. Bestalde, *euskarak laguntzak behar dituela, administrazioaren, kanpainen edo komunikabideen bidez* e.a., gazte hauen hamarretik zazpik adierazten dute.

Euskaldun izaera euskal nazioa defendatzearekin lotzen dutenek ere indartsu adierazten dute *administrazioak euskarari lagundu beharra* -ia hamarretik zortzik-. Bestalde, *euskarazko ikastordu gehiago* eskatzean ere, euskaldun izaera euskararen oinarritzen dutenen parean adierazten dute bere adostasuna, euskal nazioa defenditzean oinarritzen dutenek. Gazte hauen erdiak dira euskarazko ikastordu gehiago eskatzen dituztenak.

Gazte hauen nongotza Euskalerriarekin lotzen duten gazteen artean agertzen dira indartsuen euskararen aldeko jarrerak. Espainol edo Frantsez sentitu beharrean euskaldun sentitzen direnen artean eta euskaldun izaera euskararen ezagutzan oinarritzen dutenen artean nagusitzen dira euskararen aldeko jarrerak.

Zenbat eta euskaldunago sentitu gazteak, orduan eta indartsuago adierazten dituzte euskararen aldeko jarrerak.

Esanguratsua da beraz herri sentimenduak euskararekiko jarreretan duen eragina, herri sentimendu ezberdinak euskararen aurrean jarrera bat ala bestea eragiten baitu.

5.2.4. GAZTETXOEN IDAZLANETAKO EUSKARAREKIKO JARRERAK

Jarreraren neurketa ezberdinetan, jasotako erantzunak erantzulearen pentsakera zuzentasunez jasotzearen inguruan arazo berdintsuak aurkitzen ditugu;

- Haloizazio efektua deitzen dena, erantzuleak gizarteak baloratzen dituen erantzunak emateko joera izaten duelako.
- Erantzuleak, ikerketaren helburua susmatu dezake eta honen arabera eman bere erantzuna. Ikertzaileak edo galdekizuna egin den inguruneak edo giroak ere eragin dezake erantzulearengan.
- Gai baten inguruko arlo eta ikuspegi guztiak bildu behar ditu jarreraren azterkerarako test egoki batek¹.

¹ C. BAKER: *Attitudes and languages*. Multilingual matters, Clevedon, 1992, 19 orr.

Arazo hauek kontutan izanik, beste era bateko neurketa egin nahi izan dugu. Hau dela eta, gazteen jarrerak galdera ireki bidez aztertzea egokia iruditu zaigu eta honetarako gazteek euskarari buruz idatzitako idazlanak aztertuz ezagutu ditugu gazte hauek euskarari buruz dituzten jarrerak.

Gazteei eskatzen zitzaien idazlanak honela zion: *Zer da zuretzat Euskara?*

Jarrerak barnekoak izatean ezin dira neurtu zuzeneko behaketa baten bidez, portaera bat neurtu daitekeen bezala. Bestalde, jarreraren neurketan eragin handia izan dezake galderaren eraketak erantzuleek emango diguten erantzuncan.

Jarrera hauek neurtzerakoan, pertsonari libreki adierazten utziz gero, erantzulearen pentsakeratik urruntzeko arriskua gutxituko genuke.

Ez dizkiegu gazte hauei idazlanetan erantzun posibleak aurkeztu, euskararen gaia eman eta norberak aipatu ditu gai horrekiko dituen iritziak edo usteak. Erantzunak zehaztuta emanez gero, gaztea bultzatu egin ohi da iritzi bakoitza erantzutera, baina erantzun ugariak lortu ditzakegun arren, gaztearen errealtatetik urruntzeko arriskua izan dezakegu.

Galdera itxi batetan erantzun posibleak zehaztuta ematen zaizkio erantzuleari, honela erantzuleak aztertu egiten ditu erantzun posibleak eta horietatik bat aukeratzen du, normalean bere pentsamendutik gertuen dagoena nahiz benetan berak uste duena ez adierazi. Galdera itxi baten bidez jasotzen ditugun erantzunak ugariagoak dira baina erantzun hauen esanahia ezberdina izan daiteke, galdera ireki bat erabiliaz jaso dezakegunetik ².

Idazlanen bitartez gaztearen barneko pentsamendua argiago ezagutu dezakegula uste dugu, galdekizunen bidez baino.

Gazte hauek beraientzat euskara zer den azaltzen digute idatzi dizkiguten idazlan hauetan. Euskararen deskribapena egitean euskarekin beraiek duten harremana nahiz euskara ikasi eta erabiltzeko dituzten arrazoi eta motibazioak azaltzen dizkigute.

Gazte hauen euskararekiko harremana ideia ezberdinez azaltzen digute, nolabait beraiek bizi diren gizarte inguruan zabalduak dauden euskararekiko arrazoiak. Beren gurasoei, irakasleei, andereñoiei nahiz lagunei entzunak eta inguru

² SHUMAN eta al.,(1981) adibidea aipatzen digute liburu honetan, galdera ireki bat eta galdera itxi baten arteko emaitzak alderatuz. Estatu Batuen arazo larriena krimena eta biolentzia zela %16ak aipatzen zuen galdera ireki batetan eta erantzun hau aukeratzen zutenak %35raino iristen ziren galdera itxi ezker.

L.LUDOVIC, A.SALEM: *Analyse statistique des données textuelles. Questions ouvertes et lexicométrie*. DUNOD, Paris, 1988, 11 orr.

horretatik jaso dituzten euskararekiko kontzeptualizazioak izan daitezke. Kontua ordea zera da: beraiek adierazten dizkigutela iritzi horiek, ikerlariaren galdera adierazpenen eragile izan beharrean.

Euskararekiko ideia ezberdin hauek neurtu ahal izateko hitzekin jokatu dugu, idazlanetan gai ezberdinak jorratzeko erabili diren hitzak aztertuaz. Aurrena, aztergai diren hitz hauek eta euskara elkarrekin ageri diren pasarteak bereizi ditugu. Bien artean hamar bat hitzen tartea utziaz gehienez.

Adierazi beharrekoa da bestalde, era honetara aztertu diren iritzi ezberdinak, hitz hauetako bakoitzak bere testuinguruan duten esanahiaren arabera sailkatu direla. III Eranskinean aurkezten dugu iritzi ezberdinen sailkapena.

Gazte hauek, ikuspuntu ezberdinetatik zehazten digute euskara, jarrera ezberdinak baidituzte euskararekiko.

2.4.TAULA: GAZTETXOEN IDAZLANETAKO ADIERAZPENAK LURRALDEKA

EUSKARAREKIKO JARRERAK	GUZTIRA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	AUTONOMI ELKARTEA	NAFARROA	IPARRALDEA
GUZTIRA	3.442	429	1.036	1.173	2.638	514	290
EUSKARA LANA TOPATZEKO ETA IKASKIETAK ATERATZEKO	582 %16.9	88 %20.5	172 %16.6	263 %22.4	523 %19.8	49 %9.5	10 %3.4
EUSKARAK EZ DU EZERTARAKO BALIO	203 %5.8	48 %11.1	57 %5.5	36 %3.0	141 %5.3	21 %4.0	41 %14.1
EUSKARA GURE HIZKUNTZA	236 %6.8	18 %4.1	95 %9.1	102 %8.6	215 %8.1	14 %2.7	7 %2.4
EUSKARAK EUSKALDUN EGITEN GAITU	236 %6.8	26 %6.0	65 %6.2	133 %11.3	224 %8.4	8 %1.5	4 %1.3
EUSKARA GORDE BEHARREKO TRADIZIOA	84 %2.4	9 %2.0	27 %2.6	35 %2.9	71 %2.6	3 %0.5	10 %3.4
EUSKARA HIZKUNTZAZAHARRA	209 %6.0	11 %2.5	59 %5.6	94 %8.0	164 %6.2	26 %5.0	19 %6.5
EUSKARA BETIKO HIZKUNTZA,OHIGURA	166 %4.8	11 %2.5	54 %5.2	58 %4.9	123 %4.6	8 %1.5	35 %12.0
EUSKARA HARREMANAKIZATEKO, HIZKUNTZA BAT GEHIAGO JAKITEKO	131 %3.8	18 %4.1	26 %2.5	32 %2.7	76 %2.8	30 %5.8	25 %8.6
EUSKARA EUSKALERRIAREN HIZKUNTZA	144 %4.1	21 %4.8	58 %5.5	55 %4.6	134 %5.0	2 %0.3	8 %2.7
GIZARTE TRADIZIONALAREN HIZKUNTZA	213 %6.1	11 %2.5	63 %6.0	59 %5.0	133 %5.0	32 %6.2	48 %16.5
EUSKARA IKASTERA BEHARTUTA DAUDE	201 %5.8	68 %15.8	55 %5.9	49 %4.1	172 %6.5	29 %5.6	0
NAHIAGO BESTE HIZKUNTZAKIKASTEAK	161 %4.6	19 %4.4	30 %2.8	30 %2.5	79 %2.7	55 %10.7	27 %9.3

5.2.4.1. Eragile izanerazleak

Euskarak euskaldun egiten gaitu, euskara gure hizkuntza edo Euskalerriko hizkuntza da, bestalde euskara gure arbasoengandik jasotako hizkuntza zaharra da. Adierazpen hauei, norbere izatea edo izanahiari loturik daudenez, *eragile izanerazleak* deitu diegu.

Alde batetik euskara norbere izanahiari lotua agertzen da, euskara norberaren hizkuntzat hartuaz:

[...] Ni euskalduna naiz, alabaina nere hizkuntza euskara da.[...]
(2.287.IDATZIA)

Bestalde euskara euskaldun egiten gaituen hizkuntza da, beraz euskara beharrezkoa da euskaldun izateko:

[...]Euskera Euskaldunon hizkuntza, Euskaldun egiten gaituena.[...][...]
Euskera Euskaldunen hizkuntza bada eta beraz Euskaldun egiten gaituena euskera barik ez ginateke Euskaldunak izango.[...][...] Hau dalata, eta Euskaldun konsideratzen bagara gure hizkuntza Euskera egin behar dogu.[...] (1.448.IDATZIA)

[...] No me considero vasca vasca; sino que bueno algo si me considero pero como no lo se hablar, no me puedo considerar muy vasca.[...]
(1.953.IDATZIA)

Euskararik gabe ez litzateke Euskalerririk izango, euskara baita bere oinarria eta funtsa:

[...] Euskera oso garrantzitsua da guretzat, zeren euskera bait da Euskal herria, Euskal Herri egiten duena. Euskal Herriak duen kulturarik nabarmenena eta haundiena euskera da. [...] (462.IDATZIA)

[...] Euskadi sin el euskera no sería nada. Es como una madre sin su hijo. Yo creo que el euskera se tiene que seguir enseñando, para toda la vida.[...] (940.IDATZIA)

[...]Euskara da Euskal Herriko hizkuntza, euskera ez balitz hemen hitzegingo, ez litzateke Euskal Herria izango, baizik eta Euskal hitzik gabekoa izango zen. Euskal Herrian euskaraz hitzegin behar dela pentsatzen dugu euskaldunok.[...] (1.824.IDATZIA)

[...] Pour moi c'est une langue importante et qu'il ne faudra pas la pendre car le pays basque sans le basque ne serai plus le pays basque. J'aime c'ette langue et j'aimerais le pratiquer mais ce serait une langue de plus avec le francais, l'Espagnol et l'anglais.[...] (3.237.IDATZIA)

Gure arbasoengandik jasotako altxorra da beste batzuentzat euskara, aintzinatik guganaino iritsi den hizkuntza zaharra:

[...] Euskarataz jedeak esango lukeena munduan dauden hainbat eta hainbat hizkuntzetako beste bat dela, guztietatik deberdina, baina hizkuntza bat soilik. Guretzat, Euskal Herriko biztanle eta euskal maitaleentzat euskara gure arbasoen hizkuntza zahar eta dotorea da. Euskara munduko hizkuntzetako zaharrenetarikoa da eta horregaitik harro gaude eta miresten dugu.[...] (659.IDATZIA)

[...] Además de todo ésto, es la lengua que se ha ido hablando en el País Vasco, hace bastantes años y pienso que no debería desaparecer.[...] (1.332.IDATZIA)

[...] Le basque est une langue assez importante car elle doit exister depuis longtemps et ça serait dommage qu'elle disparaisse car si elle disparaît, toutes ses origines aussi.[...] (3.181.IDATZIA)

[...] Beste herri guztiek euskaldunak ezik beraien hizkuntza egiten dute alde guztietan guk ordea geuretan ere ez dugu egiten euskararik. Gure arbasoengandik baino ez bada zegi dezagun euskara egiten. Arbasoen aleginak, ez dezaten alfer alferrik izan.[...] (698.IDATZIA)

5.2.4.2. Trukeordaineko eragileak

Beste batzuek berriz, euskara lana topatzeko edo tituloa eskuratu eta beren ikasketak aurrera ateratzeko baliagarri zaien zerbait bezala ulertzen dute. Euskara erabilgarria zaie baita ere euskal hiztunekin harremanak izateko, hizkuntza bat gehiago jakin ahal izateko e.a. iritzi guzti hauetan euskararen bidez eskuratu daitekeen beste zerbaiti lotua agertzen da euskara, horregatik esan dezakegu *trukeordaineko eragileak* direla.

Euskara lan aukerei lotua agertzen da:

[...] Euskera ere oso baliogarria izaten da lanpostuak bilatzeko eta horrela jende asko bultzatzen du euskeraz hitzegitera eta ikastera.[...] (20.IDATZIA)

[...] Para el día de mañana, igual, el Euskera puede ayudarnos, porque para meterte en todos los trabajos exigen el Euskera, hasta para meterte de barrandero.[...] (33.IDATZIA)

[...] El interes que muestra es bueno, porque se que si del euskera saco algo va a merecer la pena, para mi futuro creo que si yo lo supiera, tendre muchos más trabajos, aunque yo igual no utilize el euskera nada más que para trabajar, porque de mi familia nadie lo sabe, ni mis amigos.[...] (621.IDATZIA)

[...] Dentro de unos años ninguno encontrara puesto de trabajo sino tiene algo idea de Euskera.[...] (1.141.IDATZIA)

Ikasketak aurrera ateratzeko edo gizartean eskatzen diren tituloen jabe egiteko ere baliagarri zaie euskara:

[...] Yo voy a estudiar euskera porque hay que estudiarlo pera poder seguir estudiando cualquier curso. Sino no lo estudiaba.[...] (291.IDATZIA)

[...] Y eso son muchos años. Yo creo que si no tienes ni idea del euskera es como no tener graduado escolar. El que no tiene graduado escolar se va apique y el que no sabe euskera es igual.[...] (940.IDATZIA)

[...] Euzkararen erabilera oso garrantzizua da oraingoan euzkadin edozein ikasketa egiteko euzkararen tituloa ezkatzen dute lan irtenbide oso garrantzitsuak izaten ditu euzkara. [...] (688.IDATZIA)

Euskara baliagarri zaie beste batzuei berriz, besteekiko harremanak izateko, edo hizkuntza bat gehiago jakiteak eskeintzen dituen aukeraz baliatzeko, lagunak egiteko e.a.:

[...] Y cuando voy de viaje con eso de que nos juntamos todos los vascos ago muchos amigos.[...] (259.IDATZIA)

[...] J'aime cette langue car on communique, le plus souvent dans mon village, de cete iangue.[...] (3.192.IDATZIA)

[...] Batzutan, ikusten ditu danean nere gelako lagun batzu ni baino lehenago ateratzen eskolatik, ez dutelako euskarako klaserik, jelos nago, bainan gero pentsatzen dut nik hizkuntza bat gehiago dakitela eta egiazkiz pena merezi duela.[...] (3.314.IDATZIA)

[...] Para aprender Euskera tienes que estudiar mucho y cuando lo sabes te quedas tranquilo porque ya sabes otro idioma.[...] (90.IDATZIA)

[...] También veo bien que haya clases de euskera para ir después del colegio, así aprendes más y puedes presumir que sabes otro idioma.[...] (99.IDATZIA)

Jarrera izanerazleak, Txepetxek aipatzen duen hizkuntza gutxiengotu bat ikasi eta erabiltzeko motibazioarekin edo izan nahiarekin zer ikusia izango luke. Bai erabileratik edo bai motibazio kultural batetik abiatuta, hiztunak hizkuntza bat beretzat hartzen duenean eta hizkuntza horretan izan nahia duenean, jarrera izanerazlea izango luke.

W.Lambertek aipatzen duen motibazio orientabide integratzailearekiko ezberdina litzateke berriz jarrera izanerazlea. Lambertek definitzen dituen motibazio orientabide integratiboa eta instrumentalaren artean bereiztea ez da erraza. Adibidez beste hiztunekin harremanak izan nahia, motibazio integratiboa litzateke Lambertek esanetan, euskaldunekin harremanak izateak euskal munduan integratu nahia adierazten baitu.

Besteekiko harremanak izatea eta norbere izanahia ezberdina da ordea, nahiz eta beste taldeko hiztunekin harremanak izateak taldekide edo kulturadun izatera bultzatu dezakeen. Hizkuntza berria besteekiko harremanak izateko baliagarri zaiolako ikasten badu, kasu honetan trukeordaineko motibazio litzateke.

Euskal gazteen idazlanetan jaso dugun eragile izanerazlea, kultur talde batetan integratzeko nahia baino zabalagoa litzateke.

5.2.4.3. Ohitura

Bestalde, badira euskara *ohituraz* erabiltzen dutenak ere, hauentzat euskara betidanik erabili edo entzun duten hizkuntza bat da.

Hauek bere gizarte inguruan betidanik erabili den hizkuntza bat bezala agertzen digute euskara, lehenengo ikasi duten hizkuntza edo gizarte honetan betidanik erabili dena.

[...] Euskara betidanik eduki dugu gure artean. jai ginanetik gure hizkuntza Euskara izan da. Famili artean, alderdi guztietan entzuten da Euskara. Guk behintzat, nire ustez, Euskarari balorazio handia ematen diogu, naiz eta beste hizkuntza pare bat ikasi.[...] [...] Euskera ba, nola esango nuke..Euskera guretzat, loreak eguzkia behar duen bezala edo txoriak hegoak, egan egiteko, guk Euskara bizi ahal izateko behar dugu.[...] (468.IDATZIA)

Hemen bildu ditugun iritzi batzuek euskara bizitzeko beharrezkoa dela diote, beren biziaren zentzua eta funtsa litzateke beraz euskara.

Badira ordea euskara betiko hizkuntza izanik, ohituraz erabiltzen dutela diotenak ere, beti horrela izan delako edo euskara erabiltzeko ohitura bat egon delako besterik gabe.

[...] Lagunekin ere beti euskeraz hitzegiten dugu ohitura bezela daukagulako. Nere anaiak gutxitan erderaz hitzegitena du bere lagunekin. Erderaz hitzegitea ez zait asko gustatzen baina inglesa gustatzen zait. Baina gehiena euskera gustatzen zait.[...] (1.578.IDATZIA)

[...] Dans mon entourage on parle Basque car mes parents le parle avec moi et mes frères et soeur. Il me semble qu'il est moyennement important de parler Basque bien, je suis contente de l'avoir apprise quand j'étais petite. Oui je sais le Basque.[...] (3346.IDATZIA)

[...] Quand j'étais petite je savais le basque, mais je l'ai oublié, alors je le reapprend.[...] (3.355.IDATZIA)

Txepetxek, azken jarrera mota honi *motibazio naturala* deitzen dio, berezkoa den zerbait gizakiarentzako eta ezberdindu egiten du motibazio hau motibazio razional edo kultural batetatik.

Hauek, Txepetxen ustez ez dute hizkuntzaren jabetzaren bigarren zirkuitoa bete ahal izateko hainako kontzientzia linguistikorik, ez dira hizkuntzaren balio kulturalaz jabetu, berezko balioa bakarrik aitortuz.

5.2.4.4. Gizarte tradizionalari lotua

Gizarte tradizionalari loturik eta mundu modernotik berezita, baserrigiroan eta helduen munduan kokatzen dute euskara.

[...] Actualmente el euskera se habla principalmente en los pueblos y caserios vascos. También el euskera es asignatura, en colegios y otros centros de enseñanza, algunos de estos como las ikastolas, imparten sus clases en Euskera, (excepto en Ingles y alguna otra). En el País Vasco, el euskera es muy importante para adquirir un buen trabajo.[...] (198.IDATZIA)

[...] El euskera, solo lo hablan cuatro viejos en un caserío perdido.[...] (1.210.IDATZIA)

[...] Hala ere, haur eta aiton amonen gizartean euskera asko erabiltzen da, eta gurasoak ere, nahiz eta beraien artean erderaz egin, hurrei euskeraz hitzegiten die. Arazoa gaztedia da.[...] (1.769.IDATZIA)

[...] El euskera creo que sólo se utiliza en los pueblos pequeños y en los caseríos. Creo que el euskera, como todas las lenguas, sirve para hablar de toda clase de temas. Para mis padres es muy útil aprender el euskera pero para mi es todo lo contrario.[...] (2.168.IDATZIA)

[...] Dans les campagnes les paysans parlent le basque mais il serait bien que dans les villes aussi! [...] (3.435.IDATZIA)

5.2.4.5. Baliorik ez

Azkenik esan behar dugu, badirela euskarari *baliorik aurkitzen ez* diotenak ere, euskara ikasteko beharrik sentitzen ez dutenak eta atzerriko beste hizkuntza bat ikastea, euskara ikastea baino errentagarriagoa ikusten dutenak:

[...]A mí el euskera es un idioma que no me gusta porque me parece que con él no vamos a llegar a ninguna parte ya que el euskera sólo vale para buscar trabajo en el país vasco pero en cambio si te vas a otro sitio no se habla el euskera sino otros idiomas.[...] (84.IDATZIA)

[...] No me parece muy importante aprenderlo por que si sales del pais Vasco no te vale para nada. (No se lo oigo hablar a nadie).[...] (1.118.IDATZIA)

[...] Nire ustez euskera ez da hizkuntz Baliagarria. Bizitzera joan Bazara eta ez Da Euskera toki beherrezkoa. Baina, beno pentsatzen dut adibidez lan bat aurkitzeko.[...] (992.IDATZIA)

[...] El euskera solo me sirve como asignatura y no para hablar con nadie porque todos los que conozco saben tanto o menos que yo y hablamos en castellano. Tengo suerte de que a mi no me parezca tan dificil y lo apruebo siempre en el colegio..[...] (297.IDATZIA)

[...] Moi, je trouve que le basque est une belle langue mais pas indispensable. Avant tout, il faut savoir le fraçais.[...] (3.195.IDATZIA)

[...] Yo prefiero estudiar Inglés, Aleman mucho antes de estudiar Euskera, porque son idiomas que tienen mas futuro y se hablan en todo el mundo.[...] (279.IDATZIA)

Aipatzekoa da, jarrera izanerazeak batik bat Autonomi Elkartean agertzen direla. Euskarak euskaldun egiten gaituela, gehienbat Gipuzkoan agertzen da eta euskara gure hizkuntza edo Euskalerraren hizkuntza dela bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan. Euskara hizkuntza zaharra denez gorde beharreko tradizioaren iritzia Iparraldean ere agertzen zaigu.

Lana eta ikasketei loturiko trukeordaineko jarrerak batez ere Autonomi Elkartean agertzen zaizkigu. Harremanak izateko edo hizkuntza bat gehiago jakiteko euskara baliagarri zaiela diotenak berriz Iparraldean gehiago agertzen dira. Iparraldean agertzen da batik bat euskara betikoa edo ohiturazkoa den iritzia.

Euskararen balio ezaren iritziak, Iparraldean, Nafarroan eta Araban agertzen dira batez ere, azken lurralde honetan nagusitzen delarik euskara ikastera behartuta sentitzen direnen iritzia. Euskara baino atzerriko beste hizkuntzak ikastea nahiago izatea, batez ere Nafarroan eta Iparraldean agertzen da.

5.2.5. IDAZLANETAKO EUSKARAREKIKO JARRERAK GIZARTEZKO BALDINTZA EZBERDINEN ARABERA

Jakina da euskararekiko iritzi hauek gizarteko gune batzuetan gorpuzten direla, horregatik iritzi ezberdin hauetan eragina duten gizartezko aldagai batzuek aztertu ditugu.

Trukeordaineko jarrerak ikastetxe pribatu eta publikoetan agertzen dira batez ere. Lana edo ikasketak aurrera ateratzeko euskararen balioa, batik bat A ereduan nagusitzen da eta harremanak izateko edo hizkuntza bat gehiago ezagutzeko X ereduan, hau da eskolan euskararik jasotzen ez dutenen artean -2.5.Taulan ikusi daitekenez-.

Euskara ezagutzen dutenak %40a baino gutxiago diren herrietan, etorkinen kopurua %20a baino haundiagoa den herrietan eta hirietan nagusitzen dira, euskara lan aukera eta ikasketa tituloekin lotzen dutenak.

Euskara harremanak izateko edo hizkuntza bat gehiago ezagutzeko balioa berriz. herri oso euskaldunetan nahiz herri oso erdaldunetan, etorkin ugari dituzten herrietan, eta herrixka, herri txiki nahiz hiriburuetan agertzen da.

Jarrera izanerazeak batik bat ikastoletan eta D eredua jarraitzen duten ikasleen artean nagusitzen dira. Batez ere zonalde euskaldunetan -euskaldunak %60a baino gehiago diren herrietan-, eta etorkinen kopurua gehienez %20koa duten herrietan. Jarrera izanerazeak, bai herri txiki eta bai herri haundietan, 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan nagusitzen dira. Bestalde, 2.000 biztanletik gora dituzten herrietan indartsuagoak dira jarrera hauek herrixketan baino.

Euskara betidanik erabili izan den hizkuntzat eta ohituragatik erabiltzen dutenak, batik bat Iparraldeko eredu elebiduna jarraitzen duten ikasleen artean agertzen dira. iritzi hau agertzen da baita ere: ikastoletan eta D eredua jarraitzen dutenen artean, herri euskaldun eta etorkin gutxiko herrietan, eta 2./10.000 bitarteko biztanleak dituzten herrietan.

Euskararen balioeza aipatzen dutenak, gehienbat ikastetxe pribatua eta, X eredua edo A eredua jarraitzen duten ikasleak dira. iritzi honetakoak, herri erdaldun eta etorkin ugariko hirietan nahiz hiriburuetan bizi diren gazteak dira batez ere. Euskara ikastera behartuta sentitzen direnak, A ereduko ikasleak dira batik bat. X eredukoak berriz, euskararen orde besterik hizkuntzak ikastearen nahia adieraztean nagusitzen dira.

2.5.TAULA: GAZTETXOEN IDAZLANETAKO ADIERAZPENAK GIZARTEZKO BALDINTZEN ARABERA (Zeharkako chunckoak)

GIZARTEZKO BALDINTZAK	GUZTI RA 3.442	EUSKARA LANA TOPATZEKO	EUSKARAK EZ DU EZERTARAKO BALIO	EUSKARA GURE HIZKUNTZA DA	EUSKARAK EUSKALDUN EGITEN GAITU
		Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %
IKASTETXE MOTA IKASTOLA	652	31 % 4.7	5 % 0.7	88 % 13.4	117 % 17.9
PUBLIKOA	1568	297 % 18.9	87 % 5.5	73 % 4.6	74 % 4.7
PRIBATUA	1222	254 % 20.7	111 % 9.0	75 % 6.1	45 % 3.6
HIZKUNTZA EREDUA A EKEDUA	1519	438 % 28.8	132 % 8.6	72 % 4.7	38 % 2.5
B EREDUA	501	71 % 14.1	7 % 1.3	41 % 8.1	43 % 8.5
D EREDUA	741	27 % 3.6	5 % 0.6	108 % 14.5	150 % 20.2
X EREDUA	661	46 % 6.9	59 % 8.9	14 % 2.1	4 % 0.6
IPARRAL EREDU ELEBIDUNA	20	0	0	1 % 5	1 % 5
HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA EUSKALDUNAK %0-20	1708	255 % 14.9	142 % 8.3	71 % 4.1	53 % 3.1
EUSKALDUNAK %20-40	645	203 % 31.4	42 % 6.5	49 % 7.5	41 % 6.3
EUSKALDUNAK %40-60	520	97 % 18.6	9 % 1.7	49 % 9.4	48 % 9.2
EUSKALDUNAK %60-80	377	25 % 6.6	6 % 1.5	47 % 12.4	30 % 7.9
EUSKALDUNAK %80-100	192	2 % 1.0	4 % 2.0	20 % 10.4	64 % 33.3
HERRIKO INMIGRAZIO KOPURUA ETORKINAK %0-10	178	0	0	20 % 11.2	34 % 19.1
ETORKINAK %10-20	679	91 % 13.4	19 % 2.7	77 % 11.3	92 % 13.5
ETORKINAK %20-30	1105	313 % 28.3	60 % 5.4	84 % 7.6	66 % 5.9
ETORKINAK %30-40	676	119 % 17.6	62 % 9.1	34 % 5.0	32 % 4.7
HERRIKO BIZTANLE KOPURUA BIZTANLEAK - 2.000	240	42 % 16.6	14 % 5.8	10 % 4.1	17 % 7.0
BIZTANLEAK 2/10.000	713	79 % 11.0	28 % 3.9	50 % 7.0	60 % 8.4
BIZTANLEAK 10/50.000	1112	188 % 16.9	42 % 3.7	106 % 9.5	99 % 8.9
BIZTANLEAK + 50.000	331	74 % 22.3	32 % 9.6	16 % 4.8	3 % 0.9
HIRIBURUA	1046	201 % 19.2	87 % 8.3	54 % 5.1	57 % 5.4

GIZARTEZKO BALDINTZAK	GUZTI RA 3.442	EUSKARA GORDE BEHARREKO TRADIZIOA	EUSKARA HIZKUNTZ ZAHARRA	EUSKARA BETIKOA OHITURA	HAREMANAK IZATEKO HIZKUNTZA BAT GEHIAGO JAKITEKO
		Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %
IKASTETXE MOTA IKASTOLA	652	28% 42	85% 13	63% 96	1% 01
PUBLIKOA	1568	32% 20	60% 38	71% 45	69% 44
PRIBATUA	1222	24% 19	64% 52	32% 26	61% 49
HIZKUNTZA EREDUA A EREDUA	1519	20% 13	29% 19	9% 05	63% 41
B EREDUA	501	19% 37	55% 109	46% 91	13% 25
D EREDUA	741	35% 47	104% 140	78% 105	1% 0
X EREDUA	661	8% 12	19% 28	28% 42	53% 80
IPARRAL EREDU ELEBIDUNA	20	2% 1	2% 1	5% 25	1% 5
HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA EUSKALDUNAK %0-20	1708	24% 14	57% 33	30% 17	80% 46
EUSKALDUNAK %20-40	645	17% 26	31% 48	32% 49	25% 38
EUSKALDUNAK %40-60	520	14% 26	36% 69	38% 73	11% 21
EUSKALDUNAK %60-80	377	21% 55	49% 129	40% 106	6% 15
EUSKALDUNAK %80-100	192	8% 41	36% 187	26% 135	9% 46
HERRIKO INMIGRAZIO KOPURUA ETORKINAK %0-10	178	9% 50	34% 191	21% 117	0
ETORKINAK %10-20	679	34% 50	63% 92	53% 78	10% 14
ETORKINAK %20-30	1105	17% 15	48% 43	38% 34	39% 35
ETORKINAK %30-40	676	11% 16	19% 28	11% 16	27% 39
HERRIKO BIZTANLE KOPURUA BIZTANLEAK - 2.000	240	5% 20	18% 75	13% 54	11% 45
BIZTANLEAK 2/10.000	713	20% 28	53% 74	60% 84	29% 40
BIZTANLEAK 10/50.000	1112	41% 36	104% 93	71% 63	30% 26
BIZTANLEAK + 50.000	331	1% 03	0	5% 15	13% 39
HIRIBURUA	1046	17% 16	34% 32	17% 16	48% 45

GIZARTEZKO BALDINTZAK	GUZTI RA 3 442	EUSKARA EUSKALERRIKO HIZKUNTZA	GIZARTE TRADIZIONALAREN HIZKUNTZA	EUSKARA IKASTERA BEIARTUTA	NAHIAGO BESTE HIZKUNTZAK IKASTEA
		Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %	Zenbat idazlan %
IKASTETXE MOTA IKASTOLA	652	59 % 9 0	40 % 6 1	3 % 0 4	4 % 0 6
PUBLIKOA	1568	47 % 2 9	99 % 6 3	87 % 5 3	62 % 3 9
PRIBATUA	1222	38 % 3 1	71 % 6 0	111 % 9 0	95 % 7 7
HIZKUNTZA EREDUA A EREDUA	1519	49 % 3 2	62 % 4 0	166 % 10 9	69 % 4 5
B EREDUA	501	25 % 4 9	28 % 5 5	4 % 0 7	9 % 1 7
D EREDUA	741	63 % 8 5	51 % 6 8	3 % 0 4	5 % 0 6
X EREDUA	661	6 % 0 9	70 % 10 5	28 % 4 2	78 % 11 8
IPARRAL EREDU ELEBIDUNA	20	1 % 5	2 % 1	0	0
HERRIKO EUSKARA EZAGUTZA EUSKALDUNAK %0-20	1708	52 % 3 0	92 % 5 3	150 % 8 7	115 % 6 7
EUSKALDUNAK %20-40	645	30 % 4 6	35 % 5 4	40 % 6 2	25 % 3 8
EUSKALDUNAK %40-60	520	26 % 5	33 % 6 3	7 % 1 3	6 % 1 1
EUSKALDUNAK %60-80	377	30 % 7 9	33 % 8 7	4 % 1 0	9 % 2 3
EUSKALDUNAK %80-100	192	6 % 3 1	20 % 10 4	0	6 % 3 1
HERRIKO INMIGRAZIO KOPURUA ETORKINAK %0-10	178	13 % 7 3	12 % 6 7	0	2 % 1 1
ETORKINAK %10-20	679	44 % 6 4	42 % 6 1	16 % 2 3	13 % 1 9
ETORKINAK %20-30	1105	52 % 4 7	53 % 4 7	62 % 5 6	30 % 2 7
ETORKINAK %30-40	676	25 % 3 6	26 % 3 8	94 % 13 9	34 % 5 0
HERRIKO BIZTANLE KOPURUA BIZTANLEAK - 2 000	240	9 % 3 7	23 % 9 5	8 % 3 3	10 % 4 1
BIZTANLEAK 2/10 000	713	31 % 4 3	56 % 7 8	15 % 2 1	30 % 4 2
BIZTANLEAK 10/50 000	1112	66 % 5 9	73 % 6 5	32 % 2 8	21 % 1 8
BIZTANLEAK + 50 000	331	6 % 1 8	14 % 4 2	38 % 11 4	22 % 6 6
HIRIBURUAK	1046	32 % 3 0	47 % 4 4	108 % 10 3	78 % 7 4

5.2.6. JARRERA IZANERAZLE ETA TRUKEORDAINEKOAK

Idazlanetan gaztetxoek euskarari buruz adierazitakoa neurtzeko erabili dugun metodologiaz gain, beste teknika bat erabili dugu euskararekiko adierazpenak aztertzeko.

S.P.A.D.T programa informatikoaren bidez jarrera izanerazle eta trukeordainekoen adierazgarri diren, lana edo ikasketen eta euskaldun izaerari buruz hitzegiten diguten adierazpenak aztertu ditugu.

Gazteek euskarari buruz hitzegitean gehien erabiltzen dituzten hitzen azterketa bat egin dugu teknika honen bidez. Ezaugarri ezberdinak gazteek, euskarari buruzko adierazpenetako hitz ezberdinen erabileran oinarrituz, bereizi ditugu euskarari buruzko jarrera ezberdinak.

Ondorengo orrialdeak aurkezten dugun 3. Irudian ikusi dezakegunez, bi eragile ezberdinak bereizten dizkigu grafikoan adierazitako zeharkako ardatzak.

Eskubi aldean, jarrera izanerazleak adierazten dituzten hitzak agertzen zaizkigu;

zait
 euskadin
 euskalerrian
 ikastea
 dena
 arro harro
 euskararen
 zaharra
 bada badugu
 Euskalerriko Euskalerrian
 dela delako
 gustatzen
 egiten egingo egitea
 euskalduna
 sortu
 nire
 bakarra
 euskaraz euskeraz
 herrian herriko
 galdu galtzen
 bait baita baldin
 ikasteko
 gera gara naiz soy considero suis
 hablado habla hablan hablando hitzegiten itzegiten
 mintzatzen parle
 gaztelania gaztelaniaz castellano erdera erderaz
 Nik nik Guk guk nosotros gu Ni Yo
 Euskaldun euskaldun Euskalduna euskaldunak euskaldunek
 euskaldunok euskaldunen euskaldunon vasco vasco vascos
 euskaldunes
 kalean calle
 sentitzen siento
 etxean casa gurasoak familia padres
 lagun lagunekin amigos
 Nire Nere nere Gure gure geure Mi mi mis nuestro nuestra
 quiere quieres quieren quiero nahi

gabe sin
 izan izango izatea izateko izaten ser sea sean
 bizi vivir
 necessita necesidad behar beharra
 hitz
 egiteko
 dogu dugun

Bestalde ezker aldean, euskara trukeordaineko eragileei loturiko hitzak agertzen zaizkigu;

trabajo puesto empleo trabajos puestos
 trabajar lan lana lanpostu
 ingles
 obligan
 oficial
 futuro
 tengo tenemos tiene tienen tienen
 sitio sitios
 lenguas idiomas
 va van vas voy
 util
 para pour
 Euskalerrria Pais vasco Pays basque
 exigir exigen eskatzen piden
 sabe sabemos saben sabes
 lugar
 mañana
 aurkitzeko buscar encontrar lortzeko conseguir
 euskadi euzkadi
 asignatura
 balio sirve vale
 interes interesa
 tener
 propia
 fuera
 obligatorio
 estudios graduado
 entrar
 carrera
 hable
 pasa
 barrendero
 mejor
 mundo
 normal
 tendria
 gusta gustaria gust'e
 igual
 herri herria pueblo pueblos pais
 ikastolas

Azkenik, grafikoaren behealdean euskara ikasteko bi arrazoi ezberdin hauetatik berezita ageri dira zenbait hitz;

bilingue
 alli
 servir
 navarra
 mon
 française
 personnes
 ikastola

Azterketa honen bidez, aurrerago egindako azterketan agertzen zitzaigun bezala, bi mundu ezberdinetako jarrerak ezberdintzen dira. Alde batetik jarrera izanerazeen adierazle bezala, euskara euskaldun izaerari lotuta azaltzen da, eta bestalde trukeordaineko jarrera agertzen da, euskara lana edo ikasketak aurrera ateratzearekin lotuaz.

Ezaugarri zehatz batzuek dituzten gazteengan argi bereizturik agertzen dira, bi jarrera ezberdinak.

Hitz ezberdin hauen erabilera egiten duten gazteen ezaugarriak aztertuz gero, eskubi aldean: B eta D ereduak, %20a baino etorkin gutxiagoko herriak, %40-100 bitarteko euskaldun kopuruak dituzten herriak, 2.000 tik 50.000 bitarteko biztanle kopuruak dituzten herriak eta ikastolak ditugu.

Ezker aldean berriz: A ereduko ikasleak, hirietako, hiriburuetako eta herrixketako gazteak, etorkin kopuru haundiak dituzten herrietakoak -%20-40 etorkin dituztenak-, herriko biztanleen artean %40 baino gutxiagoko euskaldun kopuruak dituztenak eta ikastetxe bai publiko eta bai pribatuetako ikasleak ditugu.

Azkenik behekaldean, Nafarroa eta Iparraldeko gazteen ezaugarri batzuek ageri zaizkigu: beren ikastetxeetan euskararik ez duten gazteak eta herriko etorkin kopuruari buruz zehaztasunik lortu ez dugun herrietakoak hain zuzen ere.

buruz hitzegitean gehien erabilitako hitzen inguruan egindako adierazpenak bildu ditugu.

HIZKUNTZA EREDU EZBERDINEN ERANTZUN BEREIZGARRIAK,
MAIZTASUNEAN OINARRITURIK

A EREDUA

"El euskera solo sirve para el pais vasco y para encontrar un puesto de trabajo te lo piden."

"El euskera es necesario para algunos trabajos."

"En el pais vasco el euskera lo tienes que saber para encontrar trabajo."

"Te suelen exigir el euzkera para algunos trabajos."

"No se utiliza para casi ningun trabajo, bueno en el pais vasco igual para mucho pero fuera para ninguno."

B EREDUA

"Gainera nik euskaraz hitzegiten dudanean, horrela euskalduna naizela erakusten dut."

"Ni euskalduna naiz, alabaina nere hizkuntza euskara da."

"Euskera ez desagertzeko gu euskaldunak esforzatu behar gara euskera itzegiten edo bestela galduko egingo da."

"Euskaldunak euskara mintzatu behar dute beztela acabo euskal-herria. Nik euskara bizi naizenetik mintzaten dut, eskolako jene gehienna kanpoan gaztelaniaz mintzaten du. Ikastolakoak gu baino aurreratuak daude dena euskeraz egiten dutelako."

"Ni euskalduna naiz, donostian jaioa eta aita erdaldunak dituk. Euskara izkuntza edarra da, nik ez dut errestasun andirik euskaraz irakurteko baina itzegitea atzegina iruditzen zait."

D EREDUA

"Euskara da euskaldun egiten gaituena."

"Euskera gure hizkuntza zaharra, da euskaldunak egiten gaituena. Pertsona askok euskaldunak direla diote, baina erderaz hitzegiten dute. Eta euskaldunak izateko errazoi bakarra euskeraz hitzegitea da."

"Euskalduna naiz eta harro nago!
Euskalduna naiz eta harro nago!
Euskalduna naiz eta harro nago!
Euskalduna naiz eta harro nago!.
Euskalduna naiz eta harro nago!!!.
Gora gure hizkuntza eta behe herria!!!."

"Ni euskalduna naiz, euskeraz hitzegiten dut etxean, lagunen artean eta harro nago."

"Ni florentxi naiz eta elizondon bizi naiz, oso euskalduna naiz. Nire etxean, nere gurasoak, nere anai arrebek, euskeraz hitzegiten dugu, egunero euskeraz, baina kalera ateratzen naizenean euskeraz ere hitzegiten saiatzen naiz nire lagunekin."

X EREDUA

"Y si alguien de navarra se considera vasca y quiera hablar esta lengua, que vaya al paisvasco."

"Oui, on parle le basque dans mon entourage. Il me semble que parler le basque est important dans mon village pour trouver du travail j'aime cette langue."

"En el sentido de que vas a ir a trabajar al paisvasco en un idioma importante, pero el euskera es un idioma muelho de pueblos tanto como del paisvasco como de navarra."

"Oui, assez car elle est utile pour avoir un metier, pour communiquer avec certains personnes qui savent mieux parler basque que français."

"El euskera es una lengua que se utiliza en algunos trabajos, se utiliza para comunicarte como cualquier otra lengua."

Argi adierazten digute beraz, A ereduko ikasleen adierazpen hauek trukeordaineko jarrera euskararekiko. Ikasle hauek, euskara lana topatzeko edo ikasketak aurrera ateratzeko beharrezkoa dela aitortzen digute euskarari buruz hitzegitean.

B eta D eruedetako gazteek berriz, euskara euskaldun izanahiarekin lotuta aurkezten digute, beraiek euskaldun sentitzen direnez bere hizkuntzatzat daukate euskara eta hori izango litzateke euskara ikasi eta erabiltzearen arrazoia gazte hauentzat.

X erueda jarraitzen dutenak berriz, ez dira Euskalerrikoak sentitzen, beraz ez dute euskara bere herriko hizkuntza bezala ulertzen, Nafarroa ez denez Euskalerria euskara ez da nafarrei dagokien kontua. Hala ere bada Iparraldean nahiz Nafarroan, euskara dakitenekin hitzegiteko, lana aurkitzeko edo hizkuntza bat gehiago ezagutzeko, euskara jakiteari garrantzia ematen dionik ere.

5.2.7. GALDEKIZUN ETA IDAZLANETAKO JARRERAK

Gure ikerketan ikusi ahal izan dugunez, idazlana idazterakoan, gazteek bere pentsamenduak gidatuta adierazten dituzte euskarari buruzko iritziak.

Esan dezakegu, erantzulearen pentsaera edo iritzia gordinagoa jasotzen dugula, nahiz eta lan gehiago izan ondoren, iritzi ezberdinen sailkapenean eta erantzunak zenbatzean.

Bestalde aipatu beharrekoa da, galdera irekietan erantzuleak urriagoak izan ohi direla. Gure ikerketa honetan ere, idazlanak hiru mila baino gehiago izanik, idazlanetako iritzieta bostehun pertsonen erantzunak lortu ditugu gehienez ere.

Galdera itxia egitean berriz, erantzuleak ugariagoak izan ohi dira. Aipagarria da, gazteek idatzi dituzten idazlanetan, %16.9k aipatzen dutela euskararen lana topatzeko balioa, galdera itxia egitean berriz, hau da galdekizun batetan euskarak lana topatzeko balioari buruz galdetzean, %37raino iristen da ados agertzen direnen kopurua.

Bestalde galdekizunean, ikertzaileak pentsatu dituen gaiaren alderdiak bakarrik aztertzen dira. Gure ikerlanean erabilitako galdekizunaren bidez, gazteek idazlanetan aipatu dituzten gai gehientsuenak jaso baditugu ere, ez ditugu neurtu gazteek aipatzen dituzten gai guziak. Honako hauek dira idazlanen azterketan gai berri bezala agertu zaizkigunak: ohitura, harremanak izatea, tradizioa e.a.

Galdekizun batetan, erantzuleak zehaztuta ditu, gai bakoitzarekiko aukeratu ditzakeen erantzunak, idazlanean berriz, erantzuleak ez du inungo mugarik bere iritzia adierazteko. Era honetara, gai bakoitzari dagokion erantzun ezberdinak jasotzeko aukera izan dugu.

Galdekizun bidez, euskara norbere borondatez ikasi beharrekoa den iritziari buruz galdetzean, gehiengoa ados agertzen da iritzi honekin. Idazlanetan nahiz eta beharizanaren gaia gazte batzuek aipatzen duten, esan daiteke gehiengoa ez dela beharizanaz kezkatzen. Beraz, euskara ikastera behartuta sentitzen direnak hiztun zehatz batzuek dira, hauek bakarrik aipatzen baitute beharizanaren kontua euskarari buruzko adierazpenak egitean.

Idazlanen azterketa, modu batetan, galdekizunaren bidez aztertu ditugun iritzien baliotasuna neurtzeko ere erabilgarria zaigu.

Jarreretan gizartezko baldintzen eragina berdintsu agertzen zaigu bi azterketa ezberdinetan neurtutako iritziei dagokionez. Gizartezko baldintza berdinak agertzen baitira iritzien eragile bezala, bai galdekizun bidez bai idazlan bidez jasotako iritzietan.

5.3.
EUSKAREKIKO JARREREN ERAGINA ERABILERAN

5.3. EUSKAREKIKO JARREREN ERAGINA ERABILERAN

Hirugarren zati honetan, ikerketa honen helburu nagusia jorratuko dugu, jarrerak hizkuntza jokaeran duten eragina aztertzea Euskalerriko gaztetxoan artean, hain zuzen ere. Aurreko zatian neurtu ditugun euskararekiko jarrera ezberdinek gazte berauen hizkuntza erabileran zer nolako eragina duten ezagutu nahi genuke.

Ikerketa honetan jarrerak neurtzerakoan bi metodologi ezberdin erabili direnez, bi neurketa ezberdin egingo ditugu jarrerak hizkuntza erabileran duten erasana neurtzerakoan ere: alde batetik, galdekizun bidez neurtutako jarrerak eguneroko gizarte bizitzan gehien erabiltzen den hizkuntza aukeratzean duten zer esana aztertuko dugu. Bestaldetik, gazte hauek idazlanetan euskararekiko egiten dituzten adierazpenek, gazte berauek idazlana idazterakoan egindako hizkuntza aukeratzean duten eragina neurtuko dugu.

Euskararekiko jarrerez gain, gaztetxo hauek euskararekiko dituzten nahi eta asmoak ere neurtu nahi genituzke. Zein izan behar luke Euskalerriko hizkuntza? Zein hizkuntza aukeratuko zenuke ikasketak jarraitzeko? Zer asmo eta nahi dituzu euskararekiko? e.a. Gazteen jarrerak, euskararekiko nahi eta asmo zehatz hauetan duten zer esana ere aztertuko dugu. Euskararekiko aldeko jarrera dutenek, jarrera hutsaz gain, euskararekiko asmo argiak ote dituzten jakin nahi baigenuke.

Euskararekiko nahi eta asmoek hizkuntza erabileran duten erasana ere aztertuko dugu.

Azkenik, alde batetik euskararekiko asmo eta nahiek, eta bestetik jarrerak, hizkuntza jokabidean edo erabileran duten eraginaren alderaketa egingo dugu. Jakinekoa da, jarrerak eta portaerak zehaztasun maila berdina dutenean lotura estuagoa izan ohi dutela. Gure ikerketan neurtu ditugun euskararekiko uste eta nahiak, neurtutako jarrerak baino zehatzagoak direnez, hizkuntza erabilera zehatz batekin zer ikusi edo lotura gehiago ote duten jakin nahi genuke.

5.3. EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA ERABILERAN

5.3.1 GALDEKIZUNEAN AZTERTUTAKO JARREREN ERAGINA ERABILERAN

Aurreko atalean azertu ditugun euskararekiko jarrerak, gazte hauen eguneroko bizitzako hizkuntza aukeran duten eragina azertu dugu jarraian.

3.1. Taulan ikusi dezakegunez, nahiz euskararen aldeko nahiz aurkako jarrera izan, gazte guzien artean erdararen erabilera nagusitzen da. Era berean, gutxiengoa da euskara erabiltzeko aukera egiten duena, euskararekiko aurkako nahiz aldeko jarrera izan.

Hala ere, euskararen aurkako iritzia dutenen artean erdara gehiago erabiltzen da, euskararen aldeko iritzia adierazten dutenen artean baino.

Euskara lanarekin lotzen duten hamarretik bat ere ez dira (%8.1) euskararen erabilera aukeratzen dutenak. iritziarekin aurka dauden hamarretik bi baino gehiagok (%22.3) berriz, euskara aukeratzen du hizkuntza erabiltzerakoan. Beraz, euskara lan aukerekin lotzeak zer esana du hizkuntza erabileran.

Antzekoa esan dezakegu gainontzeko jarrerei dagokionez ere; euskararen aldeko jarrera izateak euskararen erabilera indartzen du.

Euskara borondatezko izan behar duela dion iritziaren aurrean salbuespena ematen da, jarrera honek ez baitu zer esan haundirik hizkuntza erabileran, berdintsua izanik euskararen erabilera, bai alde bai aurka daudenen artean.

Hala ere, euskara norbere borondatez ikasi behar dela diotenen artean zertxobait gehiago dira euskara erabiltzen dutenak (%16.9), euskara borondatezkoa izatearen aurka daudenen artean baino (%13.5).

Euskararen erabilera ugariena, *euskaldun izateko euskara jakin beharra* aipatzen dutenen artean aurkitzen dugu. iritzi honetakoak diren gazteen artean (%31.3), ia heren batek beti edo gehienetan euskara erabiltzen du bere eguneroko bizitzan.

Euskal gazteen artean euskara beti edo gehienetan erabiltzen dutenen batzbestekoa chuneko hamabostaren ingurukoa bada (%15.4), bikoiztu egiten da euskararen erabilera, euskara euskaldun izaeraren oinarritzat dutenen artean.

Euskara erabiltzen duten gazteak batez ere, beste iritzi hauekin ere bat datozenak dira: *Inglesa ikastea baino euskara ikastea nahiago izatea, Euskalerrira lanera edo bizitzera datorrenak euskara ikasi beharra, komunikabideetan euskara gehiago eskatzea eta Euskalerrian gaudenez euskaraz hitzegin beharra.*

Esan beharrekoa da beraz, jarrera hauek direla euskararen erabilera gehien eragiten dutenak.

Euskara erabiltzen dute beti edo gehienetan:

- *Euskaldun izateko euskara beharrezkotzat duten gazteen %31.3ak.*
- *Inglesa ikastea baino euskara ikastea nahiago duten gazteen %28.8ak.*
- *Euskalerrira lanera edo bizitzera datorrenak, euskara ikasi behar duela uste dutenen %27.6ak.*
- *Komunikabideetan euskara gehiago eskatzen dutenen %26.8ak.*
- *Euskalerrian gaudenez denok euskara hitzegin behar genukeela uste dutenen %26.4ak.*

Euskaldun izaera euskararen oinarritzen dutenak eta euskara Euskalerriko hizkuntza denez euskara erabiltzea eta bertara datozenek ikasi beharra adierazten duten gazteak dira beraz, euskara gehien erabiltzen dutenak.

Hala ere, *jarrera izanera zleatetik ezberdindu arren, trukeordaineko jarrerak ez dira euskararen erabilera gutxien eragiten duten jarrerak. Ez da euskararen erabilera urriena euskara lan aukerekin lotzen duten gazteen artean agertzen.*

Badira zenbait jarrera, euskararen aldeko neurriak hartzearen aurkako jarrera bat adierazten dutenak, edo atzerriko hizkuntzekin parekatuz euskara gutxiezen dutenak. Jarrera hauek dira euskara erabiltzearen aurka eragin gehien dutenak. *Jarrera ezkorrak* direla esango genuke, euskara erabiltzearen aurkako jarrera indartzen baitute hiztunengan.

Denera ere oso urria da euskararen erabilera gazte hauen gizarte bizitzan; gehienez ere hamarretik hiru inguru besterik ez baitira bere eguneroko bizitzan gehienetan euskara erabiltzen dutela dioten gazteak.

3.1.TAULA: EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA HIZKUNTZA ERABILERAN (Zeharkako ehunekoak)

EUSKARAREKIKO JARRERAK	GUZTIRA 3 058		EUSKARA BETI EDO GEIHE NETAH	EUSKARA TA ERDARA BIAK BERTAN	ERDARA BETI EDO GEIHE NETAH
	%		697	748	789
EUSKARAK LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO DU	Ados 1.353	Aurka 1.819	81	40	86.6
JAURLARITZAK DIRU GEIHAJO EMAN BEHAR EUSKARIARI	Ados 2.415	Aurka 420	202	87	80.9
EUSKARA ERADILTZEA DEBEKATU BEHAR DA	Ados 308	Aurka 2.897	3.9	42	86.6
EZ DA EUSKALERRIRIK EUSKARARIK GABE	Ados 2.475	Aurka 577	20.8	82	89.9
EUSKARA BORDONATEZ IKASI BEHAR DA	Ados 2.735	Aurka 458	18.9	69	75.1
HAUR GUZIEK EUSKARA IKASI BEHAR DUTE	Ados 2.015	Aurka 961	23.9	87	86.3
DENOK ERDERA DAKGUNEZ EUSKARARIK EZ DA BEHAR	Ados 889	Aurka 2.231	1.7	24	94.2
EUSKALERRIRA BIZI TA LANERA DATORRENAK EUSKARA IKASI BEHAR DU	Ados 1.407	Aurka 1.428	27.6	80	83.0
EUSKARA POBREA DA, EZ DU BALIO ZIENTZIRAKO	Ados 824	Aurka 2.022	7.5	38	86.9
EUSKARA JAKIN BAKARRIK EZ "RABILI EGIN BEHAR	Ados 2.352	Aurka 675	22.0	82	88.6
NAHIAGO DUT INGELESA IKASI EUSKARA BAINO	Ados 1.255	Aurka 1.692	1.2	20	95.6
TB TA IRRATIAN EUSKARA ALPERRIKOA EZ DA ULERTZEN	Ados 895	Aurka 2.163	2.2	36	82.7
ESKOLETAN EUSKARA IKASTORDU GEIHAJO BEHAR	Ados 1.643	Aurka 1.018	21.9	89	88.2
EUSKARAREN INTERESA MODA BESTERIK EZ DA	Ados 374	Aurka 2.448	4.5	51	88.8
EUSKALERRIAN GAUDENEZ DENOK EUSKARA HITZEGIN BEHAR	Ados 1.831	Aurka 1.303	26.4	95	82.9
EZ DA EUSKARA BEHAR EUSKALDUN IZATEKO	Ados 1.773	Aurka 1.273	5.5	42	89.3
EUSKARAREN KANPAINA GEIHAJO BEHAR	Ados 2.040	Aurka 575	23.5	93	86.0
EUSKALDUNAK EZ DU UTZI BEHAR INOIZ EUSKARA	Ados 1.258	Aurka 1.243	25.8	88	84.3
BURUGABEKERIA EUSKARAGATIK EZIN ULERTUTA IBILTZEA	Ados 1.335	Aurka 1.337	11.4	42	83.1
TB, EGUNKARI ETA IRRATIETAN EUSKARA GEIHAJO BEHAR	Ados 1.777	Aurka 852	26.8	101	82.2
			26	32	92.5

Jarrera berdintsuak dira gazteen euskararen ikastea gehien eragiten dutenak, 3.2.Taulan ikusi dezakegunez.

Euskarak euskaldun egiten gaituela dioten gazteen artean agertzen da euskara ondo dakiten gazte gehien; erdiak baino gehiago %53.5a hain zuzen ere.

Bestalde, erdia inguru dira baita ere euskara ondo dakitenak honako iritzi hauek dituztenen artean: *inglesa baino euskara nahiago* dutenen artean (%50.6ak), *komunikabideetan euskara gehiago* eskatzen dutenen artean (%49.3ak), eta *Euskalerrian gaudenez euskara hitzegin behar dela* dioten artean (%47.2ak).

Beraz, euskara euskaldun izaceraren oinarri eta Euskalerriko hizkuntzatzak dutenak eta euskararen erabilera gehiago eskatzen dutenak dira, bai euskara gehien erabiltzen dutenak eta bai euskara gehien ezagutzen dutenak. Jarrera hauek dira beraz euskara ikastean eta erabiltzean gehien eragiten dutenak.

Euskararen ezagutza erabilera baino zabalagoa da, hau da, gazte gehiago dira euskara ikasi dutenak, euskara erabiltzen dutenak baino. Euskararen ezagutza ona gazte hauen hamarretik lau edo bosten artean aurkitzen den bitartean, euskararen erabilera hamarretik hirukoa da kasu onenean ere.

Jakina da euskara ikasteak ahalegin batzuek eskatzen baditu ere, erabilerak oraindik gehiago eskatzen dituela. Bestalde, oztopo ugari izan ohi ditu euskara erabili nahi duen gazteak, gizarte bizitzan erdarak duen nagusitasuna dela eta.

Euskararen aldeko jarrera izan ala aurkako jarrera izan, euskara ondo ezagutzen duten gazteen kopurua bikoiztu egiten da. Euskarak lanerako bakarrik balio duela dioten artean, ez dira hamarretik bira iristen (%19.5) euskara ondo dakitenak, eta iritzi honen aurka dauden artean, hamarretik lau baino gehiago dira (%41.5) euskara ondo dakitenak.

Gazteen artean gehiago dira euskara erdizka dakitenak edo ia-euskaldunak, euskara ondo dakitenak baino.

Hala ere esan beharra dago, euskara ikastean eragin gehien duten jarreraren kasuan, euskara ondo dakitenak gehiago direla euskara erdizka dakitenak edo ia-euskaldunak baino. Honako jarrera hauek dituztenen artean hain zuzen ere; euskarak euskaldun egiten gaituela, euskara inglesa baino nahiago izatea, komunikabideetan euskara gehiago eskatzea, Euskalerrian euskaraz hitzegin beharra eta azkenik komunikabideetan euskara ez dela alperrikoa uste dutenen artean.

Gainontzeko kasuetan, nahiz euskararekiko aldeko jarrera izan, euskara erdizka ezagutzen dutenak gehiago dira, ondo ezagutzen dutenak baino.

Euskararik ez dakitenak berriz, hamarretik bi edo hamarretik hiru inguru dira gehienez ere. Euskararekiko balioeza eta aurkako jarrera adierazten dutenen artean agertzen dira batik bat euskararik ikasi ez duten gazteak.

Gazteen artean gehiengo da beraz euskara ezagutzen duena, eskolaren bidez egin diren ahaleginei esker. Nahiz aldeko nahiz aurkako jarrera izan, gehiengoak ezagutzen baitu euskara erdizka bada ere.

Baina euskara ondo ikastea, batik bat euskaldun izanahia dutenek, eta euskara Euskalerriko hizkuntzatzat dutenek lortu dute, euskararekiko bestelako jarrerak dituztek ez bezala.

3.2.TAULA: EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA EUSKARAREN EZAGUTZAN (Zeharkako ehunekoak)

EUSKARAREKIKO JARRERAK		EUSKAL DUNA	IA-EUSKALDUNA	ERDAL DUNA
	GUZTIRA..... 3 655	1 050	1 750	411
	%			
EUSKARAK LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO DU	Ados..... 1 284 Aurka..... 1 703	19 5 41 5	65 1 41 7	8 4 11 2
JAURLARITZAK DIRU GEHIAGO EMAN BEHAR EUSKARARI	Ados..... 2 276 Aurka..... 363	30 7 12 0	40 4 43 3	5 5 36 4
EUSKARA ERABILTZEA DEBEKATU EGIN BEHAR	Ados..... 280 Aurka..... 2 734	12 1 35 7	56 7 50 1	24 6 8 5
EZ DA EUSKALERRIRIK EUSKARARIK GABE	Ados..... 2 324 Aurka..... 553	40 4 13 9	48 2 63 7	6 4 13 9
EUSKARA BORONDATEZ IKASI BEHAR DA	Ados..... 2 579 Aurka..... 435	32 9 28 7	50 4 52 6	10 4 12 2
HAUR GUZIEK EUSKARA IKASI BEHAR DUTE	Ados..... 1 604 Aurka..... 904	44 0 8 7	49 3 50 4	2 3 31 7
DENOK ERDERA DAKIGUNEZ EUSKARARIK EZ BEHAR	Ados..... 841 Aurka..... 2 108	7 0 43 9	57 6 47 0	26 3 4 8
EUSKALERRIRA BIZITZERA EDO LANERA DATORRENAK EUSKARA IKASI BEHAR DU	Ados..... 1 334 Aurka..... 1 354	44 8 16 2	44 8 58 6	5 8 17 4
EUSKARA POBREA DA, EZ DU BALIO ZIENTZIRAKO	Ados..... 772 Aurka..... 1 913	17 7 42 6	53 5 47 4	20 2 5 3
EUSKARA JAKIN BAKARRIK EZ ERABILI EGIN BEHAR	Ados..... 2 220 Aurka..... 626	40 9 11 6	48 0 56 4	5 7 22 8
NAHIAGO DUT INGELESA IKASI EUSKARA BAINO	Ados..... 1 181 Aurka..... 1 597	7 2 50 6	56 8 42 6	26 2 2 9
TB TA IRRATIAN EUSKARA ALPERRIKOA, EZ DA ULERTZEN	Ados..... 841 Aurka..... 2 047	7 1 45 9	62 5 44 7	22 2 4 6
ESKOLETAN EUSKARA IKASTORDU GEHIAGO BEHAR DIRA	Ados..... 1 546 Aurka..... 955	41 7 14 0	48 3 56 4	4 6 21 0
EUSKARAREN INTERESA MODA BESTERIK EZ DA	Ados..... 355 Aurka..... 2 305	14 1 30 2	57 7 46 9	20 6 6 7
EUSKALERRIAN GAUDENEZ DENOK EUSKARA HITZEGIN BEHAR	Ados..... 1 737 Aurka..... 1 224	47 2 11 5	48 2 54 1	2 8 24 7
EZ DA EUSKARA BEHAR EUSKALDUN IZATEKO	Ados..... 1 662 Aurka..... 1 210	16 1 53 5	61 0 37 1	14 6 6 0
EUSKARAREN KANPAINA GEHIAGO BEHAR DIRA	Ados..... 1 919 Aurka..... 544	44 4 7 9	45 9 57 5	4 8 26 5
EUSKALDUNAK EZ DU UTZI BEHAR INOIZ EUSKARA	Ados..... 1 174 Aurka..... 1 182	43 4 26 9	44 6 54 3	7 8 11 8
BURUGABEKERIA EUSKARAGATIK EZIN ULERTUTA IBILTZEA	Ados..... 1 258 Aurka..... 1 209	21 4 40 2	54 0 48 8	17 2 6 1
TB, EGUNKARI ETA IRRATIETAN EUSKARA GEHIAGO BEHAR	Ados..... 1 680 Aurka..... 803	49 3 7 2	44 2 54 6	3 0 27 3

Euskararekiko jarrera ezberdina izateak euskara ikastea eta erabiltzean eragina duela ikusi dugu. Bestalde, euskara ikasi duten gazte kopuru haundiagoak aurkitzen ditugu euskara erabiltzen dutenenak baino. Gainera ez dute jarrera guzietan berdin eragiten, euskararen aldeko jarrera izan arren ere, erdara hutsez hitzegiten duen gazterik ere aurkitzen baitugu.

Euskara ez erabiltzearen arrazoiak, gizarte inguruan erdarak duen nagusitasunak sortzen dituen oztupoak izan daitezke, euskara erabiltzea nahi izan arren ere zailtasunak izan baititzakete gazteek zenbait gunetan.

3.3.Taulan azaltzen dugu, euskararekiko jarrerak euskararen erabileran duten eragina gizarte inguruneke euskararen ezagutzaren arabera.

Gune erdaldunetan ez da gehiegi nabari euskararen erabileran jarrera ezberdinek duten eragina, erdara hizkuntza nagusia denez gero euskararekiko jarrera bat ala bestea izan, erdarak ordezkatzeko baitu kasu gehienetan euskara. Gizarte inguru euskaldunetan berriz, euskararekiko jarrera bat ala bestea izateak hizkuntza erabilera ezberdina eragiten duela argi azaltzen da.

Euskararen erabileran gehien eragiten duten jarrerak hauexek dira: *euskara nahiago izatea inglesa baino, haur guzietan euskara ikasi beharra, komunikabideetan euskara gehiago eskatzea, Euskalerrira datorrenak euskara ikasi beharra, eta Euskalerrian gaudenez denok euskara hitzegin beharra.*

Gazteek dituzten euskararekiko usteak eraginkorrak dira beraz hizkuntza erabilera aukeratzean, eta hau bereziki euskara erabili nahi duenak hala egiteko baldintza egokienak dituen gunetan gertatzen da.

Beraz, gaztearen gizarte inguruko giroak euskararen erabilera baldintzatzen duen arren, honek bakarrik ez du erabakitzen euskara erabiltzea, jarrerak ere eragiten baitute euskara erabiltzeko aukera egitean.

3.3.TAULA: EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA HIZKUNTZA ERABILERAN HERRIKO EUSKARA EZAGUTZAREN ARABERA (Zeharkako ehunekoak)

EUSKARA ERABILTZEN DUTE BETI EDO GEHIENETAN		ZERBAIT EUSKAL DUNA %0-40 Euskaldun	NAHIKO EUSKAL DUNA %40-60 Euskald	OSO EUSKAL DUNA %60-100 Euskaldun
%		2.520	484	651
EUSKARAK LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO DU	Ados...1.284 Aurka...1.703	04 32	84 182	104 362
JAURLARITZAK DIRU GEHIAGO EMAN BEHAR EUSKARARI	Ados...2.278 Aurka...393	35 02	223 12	447 20
EUSKARA ERABILTzea DEBEKATU EGIN BEHAR	Ados...289 Aurka...2.734	0 38	17 238	06 484
EZ DA EUSKALERRIRIK EUSKARARIK GABE	Ados...2.324 Aurka...553	37 01	248 10	464 28
EUSKARA BORONDATEZ IKASI BEHAR DA	Ados...2.579 Aurka...435	33 04	219 21	421 63
HAUR GUZIEK EUSKARA IKASI BEHAR DUTE	Ados...1.904 Aurka...904	32 04	233 14	442 22
DENOK ERDERA DAKIGUNEZ EUSKARARIK EZ BEHAR	Ados...841 Aurka...2.108	02 37	06 252	12 472
EUSKALERRIRA BIZITZERA EDO LANERA DATORRENAK EUSKARA IKASI BEHAR DU	Ados...1.334 Aurka...1.354	24 07	184 25	369 41
EUSKARA POBREA DA, EZ DU BALIO ZIENTZIRAKO	Ados...772 Aurka...1.913	04 32	27 213	61 415
EUSKARA JAKIN BAKARRIK EZ ERABILI EGIN BEHAR	Ados...2.220 Aurka...628	37 01	246 14	472 15
NAHIAGO DUT INGELESA IKASI EUSKARA BAINO	Ados...1.181 Aurka...1.597	03 31	04 225	09 461
TB TA IRRATIAN EUSKARA ALPERRIKOA, EZ DA ULERTZEN	Ados...841 Aurka...2.047	02 37	10 240	15 478
ESKOLETAN EUSKARA IKASTORDU GEHIAGO BEHAR	Ados...1.548 Aurka...955	23 05	189 35	336 31
EUSKARAREN INTERESA MODA BESTERIK EZ DA	Ados...355 Aurka...2.305	02 35	14 231	09 459
EUSKALERRIAN GAUDENEZ DENOK EUSKARA HITZEGIN BEHAR	Ados...1.737 Aurka...1.224	32 05	229 25	449 26
EZ DA EUSKARA BEHAR EUSKALDUN IZATEKO	Ados...1.662 Aurka...1.210	11 24	52 188	69 379
EUSKARAREN KANPAINA GEHIAGO BEHAR DIRA	Ados...1.919 Aurka...544	34 01	227 14	439 12
EUSKALDUNAK EZ DU UTZI BEHAR INOIZ EUSKARA	Ados...1.174 Aurka...1.162	21 11	169 50	292 124
BURUGABEKERIA EUSKARAGATIK EZIN ULERTUTA IBILTZEA	Ados...1.258 Aurka...1.269	12 19	64 147	141 240
TB, EGUNKARI ETA IRRATIETAN EUSKARA GEHIAGO BEHAR	Ados...1.680 Aurka...803	31 02	223 17	445 15

5.3.2. IDAZLANETAKO JARRERAK ETA EUSKARAREN ERABILERA

Ikerketa honen hipotesiak azaltzean, euskararekiko jarrerak, euskara ikasi eta euskara erabiltzean, hau da, hizkuntza jokaeran eragina dutela zehaztu dugu. Baina jarrerak ezberdinak izan daitezke egin den azterketa motaren arabera. Eta jarreraren neurketa era batekoa ala bestekoa izan, jarrera hauek erabileran duten eraginarekiko ondorio ezberdinetara iritsi gitezke.

Hau dela eta, galdekizunen bidez neurtu ditugun jarrerak euskararen erabileran duten eragina aztertu ondoren, gazte hauek idatzitako idazlanetako jarrerak erabileran duten eragina aztertu dugu.

Zehaztu beharra daukagu galdekizunean eta idazlanetan aztertutako hizkuntza erabilera ezberdina dela. Galdekizunean gazteak egunero gehien erabilitako hizkuntzaz galdetzen bagenuen, idazlanetan ekintza zehatz eta erreal bat neurtu ahal izan dugu. Euskarari buruzko idazlana eskatzean, gazteei nahi zuten hizkuntzan idazteko aukera eman zitzaien, honela gazteek idazlana idazteko aukeratu duten hizkuntza erabilera neurtu dugu.

Honetarako berriz, gazteak euskara erabili nahi izanez gero ez du eragozpenik hala egiteko, bakarkako ekintza bat baita idazlana idaztea. Gazteak horri baten aurrean idazlana idazteko unean, euskaraz idatzi ahal izateko euskara ezagutzea eta euskaraz idazteko nahia ditu baldintza bakarrak.

Hala ere ezin ditzakegu aipatu gabe utzi, gazte hauen hizkuntza aukeran eragin dezaketen bestelako baldintzapenak, adibidez irakasle edo andereñoak idazlana eskatu zitzaizenean emandako xchetasunak.

Ikerketa honen bidez, ezinezkoa zaigu baldintza honen eragina neurtzea. Baina gauza batetaz ziur gaude, gazteak emandako erantzunean ez duela behintzat ikerlariarengandik edo galdetzailearengandik -galdera egiteko eragatik galdekizunetan gertatu daitekeen bezala- baldintzapenik izan.

Gainera, gazteek eguneroko bizitzan duen eragilea du ikasgelan hizkuntza bat ala beste erabiltzeko giroa, beraz esan dezakegu, errealitate hori bere horretan neurtu dugula.

3.4.TAULA: EUSKARAREKIKO JARRERA EZBERDINEN ERAGINA IDAZLANETAKO HIZKUNTZ ERABILERAN
(Zeharkako chunekoak)

EUSKARAREKIKO JARRERAK	EUSKARAZ 1.212	GAZTELERAZ 1.972	FRANTSESEZ 249	GUZTIRA 3.442
EUSKARA LANA TOPATZEKO ETA IKASKIETAK ATERATZEKO	70 %12.0	501 %86.0	10 %01.7	582
EUSKARAK EZ DU EZERTARAKO BALIO	12 %05.9	150 %73.8	41 %20.1	203
EUSKARA GURE HIZKUNTZA	149 %63.1	81 %34.3	6 %02.5	236
EUSKARAK EUSKALDUN EGITEN GAITU	199 %84.3	34 %14.4	2 %00.8	236
EUSKARA GORDE BEHARREKO TRADIZIOA	63 %75	13 %15.4	7 %08.3	84
EUSKARA HIZKUNTZAZAHARRA	173 %82.7	21 %10.0	14 %06.6	209
EUSKARA BETIKO HIZKUNTZA, OHITURA	128 %77.1	12 %07.2	26 %15.6	166
EUSKARA HARREMANAKIZATEKO, HIZKUNTZABAT GEIPIAGO JAKITEKO	4 %03.0	103 %78.6	24 %18.3	131
EUSKARA EUSKALERRIAREN HIZKUNTZA	92 %63.8	46 %31.9	6 %04.1	144
EUSKARA GIZARTE TRADIZIONALARENA	74 %34.7	94 %44.1	45 %21.1	213
EUSKARA IKASTERA BEHARTUTADAUDE	6 %02.9	195 %97.0	0 %00	201
NAIPIAGO BESTE HIZKUNTZAKIKASTEA	6 %03.7	128 %79.5	27 %16.7	161

3.4.Taulan ikusi dezakegunez, euskara erabiltzera *behartuta* sentitzen direla diotenen erabiltzen dute euskara gutxien idazlana idazterakoan. Euskara ikastea, *hizkuntza bat gehiago jakiteko* edo euskaldunekin *harremanak* izateko ulertzen dutenek eta euskara baino *atzerriko hizkuntzak ikastea nahiago* dituztenen artean ere euskararen erabilera urria da. Euskarari *baliorik aurkitzen ez* diotenen artean ere, idazlana idazterakoan euskara gutxi erabiltzen da.

Ondoren, euskara *lanerako edo ikasketak aurrera ateratzeko balio* duela diotenenak ditugu, idazlanetako euskararen erabilera urrieneoak. Nolabait esateko gazte hauek, trukeordainetan ulertzen dute euskara, euskara ikasiz gero lortu dezaketen beste zerbaitetaz hitzegiten baidigute.

Euskararen erabilerarekin zeharo lotuta ageri dira bestalde: *euskarak euskaldun egiten gaituela, hizkuntza zaharra dela, euskara betiko hizkuntza* edo ohitura dela, euskara *gure hizkuntza* dela, euskara gorde beharreko *tradizioa* dela e.a. Hauek berriz, jarrera izanerazelekin gehien lotzen diren ideiak ditugu, nor izana edo norbere kultura eta hizkuntzaren berezitasunak aipatzen baidituzte.

Egin dugun euskararen erabileraren neurketan eta aztertu diren jarreraren arabera, argi agertzen zaigu, *jarrera izanerazelek* direla euskararen erabileran, *trukeragileak* baino eragin gehiago duten jarrerak -3.4.Taulan ikusi dezakegunez-

Bestalde, euskarari baliorik aurkitzen ez diotenen jarrera daukagu. Jarrera hauek euskararen erabilera eragin beharrean oztopatu egiten dutela esan dezakegu, ez baitute agertzen jarrera hau duten gazteek euskara ikastea eta erabiltzeko motibaziorik. Jarrera hauen artean zenbait iritzi ezberdin biltzen dira: euskarak ez duela ezertarako balio, euskara ikastera behartuta sentitzen direla edo nahiago dutela atzerriko beste hizkuntza bat ikasi euskara ikasi beharrean e.a.

Euskaraz bizi nahia, euskalduna izanahia, euskal nortasuna da beraz euskararen erabilera gehien eragiten duen jarrera. Elementu guzti hauek azaltzen dute neurri handi batean, euskaraz hitzegitea edo idazterakoan euskara erabiltzea.

Txepetxen ustez, berezko edo izatezko motibazioa da, hizkuntza baten ikastea eta erabiltzearen eragilea. Euskararen ezagupenik ez duen bat berriz, nahiz eta berezko motibaziorik ez izan, motibazio kultural batetatik abiatuta euskara ikasiz iritsi daiteke izatezko motibazio bat izatera.

Gure ikerketan ikusi dugunez, *eragile izanerazelek*, norbera izaten laguntzen duten eragileak dira, hiztunaren barnean dagoen eta berea den zerbait izaten

laguntzen dutenak. *Trukeordaineko eragileak* dituztentzat berriz, gizakiaren berezkoa izan beharrean zerbait erantsia izan ohi da euskara. Jarrera hauek dituztenentzat beste zerbait lortzeko bitarteko bat litzateke euskara, euskara ikasiz gero ikasketak, lana, jakinduria, lagunak, e.a. eskuratu ahal izango bailituzkete.

Nahiz eta jaiotzez euskal jatorrikoa ez izan, nahi duten guziek bereganatu dezakete izan nahi hori eta berea egin euskara. Honela bada norbera izaten lagunduko lioke euskara ikasteak eta berak ere euskara berezkoa egingo luke.

Txepetxek garrantzi handia ematen die izanahia duten hiztunei, berauek baitira, bere esanetan, euskara ikastera eta erabiltzera iritsiko direnak.

Txepetxek "voluntad de ser" kontzeptuarekin adierazten digu izan nahi hori. Hiztun ezberdinek euskara ikastearen bide osoa betez gero, hiztun osoak bihurtuko dira. Hiztun oso hauek berriz, euskarari balore bat emango diote, bai izatezkoa eta baita kulturazkoa ere.

Txepetxentzat, hiztunek euskarari kulturazko balioa aurkitzea nahitaezkoa da, euskara ikastera abiatzen den lekutik abiatuta, hizkuntza erabiliko bada. Izan nahia edo motibazioa dutenak izango baitira, euskara ikasi eta erabiltzera iritsiko diren hiztunak.

Jarrerren beste era bateko sailkapena ere egin dute psikologia sozialeko beste autore batzuek. W.Lambert eta bere jarraitzaileek, jarrera *integratzaile* eta *instrumentalak* definitu dituzte. Integratzailea: bidaiak, lagunak, kultura berriaren parte izan nahiak osatuko lukete.

Baina, integrazioa izan daiteke neurri batean instrumentala ere, lagunartearekin edo beste taldearekiko harremanekin norbera eroso sentitzea edo laguntasuna lortzea ere esan nahi baitu, nahiz eta kulturalki integratzaile ez eman.

Integratzailea beste taldeko kide bihurtzearen zentzuan, izanera ere izan daiteke. Baina integrazioa eta identifikazio ezberdinak dira, euskararekiko norbere barneko izan nahia, eta besteek ni euskaldun bezala onartzea bi gauza ezberdin baitira.

Bi jarrera mota hauen definizioak izan du beste kritika bat ere, elkarren arteko bereiztu ezina, hiztun batek bi motibazioak aldi berean izan baiditzake. Beste

taldean integratuaz beti lortzen da zerbait eta besteen hizkuntza ikasteak beti eskatzen du beste hiztunen kulturen nolabaiteko integrazio bat ¹.

Ez da beraz erraza instrumental eta integratzailearen artean bereiztea, horrela zion Clémentek, eta era berean hitzegiten du Baker C.ek (1992) ere; integratzaile eta instrumentalaren arteko ezberdintasuna, kontzeptuala gehiago dela empirikoa edo errealitateko neurketetan oinarritutakoa baino.

5.3.3. BI NEURKETA EZBERDINEN ALDERAKETA

Nahiz eta erabileran jarreraren eragina aztertzeko erabili diren bi neurketetan, jarrerak euskara erabiltzearen eragile bezala agertu, neurri ezberdinetako eragina agertzen zaigu neurketa batean eta bestean.

Idazlanetako adierazpenen azterketan, argiago ikusi ahal izan dugu euskararekiko jarrera ezberdinek hizkuntza erabilera baldintzatzen dutela. Ondorio hau izateko arrazoi ezberdinak daude: batetik, erabileran neurketa ezberdina egin dugu azterketa batean eta bestean. Galdekizunean, gazte hauek bere eguneroko bizitzan gehien erabiltzen duten hizkuntza zein den galdetu dugu -erabiltzen duen hizkuntzaren hitzezko adierazpena-, hau da, gazteak bere hizkuntza erabileraz esaten diguna jaso dugu. Idazlanetan berriz, neurketa errealago bat egin dugu -ez-hitzezkoa-. Eta bestalde, erabilera zehatzago bat neurtu dugu, euskara erabiltzeko mugak gaintituak dituen hizkuntza erabilera neurtuz.

Idazlan bat euskaraz idazteko jarrera eta norbere ezagutza nahikoak dira. Eguneroko bizitzan euskara erabili ahal izateko berriz uste eta jarrerez gain, gizarte arauak e.a.ek ere eragina izan dezakete. Gizarte bizitzan aldagai ugari baldintzatzen du hizkuntza erabilera, gehienetan euskara erabiltzeko nahia mugatuz.

Galdekizunean euskara lanerako edo euskaldun egiteko balio duela dioten euskararen erabilera alderatuz gero, ezberdintasunak nabari dira. Hala ere idazlanen bidez egindako azterketan, alde haundiagoa ikusten dugu bi jarrera hauetako gazteen hizkuntza erabileran.

Galdekizun bidez egindako azterketan bestalde, nahiz eta jarrera izanerailea adierazten dutenen artean euskararen erabilera haundiagoa izan, ez dago alde handirik bestelako jarrera dutenengandik. Galdekizun bidez egindako neurketan, gizarte inguruko aldagaiek baldintzatzen dute hizkuntza erabilera; euskara

¹ W.MACKEY, M. SIGUAN. O.C., 1987, 80 orr.

gutxiengoaren hizkuntza izatean, ez baitira euskara erabiltzera iristen hala nahi duten guziak.

Bestetik, idazlanen bidez neurtu ditugun jarrerak gaztearen pentsaera eta sentipen sendoagoak adierazten dituztela aipatu behar dugu. 3.4.Taulan ikusten denez, gaztetxoek pentsakera hurbilagoetik jasotzean, argi azaltzen zaigu jarrera izaneraze eta trukeordaineko arteko ezberdintasuna.

3.1.Taulan ikusi dezakegunez, eragin ezberdina dute euskararen aldeko jarrerak erabileran. Esan dezakegu euskara indartzeko neurrien aldeko jarrera izan arren ere, norbera euskararen biziberritzearen arduradun eta euskarataz jabetzerik ematen ez denez, ez dutela erabileran eragin haundirik. Beraz, euskararekiko aldeko jarrera guziek ez dute euskararen erabilera berdin eragiten. Euskararen aldeko ekintzak bideratzea edo laguntzak eskeintzearen alde egotea eta euskara norbere sentitzea eta izanahia adierazteak eragin ezberdina dute euskararen erabileran.

Galdekizunean ere agertzen zaizkigu izanahia eta trukeordaina, baina hauek gain euskara indartzeko neurrietaz eta balioari buruz hainbat iritziei buruz galdetzean, zailagoa egiten zaigu bi ideia nagusien ezberdinketa.

Beraz, bigarren erabili dugun idazlanen metodo edo neurketa hau, gaztetxoek euskararekiko jarrerak eta berauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko egokiagoa dela uste dugu.

Hala ere bi neurketetan emaitza berdintsuak agertzen dira; jarrera izanerazeak direla euskararen erabilera gehien eragiten dutenak, trukeordainekoak eragin urriagoa dutenak eta balio eza edo aurkako jarrerak euskararen erabilera eragozten dutenak.

5.3.4. EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA EUSKARAREKIKO NAHI ETA ASMOETAN

Jarrera izanerazeak dutenak, hau da, euskara euskaldun izateko eta Euskalerrriaren hizkuntzatzat dutenak, gehiago sentitzen dute euskara, -3.5. taulako datuetan ikus daitekenez-. Hiztun hauentzat berezkoa da euskara, jatorrizkoa eta harreman intimoa agertzen dute hizkuntza honekiko.

Euskaldun izateko euskara beharrezkotzat dutenak eta Euskalerrrian gaudenez denok euskaraz hitzegiten behar dugula diotenak dira euskara entzutean poz gehien sentitzen dutenak. Baita ere poz gehien sentitzen dutenen artean daude,

euskara inglesa baino nahiago dutenak eta komunikabideetan euskara gehiagoren eskaera egiten dutenak.

Euskara entzutean ezer ez dutela sentitzen gehien adierazten dutenak berriz, komunikabideetan euskara eskatzearen eta Euskalerrian denok euskara erabili beharraren aurka daudenak dira.

Euskararen aldeko ekintzetan parte hartuz euskararen egoera aldatzeko asmoa gehien adierazten duten gazteak, aurrerago aipatutako jarrera izaneraze eta euskararen aldeko neurriekin bat datozen gazteak dira. Hau da; euskaldun izateko euskara behar dela diotenak, euskara inglesa baino nahiago dutenak, eta komunikabideetan euskararen eskaera egiten dutenak.

3.5.TAULA:

EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA EUSKARAREKIKO NAHI ETA ASMOAK

EUSKARAREKIKO NAHI ETA ASMOAK	EUSKARA LANA TOPATZEKO		EUSKARA GABE EZ DAGO EUSKALERRIRIK		E.H.RA DATORRENAK EUSKARA IKASI BEHAR		INGLESA EUSKARA BAINO NAHIAGO		EUSKALERRIAN GAUDENEZ EUSKARA ERABILI BEHAR		EZ DA EUSKARA BEHAR EUSKALDUN IZATEKO		KOMUNIKABI- DEETAN EUSKARA GEHIAGO BEHAR		
	%	Ados	Aurka	Ados	Aurka	Ados	Aurka	Ados	Aurka	Ados	Aurka	Ados	Aurka	Ados	Aurka
EUSKARA ENTZUTEAN SENTIMENDUAK															
POZA EMATEN DIT	21.1	43.7	43.5	14.4	48.2	17.7	9.2	54.1	52.4	11.1	20.3	54.9	54.5	7.7	
PENA NEUK EZ JAKITEA	27.1	19.2	21.1	22.9	19.4	24.8	24.9	16.8	21.8	21.0	27.4	13.1	20.4	19.1	
AMORRUA EMATEN DIT	4.9	2.4	2.0	7.8	1.8	5.7	8.1	1.1	1.1	7.8	5.0	2.2	0.8	11.4	
EZER ERE EZ	45.8	33.9	32.4	54.1	29.6	50.8	56.8	27.1	24.0	59.1	46.4	28.9	23.9	60.1	
ASMOAK															
EZER EZ EGITEA	38.3	27.3	25.0	48.2	20.5	48.6	60.4	17.1	15.5	58.2	41.2	22.8	14.5	66.7	
IKASI ETA ERABILI	42.9	34.1	38.6	37.3	36.1	35.0	30.4	37.5	41.1	29.9	41.3	31.1	39.7	23.8	
EKINTZETAN PARTE HARTU	16.8	35.2	34.1	10.7	40.8	13.3	5.8	43.1	41.4	8.6	15.2	43.7	43.8	6.2	
NAHIAK															
GALDUTA ERE EZ AXOLA	25.1	8.0	8.1	30.5	7.6	27.1	37.7	3.0	3.4	34.9	21.7	8.2	2.3	45.1	
DAGOEN BEZALA JARRAITU	32.4	25.0	24.2	39.9	22.5	34.3	40.1	19.0	17.5	40.8	35.7	18.3	16.4	37.2	
INDARTU ETA ZABALDU	41.4	66.2	66.9	27.2	68.9	37.2	21.0	77.1	78.5	22.9	41.7	72.5	80.8	16.0	
HIZKUNTZ AUKERA IKASKETAK JARRAITZEKO															
GAZTELERA	56.8	31.2	34.8	56.2	31.5	54.2	57.0	29.7	30.5	58.1	54.5	24.4	27.6	60.4	
EUSKARA	18.8	42.7	41.0	12.5	46.8	14.3	4.1	55.2	50.1	8.4	16.3	55.1	53.0	6.0	
INGLESA	12.7	9.0	8.8	14.7	8.5	14.4	22.5	2.4	6.7	15.5	12.6	8.1	6.8	16.3	
FRANTSESA	2.2	5.5	4.9	3.3	3.1	6.1	5.3	3.0	2.7	5.9	5.3	3.3	3.2	4.8	
EUSKALERRIKO HIZKUNTZA IDEALA															
ERDARA BAKARRIK	16.9	5.1	4.6	22.2	4.5	17.3	22.9	2.6	2.1	22.3	14.3	5.2	1.6	31.3	
EUSKARA BAKARRIK	18.3	43.4	41.9	10.2	49.1	13.4	6.9	53.7	52.8	7.1	16.4	57.0	53.5	5.9	
EUSKARA ETA ERDARA	60.5	48.6	50.3	62.0	43.1	64.7	64.3	40.7	42.4	65.5	65.8	34.4	42.3	55.4	

Euskara indartu eta zabaltzeko nahia adierazten dutenak ere, aurrerago aipatutako jarrera dutenen artean aurkitzen ditugu gehienbat.

Bestalde, komunikabideetan euskara gehiago erabiltzearen aurkako jarrera duten gazteak eta euskara baino inglesa nahiago dutenak dira, euskara indartzeko ezer egiteko asmorik gabe eta euskara galtzearekiko axolagabe, indartsuen agertzen direnak.

Jarrera izaneraze eta euskararen aldeko jarrera dutenak dira baita ere, bere ikasketak jarraitzeko euskara gehien aukeratzen dutenak eta Euskalerriko hizkuntza euskara bakarrik izatea gehien adierazten dutenak. Hau da; euskaldun izateko euskara beharrezkoa dela uste dutenak, komunikabideetan erabiltzeko eskaera egiten dutenak eta inglesa baino euskara nahiago dutenak.

Bestalde, komunikabideetan euskara gehiago erabiltzearen aurka agertzen direnak dira gehienbat, bere ikasketak jarraitzeko gaztelera aukeratzen dutenak eta Euskalerriko hizkuntza erdara bakarrik izatea gehien adierazten dutenak.

Euskararen aldeko aukera egiten dutenak, bere ikasketak euskaraz jarraitzeko nahia adieraziz, euskara ondo dakitenak baino gehiago dira, nahiz eta askoz gehiago ez izan. Gehiagoko hauek euskara erdizka dakitenak ditugu, 3.6.Taulan ikusi daitekenez.

Euskaldun izaera euskararen oinarritzea, euskara komunikabideetan erabiltzearen eskaera eta atzerriko hizkuntzen aurrean euskara aukeratzea dira, euskararen aldeko asmo eta nahiak gehien eragiten dituztenak. Bestalde, euskararen aldeko neurriak hartzearen aurkako jarrera da gehienbat, euskararen aurkako nahi eta asmoak eragiten dituena, 3.5. eta 3.6. Taulek erakusten digutenez.

3.6.TAULA: EUSKARAREKIKO JARREREN ERAGINA IKASKETAK JARRAITZEKO HIZKUNTZA AUKERATZEAN

EUSKARAREKIKO JARRERAK		IKASKETAK EUSKARAZ JARRAITU NAHI
	GUZTIRA..... 3 655	1.131
EUSKARAK LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO DU	Ados..... 1.353 Aurka..... 1.819	18.8 42.7
JAURLARITZAK DIRU GEHIAGO EMAN BEHAR EUSKARARI	Ados..... 2.415 Aurka..... 420	41.4 9.0
EUSKARA ERABILTzea DEBEKATU	Ados..... 308 Aurka..... 2.897	7.8 36.7
EZ DA EUSKALERRIRIK EUSKARARIK GABE	Ados..... 2.475 Aurka..... 577	41.0 12.5
EUSKARA BORONDATEZ IKASI BEHAR DA	Ados..... 2.735 Aurka..... 458	33.5 29.3
HAUR GUZIEK EUSKARA IKASI BEHAR	Ados..... 2.015 Aurka..... 981	46.0 8.3
DENOK ERDERA DAIOGUNEZ EUSKARARI EZ BEHAR	Ados..... 889 Aurka..... 2.231	6.2 45.5
EUSKALERRIRA BIZI TA LANERA DATORRENAK EUSKARA IKASI BEHAR	Ados..... 1.407 Aurka..... 1.428	46.8 14.3
EUSKARA POBREA DA, EZ DU BALIO ZIENTZIRAKO	Ados..... 824 Aurka..... 2.022	15.8 44.1
EUSKARA JAIGN BAKARRIK EZ ERABILI EGIN BEHAR	Ados..... 2.352 Aurka..... 675	42.3 11.4
NAHIAGO DUT INGELESA IKASI EUSKARA BAINO	Ados..... 1.255 Aurka..... 1.692	4.1 55.2
TB TA IRRATIAN EUSKARA ALPERRIKOA EZ DA ULERTZEN	Ados..... 895 Aurka..... 2.163	8.8 46.1
ESKOLETAN EUSKARA IKASTORDU GEHIAGO BEHAR	Ados..... 1.643 Aurka..... 1.016	48.8 9.8
EUSKARAREN INTERESA MODA BESTERIK EZ DA	Ados..... 374 Aurka..... 2.448	14.4 40.5
EUSKALERRIAN GAUDENEZ DENOK EUSKARA HITZEGIN BEHAR	Ados..... 1.831 Aurka..... 1.303	50.1 8.4
EZ DA EUSKARA BEHAR EUSKALDUN IZATEKO	Ados..... 1.773 Aurka..... 1.273	16.3 55.1
EUSKARAREN KANPAINA GEHIAGO BEHAR	Ados..... 2.040 Aurka..... 575	46.5 6.6
EUSKALDUNAK EZ DU UTZI BEHAR INOIZ EUSKARA	Ados..... 1.256 Aurka..... 1.243	44.9 24.4
BURUGABEKERIA EUSKARAGATIK EZIN ULERTUTA IBILTzea	Ados..... 1.335 Aurka..... 1.337	20.1 43.4
TB, EGUNKARI ETA IRRATIETAN EUSKARA GEHIAGO BEHAR	Ados..... 1.777 Aurka..... 852	53.0 6.0

5.3.5. IDAZLANETAKO EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA NAHIAK

Gaztetxo hauen idazlanetako adierazpenetan euskara erabiltzeko aukeraz gain euskararekiko nahiak ere neurtu ditugu. Euskara ikasi edo erabiltzeko nahiak, gure gizartean euskara bultzatzeko nahi eta asmoak, beste hizkuntzen aukera edo euskara ikastera behartuta izatearen sentimendua.

3.7.Taulan ikusi daitekeenez, euskararekiko jarrera izanerazlea dutenak dira, euskararekiko nahi gehien agertzen dutenak. Euskarari baliorik topatzen ez dioten ia inork ez du berriz agertzen euskararen aldeko nahirik. Bestalde, euskara betikoa, ohiturazko gauza edo gizarte tradizionalari dagokion hizkuntza dela diotenak, nahiz lana topatzeko balioa aurkitzen diotenak, maila txikiagoan ageri dute euskararekiko nahi. Beraz, azken jarrera hauek euskararekiko hotzagoak direla esan dezakegu; euskara ohituraz nahiz gizarte tradizionalari lotua ikusten dutenek, euskararen aldeko nahi urriago adierazten dute.

Euskarari baliorik aurkitzen ez diotenak dira berriz, euskararen ordezt beste hizkuntza bat ikastea nahiago dutenak. Gainontzean ez du inork adierazten euskara atzerriko beste hizkuntza baten ordezt uzteko nahi.

Azkenik, euskarari baliorik topatzen ez diotenak eta hauekin batera euskara lana topatzeko, harremanetarako edo hizkuntza bat gehiago jakiteagatik ikasten dutenak dira, honako asmo eta nahiak indartsuen adierazten dituztenak: euskara ikastera behartuta sentitzen direla eta euskara aukerazko ikasgaia izatea nahi dutela. Gainontzeko ikasleen artean ez da ageri beharizanaren ideia hau.

Beraz, euskararekiko trukeordaineko jarrerak dituztenak, jarrera izanerazlea dutenak baino gutxiago agertzen dute euskara indartzeko nahi eta gehiago adierazten dute euskara ikastera behartuta daudela. Jarrera izanerazleak dituztenek berriz, euskararekiko nahi argi adierazten dute eta euskararen aurkako nahiak eta beharizana ez dituzte aipatzen.


Azkenik, euskara ohituraz darabiltenek euskararekiko nahi ez dute argi adierazten nahiz eta euskararen aurkako iritzirik ere ez azaldu. Jarrera hau duten gazteak dira, euskararekiko jabetza urriena dutenak, euskararen egoeraz eta hizkuntza honek dituen beharretaz jabetu gabe agertzen baitira.

3.7.TAULA: EUSKARAREKIKO JARRERAK ETA EUSKARAREKIKO NAHIAK IDAZLANETAN

EUSKARAREKIKO JARRERAK	EUSKARAREN NAHIA ASMOA GOGOIA 518	NAHIAGO BESTE HIZKUNTZAK 161	EUSKARA IKASTERA BEHARTUT SENTITZEN 201	GUZTIRA 3.442
EUSKARA LANA TOPATZEKO ETA IKASKETAK ATERATZEKO	99 %17	30 %05.1	77 %13.2	582
EUSKARAK EZ DU EZERTARAKO BALIO	11 %05.4	46 %22.6	41 %20.1	203
EUSKARA GURE HIZKUNTZA DA	66 %27.9	3 %01.2	5 %02.1	236
EUSKARAK EUSKALDUN EGITEN GAITU	59 %25	0 %00	4 %01.6	236
EUSKARA GORDE BEHARREKO TRADIZIOA	19 %22.6	0 %00	2 %02.3	84
EUSKARA HIZKUNTZA ZAHARRA	42 %20	3 %01.4	2 %00.9	209
EUSKARA BETIKO HIZKUNTZA, OHITURA	24 %14.4	2 %01.2	0 %00	166
EUSKARA HARREMANAK IZATEKO, HIZKUNTZA BAT GEHIAGO JAKITEKO	26 %19.8	9 %06.8	15 %11.4	131
EUSKARA EUSKALERRIAREN HIZKUNTZA	32 %22.2	0 %00	1 %00.6	144
GIZARTE TRADIZIONALAREN HIZKUNTZA	31 %14.5	6 %02.8	4 %01.8	213

5.3.6. ASMO ETA NAHIEN ERAGINA HIZKUNTZA JOKABIDEETAN

Ajzen eta Fishbein'ek adierazten dutenez, erabili nahia edo usteak eta erabilera errearen artean eragile ugariak dute bere eragina:



Gizabanako bakoitzaren jokabidean, jokaera horretarako dituen intentzioak eragiten dute. Intentzioa berriz faktore ezberdinek eraginda sortzen da: batetik, jokaera batetaz gizabanakoak egiten duen ebaluazioa edo jokaera horrekiko duen jarrera. Bestetik, jokaera horrekiko gizartearen aldetik duen presioa, eta azkenik jokaera hori aurrera eramateko duen erraztasunen perzepzioa. Beraz, jokaera intentzioek jokaera nolakoa izango den gehiago argitzen digute jokaerarekiko jarrerak baino ².

Ajzenen ustez, jarrera eta jokaeraren arteko harremana aztertzerakoan, jarreraren zein alderdi neurtzen dugun kontutan hartu eta alderdi bakoitzari dagokion jokaerarekin alderatu beharko dugu jarrera horrek jokaeran duen eragina zenbaterainokoa den ezagutu ahal izateko ³.

Jarrera eta jokaeraren arteko erlazioa indartsuagoa izango da, bai jarrerak eta bai jokaerak zehaztasun maila berdina dutenean.

Gure ikerketan ere, galdekizunaren bidez neurtutako eragile izanerazleek euskararekiko nahi eta asmoetan eragin haundiagoa dute erabileran baino, 3.1 eta 3.5.Tauletan ikusi daitekenez. Euskararekiko jarrerak orokorragoak direnez eguneroko hizkuntza erabilera baino, erlazio otzagoa aurkitzen da bien artean. Gehiago dira euskararen aldeko zenbait iritzirekin ados daudenak, euskara erabili nahia agertzen dutenak edo euskara darabiltenak baino.

Gainera euskara erabili nahi duten guziek ez dituzte sarritan euskara erabiltzeko baldintza egokiak aurkitzen gizartean. Horregatik galdekizun bidez neurtutako jarrera izanerazleak eraginkorragoak dira adibidez ikasketak euskaraz jarraitzeko hizkuntza aukeratzean, eguneroko erabileran baino, ikus 3.6.Taulan.

Bestalde, galdekizun bidez neurtutako jarrerak baino, euskararekiko nahi eta asmoek -galdekizun bidez neurtuak hauek ere- euskararen erabileran gehiago eragiten dutela ikusi dezakegu. Ikus 3.1. eta 3.8.Taulak.

² AJZEN; "Attitude structure and behavior" in: PRATKANIS A.R. e.a.; *Attitude structure and function*, Lawrence Erlbann, 1989, 253 orr.

³ Liburu berean, 244 orr.

HITZEZKOA	KOGNIZIOA Usteen adierazpenak	AFEKTUA Sentimendu adierazpenak	KONATIBOA Portacra intentzioak
EZ HITZEZKOA	Erreakzio perzeptualak	Erreakzio psikologikoak	Portacra

Euskararekiko nahi eta asmoak euskararekiko ardura edo jabetza neurtzean zehatzagoak dira galdekizunetan neurtutako jarrerekiko iritziak baino.

3.8.TAULA: EUSKARAREKIKO ASMO ETA NAHIEN ERAGINA HIZKUNTZA ERABILERAN
(Zeharkako chunekoak)

EUSKARAREKIKO ASMO ETA NAHIAK %	EUSKARA	EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	ERDARA
EUSKARA ENTZUTEAN SENTIMENDUAK			
POZA EMATEN DIT	36.1	12.9	50.0
PENA NEUK EZ JAKITEA	0.7	1.6	96.8
AMORRUA EMATEN DIT	0.7	2.2	94.0
EZER ERE EZ	7.6	4.9	86.3
ASMOAK			
EZER EZ EGITEA	5.2	3.8	89.9
IKASI ETA ERABILI	6.5	6.1	86.3
EKINTZETAN PARTE HARTU	42.1	11.4	45.2
NAHIAK			
GALDUTA ERE EZ AXOLA	0.3	0.8	97.3
DAGOEN BEZALA JARRAITU	3.6	4.4	90.8
INDARTU ETA ZABALDU	26.3	9.7	63.0
HIZKUNTZA AUKERA IKASKETAK JARRAITZEKO			
GAZTELERA	1.1	2.5	95.0
EUSKARA	44.4	14.0	40.8
INGLESA	2.4	2.4	94.5
FRANTSESA	0.6	7.1	90.9
EUSKALERRIKO HIZKUNTZA IDEALA			
ERDARA BAKARRIK	2.2	1.1	95.1
EUSKARA BAKARRIK	41.6	12.6	45.0
EUSKARA ETA ERDARA	3.3	4.6	91.0

Euskararekiko asmo eta nahiek euskararen aurrean izango den jokaerarekin zer ikusi gehiago dute, euskararekiko uste eta iritzi orokorrek baino. Gazteak euskararekiko dituen asmoek, euskararekiko izango duen jokaera nolabait auresaten digute, jokararako prest izate bat adierazten baitute asmo eta nahi hauek.

Esan dezakegu jarrera orokorrek uste edo pentsakerak adierazten dituzten bezala, asmo eta nahiek jokaera eragiten duten jarrerak direla. Hau dela eta, asmo eta

nahiek, jarrera orokorrek baino gehiago argitzen digute gazteek izango duten hizkuntza erabilera.

Aipatzekoa da baita ere, hitzeko jokaera eta ez-hitzezkoaren artean nabari den aldea. Gaztetxoek idazlana euskaraz idazteko galdekizunean agertzen diguten intentzioa eta idazlana euskaraz idaztea alderatu ditzakegu, intentzioa eta jokaera erreala izanik bata eta bestea.

Galdekizun bidez neurtutako jarrera ezberdinek idazlana euskaraz idazteko intentzioetan zer esana baldin badute ere -3.9.Taulan agertzen denez-, galdekizunetan neurtutako jokaera intentzioetan baino eragin haundiagoa dute idazlanetako jarrerak jokaera errealean, hau da, idazlana eskaraz idaztean -3.4.Taulan ikusi dezakegunez-.

Lanarekiko iritziak bakarrik agertzen du idazlana idazteko intentzioa eta idazlana idazten dutenen proportzio berdina. Gainontzeko jarrerak dituztenen artean, intentzioa agertzen dutenak gutxiago dira idazlana euskaraz idazten dutenak baino.

Beraz esan dezakegu, galdekizun bidez neurtu ditugun jarrerak jokaerarekin urrunago daudela, idazlan bidez neurtu ditugun jarrerak baino.

Idazlanetan iritzia ematen digutenak gutxiago badira ere, jarrera bat nahiz bestea adierazten digutenen azalpenak erreagoak direla esango genuke, jarrera eta jokaeraren artean lotura estuagoa agertzen baitute. Idazlanen bidez neurtutako jarrera hauek, gaztearen pentsakeratik gertuago dauden jarrerak direnez gero, zer ikusi gehiago dute gazte hauek ondorenean izango duten jokaerarekin.

3.9.TAULA: EUSKARAREKIKO JARRERA EZBERDINEN ERAGINA IDAZLANA IDAZTEKO INTENTZIOETAN (Zeharkako ehunekoak)

EUSKARAREKIKO JARRERAK		EUSKARAZ	ERDARAZ
	GUZTIRA..... 3 655	742	2.775
EUSKARAK LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO DU	Ados..... 1.353 Aurka..... 1.819	123 28.4	64.3 67.8
JAURLARITZAK DIRU GEHIAGO EMAN BEHAR EUSKARARI	Ados..... 2.415 Aurka..... 420	27.3 7.8	68.5 90.5
EUSKARA ERABILTzea DEBEKATU	Ados..... 308 Aurka..... 2.897	6.8 24.0	90.9 72.0
EZ DA EUSKALERRIRIK EUSKARARIK GABE	Ados..... 2.475 Aurka..... 577	27.4 7.1	68.4 90.1
EUSKARA BORONDATEZ IKASI BEHAR DA	Ados..... 2.735 Aurka..... 458	21.7 21.4	74.5 75.5
HAUR GUZIEK EUSKARA IKASI BEHAR	Ados..... 2.015 Aurka..... 961	30.3 4.9	65.4 92.8
DENOK ERDERA DAKUGUNEZ EUSKARARI EZ BEHAR	Ados..... 859 Aurka..... 2.231	3.3 30.0	94.3 65.5
EUSKALERRIRA BIZI TA LANERA DATORRENAK EUSKARA IKASI BEHAR	Ados..... 1.407 Aurka..... 1.428	32.9 8.8	62.9 88.0
EUSKARA POBREA DA, EZ DU BALIO ZIENTZIRAKO	Ados..... 824 Aurka..... 2.022	9.7 29.3	67.7 66.3
EUSKARA JAKIN BAKARRIK EZ ERABILI EGIN BEHAR	Ados..... 2.352 Aurka..... 675	28.5 5.5	67.1 92.0
NAHIAGO DUT INGELESA IKASI EUSKARA BAINO	Ados..... 1.255 Aurka..... 1.692	3.1 35.5	94.7 59.8
TB TA IRRATIAN EUSKARA ALPERRIKOA EZ DA ULERTZEN	Ados..... 895 Aurka..... 2.183	6.3 30.5	90.7 64.9
ESKOLETAN EUSKARA IKASTORDU GEHIAGO BEHAR	Ados..... 1.643 Aurka..... 1.016	30.9 6.1	65.0 90.6
EUSKARAREN INTERESA MOA BESTERIK EZ DA	Ados..... 374 Aurka..... 2.448	8.8 27.1	87.4 68.9
EUSKALERRIAN GAUDENEZ DENOK EUSKARA HITZEGIN BEHAR	Ados..... 1.831 Aurka..... 1.303	34.1 4.8	61.6 92.3
EZ DA EUSKARA BEHAR EUSKALDUN IZATEKO	Ados..... 1.773 Aurka..... 1.273	10.1 37.5	86.7 58.7
EUSKARAREN KANPAINA GEHIAGO BEHAR	Ados..... 2.040 Aurka..... 575	31.2 5.0	64.5 92.5
EUSKALDUNAK EZ DU UTZI BEHAR INOIZ EUSKARA	Ados..... 1.256 Aurka..... 1.243	31.5 15.2	64.4 81.0
BURUGABEKERIA EUSKARAGATIK EZIN ULERTUTA IBILTzea	Ados..... 1.335 Aurka..... 1.337	12.9 28.4	83.8 67.9
TB, EGUNKARI ETA IRRATIETAN EUSKARA GEHIAGO BEHAR	Ados..... 1.777 Aurka..... 852	35.7 3.8	59.4 94.7

Euskararen ezagutza eta erabilera jarrera ezberdinen eraginpean daude beraz; jarrera izanerazailea izanik euskara ikasi eta erabiltzean eragin gehien duena eta aurkako jarrera gehien oztopatzen duena. Trukeordaineko jarrerak, nahiz euskara ikasi eta erabiltzean eragina izan, ez dute jarrera izanerazaileek hainbesteko eraginik euskara ikasi eta erabiltzean.

Gazte hauen artean euskararen ezagutza da altuena, ondoren euskara erabiltzeko intentzioa edo asmoa, eguneroko bizitzan euskararen erabilera izanik urriena. Ezagutzaren eta euskararekiko nahien kopuruak altuagoak dira beraz, erabilerarenak baino.

Euskararekiko intentzioa, nahia edo asmoa izan arren ere, gutxiago dira euskara erabiltzen dutenak. Hala ere, alde haundiena euskara ezagutu eta erabiltzeko intentzio edo asmorik agertzen ez dutenen arteko aldea da. Beraz, euskara erabiltzeko nahia da gehien falta dena, nahiz eta erabili nahi dutenek euskara erabiltzeko oztupoak ere izan.

Balioen mailan hitzegiten digutenak dira euskararen aukera gutxien egiten dutenak; gizarteak euskarari balio haundirik ematen ez dionez eta beste hizkuntzak gehiago baloratzen dituenez, hiztun hauek ez diote garrantzi haundirik aurkitzen euskara ikasteari eta euskara ikastea borondatezkoa izatea nahi lukete. Beraz, gure gizarteko baldintzen arabera, euskararekiko izanahia edo nortasun mailan euskararekiko atxekimendurik ez duten gazteek, ez dute beharrik sentitzen euskara ikasteko edo euskararen munduan murgiltzeko.

Orainartean euskarak iraun badu, hiztunek euskara erabiltzeko nahia izan dutelako gehiago dela esan dezakegu, euskara erabiltzeko gizartearen eskaerengatik baino.

Hala ere, euskara bi eratara baloratzen dela aikusi dugu, bi eratako eragileek bere eragina dutelarik euskararen erabileran.

Azter ditzagun jarraian, hiztun ezberdinen ezaugarriak eta ezagutu euskararen erabilerak huts egiten duen guneak zein diren.

5.4.
HIZTUN EZBARDINAK AZTERTZEN

5.4. HIZTUN EZBARDINAK AZTERTZEN

Emaitzen azterketari eskaintzen diogun laugarren zati honetan, hizkuntza erabilera ezberdina duten gaztekoen ezaugarriak aztertuko ditugu. Aurrena, euskal eta erdal hiztunek euskararekiko eta erdararekiko -gaztekoen nahiz frantsesarekiko- dituzten irudiak zehaztuko dira.

Alde batetik, hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak, eta bestalde, hizkuntza bakoitzak gizartean duen egoeraren irudia azalduko dugu. Kasu bakoitzerako, hiztun ezberdinek, bai euskararekiko eta bai erdararekiko dituzten ikuspegiak aurkeztuko ditugu; ondoren bi hizkuntzek dituzten irudiak alderatuz.

Azkenik, euskal hiztunek duten bizi indarra aztertuko dugu; hau da, euskara erabiltzen dutenek euskarak duen estatusa, laguntza eta erabilgarritasunari buruz duten ikuspegia.

Hiztun ezberdinen ezaugarri soziodemografikoak aurkeztuko ditugu. Eta baita, hiztun batzuek eta besteek euskararekiko dituzten jarrerak, nahiak eta asmoak ere zehaztuko ditugu. Azkenik, bai euskal hiztunek, bai erdal hiztunek eta bai euskara eta erdara berdinean erabiltzen dutenek egiten duten hizkuntza aukera aztertuko dugu: musika entzutean, telebista edo irratia jarraitzerakoan eta liburuak irakurtzerakoan.

HIZKUNTZA EZBERDINEN IRUDIAK

EUSKARAREN IRUDIA: - euskal hiztunen ikuspegitik ———
 - erdal hiztunen ikuspegitik - - - -

ERDARAREN IRUDIA: - euskal hiztunen ikuspegitik = = =
 - erdal hiztunen ikuspegitik = = =

4. Irudia: EUSKARA ETA ERDERAREN EZAUGARRIAK

EUSKARA ETA ERDERAREN EZAUGARRIAK

HIZKUNTZA POLJTA DA		HIZKUNTZA ZATARRA DA
HIZTEGI POBREA DU		HIZTEGI ABERATSA DU
DOINU TRISTEKO HIZKUNTZA DA		DOINU ALAIKO HIZKUNTZA DA
HIZKERA GOZOA DU		HIZKERA GARRATZA DU
HIZKUNTZA BEREZIA		HIZKUNTZA NORMALA
EZ DA SENTIMENDUAK AZALTZEKO EDO IDEIAK EGITURATZEKO HIZKUNTZA		EDOZER IDEIA EGITURATZEKO EDO SENTIMENDU AZALTZEKO HIZKUNTZA DA
HIZKUNTZA HAU IKASTEAN EZ DUT GOGOKOA		HIZKUNTZA HAU IKASTEAN GOGOKO DUT
HIZKUNTZA HAU IKASTEAN ZAILA DA		HIZKUNTZA HAU IKASTEAN ERRAZA DA
HERRI TXIKI EDO BASERRIETAKO HIZKUNTZA DA		HIRI EDO HERRI HAUNDIETAKO HIZKUNTZA DA
HIZKUNTZA HONEN JATORRIA EZAGUTZEN DA		EZ DA EZAGUTZEN HIZKUNTZA HONEN JATORRIA
NI BIZI NAIZEN HERRIKO HIZKUNTZA DA		NI BIZI NAIZEN HERRITIK KANPOKO HIZKUNTZA DA
HIZKUNTZA HAU ORAIN DELA GUTXI SORTU DA		HIZKUNTZA HAU OSO ASPALDI SORTUA DA
HIZKUNTZA HAU HELDUEN HIZKUNTZA DA		HIZKUNTZA HAU HAUREN HIZKUNTZA DA
HIZKUNTZA JAKITUNEN HIZKUNTZA DA		HIZKUNTZA HAU EZ JAKINEN HIZKUNTZA DA
HIZKUNTZA HAU PERTSONA MODERNOEN HIZKUNTZA DA		HIZKUNTZA HAU PERTSONA TRADIZIOALENA DA

5.4.1. EUSKARA ETA ERDERAREN EZAUGARRIAK

5.4.1.1. Euskararen irudia hiztun ezberdinen ikuspegitik

Euskara gehien erabiltzen dutenen artean, euskararen aldeko ezaugarriak erdara darabiltenak baino indar gehiagorekin adierazten dizkigute.

Euskara erabiltzen dutenek euskara: hizkuntza polita, aberatsa, doinu alaiko hizkuntza, eta hizkera gozotzat daukate. Erdara erabiltzen dutenek ere ezaugarri berauek aipatzen dituzte euskarari buruz, baina euskal hiztunek baino askoz ere apalago.

Euskal hiztunek, erdal hiztunek bezala, euskara edozer ideia egituratzeko eta sentimendu azaltzeko hizkuntzatzat daukate, nahiz eta azken hauek euskal hiztunek baino apalago adierazten duten iritzi hau.

Bi hiztunen artean alderik haundiena, euskara ikasteko gogoan ageri da; euskara erabiltzen dutenak motibatuago agertzen dira euskara ikasteko erdaldunak baino.

Erdara erabiltzen dutenek, euskara ikasteko zailtasuna aipatzen dute, euskal hiztunek euskara ikastea erraza dela uste duten bitartean.

Euskara darabiltenek, euskara bere herriko hizkuntzatzat daukate. Baita erdal hiztunak ere, baina euskal hiztunak baino indar gutxiagorekin adierazten dute iritzi hau.

Bi hiztun taldeetakoek euskara aspaldi sortua dela aipatzen dute; hala ere, euskal hiztunek indar gehiagorekin adierazten dute euskara hizkuntza zaharra dela erdal hiztunekin alderatuz gero.

Azkenik, bi hiztunek indar berdinarekin azaltzen dizkigute honako iritzi hauek: euskara herri txiki eta baserrigiroko eta pertsona tradizionalen hizkuntza dela. Bestalde bi hiztunak bat datoz euskararen jatorriari buruz iritzirik ez ematean, eta euskara haurrena nahiz helduena, pertsona jakitunena naiz ez jakinena dela aipatzean.

5.4.1.2. Bi hizkuntzen ezaugarrien alderaketa

Euskal hiztunek, euskararekiko ez bezalako irudia dute erdararekiko. Euskara erabiltzen dutenek erdara: hizkuntza zatarra, doinu tristekoa, hizkuntza garratza dela diote. Bestalde, ez dute uste erdara hizkuntza berezia denik, erdara hizkuntza normala dela baitiote.

Euskal hiztunek, erdara edozer ideia egituratzeko eta sentimendu azaltzeko hizkuntza dela uste dute baina euskara baino indar gutxiagorekin adierazten dute iritzi hau.

Erdal hiztunek berriz, bai euskara eta bai erdararen irudi berdintsua azaltzen digute ezaugarri hauei dagokionez, nahiz eta erdara zerbait politagoa eta gozoagoa ikusten duten. Erdal hiztunek, euskara hizkuntza berezitat daukate eta erdara normalagotzat. Erdara berriz, ideiak egituratzeko hizkuntza dela, euskararen aldean indar gehiagorekin adierazten dute.

Euskal hiztunek euskara ikastea gogoko duten bitartean, erdaldunak baino motibatuagoak agertuz, erdara ikasteko ez dute gogorik azaltzen. Bestalde, erdara ikasteko zailtasunik ere ez dute aipatzen.

Erdal hiztunak berriz, euskara ikastea gogoko izan arren, erdara ikasteko gogotsuago agertzen dira. Bestalde, euskara ikastea zaila dela dioten bezala, erdara ikastea erraza dela uste dute.

Euskara herri txiki edo baserrigiroan kokatzen dute gaztetxoek, erdara berriz hiri eta herri haundietako hizkuntza da gazteen ustez, bi hiztunek iritzi berdina izanik gai honetan.

Jatorriari buruz, erdararen jatorria ezaguna den bezala, ez digute gazteek euskararen jatorriaz iritzirik ematen, bi hiztunek bat etorriaz honetan ere.


Euskal hiztunek, erdal hiztunek baino indartsuago adierazten badute ere euskara oso aspaldi sortua dela, euskara erdara baino hizkuntza zaharragotzat daukate bi hiztunek.

Euskal hiztunek euskara bere herriko hizkuntzatzat daukate eta erdara kanpoko hizkuntzatzat. Erdal hiztunek berriz, bi hizkuntzak dituzte bere herriko hizkuntzatzat, nahiz ezaugarri hau euskaldunak baino indar gutxiagorekin adierazten duten.


Bi hiztunak bat datoz azkenik, bai euskara eta bai erdara, heldu nahiz gazteen hizkuntzak direla eta jakitun nahiz ez jakinenak direla esatean. Bestalde, euskara pertsona tradizionalei lotua ikusten duten bezala, erdara pertsona modernoek hizkuntzatzat daukate, bi hiztunek iritzi berekoak izanik gai honetan ere.

EUSKARA ETA ERDERAREN GIZARTE EGOERA


GENDE ASKOK DAKI EUSKALERRIAN
HIZKUNTZA IAU HIZZEGITEN




EUSKALERRIAN OSO
GUTXI ERABILTZEN DA




EUSKALERRIAN HIZKUNTZA HONEN
EGOERA AHIULA DA




HIZKUNTZA HONEN INTERESA
MODA BAT BESTERIK EZ DA




HIZKUNTZA IAU LURRALDE
BERRIETARA ZABALDUA DAGO




GALTZEN ARI DEN
HIZKUNTZA BAT DA




EZ DU EZERTARAKO
BALIO.EUSKALERRIAN EZ DA
EZERTAN ERABILTZEN




EUSKALERRIAN EZ DAGO
HIZKUNTZA IAU JAKIN
BEHARRIK LANA TOPATZEKO



EUSKALERRIAN BESTEEKIN
ERLAZIONATZEKO
BEHARRIZKOA DA




EUSKALERRIAN HIZKUNTZA
IAU JAKITERA DERRIGORTU
EGITEN DUTE




HIZKUNTZA IAU
ERABILTZEAGATIK
HASERRE ETA EZTABAIDAK
SORTZEN DIRA




HIZKUNTZA HONETAKO HIZTUNA
BAZTERTUA IZAN OHI DA
GURE GIZARTEAN



EUSKALERRIAN
LEHENENGO HIZKUNTZA DA



GOBERNUAK HIZKUNTZA IAU
BULTZATU EGITEN DU




KOMUNIKABIDEEK.IRRATI,
TELEBISTA ETA EGUNKARIEK
HIZKUNTZA IAU BULTZATZEN



EUSKALERRIAN HIZKUNTZA
HONETAKO HIZTUNAK BESTE
HIZTUNA DISKRIMINATZEN DU



EUSKALERRIAN HIZKUNTZA IAU EZ
DAKTENEI BURLA EGITEN ZAIE



EUSKALERRIAN EZ DAKI GENDE
ASKOK HIZKUNTZA IAU

EUSKALERRIAN ASKO
ERABILTZEN DA

INDAR IIAUNDIA DU
EUSKALERRIAN HIZKUNTZA HONEK

HIZKUNTZA HONEKIKO
INTERESA BETIKOA DA

HIZKUNTZA IAU LURRALDE
BATZUETARA MURRIZTUA DAGO

INDARTZEN ARI DEN
HIZKUNTZA BAT DA

EUSKALERRIAN OSO BALOTSUA
DA. GAUZA ASKOTAN ERABILTZEN
BAIDA HIZKUNTZA IAU

EUSKALERRIAN HIZKUNTZA IAU
JAKIN GABE EZIN DA LANPOSTU
BAT TOPATU

EUSKALERRIAN EZ DAGO
HIZKUNTZA HONEN BEHARRIK
BESTEEKIN ERLAZIONATZEKO

EUSKALERRIAN HIZKUNTZA IAU
JAKITEA BORONDATEZKOA
IZATEN DA

HIZKUNTZA IAU
ERABILTZEAGATIK EZ DA
ARAZORIK IZATEN

HIZKUNTZA HONETAKO HIZTUNA
APREZIATUA IZATEN DA GURE
GIZARTEAN

EUSKALERRIAN BIGARRENKO
HIZKUNTZA DA

GOBERNUAK EZ DU HIZKUNTZA IAU
BULTZATZEN

KOMUNIKABIEEK.IRRATI,TELEBISTA
ETA EGUNKARIEK EZ DUTE
HIZKUNTZA IAU BULTZATZEN

EUSKALERRIAN HIZKUNTZA
HONETAKO HIZTUNAK BESTEA
ERRESPETATU EGITEN DU

E.H.A.N HIZKUNTZA IAU EZ
DAKTENEI EZ ZAIE BURLA EGITEN

5.4.2. EUSKARA ETA ERDERAREN GIZARTE EGOERA

5.4.1.1. Euskararen gizarte egoera hiztun ezberdinen ikuspegitik

Erdal hiztunek, euskaldunek uste duten baino euskara gehiago ezagutzen den ustea daukate. Euskararen erabilerari dagokionez berriz, erdal hiztunek euskara gutxi erabiltzen dela uste duten bezala, euskal hiztunek ez dute iritzi argirik euskararen erabilerari buruz.

Bi hiztunek bat datoz euskarak Euskalerrian duen egoera eta euskararen lurralde hedapenari buruz iritzirik ez ematean. Baita ere ados agertzen dira, euskara galtzen ari den hizkuntza bat bezala ikustean, bai euskal eta bai erdal hiztunak.

Bestalde bi hiztunek diotenez, euskararen interesa betikoa da, nahiz eta euskal hiztunek indartsuago adierazten duten euskararekiko betiko interesa.

Nahiz eta bi hiztunek euskara euskal gizartean baliotsua dela esan, euskal hiztunak indar gehiagorekin adierazten digu euskarak euskal gizartean duen balioa.

Euskal hiztunek ez dute uste hala ere, euskara beharrezkoa denik lana topatzeko; bai ordea besteekin harremanak izateko. Erdal hiztunek euskara lan aukerekin lotzen dute eta ez dute uste besteekin erlazionatzeko euskara behar denik euskal gizartean.

Bi hiztunek uste dute bestalde, euskara ikastea borondatezkoa dela, baina euskal hiztunek indartsuago adierazten dute borondatezkotasun hori.

Euskara erabiltzeagatik arazorik ez dela izaten eta gizarteak euskaraz ari dena apreziatu egiten duela esatean ere bat datoz, bai erdal eta bai euskal hiztunak. Hala ere, euskal hiztunek zerbait indar gehiagorekin adierazten dituzte iritzi hauek.

Euskal hiztunek euskara Euskalerriko lehen hizkuntzatzat daukate, baita erdal hiztunek ere, nahiz eta erdaldunek apalago adierazten duten iritzi hau.

Euskara babestutako hizkuntza da Euskalerrian, bai gobernua eta bai komunikabideen aldetik. Erdal hiztunek, euskaldunek baino zerbait indar gehiagorekin adierazten dute gobernuaren aldetik euskarak duen laguntza. Baina, euskal hiztunek erdaldunak baino zerbait gehiago adierazten dute komunikabideek euskara bultzatzen dutela.

Azkenik, bi hiztunek diotenez, euskaraz ari denak beste hiztunak errespetatu egiten ditu eta euskara ez jakiteagatik ez da inor iraindua izaten.

5.4.1.2. Bi hizkuntzen gizarte egoeraren alderaketa

Euskalerrian gende gutxiagok ezagutzen du euskara erdara baino hiztun ezberdinek adierazten digutenez, euskal hiztunak izanik euskararen ezagutza urrienaren irudia dutenak.

Erdara da bestalde, Euskalerrian gehien erabiltzen den hizkuntza, euskara baino gehiago erabiltzen dela uste baitute hiztun ezberdinek. Hiztun erdaldunek dira hala ere, erdara eta euskararen erabilera ezberdina gehien azpimarratzen dutenak.

Bai euskara eta bai erdara erabiltzen dutenen ustez, euskarak Euskalerrian egoera ahula bizi du, erdarak egoera indartsu bat duen bitartean.

Erdara lurralde berrietara zabaldua dagoen hizkuntza eta indartzen ari den hizkuntza bat bezala ikusten dute hiztun ezberdinek. Euskara berriz, lurralde berrietako hedapenik ez duen eta galtzen ari den hizkuntza bat bezala ikusten dute bai euskaldunek eta bai erdaldunek.

Euskal hiztunek euskarak euskal gizartean erabilgarritasuna duela uste dute, erdarak ez duelarik euskarak hainako erabilgarritasunik. Erdal hiztunek berriz, bi hizkuntzei maila bereko balioa aurkitzen diote eta ez dute, euskal hiztunek euskarari ematen dioten hainako baliagarritasunik adierazten euskararekiko.

Euskal hiztunek ez dute uste euskara lana topatzeko beharrezkoa denik Euskalerrian, erdara berriz beharrezkotzat dute lana aurkitu ahal izateko. Erdal hiztunek berriz, erdara bezala, euskara ere beharrezkoa ikusten dute euskal gizartean lanpostua eskuratu ahal izateko.

Besteekiko harremanetan berriz, hiztun ezberdin bakoitzak bere hizkuntza beharrezkoa ikusten du giza harremanetarako, baina besteen hizkuntza ez dute uste beharrezkoa denik giza harremanetarako.

Euskara ikastea erdara ikastea baino borondatezkoagoa dela uste dute hiztun ezberdinek; hala ere euskal hiztunek indartsuago adierazten dute iritzi hau erdal hiztunek baino.

Euskal hiztunek, euskara erabiltzeagatik arazorik ez dela izaten eta hizkuntza hau erabiltzea gizarteak apreziatu egiten duela uste duten bezala, erdara erabiltzean arazoak sortzen direla eta gizarteak baztertu egiten duela uste dute. Erdal hiztunek, bi hizkuntzak erabiltzean arazorik ez dela sortzen uste dute eta gizartean ez dela inor baztertzen hizkuntzaren erabileragatik. Hala ere, iritzi hau indartsuago adierazten dute erdararekiko, euskararekiko baino.

Euskara dute Euskalerriko lehen hizkuntzat bi hiztunek, eta erdara bigarren hizkuntzat. Hala ere, euskal hiztunek gehiago azpimarratzen dute ezaugarri hau, erdal hiztunek baino.

Gobernuak euskarari laguntzen diola uste dute hiztunek erdarari ez bezala, hala ere erdal hiztunek euskaldunek uste dutena baino laguntza gehiago jasotzen duela gobernuaren eskutik uste dute. Bestalde, euskal hiztunek erdaldunek uste dutena baino, laguntza gutxiago ematen zaiola erdarari uste dute.

Komunikabideen aldetik ere, euskara bultzatua dela diote hiztun ezberdinek, nahiz eta euskal hiztunek euskarari gehiago laguntzen diotela pentsatu erdal hiztunek baino. Erdal hiztunek berriz, komunikabideek erdara ez dutela euskara hainbete bultzatzen uste dute.

Hiztun ezberdinak ados agertzen dira, bai euskara bai erdara erabiltzen dutenak, beste hizkuntza batetako hiztuna errespetatzen dela eta bere hizkuntza ezagutzen ez duenari irainik ez zaiola egiten adieraztean. Hala ere, euskal hiztunen ikuspegitik erdara da beste hiztuna gutxien errespetatzen duena. Erdal hiztunak dira berriz, euskara ezagutzen ez duenari irainik ez zaiola egiten ahulen adierazten dutenak.

5.4.3. EUSKAL HIZTUNEN BIZI INDARRA

Euskal hiztunek, euskararekiko afektuzko atxekimendua adierazten dute, erdararekiko ez bezala. Euskara hizkuntza polita, doinu alaikoa, hizkera gozokoa dela aipatzen digute. Bestalde euskara baloratu egiten dute, euskara hizkuntza berezi bat bezala azalduz. Baina batik bat euskara ikasteko gogoazaltzen dute erdara ikasteko gogo ezari kontrajarriz; beraz euskara ikasteko motibazioa badutela adierazten dute.

Bestalde, euskara hizkuntza zaharra, herri txiki eta baserrigirokoa eta beren herriko hizkuntza bezala azaltzen digute, erdara hirietakoa eta bere herritik kanpoko hizkuntza dela esanez.

Beraz, euskal hiztunek euskararekiko afektua adierazten dute eta hizkuntza hau baloratuz eta bere herriari atxekiz, euskara ikasteko motibatuak daudela adierazten dute.

Baina euskal hiztunek, erdarak gizartean egoera hobea duela uste dute; erdara euskara baino gende gehiagok ezagutzen eta erabiltzen duen hizkuntza dela uste dute, euskarak egoera ahulagoa bizi duela Euskalerrian erdararen aldean, gainera erdara lurralde berrietara zabaldua dagoen eta indartzen ari den hizkuntzat daukate.

Euskal hiztunek, ez dute erdal hiztunek baino irudi hobea euskarak gizartean duen egoerarekiko, ez baitute uste asko direnik euskara dakitenak, erdal hiztunek uste duten bezala.

Ezagutza, erabilera eta gizartean euskarak duen indarra eta lurralde hedapenaren arabera, euskal hiztunek erdara baino egoera okerragoan ikusten dute euskara. Antzeko ikuspegia dute euskal hiztunek euskararen joerari buruz ere, ez baitote etorkizun onik ikusten euskarari.

Hala ere, euskal gizartean euskarak erdarak baino balio haundiagoa duela diote euskal hiztunek; euskara besteekin harremanak izateko beharrezkotzat dute, erdal hiztunek ez bezala. Lanerako berriz ez dute euskal hiztunek euskararen beharra adierazten.

Euskara erabiltzen dutenek, euskara Euskalerriko lehen hizkuntza dela diote eta euskal gizarteak apreziatu egiten duela euskararen erabilera.

Erakundeetatik jasotzen duen laguntzari dagokionez berriz, euskara erdara baino gehiago lagundua dela ikusten dute. Hala ere, erdal hiztunek uste dutena baino, gobernuaren eskutik laguntza gutxiago jasotzen dituenaren irudia dute euskaldunek, nahiz eta komunikabideen aldetik erdaldunek uste dutena baino laguntza gehiago jasotzen duen irudipena izan.

Euskal hiztunek euskararekiko egoera txarraren irudia dute: hiztunen kopurua, lurraldea, erabilera e.a. aipatzean. Hala ere, gizartean duen balioari dagokionez, euskal gizartean euskarak duen maila, estimazioa, harremanetarako beharra, balioa e.a. erdara baino altuagoak direla uste dute. Azkenik erakundeen aldetik erdara baino gehiago lagundua dela ere aipatzen dute.

Beraz, euskal hiztunek euskara Euskalerrian gutxiengo egoera duela aitortzen badute ere, estatusa eta laguntza badituela adierazten digute.

Bizi indar etnolinguistikoen teorikoei jarraituz, euskal hiztunek nahiz hizkuntza gutxiengotu bat bezala ikusi, bizi indar etnolinguistiko haundia dutela esan genezake. Euskarak bizi duen egoeran, datu honek euskararen erabilera ziurtatua dagoela eta euskarak jarraipena baduela pentsa arazi dezake.

Gizartean euskarak duen egoeraren perzepzioak hiztunen hizkuntza jokaera baldintzatu dezakeela diote teoria honen jarraitzaileek. Euskarak gizartean estatus edo egoera ona izatean, euskara ikasi eta erabiltzeko joera bat eragin dezakela esanez.

Baina, gure ikerketan ikusi ahal izan dugunez, euskarak gizartean duen balio edo egoerak baino, beste zerbaitek gehiago ezberdintzen du euskaldunen eta erdaldunen hizkuntza erabilera.

Euskara Euskalerrian egoera ona izatea edo lanerako baliotsua izatea, ez dira euskara erabiltzen dutenen ezaugarri bereizgarriak, erdal hiztunenak baizik.

Euskara erabiltzen dutenek, euskara afektiboki azaltzen digute, bere herriko hizkuntza, berezia, hemengoa, zaharra eta gogoko duten hizkuntza bezala azalduz. Ezaugarri hauekin batera aipatzen dituzte baita ere, euskarak gizartean duen balioa, harremanetarako beharrezkotasuna eta Euskalerriko lehen hizkuntzaren izaera ere.

Beraz, euskal hiztuna eta erdal hiztuna zerbaitetan ezberdintzen badirz, euskarak duen egoeraren perzepzioan baino gehiago, hizkuntzaren balorazio afektiboan, herri izaerarekiko atxekimenduan eta motibazioan da.

5.4.4. HIZTUN EZBERDINEN EZAUGARRIAK

Euskararekiko jarrera ezberdinek euskararekiko jokabideetan eragina dutela ikusi ondoren, eta jarrera bat ala beste izatean, gaztearen gizarte ingurunekeo eragile batzuek ere zer esana dutela azaldu ondoren, gehienetan euskara nahiz erdara erabiltzeko aukera egiten duten gazteen ezaugarriak azalduko ditugu.

4.1.TAULA: HIZTUN EZBERDINEN EZAUGARRIAK

HIZTUN EZBERDINEN EZAUGARRIAK GUZTIRA.....3.655 %	EUSKARA BETI EDO GEHIENETA N 557	EUSKARA ETA ERDARA BERDIN 246	ERDARA BETI EDO GEHIENETA 2.805
SEXUA			
NESKA	54.6	42.7	47.0
MUTILA	44.2	53.3	48.0
LURRALDEA			
ARABA	2.0	7.7	14.2
BIZKAIA	19.6	30.9	31.4
GIPUZKOA	66.2	40.2	24.5
NAFARROA	7.4	12.6	19.6
IPARRALDEA	4.8	8.5	10.2
JAIOTZE LURRALDEA			
ARABA	3.8	7.7	11.0
BIZKAIA	19.7	31.3	28.5
GIPUZKOA	61.8	32.5	21.0
LAPURDI	2.7	4.1	6.4
BENAFARROA	0.9	1.2	0.7
XUBEROA	0.0	1.6	0.2
NAFARROA	5.9	11.8	16.5
ESTATUKO BESTE BAT	0.5	2.0	5.3
ATZERRIAN	0.2	0.0	0.4
AMA HIZKUNTZA			
EUSKARA	76.8	35.0	5.3
GAZTELERA	10.4	37.0	78.3
FRANTSESA	1.1	1.2	7.3
EUSKARA ETA GAZTELERA	10.1	23.2	6.1
HERRIKO BIZTANLEAK			
HERRIXKA -2.000 Biztanle	14.5	21.1	7.8
HERRI TXIKIA 2.000/10.000 Biztanle	31.8	21.1	15.2
HERRI HAUNDIA 10.000/50.000 Biztanle	48.5	28.9	26.9
HIRIA + 50.000 Biztanle	0.5	5.3	14.0
HIRIBURUA	4.7	23.6	36.1
HERRIKO EUSKARA			
HERRIKO EUSKALDUNAK %0-20	5.6	29.3	61.5
HERRIKO EUSKALDUNAK %20-40	12.2	17.5	19.4
HERRIKO EUSKALDUNAK %40-60	23.3	21.5	10.5
HERRIKO EUSKALDUNAK %60-80	28.7	20.7	4.8
HERRIKO EUSKALDUNAK %80-100	30.2	11.0	3.7
HERRIKO INMIGRAZIOA			
HERRIKO ETORKINAK %0-10	27.8	13.4	1.5
HERRIKO ETORKINAK %10-20	30.2	17.9	13.9
HERRIKO ETORKINAK %20-30	28.0	34.6	31.4
HERRIKO ETORKINAK %30-40	1.8	13.0	23.4

IKASTETXE MOTA			
IKASTOLA	54.6	35.0	7.6
PUBLIKOA	29.8	48.3	50.9
PRIBATUA	15.6	18.7	41.4
HIZKUNTZA EREDUA			
A EREDUA	2.3	20.3	52.6
B EREDUA	16.0	23.2	13.2
D EREDUA	79.5	45.1	6.2
X EREDUA	0.7	8.9	27.2
IPAR. ELEBIDUNA	1.4	2.4	0.9
GURASOEN JAIOTERRIA			
BIAK EUSKALERRIAN	80.8	59.3	32.2
AMA HEMEN JAIOA	8.3	9.8	14.4
AITA HEMEN JAIOA	6.1	11.4	11.1
BIAK E.H.TIK KANPO	4.3	16.7	39.2
GURASOEN EUSKARA EZAGUTZA			
BIAK DAKITE	76.8	43.1	9.7
AMAK BAI AITAK EZ	9.0	16.7	7.7
AITAK BAI AMAK EZ	4.7	11.4	8.8
BIETAKO INORK EZ	8.4	26.0	72.3
EUSKALDUN IZATEA			
E.H. BIZI ETA LAN	11.8	7.3	11.8
EUSKARAZ HITZEGIN	29.3	23.2	9.6
FAMILIA EUSKALDUNA	6.5	5.7	5.7
E.H. JAIOA	8.8	14.6	31.1
EUSKALDUN BORONDATEA	17.2	14.6	11.7
E.H. NAZIOA DEFENDATU	11.1	13.4	12.7
HERRI SENTIMENTUA			
EUSKALDUNA	90.7	68.7	39.0
EUSKALDUNA GEHIAGO	4.5	11.0	11.2
EUSKALD ETA ESPAINOLA	2.3	13.8	27.0
ESPAINOLA (F) GEHIAGO	0.5	1.6	7.5
ESPAINOLA (FRANTSESA)	0.2	1.6	12.4
NONGOTZA			
BIZI NAIZEN HERRIKOA	32.1	25.2	25.7
PROBINTZIAKOA	3.9	5.7	15.1
EUSKALERRIKOA	55.1	51.2	27.6
ESPAINIKOA (FRANTZIA)	0.5	2.8	13.3
EUROPAKOA	0.0	1.6	2.0
MUNDU OSOKOA	0.5	1.6	4.3
AITAREN LAN EGOERA			
BERE KONTURA	18.3	23.6	25.3
KOOPERATIBISTA	21.0	10.6	9.4
BESTEEN KONTURA	32.3	32.5	36.1
LANGABEZIAN	0.2	0.4	0.4
LANGABEZIAN LAN EGINDA	1.6	2.0	1.5
ETXEKO LANAK	0.7	0.8	0.2
IKASLEA	0.2	1.2	0.2
ERRETIRATUA	2.0	3.7	1.8
BESTE EGOERA BAT	15.3	17.1	16.9
AMAREN LAN EGOERA			
BERE KONTURA	11.1	8.9	11.3
KOOPERATIBISTA	8.4	4.9	3.5
BESTEEN KONTURA	16.2	15.4	14.8
PAROAN	0.0	1.2	0.5
PAROAN LAN EGINDA	1.6	0.8	1.7
ETXEKO LANAK	44.7	46.7	45.6
IKASLEA	0.5	1.6	0.8
ERRETIRATUA	0.5	0.0	0.3
BESTE EGOERA BAT	12.0	12.2	13.1

FAMILIA BURUAREN LANBIDEA			
NEKAZARI LURJABEA			
NEKAZARIA	2.2	4.1	1.5
ARANTZA BERE KONTURA	3.8	2.8	1.4
MARINELA	0.2	0.4	0.3
PATROIA	0.7	0.8	0.4
ARMADOREA	0.2	0.4	0.4
LANGILEA	0.4	0.4	0.1
KUALIFIKATUA	42.2	33.3	28.9
ENKARGATUA	5.9	4.9	4.5
AUXILIARRA	9.2	8.1	10.6
TEKNIKO ERDI MAILA	3.4	4.1	3.5
TEKNIKO GOI MAILA	3.4	6.1	4.0
ZUZENDARI	4.3	4.9	6.0
NAGUSIA	3.9	5.3	4.1
BERE KONTURA	5.2	3.7	6.1
MILITARRA	9.5	11.4	11.7
MERKATAL MARINELA	0.0	0.4	0.6
MERKATAL OFIZIALA	0.0	0.0	0.2
BESTE BATZUK	0.2	0.4	0.1
	4.1	5.7	7.0
EGUNKARIA			
DIARIO VASCO	49.2	26.8	20.4
CORREO ESPAÑOL	8.6	18.7	32.5
DEIA	6.5	6.9	1.9
EGIN	12.6	8.9	1.9
EL MUNDO	0.5	0.8	1.1
EGUNKARIA	2.7	0.4	0.2
EL PAIS	0.5	0.0	1.5
YA	0.0	0.4	0.0
ABC	8.3	13.8	9.3
DIARIO DE NAVARRA	2.3	5.3	15.0
NAVARRA HOY	0.9	3.7	1.2
LE MONDE	0.0	0.0	0.2
LIBERATION	0.0	0.0	0.1
SUD-OEST	1.3	6.9	7.5
LE FIGARO	0.0	0.0	0.2
BESTE BAT	0.7	0.8	0.7
BATERE EZ	3.1	2.0	1.3

4.1. Taulan ikusi daitekeenez, gehienetan euskara erabiltzeko aukera egiten dutenen artean, zerbait gehiago dira neskak mutilak baino.

Euskara erabiltzen dutenak batez ere Gipuzkoan jaio eta bizi dira eta bigarren Bizkaian. Ia gehienek, euskara jaso dute ama hizkuntza bezala, baten batzuk gaztelarekin batera jaso dute euskara eta beste hainbestek gaztelera izan dute ama hizkuntza.

Erdara erabiltzeko joera duten gazte gehien berriz, Bizkaian jaioa da eta ondoren Gipuzkoan. Erdal hitzun gehienek gaztelera izan dute ama hizkuntza modura.

Euskara erabiltzeko joera erakusten diguten gazteak, herrietan bizi dira nagusiki, herri haundi nahiz txikietan. Baina euskaldunak nagusi diren herrietan bizi dira euskal hitzun gehienak, %40a baino gehiago euskalduna den herrietan eta etorkinak %30a baino gutxiago diren herrietan.

Erdara erabiltzeko joera duen gazte gehien hiriburuetan eta bigarren herri haundietan bizi da, euskaldunak %20a baino gutxiago diren eta etorkinak %20a baino gehiago diren herrietan batez ere.

Ikastoletan jasotzen dute beren hezkuntza euskal hiztun gehienek, eta D eredu jarraitzen dute euskara erabiltzeko joera duten ia gazte guzietan.

Erdal hiztunek berriz, ikastetxe publikoak nahiz pribatuetan jasotzen dute beren hezkuntza eta gehiengoak A hizkuntza eredu jarraitzen du eta bigarren X edo ikasgelan euskararik ez duten ereduak.

Euskara darabilten ia gazte guzietan bi gurasoak euskal jatorrikoak eta euskara ezagutzen dutenak dituzte.

Erdara erabiltzen dutenek berriz, beren gurasoak Euskalerritik kanpo nahiz Euskalerrian jaiotakoak dituzte, baina ez dakite bietako inork euskaraz hitz egiten.

Euskara erabiltzen duten gazteetatik ia denak euskaldun hutsak sentitzen dira, euskaldun izatea euskara ezagutzearekin eta bigarren euskaldun izateko borondatearekin lotzen dutelarik gehienek.

Erdara erabiltzeko joera duen gazteen artean ere, gehiengoak euskaldun hutsa sentitzen da eta bigarren euskalduna hainbeste espainola edo frantsesa sentitzen da. Hala ere, euskaldun izatea zer den azaltzean iritzi ezberdinak agertzen dira: gehiengoak Euskalerrian jaiotzea nahikoa dela uste du euskaldun izateko, ondoren euskal nazioa defendatzea edo euskaldun izateko borondatea izatea edo Euskalerrian bizi eta lan egitea aipatzen dutenak ditugu.

Euskal hiztunen artean gehiengoak Euskalerria aipatzen du bere nongotza azaltzean; ondoren aipatzen dena berriz, norbera bizi den herria da.

Erdal hiztunen artean, kopuru berdintsuz aipatzen dute bai Euskalerria eta bai norbera bizi den herria norbere nongotza adieraztean.

Euskal hiztun nahiz erdal hiztun gehienek aita edo famili buruak besteen kontura egiten du lan, kooperatibista da edo bere kontura egiten du lan. Amak berriz etxeko lanen kargu aurkitzen da gehiengoaren artean, eta ondoren lan egiten dutenen kopurua dugu, bere kontura nahiz besteen kontura.

Euskara erabiltzen dutenen guraso gehienek industria arloko langileak dira, ondoren enkargatuak nahiz bere kontura lan egiten dutenak ditugu. Gurasoen lanbide berdintsuak aurkitzen ditugu erdal hiztunen artean ere.

El Diario Vasco da euskara erabiltzen duten gazteen artean gehien irakurtzen den egunkaria, ondoren Egin irakurtzen da gehien berauen artean.

Erdal hiztunen artean berriz, El Correo Español irakurtzen du gehiengoak eta ondoren El Diario Vasco eta zerbait gutxiago Diario de Navarra.

5.4.5. HIZTUN EZBERDINEN EUSKARAREKIKO JARRERAK

4.2.TAULA: HIZTUN EZBERDINEN EUSKARAREKIKO JARRERAK
(Goitik beherako ehunekoak)

EUSKARAREKIKO JARRERAK	GUZTIRA..... 3 655 %	ERDARA	EUSKARA	EUSKARA
		BETI EDO GEHE NETAN	ETA ERDARA BIAK BERDIN	BETI EDO GEHE NETAN
		2 805	248	557
EUSKARAK LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO DU	Ados..... 1.353 Aurka..... 1.819	41.7 44.0	22.0 64.6	19.7 72.7
JAURLARITZAK DIRU GEHIAGO EMAN BEHAR EUSKARARI	Ados..... 2.415 Aurka..... 420	60.1 13.7	85.8 3.7	87.4 4.3
EUSKARA ERABILTZEA DEBEKATU	Ados..... 308 Aurka..... 2.887	9.7 75.7	5.3 89.8	2.2 94.4
EZ DA EUSKALERRIRIK EUSKARARIK GABE	Ados..... 2.475 Aurka..... 577	61.8 18.5	82.5 11.0	92.5 4.3
EUSKARA BORONDATEZ IKASI BEHAR DA	Ados..... 2.735 Aurka..... 458	73.3 12.7	76.4 13.0	82.9 11.1
HAUR GUZIEK EUSKARA IKASI BEHAR	Ados..... 2.015 Aurka..... 961	47.6 32.2	71.1 6.1	86.5 5.7
DENOK ERDERA DAKIGUNEZ EUSKARARI EZ BEHAR	Ados..... 889 Aurka..... 2.231	29.8 52.9	8.5 83.7	2.7 93.9
EUSKALERRIRA BIZI TA LANERA DATORRENAK EUSKARA IKASI BEHAR	Ados..... 1.407 Aurka..... 1.428	31.6 46.2	45.9 24.0	89.8 10.2
EUSKARA POBREA DA, EZ DU BALIO ZIENTZIRAKO	Ados..... 824 Aurka..... 2.022	25.5 48.7	12.8 75.2	11.1 81.5
EUSKARA JAKIN BAKARRIK EZ ERABILI EGIN BEHAR	Ados..... 2.352 Aurka..... 675	57.5 22.1	78.9 11.8	93.0 3.4
NAHIAGO DUT INGELESA IKASI EUSKARA BAINO	Ados..... 1.255 Aurka..... 1.692	42.8 36.1	10.2 72.4	2.7 87.4
TB TA IRRATIAN EUSKARA ALPERRIKOA EZ DA ULERTZEN	Ados..... 895 Aurka..... 2.163	29.6 50.8	13.0 78.9	3.8 93.2
ESKOLETAN EUSKARA IKASTORDU GEHIAGO BEHAR	Ados..... 1.843 Aurka..... 1.016	39.9 32.6	59.8 15.0	64.5 9.0
EUSKARAREN INTERESA MODA BESTERIK EZ DA	Ados..... 374 Aurka..... 2.448	11.8 61.7	7.7 78.5	3.1 89.4
EUSKALERRIAN GAUDENEZ DENOK EUSKARA HITZEGIN BEHAR	Ados..... 1.831 Aurka..... 1.303	41.1 43.2	70.7 15.0	86.7 7.5
EZ DA EUSKARA BEHAR EUSKALDUN IZATEKO	Ados..... 1.773 Aurka..... 1.273	56.4 26.2	30.1 51.2	17.8 71.5
EUSKARAREN KANPAINA GEHIAGO BEHAR	Ados..... 2.040 Aurka..... 575	48.0 19.1	78.8 6.1	86.2 3.1
EUSKALDUNAK EZ DU UTZI BEHAR INOZ EUSKARA	Ados..... 1.256 Aurka..... 1.243	28.8 36.9	43.9 26.0	58.2 23.7
BURUGABEKERIA EUSKARAGATIK EZIN ULERTUTA IBILTZEA	Ados..... 1.335 Aurka..... 1.337	39.5 33.0	22.8 48.4	27.3 49.4
TB, EGUNKARI ETA IRRATETAN EUSKARA GEHIAGO BEHAR	Ados..... 1.777 Aurka..... 852	39.4 26.1	72.8 11.0	85.5 3.9

Euskara erabiltzen dutenek euskara ez dute lana topatzeko aukerekin lotzen, jarrera honen aurka agertuz gehiengoa. Erdal hiztunen artean nahiz eta gehiengoa aurka agertu, ia erdiek euskara lana topatzeko beharrezkoa dela uste dute. Zenbat eta euskara gehiago erabili, orduan eta indar gutxiago du euskarak lanerako bakarrik balio duen iritziak.

Gehiengoa ados azaltzen da Jaurlearitzak euskara sustatzeko diru gehiago erabili behar duela esatean, bai euskal hiztunen artean bai erdal hiztunen artean ere. Hala ere, euskal hiztunen artean ados daudenen kopurua altuagoa da erdal hiztunen artean baino. Erdal hiztunen artean hamarretik bi inguru, euskarari diru publikoarekin laguntzearen aurkakoak dira.

Erabatekoa da bai euskal bai erdal hiztunen artean, euskara debekatzearen aurkako jarrera; hala ere zerbait indar gutxiagorekin adierazten dute erdal hiztunek euskal hiztunek baino.

Euskara, Euskalerrriaren funtsa dela esatean hiztun ezberdinen artean gehiengoa ados egon arren, indar ezberdinarekin adierazten da euskara erabiltzen duten eta erabiltzen ez dutenen artean; euskal hiztun erabatek euskara Euskalerrriaren oinarria dela dio. Zenbat eta euskara gehiago hitzegiten den, orduan eta garrantzi gehiago hartzen du euskarak Euskalerrriaren oinarri modura.

Euskara beste hizkuntzak bezala norbere borondatez ikasi behar dela eta derrigorrez ez duela inork euskararik ikasiko, antzeko indarrez adierazten digute hiztun ezberdinek.

Euskararen erabilera jeisten doan heinean, jeitsi egiten da baita ere haur guziek euskara ikasi beharrekiko adostasuna. Euskal hiztunen artean erabatekoa da iritzi hau baina erdal hiztunen artean erdira jeisten da haur guziek euskara ikasi beharrekiko iritzia. Erdara gehiago erabiltzen den heinean, haurrak euskara ikastearen aurka agertzen direnen kopuruak gora egiten du.

Guztiok erdara dakigunez gero, euskara erabili beharrik ez daukagula dion iritziaren inguruan hiztun guziek aurka agertzen dira. Hala ere, erdal hiztunen artean, ia hamarretik hiru ados agertzen da iritzi honekin. Euskal hiztunak berriz, erabat dira aurka agertzen direnak, euskara erdararekin ordezkatzeko prest ez daudela azalduz. Euskara nahiz erdara berdinean erabiltzen dutenen artean ere, gehiengo batek ez du nahi euskara uzterik.

Euskalerrira lanera edo bizitzera etortzen denak euskara ikasi behar duela dion iritziak, gehienetan euskara erabiltzen dutenen artean bakarrik du gehiengoa. Euskararik erabiltzen ez dutenen artean, gehiengoa da iritzi hau onartzen ez duena. Zenbat eta euskara gehiago hitzegin orduan eta adostasun haundiagoa adierazten da Euskalerrira datorrenak euskara ikasi beharrekiko.

Euskarak zientzirako balio duela diotenak gehiago dira aurkako iritzia dutenak baino hiztun talde guzieren artean. Hala ere, hizkuntza erabilera ezberdinen arabera ezberdintasunak aurkitzen dira; gehienetan erdara erabiltzen dutenen arteko iritzi honekiko ados daudenen kopurua, euskal hiztunen erdia baita.

Ia guztiak agertzen dira ados euskara jakin bakarrik ez, erabili egin behar dela esatean. Talde guztietan gehiengoak euskara erabiltzearen aldekoa da, nahiz eta euskara gehien erabiltzen dutenen artean aurkitzen den indar haundienarekin euskara erabili beharra. Hala ere zenbat eta euskara gutxiago eta erdara gehiago erabili, orduan eta indar gutxiago du euskararen erabilerarekiko adostasunak.

Beti erdara erabiltzen dutenen artean, euskara baino ingelesa ikastea nahiago dutenak gehiengoak dira -ia erdiak-. Euskal hiztunen artean berriz, ia erabat dira ingelesa euskara baino nahiago izatearen aurka agertzen direnak. iritzi honetan ere, euskararen erabilerak gora egiten duen heinean, ingelesaren aurretik euskara aukeratzen dutenak indartu egiten dira.

Hiztun talde guztietan, ez da pentsatzen euskara alperrikakoa denik komunikabideetan. Zenbat eta euskara gehiago erabili, orduan eta indar haundiagoa du iritzi honek.

Hiztun ezberdinen artean gehiengoak, euskararen ikastordu gehiago behar direla dioten arren, ez du iritzi honek aurrerago aztertu ditugun iritzien bezain indarririk. Hala ere, iritziarekin adostasun mailak beheruntz egiten du euskararen erabilera gutxitzen den heinean.

Gehienetan erdara erabiltzen dutenak bi taldetan banatzen dira: alde batetik ikastordu gehiago nahi dituztenak, eta bestaldetik euskara ikasteko ordu gehiago nahi ez dituztenak.

Gaztetxo gehienek ez dute uste euskara moda bat besterik denik, eta hizkuntza erabilera ezberdinetako taldeetan nagusitzen da iritzi hau.

Gehiengoak euskararen interesa betidanik egon dela dion arren, hizkuntza erabilera ezberdinen artean indar ezberdinekin adierazten da iritzi honekiko adostasuna. Euskal hiztunek euskara moda bat dela ustearekin ezadostasun haundiagoa azaltzen dute, erdal hiztunek baino.

Euskara erabiltzen dutenen artean, Euskalerrian gaudenez euskara erabili behar dugula uste dutenak nagusitzen dira. Euskararik erabiltzen ez dutenen artean berriz, iritzi honen aurka daudenak gehiago dira aldekoak baino.

Euskara ez jakin arren ere euskalduna izan daitekeela dio erdal hiztunen artean gehiengo batek. Euskal hiztunen artean, nahiz bi hizkuntzak berdin erabiltzen dituztenen artean, gehiengoak euskara jakin behar dela dio euskaldun izateko. Zenbat eta euskara gehiago erabili, orduan eta indartsuago agertzen da euskaldun izateko euskara jakin beharra.

Gehientsuenak euskara indartzeko kanpaina eta jaialdiak egitearen alde azaltzen dira, bai euskara bai erdara erabiltzen dutenen artean, nahiz eta euskal hiztunen artean euskararen aldeko ekintza hauen alde agertzen direnak indartsuago agertu.

Euskaldunak, elkarulertu ahal izateko, euskara ez dakien baten aurrean erdara erabili beharra, beti erdara erabiltzen dutenen artean agertzen da batik bat. Euskal hitun gehienek berriz, ulertzen ez duen batengatik euskaldunak ez duela euskara utzi behar diote, nahiz eta beste iritzietan bezalako indartsu ez azaldu iritzi hau.

Denok erdara dakigunez, batzuk euskara erabiltzeagatik ezin ulertuta ibiltzearen aurrean, euskararen erabileraren alde agertzen dira gehienak, bai euskara erdara hainbeste eta bai euskara gehienetan erabiltzen dutenen artean. Erdal hiztunen artean berriz, gehienek uste dute egokiago dela elkar ulertu ahal izateko erdara erabiltzea.

Hiztun ezberdinek, komunikabideetan euskara gehiago erabiltzeko nahia azaltzen dute nagusiki, hala ere euskal hiztunen artean askoz ere indar gehiago du iritzi honek erdal hiztunen artean baino.

5.4.6. HIZTUN EZBERDINEN KULTUR ZALETASUNAK

Gaztetxoan artean euskarazko komunikabide eta kultur arloan euskarak duen erakargarritasuna aztertuz gero, ezberdintasunak ikusten ditugu euskal hiztun eta erdal hiztunen artean.

4.3. Taulan ikusten denez, gehienetan erdara erabiltzen dutenek, nahiz euskara erdara hainbeste erabiltzen dutenek, erdarazko telebista kateak gehiago aukeratzen dituzte euskarazkoak baino. Batez ere Tele5, Antena3 eta TVE ko kateen ikusmena izanik haundiena erdal hiztun hauen artean.

Euskal hiztunen artean berriz, ETB1 litzateke gehien aukeratzen den telebista katea nahiz eta Tele5 edo erdarazko kate bat ere aukeratu ia ETB1 en pare.

Beraz, gehienetan erdara erabiltzen duten gazteentzat telebista kate erdaldunak -batez ere kate pribatuak- dira erakargarrienak. Berdina esan daiteke euskara erdara hainbeste erabiltzen dutenentzat ere.

Baina euskara erabiltzeko joera duen gazteak, bere hizkuntzan eskeintzen zaion telebista katea, erdal gazteen artean erakargarriena den kate erdalduna hainbeteko erakargarria da euskal katea ere.

Irratiei dagokionez, esan behar da euskarazko irratiek ere ez dutela erdal hiztunen artean euskaldunen artean hainbete entzule, nahiz eta euskadi gaztearen kasuan, erdal hiztunentzat ere erakargarria egiten den euskaraz ari den irratia.

Euskadi gaztea, adin honetako gaztediari zuzendua dagoenez, gazte hauentzat irradi erakargarriena dela azpimarratzekoa da. Ondoren Euskadi Irratia da entzule gehien dituen euskarazko irratia. Orokorrean euskarazko irratien entzule kopuruak gora egiten du, euskararen erabilera ugariagoa den gazteen artean.

HIZTUN EZBERDINEN AZTERKETA

4.3.TAULA: HIZTUN EZBERDINEN TELEBISTA IKUSMENA (Zeharkako ehunekoak)

TELEBISTA IKUSMENA 2 Ordu edo gehiago egunean	ETB1	ETB2	TVE1	TVE2	A3	TELE5	C+	TF1	LA2	LA3
ERABILERA ERDARA.....	7.8	13.7	38.6	28.3	35.3	52.2	14.8	6.9	6.1	4.1
EUSKARA ETA ERDARA.....	18.7	14.6	27.6	19.1	23.2	41.5	8.5	7.3	5.7	4.9
EUSKARA.....	29.6	8.6	19.9	15.1	8.3	27.5	3.6	1.8	2.5	1.3

4.4.TAULA: HIZTUN EZBERDINEN EUSKARAZKO IRRATIEN ENTZUMENA (Zeharkako ehunekoak)

EUSKARAZKO IRRATIEN ENTZUMENA EGUNERO	EUSKADI IRRATIA	EUSKADI GAZTEA	LOIOLA	ARRATE	SEGURA	BIZKAIA	IRULEGI	XIBEROKO BOZA	GURE IRRATIA	RADIO FRANCE
ERABILERA ERDARA.....	21.1	33.3	5.2	4.4	5.1	7.1	4.3	3.7	8.7	7.2
EUSKARA ETA ERDARA.....	41.9	56.9	14.2	9.8	11.8	17.5	8.9	9.3	17.9	11.0
EUSKARA.....	60.3	68.8	25.9	22.1	18.0	14.2	6.6	6.6	20.6	5.4

4.5.TAULA: HIZTUN EZBERDINEN MUSIKA ENTZUMENA ETA LIBURU IRAKURMENA HIZKUNTZA EZBERDINETAN (Zeharkako ehunekoak)

6 + GEHIAGO	MUSIKA EUSKARAZ	MUSIKA ERDARAZ	LIBURUAK EUSKARAZ	LIBURUAK ERDARAZ
ERABILERA				
ERDARA.....	13.6	68.4	7.6	52.2
ERDARA ETA EUSKARA.....	42.3	59.8	32.9	35.4
EUSKARA.....	53.3	54.0	54.6	35.4

Gaztetxoek musika entzumenaren alorrean ere, euskal hiztunen artean euskarazko musikak erdarazkoak hainbeteko erakargarritasuna duela adierazi dezakegu. Hala ere, euskara erdara hainbete erabiltzen dutenen artean eta zer esanik ez erdal hiztunen artean, erdarazko musika gehiago aukeratzen dute gazteek euskarazkoa baino.

Liburuen alorrean berriz, euskarazko liburu gehiago aukeratzen dituzte euskal gaztetxoek, erdarazkoak baino. Erdal hiztunen eta euskara ta erdara erabiltzen dutenen artean berriz erdarazko liburuen aukera gehiago egiten da euskarazkoena baino.

4.6.TAULA: HIZTUN EZBERDINEN EUSKARAZKO ALDIZKARIEN IRAKURMENA

EUSKAL ALDIZKARIEN IRAKURMENA	EGUNERO EDO ASTERO
HIZKUNTZA ERABILERA	
ERDARA.....	8.1
EUSKARA ETA ERDARA.....	33.7
EUSKARA.....	44.7

Gaztetxoek artean euskarazko aldizkariak irakurmenari dagokionez ere, gauza bera esan dezakegu. Euskal hiztunen ia erdiek irakurtzen dute euskarazko aldizkariaren bat astean behin bada ere. Euskara erdara hainbete erabiltzen dutenen artean berriz, zerbait jeitsi egiten da euskarazko aldizkariak irakurmena, euskarazko liburuekin gertatzen den antzera. Gehienetan erdara erabiltzen dutenen artean berriz, oso gutxi dira euskarazko aldizkariak irakurtzen dituztenak.

5.4.7. HIZTUN EZBERDINEN EUSKARAREKIKO NAHI ETA ASMOAK

4.7.TAULA: HIZTUN EZBERDINEN EUSKARAREKIKO NAHI ETA ASMOAK

EUSKARAREN ERABILERA	EUSKARA GEHIENETAN	EUSKARA ETA ERDARA BERDIN	ERDARA GEHIENETAN
EUSKARA ENTZUTEAN SENTIMENDUAK			
POZA EMATEN DIT	78.6	63.4	21.6
PENA NEUK EZ JAKITEA	1.1	5.3	28.0
AMORRUA EMATEN DIT	0.2	1.2	4.5
EZER ERE EZ	19.9	28.9	44.9
ASMOAK			
EZER EZ EGITEA	11.7	19.1	39.9
IKASI ETA ERABILI	15.8	33.7	41.8
EKINTZETAN PARTE HARTU	71.8	43.9	15.3
NAHIAK			
GALDUTA ERE EZ AXOLA	0.4	2.0	20.5
DAGOEN BEZALA JARRAITU	6.8	19.1	34.3
INDARTU ETA ZABALDU	92.6	77.2	44.1
HIZKUNTZA AUKERA IKASKETAK JARRAITZEKO			
GAZTELERA	3.1	16.3	53.9
EUSKARA	90.1	64.2	16.4
INGLESA	1.6	3.7	12.9
FRANTSESA	0.2	4.5	5.0
EUSKALERRIKO HIZKUNTZA IDEALA			
ERDARA BAKARRIK	1.4	1.6	12.5
EUSKARA BAKARRIK	85.3	58.5	18.3
EUSKARA ETA ERDARA	11.8	37.4	64.7

Euskal hiztunek euskararekiko pozezko sentimenduak adierazten dizkigute, euskara indartzeko ekintzetan parte hartzeko asmoak agertzen dituzte, euskara euskal gizartean indartu eta zabaltzeko nahia erabatekoa izanik berauen artean.

Euskal hiztunen artean ia erabatekoa da beren ikasketak euskaraz jarraitzeko nahia eta ia gehienek euskara bakarrik nahi lukete Euskalerriko hizkuntza izatea.

Euskara hainbete erdara erabiltzen dutenen artean ere antzeko nahi eta asmoak aurkitzen ditugu, indar gutxiagorekin azaltzen diren arren.

Erdal hiztunen artean berriz, gehienbatak ez du ezer sentitzen euskara entzutean eta euskararekiko asmoei dagokionez, ikasi eta erabili eta ezer ez egiteko asmoen artean banatzen dira. Nahiz eta erdaldunen gehiengoak euskara indartu eta zabaltzeko nahia adierazi, ia beste horrenbestek euskara dagoen bezala jarraitzeko nahia adierazten du erdal hiztunen artean.

Erdal hiztun hauetako gehienek, beren ikasketak jarraitzeko gaztelera aukeratzen dute eta Euskalerrian bi hizkuntza izatea nahi lituzkete: euskara eta erdara.

6.
ONDORIOAK

Euskalerriko eta batik bat Euskal Autonomi Elkarteko 13/14 urtetako ia gaztetxo guziak iritsi dira, etxean nahiz eskolan jasotako euskararen bidez, euskara ikastera. Hala ere, erdizkako ezagutza dutenak alde batera utziz gero, euskaraz ondo dakitenak hamarretik hiru inguru besterik ez dira.

Lurralde ezberdintasun haundiak aurkitzen ditugu euskararen ezagupenean. Autonomi Elkarteko gazte gehienak euskaldun edo ia-euskaldun badira ere, euskara ondo dakitenak Gipuzkoako gazteen erdiak dira eta Araban laurdena baino gutxiago. Oraindik txikiagoa da berriz, euskara ondo dakitenen gazte kopurua Iparraldean eta Nafarroan.

Euskal gaztetxoek helduek baino kopuru altuagoak erakusten dizkigute euskaraz hitzegiteko gaitasunari dagokionez, euskararen ezagutzak behinik behin etorkizuna baduela adieraziz.

Gazteen artean euskara dakitenen kopurua gaur eguneko biztanlego orokorrarena baino haundiagoa izanik, euskaraz dakiten gazte hauek euskaraz bizitzea erabakiz gero, euskara erabiltzeko baldintza egokiagoak izatera iritsi gitezke: euskara erabiltzeko guneak indartuaz, administrazioetik zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskaera indartuaz e.a.

Baina gazteek euskara erabiliko badute, euskara jakiteaz gain euskaraz bizitzeko nahia izan behar dute.

Euskalerriko gazteak eskolaren bidez euskalduntzeko planen lorpenak berriz ezagutza mailara mugatzen direla esan behar dugu, ez baitute horrenbesteko lorpenik erabileran; ehuneko hamabostekoa izanik beti edo gehienetan euskara darabiltenen gazte kopurua.

Gaur eguneko Euskalerrian euskara erabiltzeko baldintza egokiak ez ditugunez, hala nahi izan arren euskara ezin erabilia gertatzen zaie zenbait hiztunei. Ikerketa honetan ikusi ahal izan dugunez, euskara ondo dakitenei euskara erabiltzea eragozten die herriko euskararen ezagutza urriak. Euskararen erabilera mugatzen du beraz gizarte inguruko euskara ezagutzak, nahiz eta ia-euskaldunei dagokionez ezin dugun gauza bera esan, inguru euskaldunetan ere erdara erabiltzeko joera agertzen baitute euskara erdizka ezagutzen dutenek.

Bestalde, euskara gehien darabiltenak, euskara lehen hizkuntza modura jaso dutenak -lehen urteetan ikasiz- eta bi guraso euskaldunak dituztenak direla kontutan harturik, euskara etxekoan artean ikastea eskolaren bidez ikastea baino eraginkorragoa dela ikusi dugu.

Fishmanek aipatzen duenez, etxea edo familiartea ditugu, eguneroko bizitzatik hurbil, etnizitateari ongien eusten dieten guneak. Euskara irakasteaz gain norbere izaera eta ohiturak ere irakasten dira etxean, euskarari loturiko izaerarekin batera irakasten delarik euskara erabiltzeko ohitura edo erabilerarekiko ardura ere.

Baina ez dira gurasoen nahiak bere horretan iristen gazte guzien artera, gurasoek euskara irakatsi arren eta guraso gehienek beren seme-alabek euskara ikasteko nahia izan arren, seme alaben artean erdara erabiltzeko joera nagusitzen baita.

Bestalde, ama hizkuntza euskara izan duten guziek ez dute ezagutza mantendu 13/14 urte betetzean, batik bat euskara gaztelerarekin batera jaso duten gazteei dagokionez. Etxekoen nahia euskararen aldekoa izan arren, gizarteko eragileek bestelako eragina dute gaztearengan, euskararen erabilera mugatzeaz gain ezagutzaren galera bat eraginez.

Batik bat euskararen aldeko neurririk hartu ez den lurraldeetan eta gune erdaldunetan, erdararen nagusitasunari aurre egitea edo euskara erabiltzeko muga eta oztopoak gainditzea zaildu egiten zaie gazteei; gune hauetan ematen da, gurasoengandik seme-alabenganako euskararen transmisioan etenik haundiena.

Euskararen aldeko neurriak hartu diren lurraldeetan, euskara eskolaren bidez ikasteko aukerak zabaldu dira. Baina euskal gizartean euskara gutxiengoaren hizkuntza izanik, gizartearen aldetik ez dator euskara erabiltzeko eskaerarik.

Euskalerrian euskarak bizi duen egoeran, gurasoen nahia eta eskolan euskara irakastea bakarrik ez dira nahikoak gazte gehienak euskara ondo ezagutzera iristeko eta euskara erabiltzeko joera izateko.

Etxean euskara jasotzeko aukerarik izan ez dutenen kasuan, hizkuntza eredu euskaldunak -B eta batik bat D eredua- eta bereziki ikastolak dira, gaztearen euskalduntzean eraginik haundiena dutenak.

Baina gizartean euskara erabiltzeko eskaera edo beharizanik ez egotean, eskolak ezin dezake gizarteak indartu ezin duen hizkuntza erabiltzeko beharra sortu bere kabuz ¹.

¹ J.A. FISHMAN: "Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan" in: *Euskal eskola Publikoaren I Kongresua*. Eusko jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzu Nagusia, I.Liburukia, Gasteiz, 1990, 181-188 orr.

Euskararen ezagupenaz gain euskara erabiltzeko aukera beharrezkoa da euskara erabiliko bada, euskararen aukera berriz gizarteko inguru zehatz batzuetan egiten da nagusiki.

Beraz, euskararen erabilera eragiten duten eragileak gizarteko ingurune zehatz batzuetan aurkitzen ditugu, euskal izaerari ongien eutsi dioten herrietan, herri horietan aurkitzen baita euskara erabiltzeko aukera egiten duten gazte gehien; herrietan hirietan baino gehiago, euskaldunak gehiengoa duten herrietan eta euskal jatorriko gehien aurkitzen den herrietan.

Euskararen erabilera, herri sentimendu euskaldunarekin eta Euskalerrria eta ondoren norbera bizi den herriarekiko nongotzarekin lotuta agertzen da. Euskaldun izatea euskara ezagutzean edo herrikideen borondatean oinarritzen dutenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, lurraldetasun edo jatorrizko arrazoietan oinarritzen dutenekin alderatuz gero.

Ikerketa honen arabera, euskara antolamendu politiko hurbilenarekiko eta batez ere Euskalerrriarekiko atxekia, eta kultur izaeraren oinarri bezala ulertzea da, euskararen erabilera gehien eragiten duena.

Batez ere, gaztearen hurbileko guneetan eta euskararen erabilerak babesa duen guneetan erabiltzen dute euskara gehien euskal gazteek: eskolan, udalekuetan edo eleizan. Gune hauetatik aldentzean gizartean nagusi den erdararen erabilera nagusitzen da.

Diglosi egoera batean legoke beraz euskara, euskararen erabilera nagusitzen den guneak, gaztearen familiartea eta ikastetxea nahiz eleiza ingurura mugatzen baitira.

Lehen aipatu dugun bezala, euskara etxean edo familiarrean ikastea, euskara herri sentimendu euskaldunari eta Euskalerrriko izanahiari lotua jasotzea eta euskaldun izan nahia izatea dira, euskara erabiltzeko aukeran gehien eragiten dutenak.

Fishmanek aipatzen duen bezala gizakiaren hurbileko guneetan, etxean edo familiarrean nahiz hiztun komunitatean, indartzen dira hizkuntza gutxiengotu batekiko nahiak eta ohiturak.

Azken batean etnizitateari lotutako zerbait izango litzateke hizkuntza gutxiengotuen fenomeno, euskara ere euskal izaeraren adierazle modura agertzen baita gaztetxo hauen artean.

Hizkuntza eta izaeraren arteko harremanaz, honako hau adierazten digu J.M.Barandiaranek;

" Bakoitzaren hizkuntza galtzeak, berari loturik datorren herri jakintzaz hustutzea ekartzen du. Betidanik era hortan jasoak diren ikasgai herrikoiek badute doinu eta ahozkatze berezi bat, denbora berean sentipen eta buru erantzukizun bere bereak sortzen dituztenak. Barne eragin hauek ezeztatzen dira eta galtzen, hizkuntzan duten euskarri eta agerpena kentzen zaizkielarik" "...herrien izaeran hizkuntzak duen ikuskizun oinharrizkoa sakontzen du gero; " Ez du herrialde baten espiritua bere hizkuntzak hainbat ezerk bereizten ?".

Gure ikerketaren arabera ere, euskara gehien erabiltzen dutenak, euskara euskaldun izanahiari eta herri honetako izaera eta kulturari loturik ulertzen duten gaztetxoak dira. Euskara kultura baten zati eta adierazgarri bezala jasotzen dutenak dira azken batean, euskarari eutsi nahi diotenak eta bizirik eusten diotenak.

Euskara etxean nahiz ikastetxean ikasi, euskara erabiltzeko bi eratako mugak ditu gazteak gaur egun: alde batetik, gaztea bizi den gizarte inguruan euskara gutxiengoaren hizkuntza izatean horren ordeaz erabiltzeko joera edo indarra. Eta bestalde, euskara hizkuntza gutxiengotua dela kontutan hartuz, euskarari balio eza aurkitzea beste hizkuntza nagusiagoekin alderatuz gero.

Gazteak eta gizarteko ingurukoek euskara ezagutzen badute ere, azken batean gaztearen nahien esku egongo da euskara erabiltzeko aukera egitea.

EUSKARAREKIKO JARREREI BURUZ

Gazte hauek euskararekiko dituzten jarrerak aztertu ondoren euskararekiko aldeko jarrerak nagusitzen direla esan dezakegu. Bestalde, gazte hauen artean gehiengo batek ez du onartzen ez euskara gal erazteko neurri politikorik ez euskara ikasteko beharrezana inposatzerik ere.

Gazte gehienek euskara Euskalerrriaren izaerarekin lotzen dute, euskararik gabe Euskalerririk ez legokeela esanez. Euskara euskal gizartean erabilgarria dela uste dute eta betidanik izan duela euskarak interesa.

¹ J.M.BARANDIARAN; "Euskara etni baten gai eta kultura baten adierazgarri" in: *Euskararen Liburu zuria*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1978, 331-332 orr.

Hizkuntza gutxiengotua denez, euskara indartzeko ahalegin bereziak bideratzearen alde ageri dira gazte gehienak, bai Jaurlaritzaren aldetik euskarari laguntza gehiago eskeiniz, bai euskararen aldeko kanpaina eta jaialdi gehiago antolatuz, bai komunikabideetan euskara erabiliz.

Horretaz gain, euskara eguneroko bizitzan erabili behar dela eta haur guzietan euskara ikasi behar dutela uste du gazteen gehiengoak.

Gazteen iritzia banatuta agertzen dira euskaldun izateko edo lana topatzeko euskara jakin behararen aurrean. Gehiengo batek -gazteen ia erdiak- ez du uste euskara beharrezkoa denik euskaldun izateko eta gehiengo da baita ere -gazteen ia erdiak- euskarak lana topatzeko bakarrik ez duela balio uste dutenak.

Gaztetxoek idazlanetako euskarari buruzko adierazpenetan, batez ere bi mundu ezberdineko azalpenak bereizten dira. Alde batetik euskararen aurrean *jarrera izanerazle* bat agertzen da; euskarak euskaldun egiten gaitu, euskara euskaldunon hizkuntza da, euskara gure hizkuntza da e.a., eta bestalde *trukeordaineko jarrera* bat; euskarak lana topatzeko edo ikasketak aurrera ateratzeko jakin beharreko hizkuntza dela esanez.

Euskarari buruzko jarrera guzti hauek gizarteko eragileek baldintzatzen dituztela argi ikusi ahal izan dugu. Bai herriko biztanle kopuruak, bai bertakoen euskararen ezagutzak eta bai etorkinen kopuruak, eragina dute euskararekiko jarreretan.

Biztanle gehien bizi den hirietan, etorkin gehien kokatzen diren eta euskararen ezagutza urriena duten herrietan agertzen dira indar haundienarekin euskararen balio eza eta lan edo ikasketetarako balioa adierazten duten jarrerak. Herri hauetan gehiengo ados agertzen da, euskaldun izateko euskara jakin beharrik ez izatearekin, euskarak lana topatzeko balio duen iritziarekin eta euskararen ordez atzerriko hizkuntzak ikastea nahi izatearekin.

Jarrera izanerazle eta euskararen aldeko jarrerak herri euskaldun eta kanpoko gutxi bizi den herrietan nagusitzen dira berriz. Herri hauetako gazteen gehiengoak Euskalerrriaren izaerari lotuta eta indartu beharreko hizkuntza bat bezala ulertzen du euskara.

Gazteak jasotzen duten hezkuntza motak ere badu zer esana euskararekiko jarreretan. Batez ere eredu euskaldunak jarraitzen dituzten ikasgeletan eta ikastoletan nagusitzen dira jarrera izanerazleak. Hezkuntza ereduak zenbat eta euskarazko ikastordu gutxiago izan, orduan eta indartsuago agertzen dira euskararen balio eza eta trukeordaineko jarrerak.

Gurasoen jatorriak eta euskararen ezagutzak ere badu bere eragina beren seme-alabek euskararekiko dituzten jarreretan.

Gurasoetako bat edo biak Euskalerritik kanpo jaiok diren neurrian edo euskararik ez dakiten neurrian, euskararen Euskalerriarekiko loturak eta euskara indartzeko neurrien aldeko iritziek indarra galtzen dute eta euskararen balio eza eta trukeordaineko jarrerak indartzen dira.

Gazteek duten herri sentimenduek ere eragin nabarmena dute euskararekiko jarreretan. Gazteak zenbat eta herri sentimendu euskaldunago izan, jarrera izanerazeak eta euskararen aldeko ahaleginak beharrezkotzat dituztenak indartsuago agertzen dira.

Bestalde gazte hauen nongotza Euskalerriak osatzen duen eran, jarrera izanerazeak eta euskara bultzatzeko ahaleginen eskaera indartsuago agertzen da, gazteen nongotza probintziak edo nazio-estatuek osatzen dutenean baino.

Azkenik, euskaldun izatea euskara ezagutzean edo euskaldun izateko borondatean oinarritzen dutenen artean agertzen dira indartsuen jarrerak izanerazeak.

Beraz, bai ingurukoek edo herrikoek, bai eskolak, bai gurasoek, eragina dute gazteek beregan osatuko dituzten euskararekiko jarreretan.

Gaur eguneko euskal gizartea, herri asmo, kultura eta izan-asmo ezberdinen artean zatitua dagoen bezala, neurri horretan zatituta agertzen dira gazteak euskararen aurrean ere, gazteengan gizarteratze ezberdinak aurkitzen baititugu.

Herrikideen artean bertakotasuna eta euskaldun izaera ondoen gordetzen diren gunetan, herri euskaldun eta herri sentimendu euskaldunak dituztenen artean agertzen da euskararekiko ardura berezia eta euskara babestu eta indartzeko eskaera. Berauen artean euskara euskaldun izatearen oinarri bezala agertzen da, beraz euskaldun izateko babestu eta zaindu nahi dute euskara. Gizarteko gune hauetan indartzen dela esan dezakegu euskaldun izan nahia edo euskaraz bizi nahia.

JARREREN ERAGINA HIZKUNTZA GUTXIENGOTUEN ERABILERAN

Euskararekiko jarrera ezberdinak aztertu ondoren, gazteak euskararekiko jarrera bat ala bestea izateak hizkuntza gutxiengotua ikasi eta erabiltzean eragina duela ikusi dugu. Jarrera batzuek besteak baino eraginkorragoak izanik euskara ikasi eta erabiltzean.

Euskaldun izaera euskaran oinarritzea eta euskara Euskalerriko hizkuntza bezala ulertzea dira, euskara gehiago eskatzearekin batera, euskara ikastean eta erabiltzean eraginkorrenak. Jarrera hauek dituzten gazteak baitira euskara gehien ikasi eta gehien darabiltenak.

Trukeordaineko jarrerak, eragin gutxiago dute euskararen erabileran aurrerago aipatu ditugun jarrerak baino. Hala ere, ez dira hauek euskararen erabileran aurkako eragina dutenak. Euskararen aurkako jarrerak dituztenak eta euskararen balio eza aipatzen dutenak dira, euskararen erabileraren aurka eragiten dutenak.

Aipatzekoa da baita ere jarrerak eragin gehiago dutela euskara ikastean, erabileran baino.

Gizarteko inguruko euskararen ezagutza kontutan hartuz gero, argi ikusten da euskara erabiltzeko baldintza egokirik aurkitzen ez denean, jarrerak ez duela gehiegi erabakitzen hizkuntza erabilera, gehienetan erdararen erabilera nagusitzen baita. Baina gune euskaldunetan, hau da euskara erabiltzeko baldintzak ematen diren gunetan, jarrera bat ala bestea izateak euskara ala erdararen erabilera aukeratzean badu zer esanik.

Beraz, gizarte inguruko baldintzek hizkuntza erabileran eragina badute ere, ez dira gizartezko indarrak bakarrik erabilera erabakitzen dutenak, hiztunen hizkuntzarekiko jarrerak ere eragiten baitute hauen hizkuntza aukeran.

Gizakiaren kanpoko eragileak, hau da gizartezko indarrak -Mackey³ k aipatzen digun bezala-, hizkuntza gutxiengotu baten erabilera baldintzatzen dutela kontutan hartuta ere, hizkuntza gutxiengotuen erabileran gizakiaren norizana edo izanahia litzateke eraginkorrena. Hitztunaren barneko eragilea litzateke beraz hizkuntza jokaeran eraginkorrena³.

Txepetxen ustez, hiztunak hizkuntza bat kulturalki baloratzen duenean, hizkuntza horri bizitza ematen dio -hiztun osoa litzateke hau, hizkuntzaren eremu sinbolikoa osatuko lukeena-. Honen adibide bat litzateke ikasketak euskaraz jarraitu nahi izana edo eremu ezberdinetan euskara erabiltzearen aukera egitea⁴.

³ W.F. MACKEY W.F.; "L'irredentisme linguistique; une enquete temoin" in: MANESSY G., WALD P.; *Plurilinguisme; normes, situations stratégies*. L'Harmattan, Paris, 1979, 279-282 orr.

⁴ J.M. SANCHEZ CARRION "TXEPETX" : *Un futuro para nuestro pasado*. 2. ed., S.F.V Julio Urquijo, Adorez eta Atseginez, Donostia, 1991, 62-64 orr.

Euskarak, hizkuntza gutxiengotua izatean, hizkuntza nagusiek duten indarra eta ohorea ez dituenek, hiztunen euskaraz bizitzeko nahiak eragin gehiago du euskararen erabileran, gizarteak eragindako euskara erabiltzeko beharrak baino.

Euskara erabiltzeko gizarteko oztupoak gutxituak diren -idazlana idaztearen kasua- hizkuntza erabilera zehatz bat eta gaztearen pentsaeratik hurbilagoko jarreraren arteko azterketa batean, oraindik argiago agertzen zaigu berriz, hiztunek euskararekiko dituzten jarreraren eragina hizkuntza erabileran. Azterketa honetan agertzen denez, euskara euskaldun izaerari edo norbere hizkuntzari nahiz ohitura edo tradizioari lotzen diotenak dira, idazlana idazterakoan euskara gehien erabiltzen dutenak.

Euskaraz bizi nahia edo euskaldun izanahia da, euskararen erabilera gehien eragiten duena. Norbere barneko edo izatezko eragileak dira hauek. Norbera izateko euskara beharrezkoa dutenak dira gehienbat euskara ikasten dutenak eta ikasteaz gain hizkuntza hau erabiltzen dutenak.

Baina jarrerak erabilerarekin lotura badute ere, objektu batekiko, kasu honetan euskararekiko, alde nahiz aurkako jarrera izateak ez du bere horretan hizkuntza erabilera baldintzatzen, jarrerak nahiz hizkuntza erabilerarekin lotura izan, hizkuntzarekiko iritzi orokorrak baitira.

Euskararekiko jarrerak gazteen euskara erabileran baino euskarari buruz dituzten nahi eta asmoetan eragin gehiago dutela ikusi ahal izan dugu. Gazteek euskararekiko dituzten nahi eta asmoek berriz -nahiz jarrera ezberdinen eraginpean egon- beren gizarte bizitzan egingo duten hizkuntza aukerarekin lotura estuagoa dute.

Jarrera izanerazeak dituzten gazteak, euskara euskaldun izateko edo Euskalerriko hizkuntzatzat daukatenak dira. Gazte hauek dira bestalde, euskara indartzeko nahi gehien adierazten dutenak eta euskararen egoera aldatzeko asmo argienak dituztenak; beren ikasketak jarraitzeko nahiz Euskalerriko hizkuntzatzat euskara aukeratzen dute hauek.

Euskararekiko nahi eta asmoak, euskararekiko jarrerak baino eraginkorragoak dira euskararen erabileran. Euskararekiko uste eta iritziek baino zer esan gehiago baitute asmo eta nahiek aukeratuko den hizkuntza jokabidean.

Jarrera eta jokabideen arteko erlazioa indartsuagoa izan ohi da, bai jarrerak eta bai jokaerak zehaztasun maila berdina dutenean. Galdekizun bidez neurtutako jarrerak baino euskararekiko asmo eta nahiek, eragin gehiago dute eguneroko

hizkuntza erabileran. Asmo eta nahiak euskararekiko ardura edo jabetza gehiago adierazten baitute euskararekiko iritzi orokorrek baino.

Euskararen aldeko nahi eta asmoak dituztenek, hau da bere izaerari euskararekin utsi nahi diotenak eta euskarari kulturazko balorazioa ematen diotenak dira azken batean euskara ikasten dutenak eta ikasteaz gain erabiltzen dutenak.

Gaur egungo Euskalerriko gazteen artean, euskararekiko asmo eta nahia adierazten dutenak baino gehiago dira hala ere, euskara ezagutzen dutenak, urriago izanik berriz eguneroko giza harremanetan euskara darabiltenak. Euskara erabili nahi duenak Euskalerrian ez ditu beti euskara erabiltzeko baldintza egokiak aurkitzen. Hala ere, ezagutza eta nahien artean aurkitzen dugu etenik haundiena euskal gazteen artean. Beraz, euskal gizartean euskara indartu nahi bada, nahizana edo motibazioaren mailan egin beharko da lan gehien, Txepetxek aipatzen duen bezala.

Hiztun batek bigarren hizkuntza bat ikastea erabakitzen duenean, eta hizkuntza horrek gizartean gutxiengotu egoera bat bizi duenean, hizkuntza horren erabilera aukerazkoa izango da, ez baitu hizkuntza horren beharrik izango gizartean harreman arruntak izateko. Erabaki hau hartzea berriz motibazioaren eraginpean aurkitzen da.

Jakina da motibazio hori hizkuntza horrekiko eta hizkuntza komunitate horrekiko jarrera batzuek baldintzatua egongo dela, gizarte baldintza ugari eraginda sortu eta indartuko diren jarrerez.

Euskararekiko jarrera ezberdinak dituztenek, hizkuntza erabileran aukera ezberdinak egiten dituztela ikusi ahal izan dugu. Jarrera bat ala bestea izatean, euskararekiko motibazio ezberdinak eraginda euskararen aurrean jokaera ezberdina adierazten dute beraz hiztunek.

EDUKI AZTERKETAREN LORPENAK JARRERA SENDOAGOEN NEURKETAN

Jarrerak gizakiaren barnekoak izatean, zuzeneko behaketa bidez ezin daitezkenek neurtu jokabideak balira bezala, gizakiari jarrerei buruz galdetuaz aztertu ohi dira.

Baina galdekizunetan, galderak baldintzatu dezake erantzuleak emango duen erantzuna.

Galdekizun bidez egindako jarreraren azterketetan, erantzuleak gizarteak baloratzen duena erantzuteko edo ikerlariaren helburuen arabera erantzuteko arriskua izan

ohi da. Bestalde, galdekizun bidez galdetzaileak aipatzen dituen arloei edo ikuspegiei ematen zaio erantzuna, gaiak izan ditzakeen arlo eta ikuspegi ezberdin guztiak jasotzera ez iristeko arriskuarekin.

Hau dela eta, galdera irekien metodologia erabili dugu, gazteek libreki idatzitako idazlanen bidez, euskararekiko dituzten jarrerak zuzenagotik neurtzeko asmotan. Eta gaztetxoek idazlanetako adierazpen hauek, bakoitzaren esanahiaren arabera sailkatu ditugu, alde aurretik egindako kategorietan sailkatu beharrean, gazteek adierazi dutenaren arabera eratuaz kategoria ezberdinak.

Azken metodologia honen bidez, gaztearen pentsakera hurbilagotik ezagutzeko aukera izan dugu galdekizunaren bidez egindako neurketarekin alderatuz gero.

Azterketa honen bidez ezin dugu gazteak idazlana idazterakoan, andereño-irakasle, guraso edo lagunengandik izan duen eragina neurtzerik izan. Baina behinik behin gaztearen erantzunean ikerlariak edo galdetzaileak eraginik ez izatea lortu dugu.

Gazteek euskarari buruz dituzten uste eta nahiez gain euskararen aurrean gazteek dituzten bi ikuspegi nagusi bereiztu ahal izan ditugu.

Bestalde, esan behar dugu, bai galdekizun bidez eta bai idazlanen bidez, era ezberdinetako neurketak eginez, gaztetxoek dituzten euskararekiko jarrerak gizartezko eragile berdinen eraginpean agertzen direnez gero, azterketa hauetako emaitzek baliotasuna dutela.

Idazlanen bidez egindako azterketa neurketa erreagoa izan dela esan dezakegu baita ere: alde batetik, gaztearen pentsamendua hurbilagotik neurtu delako - gazteak dituen kezka jasoaz, geuk galdetutakoari buruz iritzia eskatu beharrean-, eta bestaldetik, hizkuntza erabilera zehatz eta ez-hitzezkoa neurtu delako.

Idazlan bidez egindako azterketan, jarrerak hizkuntza erabileran duten eragina argiago agertzen da galdekizun bidez egindako azterketan baino.

Galdekizun bidez neurtutako jarrerak idazlana euskaraz idazteko intentzioetan eragin gutxiago dute, idazlan bidez neurtutako jarrerak idazlana euskaraz idaztean dutena baino.

Beraz idazlan bidez neurtutako jarrerak sendoagoak direla eta gaztearen azalpen erreagoak jasotzen dituztela ikusi ahal izan dugu, jarrera hauek adierazi dizkigutenek erabilerarekin lotura estuagoa baitute.

Beraz gaztetxoek jarrerak aztertzeko, eduki azterketaren metodologia galdekizuna baino egokiagoa dela izan dugu ondorioztat, bi metodo ezberdinez egindako azterketen emaitzak alderatu ondoren.

Aipatzekoa da, idazlanen bidez neurtutako jarreretan, euskara ikastera behartzearekiko ez dela aurkitzen kezka haundirik gazteen gehiengoaren artean. Nahiz eta galdekizunean borondatez ikastearen alde agertu gazte gehien, euskarari balio eza aurkitzen dioten gazteek bakarrik aipatzen dute gai hau idazlanetan. Beraz berauengan bakarrik dagoen kezka bat dela esan dezakegu.

ONDORIO NAGUSIAK

Ikerketa honetan izan ditugun ondorio nagusiak honela laburtu genitzake:

- * Gazteak euskalduntzen ari dira, gainontzeko gizartea baino ezagutza altuagoa erakusten baitute. Esan daiteke etxean nahiz eskolan ikasi dutenari esker, Euskalerriko gazte gehienek dakitela euskara erdizka bada ere.
- * Lurralde ezberdintasunak aurkitzen dira gazteen euskara ezagutzari dagokionez. Gipuzkoa da euskararen ezagutza altuena duena, Nafarroako gazteen artean aurkitzen da berriz euskararen ezagutza urriena.
- * Baina gazteek euskara ikastera iritsi badira ere, oso urria da euskararen erabilera gazte hauen artean. Gizarteingurua eta ezagutza garrantzitsuak badira ere gazteen hizkuntza jarrerak zer esana dute euskararen erabileran. Euskara ezagutzeaz gain euskararen aukera egitea beharrezkoa da erabiliko bada.
- * Euskara gehien darabiltenak, lehen hizkuntza modura jaso dutenak direnez, euskara etxekoan artean ikastea eskolaren bidez ikastea baino eraginkorragoa dela esan dezakegu. Bestalde, euskara erabiltzeko aukeran eragin gehien dutenak: herri sentimendu euskalduna, Euskalerriko nongotza, euskaldun izanahia eta gizarteinguru euskalduna eta bertakotasuna dira.
- * Baieztatu egiten da jarrera izanerazeak euskara ikasi eta erabiltzean eraginkorragoak direla trukeordaineko jarrerak baino.

Nahiz euskararen balio eza -edo jarrera ezkorra- adierazten dutenak izan, euskara ikastea eta erabiltzean aurkako eragina dutenak. Jarrera izanerazeak berriz, euskaldun izaera eta hezkuntza euskaldunari loturik agertzen dira.

* Aurreko ondorioa bi metodologi ezberdinez egindako azterketetan agertzen zaigu. Hala ere jarrera eta hizkuntza jokoaren artean lotura estuagoa agertzen da idazlanen eduki azterketa bidez egindako neurketan, galdekizun bidez egindakoan baino. Idazlan bidez neurtutako jarrerak sendoagoak direla esan dezakegu beraz, erabilerarekin zer ikusi gehiago azaltzen baitigute.

* Idazlanen edo galdera irekien azterketaren bidez, ikerlariaren galderak erantzunean izan dezakeen eragina murriztu egiten da. Bestalde, erantzunen aukera bat egitearen ordez, erantzuleari bere iritzia libreki adierazten utziaz erantzunak izan ditzaken mugak ere gainditu egiten dira. Aipagarria da bestalde, ezterketa honetan, bildu diren erantzunetako esanahien arabera osatu ditugula sailkapeneko kategoria ezberdinak, aldeztatik zehaztutako kategorietan sailkatu beharrean. Guzti honegatik esan dezakegu, idazlanen bidez egindako azterketa honen bidez, gaztearen pentsamendutik eta bizitzako esperientzietatik hurbilagoko jarrerak neurtzea lortu dela.

* Gaurko euskal gizartean, euskara indartzeko planak egiterakoan, euskara irakatsi-ikasteko gaitasun akademiko-finantzieroetan oinarritzeaz gain, batez ere gaitasun horiei etekinik emankorrena eskaintzen dieten beste hainbat gizarteko eragileetan oinarritu beharko ginateke, bereziki euskararen erabilera areagotzen duten eragileak aintzakotzat hartuz.

Lanerako euskara eskatzeak baino eragin gehiago izango luke euskararen erabileran, euskara euskal kultura eta euskal izaerarekin lotua irakasteak.

Euskara biziberritzeko, gure ustez, euskaraz izan nahia lortzea eta gazteengan motibazioa indartzea beharrezkoak lirateke. Hau lortzeko berriz, euskara erabili nahi duten gazteei euskara erabiltzeko gizarte baldintzak egokitzen ahalegin

gehiago egitea beharrezkoa bada ere, euskara erabiltzeko nahia eragiten duten baldintzak indartzen ahalegin gehiago egin beharko genituzke, eragile horiek baitira eraginkorrenak.

Euskara erabilia izan dadin gizartean egiten ari diren ahaleginez gain, bai komunikabideak, administrazio edo hezkuntzan euskara eskeintzeaz gain, garrantzitsua dela uste dugu gaur egun, euskaraz bizitzeko nahia edo euskara norbere izanari atxekitzeko ahaleginetan sakontzea.

Izanahia indartzeko, Fishmanek eguneroko bizitzatik gertuen dauden eremuetan muga batzuek ezarriaz eremu babestuak sortzea proposatzen du, hizkuntzaren balorazio eta legitimitatea indartzeko asmoz.

Oinarrizkoena hiztunak hizkuntza gutxiengotua erabiltzeko nahia izatea da, Txepetxek aipatzen digunez ere; honela hiztunak hizkuntza hori erabiltzeko motibazioa izango luke, hauxe izanik euskara bizirik iraunarazi dezakeen baldintza bakarra ³.

Euskal hiztunak beste hiztunengandik zerbaitek ezberdintzen baditu: euskararekiko harreman afektiboa, euskara ikasteko gogoia eta euskara euskal izaerari atxekitzea dela ikusi ahal izan dugu. Adierazi dezakegu beraz, euskara erabiltzeko erabakia hartzen duen hiztun batentzat, euskara dela euskaldun izatearen adierazgarria eta hiztunari nortasuna ematen diona.

Gizartean euskarak duen indarra eta hizkuntzaren joeraren usteak, nahiz erakundeen aldetik jasotzen duen laguntzaren usteak baino, gehiago eragiten du euskararen erabileran norbere barneko eragileak, hau da euskaldun izanahiak. Euskarari kulturazko balorazioa ematen dionak, bere izaera euskaraz adierazteko erabakia hartzen duenak erabiltzen du azken batean euskara, gizartean nagusi diren erdara erabiltzeko giza arauak eskatzen dutenetik bestelako hizkuntza jokaera baten aukera eginez.

Azpeitian, 1995.eko maiatzaren 10.ean

³ J.M. SANCHEZ CARRION "TXEPETX"; *Un futuro para nuestro pasado*. O.C.,233 orr.

7.
BIBLIOGRAFIA

- AGHEYSI, R., FISHMAN, J.A.: "Language attitude studies. A brief Survey of Methodological Approaches" in: ANTHROPOLOGICAL LINGUISTIC, vol 12, Nº5, May, 1970, 137-157 orr.
- AGIRRE, Jº Mº: "Euskararen bilakaera 1981-1991 hamarkadan. Zentsuetan eta erroldan jasotako datuen arabera" in: *Bat* 13/14, 1994, 13-22 orr.
- AIZPURUA, X.: "Euskal Autonomi Elkarteko egoera soziolinguistikoaren azalpen orokorra" in: *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*. 7/8 zbk, Euskal Kulturaren Batzarrea, Donostia, 1992, 101-140 orr.
- AIZPURUA, X.: *Euskararen jarraipena*. Kultura Saila, Hizkuntz Politikarako Sailordetza, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1995.
- ALLPORT, G.W.: *La naturaleza del prejuicio*. EUDEBA, Buenos Aires, 1877.
- AMONARRIZ, K.: "Euskararen erabilpena kale-neurketaren inguruko gogoetak" in: *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*. 3/4 zbk, Euskal Kulturaren Batzarrea, Donostia, 1991, 39-50 orr.
- ARREGI, F.: "Euskalduntzeaz jarrerak" in: RUIZ OLABUENAGA J.I., OZAMIZ J.A.: *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Ttartalo, Donostia, 1986, 321-335 orr.
- ASKOREN ARTEAN: *Hezkuntza hizkuntza jardun/ihardunaldiak*. Euskal Herriko Unibertsitatea Argitarapen Zerbitzua, Bilbo, 1990.
- AZURMENDI, Mº J.: "Psicosociolingüística del contacto de lenguas" in: *EUSKARA BILTZARRA. II MUNDU BILTZARRA*. II alea, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 311-346 orr.
- BAKER, C.: *Attitudes and language*. Multilingual Matters, Clevedon, 1992.
- BARDIN, L.: *Análisis de contenido*. Akal Universitaria, Madrid, 1986.
- BARTH, F.: *Ethnic groups and boundaries. The social organization of culture difference*. Little Brown and company, Boston, 1969.
- BASS, B.: *Leadership and Performance Beyond Expectations*. New York Free Press, New York, 1985.

- BASS, B.: "Liderazgo transformacional en la empresa americana" in: *Hombre y empresa*. Colección centenario. Universidad de Deusto, Deusto-Bilbao, 1988, 67-87 orr.
- BASTERRETXEA, I.: *Euskera eskolatik? euskerarekiko jarrerak Bizkaiko 8.O.H.O.koen artean*. Doktorego tesia, Deustuko Unibertsitatea, Deustu-Bilbo, 1987.
- BERELSON, B.: *Content analysis in communication research*. New York Press. Macmillan Publishing Co.Inc, 1952.
- BRETON, R., REITZ, J.G., VALENTINE, V.F.: *Cultural boundaries and the cohesion of Canada*. The institute for research on public policy, Montreal, 1980.
- BURNS, J.M.: *Leadership*. Harper y Row, New York, 1978.
- CISIA: *Systeme portable pour l'analyse de données textuelles*. Manuel de l'utilisateur, CISIA, Paris, 1989.
- CLÉMENT, R.: "Persistence in second language study: motivational consideration" in: CANADIAN MODERN LANGUAGE REVIEW, 34/4, 1978, 688-694 orr.
- CLÉMENT, R.: "Aspects socio-psychologiques de la communication interethniques et de l'identité sociale" RECHERCHES SOCIOLOGIQUES, 15 zbk, 1984, 293-312 orr.
- CLÉMENT, R., KRUIDENIER, B.G.: "Aptitude , attitude and motivation in second language proficiency. A test of Clément model" JOURNAL OF LANGUAGE AND SOCIAL PSYCHOLOGY, 4 1, 1985, 21-37 orr.
- COBREROS, E. Coord.: *Euskararen lege-araubideari buruzko jardunaldiak*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea/IVAP, Oñati, 1990.
- CONSEIL DE LA LANGUE FRANÇAISE: *Conscience linguistique des jeunes Québécois. Influence de l'environnement linguistique chez les élèves francophones*. Conseil de la Langue Française, Québec, 1981.
- CONSEIL DE LA LANGUE FRANÇAISE: *Contextes de la politique linguistique québécoise. Analyses juridique, démographique, économique et culturelle présentées au séminaire du Conseil de la langue française, du 12 ou 14 novembre 1992*. C.L.F, Québec, 1993.

- CRAWFOR, J.: *Language loyalties*. Uninvestity Chicago Press, Chicago, 1992.
- ELZO, J.(zuz.): *Juventud Vasca 86*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1986.
- ELZO, J.(zuz.): *Jóvenes vascos 90*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1990.
- ETXEBERRIA, F., ARZAMENDIA, J.: *Elebitasuna eta hizkuntz jabekuntza. AESLaren IX kongresu nazionalaren aktak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo, 1992.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1978.
- EUSKALTZAINDIA: *Hizuntz borroka Euskalerrian*. Euskaltzaindia, Donostia, 1979.
- EUSKARA BILTZARRA. *II MUNDU BILTZARRA*, II alea, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA: *Euskararen politikarako oinarritzko irizpideak*. Jaurlaritzako lehendakaritzaren idazkaritza. Euskararen Aholku Batzordea. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1993.
- EUSKO JAURLARITZA: *La lucha del euskera*. Gabinete de Prospección Sociológica. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1983.
- EUSKO JAURLARITZA: *Soziolinguistika mapa*. 1986. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1989.
- EUSKO JAURLARITZA: *Euskararen erabileraren normalizazioa herri-administrazioetan. Oinarritzko arauak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1990.
- EUSKO LEGEBILTZARRA: *Las minorías lingüísticas de Europa Occidental. Documentos (1494-1989)*. Eusko Legebiltzarra, Txosten eta Agiriak Bilduma, Gasteiz, 1990.
- EUSTAT : *Hezkuntza eta euskara*. Euskadiko K.A.ko 1986ko Biztanleen udal-errola, Gasteiz, 1988.

- EUSTAT: *Hezkuntza eta euskara*. Euskadiko K.A.ko 1991 ko zentzua, Gasteiz, 1993.
- EZQUIAGA, F.J., SAINZ, A.: *Euskal lege-araubide politikoa*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea/ I.V.A.P., Oñati, 1990.
- FASE, W., JASPAERT, K, KROON, S.: *Maintenance and loss of minority languages*. John Benjamins Publishing company, Amsterdam/Philadelphia, 1992.
- FISHMAN, J.A.: *Readings in the Sociology of Language*. Mouton, The Hague, 1968. - FISHMAN, J.A.: *Language in sociocultural change*. Stanford University Press, Stanford, 1972.
- FISHMAN, J.A.: *Bilingualism in the barrio*. Indiana university, Indiana, 1971, 2.ed., 1975.
- FISHMAN, J.A.: *The rise and fall of ethnic revival: perspectives on language and ethnicity*. Mouton de Gruyer, Berlin, 1985.
- FISHMAN, J.A.: "Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika" in: JAKIN, 48 zbk, 1988, 5-21 orr.
- FISHMAN, J.A.: *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Multilingual Matters, Clevedon, 1989.
- FISHMAN, J.A.: "Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan" in: *Euskal eskola Publikoaren I Kongresua: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*, I.Liburukia, Gasteiz, 1990, 181-188.
- FISHMAN, J.A.: *Reversing language shift: theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Multilingual Matters, Clevedon, 1991.
- GARDNER, R.C.: *Social Psychology and second language learning*. Edward Arnold, 1985.
- GARDNER, R.C., LAMBERT W.E.: "Motivational variables in second-language acquisition" in: CANADIAN JOURNAL OF PSYCHOLOGY 13, 1959, 266-272 orr.
- GARDNER, R.C., LAMBERT W.E.: *Attitudes and motivation in second language learning*. Newbury House publishers, 1972.

- GARMENDIA, F.: "Euskara eta Euskal Elkartea" in: BARANDIARAN J.M. eta beste: *Euskaldunak: euskal etnia*. 5.Liburukia, Etor, 1978, 283-326 orr.
- GARMENDIA, F.: "Egingo ote Euskal Herria geroaren jabe?" in: *Euskal-Herria presente y futuro. Donostiako Udako IV ikastaroak: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua*, Bilbo, 1986, 231-256 orr.
- GARMENDIA, M.K.: *Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko iraskunde eta herrizaingo batzordearen aurrean*. Jaurlaritzako lehendakariaren idazkaritza. Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1991.
- GARMENDIA, M.K.: *Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko iraskunde eta herrizaingo batzordearen aurrean*. Jaurlaritzako lehendakariaren idazkaritza. Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1994.
- GOBIERNO DE NAVARRA: *Distribución de la población navarra según el nivel de euskara*. (Padrones municipales de habitantes al 1/4/86). Gobierno de Navarra, Pamplona, 1988.
- HAMERS, J., BLANC, M.: *Bilinguality and bilingualism*. Cambridge University Press, Cambridge, 1989.
- HARWOOD, J, GILES, H., BOURHIS, R.Y.: "The genesis of vitality theory historical patterns and discorsal dimensions" in: INTERNATIONAL JOURNAL OF THE SOCIOLOGY OF LANGUAGE 108, Mouton de Gruyer, Berlin, 1994, 167-206 orr.
- HAUGEN, E.: *The ecology of language*. Stanford University Press, Stanford, California, 1972.
- HERRI ARDULARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA/ IVAP: *Euskarari buruzko araubidea 1989*. HAEE-IVAP, Gasteiz, 1990.
- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: *E.I.F.E. Euskararen Irakaskuntza: faktoreen eragina*. Euskara Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1990.

- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: *Euskal irakaskuntza 10 urte*. Euskara Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1990.
- HOLSTI, O.R.: *Content analysis for the social sciences and humanities*. Reading, MA. Addison-Wesley.
- INSTITUT D'ESTUDIS ILERDENCs: *Segon congrés internacional de la llengua catalana. Plantejaments. Processos de Normalització lingüística*, Lleida, 1992.
- IÑIGO, J.J.: "Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian: EKBren neurketaren emaitzak" in: *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 13/14 zbk, Euskal Kulturaren Batzarrea, Donostia, 1994, 51-76 orr.
- IRAOLAGOITIA, J.: *Kulturgintzarako giza eskubideak eta hizkuntzari buruzko herri arauak*. Tesi doktoralak, Deustuko Unibertsitatea, Deustu, 1990.
- JIMENEZ BLANCO, J.: "La técnica de análisis de contenido", Capítulo II, *Las proposiciones de Felipe II en las Cortes de Castilla. Un ensayo de análisis de contenido*. Universidad de Valencia, Valencia, 1961.
- JORNADAS DE BILINGUISMO: *La problemática del bilingüismo en el Estado español*, I.C.E, Zarautz, U.P.V./E.H.U., Leioa, 1980.
- KENNEDY, H.: *Language planning and language education*, London, 1984.
- KRIPPENDORFF, K.: *Content Analysis. An introduction to its methodology*. Sage, Beverly Hills, 1980.
- KRUIDENIER, B.G., CLÉMENT, R.: *The effect of context on the composition and role of orientation in second language acquisition*. C.I.R.B., Les Presses de L'Université Laval, Université Laval, Québec, 1986.
- LABOV, W.: *Sociolinguistic patterns*. University of Pennsylvania Press, Pennsylvania, 1972.
- LAMBERT, E.W.: *Language psychology and culture*. Stanford University Press, Stanford, 1972.
- LAN KIDE AURREZKIA: *Atlas de Euskalerrria*. Edit. Txertoa, Donostia, 1983.

- LANDRY, R., ALLARD, R.: "Choix de la langue d'enseignement: une analyse chez des parents francophones en milieu bilingue soustractif" in: CANADIAN MODERN LANGUAGE REVIEW, 41, 1985, 480-500 orr.
- LANDRY, R., ALLARD, R.: "Contact des langues et développement bilingue. un modèle macroscopique" in: CANADIAN MODERN LANGUAGE REVIEW, 46, 1990, 527-530 orr.
- LANDRY, R., ALLARD, R.: "Diglossia, ethnolinguistic vitality, and language behavior" in: INTERNATIONAL JOURNAL OF THE SOCIOLOGY OF LANGUAGE, 108 zbk, Mouton de Gruyter, Berlin, 1994, 15-42 orr.
- LAPONCE, A.J.: *Langue et territoire*. C.I.R.B, Les Presses de L'Université Laval. Université Laval, Québec, 1984.
- LARRAÑAGA, N.: *Euskera normalizazio bideruntz? Euskeraren gizarteratzea Urola bailaran*. Deustuko Unibertsitatea, Deustu-Bilbo, 1990.
- LASWELL, H.D.: *Language of politics: studies in quantitative semantics*. MA, MIT press, Cambridge, 1965.
- LECLERC, J.: *Langue et société*. Mondia Editeurs, Laval, 1986.
- LOPEZ ARANGUREN, E., "El análisis de contenido" in: GARCIA FERRANDO y otros: *El análisis de la realidad social*. Alianza Universidad, Madrid, 1989, 365-396 orr.
- LOQUER, U.: *Les jeunes y la langue*. Tome I. Usages et attitudes linguistiques des jeunes qui étudient en français, Gouvernement du Québec, Conseil de la langue française, Québec, 1993.
- LUDOVIC, L., SALEM, A.: *Analyse statistique des donnes textuelles*. Questions ouvertes et lexicométrie, Dunod, Paris, 1988.
- MacCONNELL, G.D.: *A macro sociolinguistic analysis of language vitality*. Presses de l'Université Laval, Université Laval, Québec, 1991.
- MACKEY, W.F.: *Bilinguisme: phénomène mondial*. Harvest House, Montreal, 1967.
- MACKEY, W.F.: *L'ecologie educationnelle du bilinguisme*. C.I.R.B. Les Presses de L'Université Laval, Université Laval, Québec, 1974.

- MACKEY, W.F.: *Les états multilingues*. C.I.R.B. Les Presses de L'Université Laval, Université Laval, Québec, 1975.
- MACKEY, W.F.: *Bilinguisme et contact des langues*. Ed. Klincksieck, Paris, 1976.
- MACKEY, W.F.: "L'irredentisme linguistique: une enquête témoin" in: MANESSY G. et WALD P.: *Plurilinguisme: normes, situations stratégiques*. L'Harmattan, Paris, 1979, 257-284 orr.
- MACKEY, W.F.: "Determining the Status and Function of Language in Multinational Societies" in: AMMON U. (Ed.): *Status and Function of languages and language varieties*. Walter de Gruyter, Berlin, 1989, 3-20 orr.
- MACKEY, W.F., ORNSTEIN J.: *The bilingual education movement. Essays on its progress*. The University of Texas, El Paso, 1977.
- MAYNTZ, R, KURT, H, HÜBNER, P.: *Introducción a los métodos de la sociología empírica*. Alianza Universidad, Madrid, 1ªed. 1975, 4ªed., 1985.
- MITXELENA, L.: "Las lenguas y la política" in: *Doce ensayos sobre el lenguaje*. Fundación Juan March, Colección ensayos, Madrid, 1974.
- MOCHMANN, E.: "Análisis de contenido mediante ordenador aplicado a las Ciencias Sociales" in: REVISTA INTERNACIONAL DE SOCIOLOGIA, 43 zbk, 1985, 11-44 orr.
- MOHLER, P.: "Algunas observaciones Prácticas sobre la utilización del Análisis de Contenido en Ordenador" in: REVISTA INTERNACIONAL DE SOCIOLOGÍA, 43 zbk, 1985, 44-57 orr.
- MOSCOVICI, S.: *Psicología social*. Paidós, Barcelona, 1985.
- NAFARROAKO GOBERNUA: *Heziketa bilduma 3 zbk. I Jardunaldi pedagogikoak*. Hezkuntza, Kultura eta Kirol departamendua, Euskara zerbitzua, Iruñea, 1991.
- NELDE, P.H.: *Language attitudes and language conflict*. Spracheinstellungen und sprachkonflikte, Plurilingua, Bonn, 1990.
- NINYOLES, R. LL.: *Idioma y poder social*. Tecnos, Madrid, 1980.

- OBIETA, CHALBAUD, J.A.: *Las lenguas minoritarias y el derecho*. Ed. Mensajero, Bilbao, 1976.
- PASCUAL, R., VILLA, A., SÁNCHEZ, M.: *El liderazgo transformacional en las empresas de la C.A.V.* Universidad de Deusto, ICE, Deusto-Bilbao, 1990.
- PAULSTON, CH. B.: *Sociolinguistic perspectives on bilingual education*. Multilingual Matters LTD, Clevedon, 1992.
- PIZZORUSSO, A. y Otros: *Ordenación legal del plurilingüismo en los estados contemporáneos*. Consejo Consultivo de la Generalidad de Cataluña, Barcelona, 1983.
- PLOURDE, M.: *La politique linguistique du Québec*. Institut québécois de recherche sur la culture, Québec, 1978.
- PRATKANIS, A.R. e.a.: *Attitude structure and function*. Lawrence Erlbann, 1989.
- ROCHER, G.: *Introducción a la sociología general*. Edit. Herder, Barcelona, 1983.
- SANCHEZ CARRION, J.J.: "Técnicas de análisis de los textos mediante codificación manual" in: REVISTA INTERNACIONAL SOCIOLOGIA, 43, 1985, 89-118 orr.
- SANCHEZ CARRION, J.M. "TXEPETX": *Lengua y pueblo*. Elkar, Donostia, 1980.
- SANCHEZ CARRION, J.M. "TXEPETX": *El espacio bilingüe*. Eusko ikaskuntza, Burlada, 1981.
- SANCHEZ CARRION, J.M. "TXEPETX": *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. 2.ed. S.F.V Julio Urquijo, Adorez eta Atseginez, Donostia, 1991.
- SANCHEZ CARRION, J.M. "TXEPETX": "Bilbao y el euskera" in: *Euskara Bilbon*. Bilboko Udala, Euskara Zerbitzua, Bilbo, 1991, 46-63 orr.
- SANCHEZ CARRION, J.M. "TXEPETX": *Radiografía de la situación general del Euskara en la CAV*. in: Pamiela, 15.zbk, Iruñea, 1993, 21-32 orr.

- SELLTIZ, C. et al.: *Métodos de investigación en las Relaciones Sociales*. RIALP, Madrid, 1965.
- SIADECO: *Euskararen egoerari buruz diagnosis eta geroari buruz hautabide eta eszenarioak*. Siadeco, Donostia, 1988.
- SIERRA BRAVO, R.: *Técnicas de investigación social*. Paraninfo, Madrid, 1983.
- SIGUAN, M., MACKEY, W.F.: *Educación y Bilinguismo*. Aula XXI Santillana, Unesco, Madrid, 1986.
- REYNOLDS, A.G.: *Bilingualism and muticulturalism and second language learning*. Lawrence Erlbaum Associates, New Jersey, 1991.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I., OZAMIZ, J.A.: *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Tarttalo, Donostia, 1986.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I., ISPIZUA, M^a A.: *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*. Universidad de Deusto, Deusto-Bilbao, 1989.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I., BLANCO, C.: *La inmigración vasca. Análisis trigeneracional de 150 años de inmigración*. Universidad de Deusto, Deusto-Bilbao, 1994.
- WEBER, R.P., NAMENWIRTH, J.Z.: "La mediación cultural de las realizaciones económicas como determinante de las elecciones presidenciales USA, 1892-1964" in: REVISTA INTERNACIONAL SOCIOLOGIA, Madrid, 43 zbk, (1) 1985, 59-85 orr.
- YRIZAR DE, P.: *Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico demográfico*. Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. Año XXIX. Cuadernos 1^o, 2^o, 3^o, Donostia, 1973.